HALARIC ERE: y aun así, a pesar de eso. "Ordea halaric ere, etçuen nahi Iaincoac han cegoena, cegoen gueldiric", 23: pero aun así no quiso Dios que el que allí estaba estuviera quieto. "Eta halaric ere", 26: y aun así.

HANBAT: tanto, tantos. Pg. 24. Vide el texto en EA. "Hanbat gostaric", 25: costando tanto.

HANDIC HARAT: a partir de este momento. Pg. 37.

HANDITU: hacerse grande, crecer. Pg. 24: vide el texto en GUICENTASUN. Item, pg. 35: vide el texto en HAZI.

HARITU: ocuparse. Pg. 23. Vide el texto en CONTATU.

HARRAPATU: coger. "Hura berehala harrapatcen dute", 28: los enemigos la pescan (la falta) inmediatamente.

HARROIN: columna de piedra. Pg. 26.

HARTU: tomar, conquistar. "Cartago ere hartu çutela", 30: que incluso habían conquistado Cartago. "Onera hartu": echar a buena parte. Pg. 28: vide el texto en ESTALI.

HASTE: principio, origen. Pg. 24: vide el texto en DAMU. Item, pg. 33: vide el texto en AITHORTU.

HAUCI: pleito. "Hauciac", 30: pleitos, cuestiones, litigios.

HAZCATU: palpar. Pg. 32: vide el texto en FERECATU.

HAZI: crecer. "Nola hazten, handitcen, loratcen", 35: cómo crecemos, nos hacemos grandes, florecemos. Vide HACI.

HECETASUN: humedad. "Lurraren humidurac eta hecetasunac", 37 :la humedad de la tierra.

HEGAL: ala. "Nola hegaztinari emaiten baitçaitça hegalac airatceco eta hegaldatceco", 34: como al ave se le dan las alas para remontarse en el aire y volar.

HEGALDATU: volar. Pg. 34. Vide el texto en HEGAL.

HEGAZTIN: ave. Pg. 24: vide el texto en AIRE.—"Guiçona sortcen da trabailluco eta hegaztina aireco", 34: el hombre nace para el trabajo y el ave para volar.

HEMEN: aquí. "Hemendic aitcina", 29: de aquí en adelante.

HERDOILDU: cubrirse de roña el metal. "Ceren gaztèc han bere indarra eta antcea frogatcen, zorrotzten eta herdoiltcetic beguiratcen baitçuten", 29: porque los jóvenes medían allí sus fuerzas y posibilidades, allí las afilaban y preservaban de la roña.

HERRI: pueblo. "Herrietaric", 23: de los pueblos (se encontraba lejos de).

HIGUITU: moverse. Pg. 24. Vide el texto en BERE.

HIRI: ciudad. "Cartagoco hiri hatçaz", 30: qué es lo que iban a hacer de aquella ciudad de Cartago.

HOBEQUI: mejor. "Baiña San Crisostomoc emaiten du bertce arraçoin bat, ni narraican pontuari hobequi hurbiltcen çaicana", 23: pero San Crisóstomo da otra razón, que conviene mejor al asunto que yo trato.

HONDAR: residuo. Pg. 29: vide el texto en BACCOTCH.

HOR: ahí. Pg. 34. Vide el texto en ERATZAN.

HORNIÇOIN: aprovisionamiento. Pg. 36: vide el texto en GOVERNU.

HORNITU: proveer, aportar. "Bérèc bilhatu eta hornitu behar cituzten", 26: ellos mismos debían buscar y suministrar las herramientas y el material.

HOZIDURA: germinación, parte del grano por donde éste germina. Pg. 37.

HOZITU: germinar. Pg. 36.

HUMIDURA: humedad. Pg. 37: vide el texto en HECETASUN.

HURA: él, aquél. "Ceren hartçaz bertce guztiec emplegatcen baitute bere dembora, certaco eguinac baitira hartan", 34: porque excepto él, todos los otros emplean su tiempo en aquello para lo que han sido hechos.

IAINCO: Dios. Pg. 24: vide el texto en EA. Item, pg. 34: vide el texto en BAITHAN.

IAIQUI: levantarse, sublevarse. Pg. 25. "Hi baiño goizago iaiqui nauc", 34: me he levantado más temprano que tú.

IAN: comer. "Deçagun Ian eta edan", 25: comamos y bebamos.

IARRAIQUI: seguir, ir en pos. Pg. 23. Vide el texto en HOBEQUI.—"Anhitz baitarraica", 35: muchos le siguen a ella (a la miel; la flexión vasca está en singular: le sigue).

IARRI: colocar, poner, establecer. "Iartcea", pg. 22.

IASAN: tolerar, soportar, resistir. Pg. 23. Vide el texto en BURU EGUIN.

IATECOAC: alimentos. Pg. 24. Alegado junto a *bazcac.*

IAUNGOICO: Dios. En general, emplea *Iainco,* pero también aparece *Iaungoico*: vide pg. 21 y 23.

IBENI: colocar, poner. "Ibeni çuen berehala", 21: puso Dios al hombre inmediatamente. "Beztitu çuqueyen, etchedun eguin çuqueyen eta deus gosta gabe behar çuen guztiarequin ibeni çuqueyen", 25: Dios podía haber vestido el hombre, hacerlo dueño de casa y ponerlo, sin costarle nada, en posesión de cuanto necesita. "Eta escuaren ibentcea bera asco baçuqueten ere", 26: y aunque el poner la mano de obra era ya bastante.

IÇAN: ser, estar; haber, tener.

Flexiones del Auxiliar intransitivo.—"Cer gueneidique", 25: qué seríamos, que podríamos ser. "Deus falta ez palitçaicu", 25: si nada nos faltase. "Eguin ahal citezqueyen gorenac", 26: lo más altas que se podían hacer. "Itçuri ceyenean", 26: cuando se les deslizó la primera palabra. "Ethor cequion", 27: con miedo o recelo de que le viniera de ahí algún daño o perjuicio. "Sor citequeyela", 27: que podía originarse. "Erran ahal diteque", 28: se puede decir. "Accaba cequizten", 28: que se les terminasen a los hijos de Israel sus enemigos. "Gueldi cequien", 29: ordenó o permitió que les quedasen siempre algunos. "Bere guerla guztiac... hiri hartaric sortcen ceiztela", 30: que todas sus guerras les provenían de esa ciudad. "Emanen ceyela", 30: que la gente se les daría a los vicios. "Guerla perilosagoa... sorthuko ceyela", 30: que les nacería a ellos una guerra más peligrosa. "Ontasun handia heldu çaica herriari", 31: al pueblo se le sigue un gran bien. "Corintioac hain ceizten ayher alferrey", 31: los corintios de tal modo aborrecían a los vagos. "Eta on liçate orai ere halacoequin hala eguin baledi", 32: y bien sería si hoy también se hiciera así con los tales. "Eta baldin frogatcen baceyen alferqueriaric", 32: y si se les probaba o descubría alguna ociosidad. "Etcen bat ere bere gorputzaz valia ahal citequeyenic", 33: no había ninguno que pudiera servirse de su cuerpo que... "Nola

hegaztinari emaiten baitçaitça hegalac", 34: así como al ave se le dan las alas para volar. "Ernatuco... garela", 35: que nos animaremos. "Eta gaitz liçateque contatcea", 35: y sería difícil contar. "Eta baitçaica aiher", 35: y es aficionado a ella (a la miel). "Nola trabaillatcen direnec, trabaillatcen eztiren alferrac...", 35: cómo las que trabajan arrojan a los zánganos que no trabajan. "Lehenic hozitu behar duen burutic hasten baitcaica bihiari", 36: comienza a comer el grano por el extremo por el que primero tiene que germinar. "Ceren bertcela sor liteque bihi hura", 36: porque si no, podría germinar aquel grano. "Alfer-lan guertha lequidicayo", 37: puede venir a resultarle trabajo perdido. "Eta orduan dembora onaren seiñalea dateque", 37: y entonces es o puede ser señal de buen tiempo.

Flexiones del Auxiliar transitivo.—"Hala Iaincoac nahi içan balu eman cerauzcaion guiçonari ere abantail suerte hauc guztioc", 24: así Dios, si hubiera querido, podía haberle dado al hombre todas estas ventajas. "çuqueyen", 25: podía haber: vide el texto en IBENI. "Emplega deçangatic", 25: para que emplee: vide EMPLEGATU. "Erran gueneçaque", 25: podríamos decir. "Deçagun Ian eta edan", 25: comamos y bebamos. "Iratchequitcen deratcue", 26: la holgazanería o vagancia os pega o añade eso (la queja). "Harc... mintça aracitcen caituzteçate", 27: la holgazanería os hace hablar así. "Eta escuaren ibentcea bera asco baçuqueten ere", 26: y aunque el poner la mano de obra era ya bastante. "Erran baitcerauen Pharaonec", 26: les dijo (a ellos) el Faraón. "Lana berretu cerauen", 27: les aumentó el trabajo. "Desencusaric etçutentçat", 27: a fin de que no tuvieran pretexto. "Eman cerauen", 27: les dió (él a ellos). "Onera hartuco derauzquigutela", 28: que los amigos nos echarán a buena parte todos nuestros despropósitos. "Eguiten deracute", 28: nos hacen los enemigos tanto bien como los amigos. "Galdeguin ceraucatenean", 29: cuando le preguntaron (ellos a él). "Dugun amoreacgatic, 29: a fin de que tengamos. "Scipionec erran cerauen beçala", 31: como Escipión les dijo: "Ediren ahal citcan alfer guztiac", 31: en ellas (en las naves) volcaba (Pericles) todos los vagos que podía encontrar. "Bicia edequitcen baitcioten" 31: le quitaban la vida. "Etcerauen afariac gaitzic eguiten", 32: la cena no les hacía daño. "Eccartcen ceraucatenean", 32: cuando le traían un hombre. "Escuetaco larrua hazcatcen eta ferecatcen cioela", 32: que le palpaba la piel de las manos. "Eta baldin latz... edirei-

ten bacioen", 32: y si se la hallaba áspera. "Nehorc iende alferrey deus prestatcen cerauela", 33: que alguno les prestaba algo a los vagos. "Hura guztia gal ceçala", 33: que perdiera todo aquello. "Iguzquiac arraçoiñequin erran ahal diaçayo", 34: el sol puede decirle con razón. "Çuhaitzec ere erran ahal dezaquete". 34: los árboles también pueden decir. Conjugación familiar: "Nic, atço, hic baiño bide guehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago faiqui nauc", 34: yo ayer recorrí más camino que tú, pues di la vuelta a todo el mundo, y con todo, me he levantado más temprano que tú. "Erleec... erranen deracute beha diacegula". 35: las abejas nos dirán que les miremos a ellas. "Considera itçatçu haren bideac". 36: considera sus caminos. "Gaiñeracoa ustel eztiaçon", 37: para que la humedad no pudra el resto.

IÇATU: variante de *Içan*. "Ordea etçuen ibeni nahi içatu", 25: empero no lo quiso poner así.

ICUSI: ver. "Eztacusaçue", 34: no veis?

IDI: buey. Pg. 27. Vide el texto en MANDO.

IDURI: semejanza. Pg. 21. Vide el texto en IMAGINA.

IDURITU: parecer. "Idurituric erregue hari", 26: pareciéndole a aquel rey.

IGORRI: enviar. "Eta guero igorri cituen lanera", 27: y después los mandó a trabajar.

IGUZQUI: sol. Pg. 34. Vide el texto en ARRAÇOIÑ.

IGUZQUIZTATU: solear, exponer al sol. Pg. 37. Vide el texto en AIRATU.

IHARDETSI: contestar. "Ihardesten du San Thomasec, erraiten duela", 22: contesta Santo Tomás, diciendo.

IHARDUQUI: luchar, disputar, debatir. Pg. 29. Vide el texto en PARADA.

IHES EGUIN: huir. "Nola bertceac direla, alferqueriatic ihes eguiteagatic ere, behar den trabaillatu", 21: cómo sea necesario trabajar, aún por huir de la ociosidad, aparte de otras razones.

ILHUNDU: oscurecer. Pg. 24. Junto con *arratstu*.

ILLE: pelo. "Animaliac larruz eta illez", 24: a los animales los vistió Dios con cuero y pelo.

IMAGINA: imagen: "Bere imaginara eta idurira", 21: a su imagen y semejanza.

INDAR: fuerza. Pg. 22. Vide el texto de AISIA.

INGURATU: dar la vuelta, rodear. Pg. 34: vide el texto en IRAGAN.

IOAN: ir. "Baitoaci", 24: van, caminan. "Leihorrez ahal cihoaqueyela", 33: pudiendo ir por tierra. "çoaz", 36: vete. "Ioan-ethorriac", 36: idas y venidas.

IOB: Job. "Dio Iobec", 34: dice Job.

*ION: decir. "Dioen beçala", 25: como dice. "Dio dela", 27: dice (él) que es.

IONDONE: Señor San. "Iondone Petric", 23: San Pedro.

IORRATU: escardar. Pg. 31.

IRABACI: lucro, ganancia. Pg. 23. Vide el texto en ONDOCO.

IRAGAN: pasar. "Iragaiten baitciren seyetan ehun milla presunatan", 26: pues pasaban de 600.000 personas. "Nic atço, hic baiño bide guhiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia", 34: yo ayer recorrí más camino que tú, pues di la vuelta a todo el mundo.

IRATÇARTU: despertar. Pg. 27. Vide el texto en CONTRASTE.

IRATÇARTÇAILLE: despertador. Pg. 30.

IRATCHEQUI: pegar, adherir, añadir. "Aisetasunac iratchequitcen deratçue", 26: la comodidad o el ocio os pega la queja.

IRAUNGUI: apagar. Pg. 30. Vide el texto de USTE.

ISRAEL: Israel. "Israeleco seme", 26 y 28: hijos de Israel.

ITÇUL-INGURUAC: vueltas y revueltas (de la hormiga). Pg. 36.

ITÇURI: derramor, deslizar. "Lehenbicico hitza ahotic itçuri ceyenean", 26: cuando se les deslizó la primera palabra.

ITSATSO: mar. Pg. 24. "Itsasoz", 33: por mar.

ITSU: ciego, Pg. 33.

KHENDU: quitar. "Khen cedin", 24: para que se quitase.

LABORATU: labrar la tierra. Pg. 22: vide el texto en MANATU.

LACEDEMONIACOEC: los de Lacedemonia. Pg. 29.

LACHO: suelto, despreocupado, flojo. Pg. 28: vide el texto en ADISQUIDE.

LANDARE: planta, todo vegetal. Pg. 22. Vide el texto en CHERTO.

LANDU: cultivar. "Lur-lantcea", 22: el trabajar la tierra. Item, p. 22: vide MANATU.

LANHABESAC: herramientas de trabajo. Pg. 26.

LARRU: pellejo, cuero. Pg. 24. Vide el texto en ILLE. "Escuetaco larrua", 32: el pellejo o cutis de las manos. Vide FERECATU.

LATZ: áspero. "Latz, lodi eta gogor", 32: y si se la hallaba áspera, gruesa y dura (hablando de la piel de las manos).

LAUR: cuatro. Pg. 26.

LEHEN: primero. "Hasten da Guerotic guerora dabillanaz, eguiten den, liburuaren lehen partea", 21: comienza la 1.ª parte del libro compuesta acerca del que aplaza (sus deberes) indefinidamente.

LEIHOR: tierra, seco. Pg. 33. Vide el texto en IOAN.

LEUN: suave. Pg. 32. Vide el texto en BERA.

LIMBURTU: deslizar, resbalar. "Aitcitic orai gaude egundaiño baiño limburtceco eta erortceco peril handiagoan", 30: por el contrario, ahora nos hallamos en mayor peligro que nunca de sufrir un resbalón y caer.

LODI: grueso. Pg. 32. Vide el texto en LATZ.

LOHACARTU: adormilarse ."Ceren nola bat bedera baquearequin lohacartcen, ez-ansiatcen eta gorputzaren placeretara emaiten baita, hala...", 27: pues como cada cual con la paz se adormila, se hace despreocupado y se entrega a los placeres del cuerpo, así...

LORATU: florecer. Pg. 35. Vide el texto en HAZI.

LOTI: dormilón. "Lotien iratçartcea", 28: el despertar a los dormilones.

LUMA: pluma (de ave). "Hegaztinac lumaz", 24: a las aves las vistió con plumas.

LUR: tierra. "Lurreco parabisuan", 21: en el paraíso terrenal. "Lur-lantcea", 22: el trabajar la tierra.

MALICIA: maldad. "Hetaric anhitz malicia eta pensu gaixto sor citequeyela", 27: y que de los tales podían originarse muchas maldades y designios perversos.

MANATU: mandar. "Eta manatu çuen lant ceçala, labora ceçala, eta beguira ongui parabisu hura", 22: y mandó que cultivara, trabajara y cuidara bien aquel paraíso.

MANDO: mulo. "Eman cerauen mando, çamari, idi, haci, diru, finean trabaillatceco behar çuten guztia", 27: les dió mulos, acémilas, semillas, dinero, en fin, todo lo necesario para trabajar.

MANTENATU: alimentar, mantener. Pg. 24: vide el texto en GUICENTASUN. "Pericles famatu harc mantenatcen çuen bethiere, bere herritic campoan, cenbait guerla", 31: el célebre Pericles mantenía constantemente algunas guerras en el exterior. "Eracusten dio bat bederari nola eta cer moldez behar duen mantenatu, governatu eta alferqueria guztiac utciric, bere demboran trabaillatu", 37: le enseña a cada uno cómo o de qué manera debe alimentarse, comportarse, y, dejando toda clase de holgazanería, trabajar a su debido tiempo.

MANTENU: alimentación, víveres. Pg. 35. Vide el texto en GARRAIO.

MEHAR: estrecho, angosto. Pg. 26. Vide el texto en PUNTA.

MEHE: delgado. Pg. 32. Vide el texto en BERA.

MENDE: existencia, vida. "Bere mendean", 32: en su vida.

MENERATU: sujetar, dominar. "Bere meneraz guero", 29: una vez que los había sujetado a su dominio.

MILLA: mil. Pg. 26. Vide el texto de IRAGAN.

MINTÇA ARACI: hacer hablar. "Harc horrela... mintça aracitcen çaituzteçate", 27: la ociosidad y excesivo confort os hace hablar así.

MIRETSI: admirar. "Norc eztu miretsico eta gogoeta eguinen?", 36: quién no admirará y reflexionará?

MOLDE: modo, manera. "Halaco moldez ecen", 26: de tal manera que... "Cer moldez", 37: de qué modo o manera. Vide MANTENATU.

MUGA: frontera: "Muga-quide", 29: fronterizo, colindante. "Hiri etsai bat, muga-quide çuten bat", 29: una ciudad enemiga, que era fronteriza con ellos.

NABUSITU: prevalecer, dominar. Pg. 26. Vide el texto en URGUILLUTU.

NAGUI: perezoso. Pg. 25. Alegado junto a *alfer*.

NAGUITU: hacerse perezoso. Pg. 23. Vide el texto en ALFERTU.

NAHASI: revolver. "Etçutela calteric eguinen, maliciaric pensatuco eta ez herriric nahasico", 27: que no harían perjuicios, no idearían maldades ni revolverían el pueblo.

NAHASTECAC: embrollos, revueltas, jaleos. Pg. 30. "Anhitz calte eta nahasteca", 31: muchos perjuicios y jaleos.

NATURALEÇA: naturaleza. Pg. 34. Vide el texto en GALGARRI.

NEHOLATAN ERE: de ningún modo. "Etçutela neholatan ere hiria deseguin behar", 30: que de ningún modo debían destruir la ciudad.

NEQUE: fatiga, trabajo. "Hain nequez", 25: a costa de tanto trabajo.

NOIZIC BEHIN: de cuándo en cuándo. Pg. 37.

NON NAHI: en cualquier parte. "Non nahi den arratsten eta ilhuntcen çayen leccuan", 24: en cualquier parte donde les coge la noche.

OBEDITU: obedecer. "Nola duten bere erreguea, eta obeditcen duten", 35: cómo las abejas tienen su rey y lo obedecen.

OCCASINO: ocasión. "Emaiten deracute occasino", 28: nos dan ocasión.

OFFICIO: oficio. "Officioric gabe", 31: sin oficio.

OHE: cama. Pg. 34. Vide el texto en ARRAÇOIÑ.

OHOINQUERIA: robo, latrocinio. Pg. 31. Vide el texto en USATU.

OIHAN: bosque. "Oihaneco çuhaitzac", 24: los árboles del bosque.

ONDOAN: después. "Munduco bertce gauça guztien ondoan", 21: después de todas las otras cosas del mundo. Item, p. 23: texto en ORACINO. Item, p. 23: vide ASTE.

ONDOAN: en la base. Pg. 26. Vide el texto en PUNTA.

ONDOCO: de después, subsiguiente. "Ondoco irabaciagatic", 23: tomaba dicho trabajo por huir de la ociosidad, y no por la subsiguiente ganancia.

ONDORE: consecuencia. Pg. 22. Texto alegado en CHERTO.

ONGUIEGUIA: el excesivo bienestar. Pg. 26. Vide el texto en CEUEC.

ONHETSI: amar. "Bere buruaren contemplatcea, onhestea eta bai bertceric ere anhitz", 34: aparte de la creación y gobierno del mundo, Dios tiene otras ocupaciones, como son el contemplarse y amarse a Sí mismo, y también otras muchas cosas.

ONTASUN: bien, provecho. "Ontasun handia heldu çaica herriari halaco hequen khentceaz", 31: al pueblo se le sigue un gran bien con quitar a los tales.

ORACINO: oración. "Oracinotan eta othoitzetan unhatu ondoan", 23: después de cansarse en oraciones y plegarias.

ORDENANTÇA: orden, armonía, concierto. Pg. 35.

ORDENATU: ordenar, mandar. Pg. 29. Item, pg. 32.

OTHARRE: cesto. Pg. 23. Vide el texto en CONTATU.

OTHOITZ: oración. Pg. 23. Vide el texto en ORACINO.

PALMA: palma, palmera. Pg. 23. Vide el texto en CONTATU.

PARABISU: paraíso. "Lurreco parabisuan", 21: en el paraíso terrenal.

PARADA: ocasión, oportunidad. "Eztute... iharduquitceco paradaric içanen", 29: no tendrán oportunidad de luchar.

PAULO: Pablo. Pg. 23. Vide el texto en CONTATU.

PAUSATU: descansar. Pg. 25.

PENAGARRI: penoso. Pg. 22. Vide el texto en TRABAILLATU.

PENSATU: pensar, idear. "Etçutela... maliciaric pensatuco", 27: que no idearían maldades.

PENSU: pensamiento, idea. Pg. 26: vide el texto en GOGOETA. Item, p. 27: vide el texto en MALICIA.

PERIL: peligro. "Eztugu... esquean ibiltceco perilic", 25: no tenemos peligro de tener que ir a mendigar.

PERILOSA: peligro. "Guerla perilosagoa", 31: una guerra más peligrosa. Item, pg. 34: vide el texto en GAUÇA.

PERMITITU: permitir. Pg. 29.

PETRI: Pedro. Pg. 23. Vide el texto en IONDONE.

PHARAON: Faraón. Pg. 26. Vide el texto en ERAGUIN.

PILARE: pilar, columna. Pg. 26.

PIRAMIDE: Pirámide. Pg. 25. Vide el texto en EGIPTO.

PITZGARRI: estimulante, incentivo. Pg. 24. Vide el texto en DAMU.

PIZTU: encender. Pg. 30. Vide el texto en USTE.

PLAÇA: plaza. Pg. 27.

PLACER: placer. "Leccu placerez bethean", 22: en un lugar lleno de delicias. Item, pg. 22: vide el texto en AISIA. "Bere placerera eta aisiara", 26: a su gusto y capricho.

PLAUNDU: allanar. "Plaundu eta lurrarequin bendindu", 30: allanar e igualar con la tierra.

PLUTARCO: Plutarco. "Plutarcoc eguiten du liburu bat etsaietaric atheratcen den probetchuaz, eta guztietaco handiena eta principalena dio dela...", 27: Plutarco tiene un libro acerca del provecho que se saca de los enemigos y dice que el principal y más grande de todos es...

PONTU: punto, asunto. Pg. 23: vide HOBEQUI. Item, p. 34.

PREMIA: necesidad, apremio. "Beharrean eta premian", 22: en la necesidad y precisión. Item, pg. 33.

PRESTATÇAILLE: el que presta. Pg. 33.

PRESTATU: prestar. Pg. 33.

PRESUNA: persona. Pg. 26: vide el texto en IRAGAN. Item, p. 32: vide DEITU.

PRINCIPAL:: principal. "Principalenetaric bat baitcen", 30: pues era uno de los más principales. Item, p. 27: vide PLUTARCO.

PROBETCHU: provecho. Pg. 27: vide el texto en PLUTARCO.— Item, p. 31.

PROVISIONE: provisión. Pg. 36. Vide el texto en GOVERNU.

PUNTA: punta, vértice. "Ondoan çabal eta puntan mehar", 26; anchas en la base y estrechas en el vértice.

PYSISTRATO: Pisístrato. "Pysistrato, Atenasco Tirano gaixto harc", 27: Pisístrato, aquel malvado tirano de Atenas.

QUIDARI: guía, maestro. Pg. 36.

SACRIFICIO: sacrificio. "Sacrificioz", 24: los cargó de tantos mandamientos, sacrificios y ceremonias...

SAIL: tarea. "Bere eguneco lana eta sailla", 26: señalando a cada uno el trabajo y tarea del día.

SAN: San. "San Thomasec", 22: Santo Tomás. "San Isidoroc", 26: San Isidoro.

SASOIÑ: estación del año. "Gueure demboretan eta sasoiñetan", 35: en nuestros tiempos y estaciones.

SASQUI: cesto. Pg. 23. Vide el texto en CONTATU.

SEGUREAN IARRI: poner en salvo o a resguardo de todo riesgo. Pg. 30. Vide el texto en AITCINERAT.

SEI: seis. "Seyetan ehun", 23: seiscientos. "Seyetan ehun milla", 26: seiscientos mil.

SEIÑALATU: señalar. Pg. 26.

SEIÑALE: señal. "Eta orduan dembora onaren seiñalea dateque", 37: y entonces es señal de buen tiempo.

SENTENCIA: sentencia. Pg. 33.

SEPULTURA: sepulcro. "Sepultura suerte batçuc", 26: una clase de sepulcros.

SEQUERETUAC: secretos. Pg. 33: vide el texto en FIDATU.

SORTHU: nacer. "Eta handic behar etcena sorthuco cela", 26: y que de allí se originaría lo que no convenía.

SOSEGU: sosiego, tranquilidad. "Baquean eta soseguan Iarriquo (sic) cirela", 30: que se quedarían en paz y tranquilidad.

SPIRITU: Espíritu. "Spiritu Sainduac berac", 36: el mismo Espíritu Santo nos envía...

SUERTE: especie, clase. Pg. 21: vide el texto en DONU. Item, pg. 23: vide el texto en CIRIMONIA.

THIRATU: mamar. Pg. 24. Vide el texto en GUICENTASUN.

THOMAS: Tomás. Pg. 22. Vide el texto en SAN.

THOMBA: tumba. Pg. 26.

TIRANO: Tirano. Pg. 27. Vide PYSISTRATO.

TORNU: torno. "Itsuec ere tornuan edo arrodan bedere hari behar çuten", 33: incluso los ciegos tenían que trabajar por lo menos en el torno o en la rueda.

TRABAILLATU: trabajar. Pgg. 21. Vide el texto en IHES EGUIN.—"Etcen ez orduco trabaillatce hura, pena-garri içanen, orai beccatu eguinez guero beçala", 22: el trabajar de entonces no hubiera sido penoso, como lo es después del pecado.

TRABAILLU: trabajo. Pg. 34. Vide el texto en HEGAZTIN.

TRESNAC: herramientas, instrumentos, útiles de trabajo. Pg. 26.

UNHATU: cansar, fatigarse. Pg. 23. Vide el texto en ORACINO.

UNTCI: navío, barco. Pg. 31.

URGUILLUTU: enorgullecerse. "Urguillutceco eta nabusitceco bidean iarrico cirela", 26: que se pondrían en camino de ensoberbecerse y de dominar.

URRUN: lejos. Pg. 23.

URTHEORO: anualmente. Pg. 31.

USATU: valerse de, usar de. "Ohoinqueria, enganamenduz edo cenbait arte gaixtoz usatu behar çuela", 31: que tenía que servirse del robo, del engaño o de algunas malas artes.

USTE: creencia, opinión. "Guerla bat iraungui ustean, bertce handiago bat pitztuco çutela", 30: porque si destruían la ciudad, creyendo apagar una guerra, encenderían otra mayor. "Iarri ciren bere ustez baquean", 31: se quedaron en paz absoluta, según su parecer.

USTELDU: pudrir. Pg. 37.

UTZI: dejar. "Utzten", pg. 26.

VALIATU: servirse de. "Etcen bat ere bere gorputzaz valia ahal citequeyenic esquean ibiltcen", 33: ninguno que pudiera servirse de su cuerpo andaba mendigando.

VALIO: valor, precio. Pg. 23. Vide el texto en GUEHIAGO.

VERANDU: tarde. "Veranduraiño", 34: hasta tarde. Vide el texto en ARRAÇOIÑ.

VILDU: dirigirse, volverse a; recoger, acumular. "Bere vilduetara vildu behar duenean", 36: cuando tiene que volverse a sus cosas acumuladas.

ZORROTZ HARRI: piedra de afilar. "Gaztetasunaren zorrotz harria", 29: la piedra de afilar de la juventud, o sea. el lugar donde los jóvenes se adiestraban y curtían para la lucha.

ZORROZTU: afilar. .Zorrotzten", pg. 29. Vide el texto en HERDOILDU.

Fr. Luis Villasante, O. F. M.

EUSKALTZAINDIARI

Guk, euskaltzaiñok, bi zeregin jakin-jakiñak dítugu:

Lenbizi. Euskera landu, al-bestean garbitu ta txukundu, alegia, erdereetatiko zer kaltegarriak baztertuaz' jatortu, beretiartu; au' batez ere, gramatikari dagozkion gauzetan.

Eraberean, Euskera, gaurko munduak eskatzen dituan jakintza guztietarako baliozkotu, gauzadandu.

Zer guzi oik egiten' ekin díote ta ekiten, euskaltzain edo-ta euskaltzale askok, baita kanpoko izkuntzalari ospetsu ta izen aundikoek ere. Beraz, ortan, baliozko aurrerapide askotxo ditugu egiñak.

Bigarren zeregiña, euskeraren bizitza zaindu, indartu eta edatzea degu. Obligaziorik aundieneko degun zeregin ontan ere' ekin dio Euskaltzaindiak, ortarako aukeratzen zaizkion aritze-bideetan. Baiña bide oik' zoritxarrez' estuak dítugu, edaera ta mardera txikikoak. Eta *egi-egitan:* zabalagotzerik, aundiagotzerik ezpaldin badukegu' euskeraren bizia, geroago ta makalagotzen dijoakegu, eta gero' izkuntza illen illunpetarako bidean. Ez dítzagun begiak itxi; au, mortu-saiek égin oi dute, arriskuren bat urreratzen zaienean; euskaltzaiñok ez genegikete, zerren-eta ori, euskera-zain ordez' euskeraren *eriotza-zain* izatea génuke.

—Bai-bai, esango didazute euskaltzainkide maiteok, ¿baiña zaintze-lan ori, nola egin? ¿ortarako eskubideak eta ekin-bideak, nun aurki ditzakegu?

Arazo gaitza, egiaz, baiña berorretxegatik, euskaltzaiñok, gogorik aundienaz ixtudiatu bearrekoa.

I.—EUSKERAREN MAKALTZAILLEAK

Euskeraren osasuna zerk makaltzen duan begiratzea' ori dégula, dirudi, asteko lana. ¿Makaltzaille guzi-guziak ikertzea? Ez-ez: ori sekula ez bukatzeko lana baikenuke. Begira dítzagun, bakarrik, gaur agiri-agirian ditugun kaltetzailleetatik batzuk.

Erbestetik eltzen zaizkigun erdaldunak dítugula kaltegarrien uste dute askok.

Kaltegarri bai, baiña *kaltegarrien* ez. Erbestetikako geienok, eztute euskeraren kaltezko zerik; kontrara, oiek pozik ikúsi oi dituzte beuren aurrak euskera ikasten.

Ez ez: erbestetikako erdaldunak eztitugu, geienetan, euskera iltzaille. ¿Nortzuk beraz? Batzuk beintzat' gutxien gutxien izan bear luketenak, alegia, euskera *gauzarik baliozkoentzat* iduki' eta euskera orren bizitza zaintzen eta indartzen geien saiatu bear luketenak, ots, kristau katolikoak eta batez-ere, erlijio orren irakasle eta zaintzailleak. Aztertu dézagun auxe astiro, zerren-eta nere itzaldi onen mami-mami degun autua baita.

II.—EUSKOTARREN BIRTUTEAK. OIEN EUSLE' EUSKERA

Uri aundixkoetan euskera atzeraka dijoalarik' ango guraso jator eta buru-argi askok, esan oi dituzte onako itz samiñak: "Guk, zazpi-alegiñak egiten dítugu, geure aurrak, euskera ikasi eta euskaldun iraun dezaten, ikusten baitugu, atsekabez, oraingo gazteek, euskera galtzeaz' zenbat gauza on eta eder galdu, ta zantar eta bide-txarreko ikasten dituzten".

Eta ¿zertzuk dira galtzeko arriskuan ditugun "gauza on eta ederrok?" Dudatzeke, onako oik: Gure gurasoek Euskalerrian eta edonun agertu dituzten eta mundu guziak autortzen ta txalotzen dizkiguten birtuteak. Autortze au egiztatzeko eta agiriagotzeko' aipatu génitzake, ezagun ditugun gertakun askoren artean oraintsu jakin ditugun iru gauzok.

1.° Anai-arteko azken-gudate ostean, Euskalerriko eta beste toki askotako jendetzak, Ameriketarantz iges egin zutelarik' ango Erriek, euskotarrak begiramen bereiziz errézibitu zituzten. Arjentinako Gobernuak batez-ere (Ortiz jauna Buru) lege bereizi bat eman zuan, auxe: Euskalerriko jendea, geiagoko gabe errezibituko zutela, alegia, beste errietakoai eksijitzen zieten paper eta abar gabe.

Ori' esan degunez' Argentina-n gertatu zan, lege ohoragarri orrek' euskal-jende *eskolatuai* lagundu zien géienez, oitarikoak baitziren ara joan bearra izan zuten geienak.

2n. Orain, nekazariak dítugu deituak, eta Amerika-alde orren beste puntatik, alegia, Ipar-ameriketatik. Emen ere, euskal-mutillak áukeratzen dituzte artzaintza aundietarako, gure mutil azkar eta zintzook baiño oberik' iñun ezpaitituzte aurkitzen.

3n. Ortega y Gaset, filosufu ospatsuak, esanak dítu, onako itz goragarriok:

"España guzian eztá Euskalerrian baiño ardura aundiagoz landutako lurrik, ezta obeki antolaturiko baserririk naiz ururik ere. Euskotarrak azkar on-artzen ditu zibilizaziorik berrieneko mekanika-aurrerapide guziak, baiña era-berean, euskal-izantzari iñolaz ere uko egin gabe, au da, erlijio eta politikarekiko bere arau zar-zarren aberastasunak' biotz barren-barrenean tinko gordetzen ditualarik. Nere ustez, dio, ezta Europa guzian Erri ori baiño moralidade gardenagokorik. Euskalerritarra (ariman bezela, arpegiz, *xuxen)* Adan-en landarategi aldakorrak, sartzalde ontan eman duan landararik jatorrenetarikoa degu" (1).

¿Euskaldunen birtute ederrok, zeri dizkiogu zor geien geienik? Galdera onen erantzuna' Ortega y Gasetek berak árgitzen digu zerbait itz oiezaz: "el tesoro de viejísimas normas religiosas..." (au zion katoliko-erlijiotik urruntxo bizi izan zan filosofo orrek).

Erlijioa degu, bai, euskotar birtuteen zaintzaillerik bikaiñena baiña, ordeaz, *erlijio orren berorren gordetzaillerik aundiena' geure euskera degu.*

Ontarako euskera ta euskaltasuna' *irastontzi bikain-bikaiñak ditu* Euskalerriak. Euskotarrak au egiten du: ikusi ta ausnartu jakintsuen ideia berriak, baiña norbereganatu ez guziz, euskal-gurasoek irakatsitako ideia ederren argi tartetik irazi gabe.

---

(1) Ona-emen Ortega y Gasetek berak erderaz idatzia: «No hay tierra en España más cuidadosamente labrada ni más limpias aldeas ni ciudades mejor organizadas. El vasco acepta rápidamente los inventos mecánicos de la moderna civilización, pero a la vez conserva irreductiblemente en su pecho el tesoro de viejísimas normas religiosas y políticas. Yo no creo que exista en Europa un pueblo de más acendrada moralidad. Rectilíneo de alma como de rostro, el vasco es una de las más nobles variantes que en Occidente ha dado la voluble planta de Adán» **(Obras completas,** pág. 336).

Euskerak górde dituala diokegu, beraz, eusko-birtuteak, eta batez ere erligio-fedea, iñun ez bezelako erlijio-fedea, ¡bai! ¿Ba-al da mundu guzian Euskalerrian baiño katolikoago dan Erririk? ¿Aundieran eta bizi-lagunez konparatuta, Katoliko--Elizari, Eliz-gizon eta eliz-alaba geiago eman dionik? ¡Zenbat Apaiz Euskalerriak (2), zenbat Praille, zenbat Moja; eta zenbat Mixiolari, Iñaki eta Jabier doneen denboretatik así eta gaurdaiño!

Au, guziau, olaxe dalarik ¿ez al du merezi, Euskalerriak, Katoliko-Elizak maiteen izatea? ¿Eliz-buruzagi goienetakoetatik asi eta umillenetaragiñokoek, Erri au, begiratze kutunenez, dan bezelakoxe gorde nai izatea?

Baiña ¿zer gertatzen da?

III.—ELIZ-GIZONAK ETA EUSKERA

Badira, bai, Eliz-gizon batzuk, Praille, Apaiz eta abar, euskera ta euskaltasunaren alde, jatorki eta ardurarik santuenez lan egiten dutenak. ¿Baiña gaiñerantzekoek zer? ¿Eliz-gizon eta eliz-alaba geien-geienek zer? Batez-ere, oien agintari beeko ta goienetakoek zer?

Ikus dézagun.

Euskalduna, guziz atxikia dá, gurasorik guraso eldu zaizkion zer guziai, au da, *izkuntza, oitura,* eta batez-ere, *Erlijio* santuari... An-or-emen erdaldunari erdera entzuteak' eztio gutxituko euskal-maitasunik, ez orixe. Baiña erdaldunok *eliza-agintari,* maixu edo olako baldin badira' orduan bai, orduan gerta liteke, euskal-maitasuna gutxiagotzen astea.

Au gértatu da, eta gértatzen, orrako Serora edo Moja erdaldunekin. Oitariko bospasei aizpa maitagarrik' idekitzen dúte, gure erri batean, kolejio bat, eskola bat. Gure aurrak, eskola ortan sartzen diralarik' guzia lilluragarri aurkitzen dute: eliz-andere bedeinkatuok' soiñeko bereizi ta errespetagarriz estaldurik, eta, batez-ere, paparrean gurutze eder bat zintzilika dutelarik, au, beuren fede bizizko kristautasuna agertzeko.

---

(2) Errigoiti, Bizkaiko Bas-Erri bat degu, 1.100 bizi-lagun inguru dítu. Aurten berean, ango eliza nagusian, iru **erri-semek** batera emán dute meza berria, eta **beste iruk,** era-berean egiteko asmoa dúte datorren urtean. Goragarria óri, baiña, jakiña: Errigoiti, Gernikako Arbolaren alboko erri **euskaldun uts-utsa** degu.

Moja oik' jakiña, irakasle bikaiñak dira; lanaren nekeak aspertzen eztitu, ezpaitira munduko diru urriz pagatuak, zeruko asebetegarrizkoz baizik.

Baiña, orain dátorkigu gauza eder guzi oien alde samingarria: moja oik erderazko dituzte irakaste guziak; geiago, eta txarrago: badute euskerarentzat olako gaitzeste bat, euskera, eskoletarako kaltegarri bailitzeango uste ongi sakondu bat; eta uste negargarri orren lurrun atsituak' gure aurren biotz xamurrak, azkar dítu txertatzen, kutsatzen, ziringatzen.

Gaitz orren ondorenak' edonun ágiri zaizkigu. Or ikústen ditugu, Uri ta Bas-Erri euskaldun-euskaldunetan, aurrak, lenbizi, euskeraz egin nai ezik, gero euskera aztuta.

Zer ortan (esan dezadan bide-batez) nexkatoak dira aurreneko; nexkatoák eta neskák, euskal kontrako sagar txar ori, lenbizikoz eta joranik aundienez jaten dutenak; gero, paradisuan Eva-k antzo' jan erágiten diete, gure Adan txiki eta aundiei ere... ¡Neska oiek eta emakume orok ere, eztakite, gaixoak, sagar orren eragintzak, gure mutillai, zenbat on-bidezko ate ta leio itxi, eta galbidezko zábaldu, egiten dizkieten!

Aur oien gurasoak, batez ere Amak, maiz kéjatzen zaizkigu: "Guk etxean (esan oi dute) alegiñak egiten ditugu, aurrok, euskeraz ikasi eta euskalduń jarrai dezaten, zerren-eta, ikusten baitugu, atsekabez, oraingo gazteok, euskera galtzeaz, zenbat gauza on galdu, eta, ordeaz, zatar eta arrisku aundiko ikasi, egiten dituzten; baiña alperrik ari gera: ¡oik, eskola oik, batez-ere, moja-eskola oik!"

"Guri ere (gaiñeratzen dute Ama gaixook) gure maistrek irakasten ziguten erdera: ez, noski, oraingo nobela ta abarrek sarri ekarri oi dituzten gaizkeri ta zantarkeri erdi estalduak atsegiñez milikatzeko aiñako erdera, baiña bai, oraingo bizimoduak bearrezko egiten diguten aiñakoa. Eta guzien gain, etziguten euskera galdu arazten, gutxiago, ala-ere mespreziatzen".

Arrazoi aundia dute orrela kejatzen diran euskal-guraso maiteak. Izan ere, orrako moja-eskola geienak' euskera itxusgarritzeko eta iltzeko sortuak dirùdite. ¿Au geiegikeria dala? Ez, zoritxarrez ere. Eta egi-egia dala erakusteko' bagenuke zer esanik asko. Ona emen ejenplu batzuk.

IV.—EUSKERAREN KONTRAKO GERTAERA TRISTEAK

Euskaltzaindiak: guziok dakizuenez, jasan zuan, orain dala amar bat urte, aztu eziñeko atsekabe bat. Aita Villasante errezibitzea zúan, eta onen itzaldi ederrari' Krutwig euskaltzain

jakintsu eta langille-langilleak zíon erantzun. Ni enintzan lekuko, baiña Villasantek berak kóntatu zidan, andi-andika, an gertatua. Andi-andika esan det; gero ere nik eztet irákurri, osorik, Krutwig-en itzaldi ura; ala-ere, egoki derizkiot, orduan A. Villasanteri esan nizkion itz batzuk errepetitzea. Lenbizi auxe: Krutwig-ek, garai artan, itzen batzuk gogorregitxo jaurti baldin bazituan ere' eztala ori arritzeko, biotz minduak' ori, edonoiz eta edonun egin oi du, eta gogo onez párkatzen zaio (betor, nere itzaldi ontan esan netzaken itz garratzen bat edo besteentzat ere, parkamen berorixe). Eta, ez al zuan Krutwig-ek, eta ez al degu guziok, arek erabili zuan gai artan, minberatzeko motiburik?

Aita Villasanteri berari kóntatu nizkion, orduantxe bururatu zitzaizkidan bizpairu ejenplu, txit irakasgarriak. Villasanteri, nungo ta nortzuekiko guzien izenak agertu nizkion, baiña eztitut orain birresango, iñori min eta kalte egiteaz, ezpaitugu, euskaltzaiñok, ezer irabazterik. Ona emen ejenpluok.

1.° Bizkaiko uri ospetsu bat zan (Arizpeiti deituko diogu). Uri ortan, bada kolejio bat, alegia, Moja-eskola eder bat: Udalak (Urietxeak) diruz lagunduta eraikia zuzen-ere.

Moja oiek, eskola ortara dijoazten aur ugariai' ederki ta guzitarik irákasten diete, baiña ibetikoa! euskera, bajuesten, baztertzen, eta olaxe, guziz aztuarazten ere bai.

Ori ikusirik' Udalak (karlista, monarkiku, abertzale, errepublikanu... guziok ao-batez) moja aiei, beiñola, euskeraz ere zertxobait irakasteko éskatu zien, ortarako bear zitezkean liburuak, Udalak berak áukeratuko zizkietela-ta...

¿Erantzuna zer? Gogo gutxi, aitzaki asko, luzepidea... azkenean' ezer ez.

2n. Au ere' Arizpeitiko Ospitale aundi ta eder batean gertatua da Emen ere' Moja bedeinkatuak gaixo-zain. Ospitaldu guziak' (gaixo, atso-agura, aur... guzi-guziak') euskaldun. Baiña mojen izkuntza' beti erdera, bai otoitzetan, bai beste edozertan.

Ospitale artako agintari nagusi' Arizpeitiko amar-bat jaun errespetagarri ziran. Jaun oiek' guzia erderaz egite ori, etzala egoki, eta (oiek ere ao batez') aurrai otoiz batzuk ezpada-ere euskeraz irakasteko ágindu zieten mojai. Baiña! bai zera! emen ere, Mojak berdin: "baietz, baietz, baiña... gerotxoago-edo, zera zertutakoan..." eta abar; baiña egitez' ezerez.

3n. Bada Euskalerrian "Batzar-Etxe" eder bat. Angoxe *Saloi-nagusian* bátzen ziran, gure asabak, Erria gobernatzeko Legegiñan.

Saloi orrek, badu, berorren kapillatxoa, kortiña batez ostenduta; kortiña ori jaso' eta *Saloi* ori kapilla aundi biurtzen da.

Batzar-Etxe orren jaube zan Diputaziuak' igande guzietan' Meza-ixil bat bere kontura emateko' Apaiz jaun bat bíaltzen zuan kapilla artara. Aor bada, eta meza bitartean, uri bereko Erretore jaunak' onek ere beronen kontura' itzaldi bat égiten zuan: baiña beti *erderaz*. Ordea, meza ortara joan oi ziran geien-geienak' *euskaldunak ziran*, eta asko' erderarik etzekitenak. Diputaziuak, ori ikusirik, eta toki arek, euskal-gauzentzat eskatzen zuan maitasunagaitik' Erretore urari, au eskatu zion: baldin meza artan itzaldigiñan jarraitu nai bazuan' jarrai zezakeala, baiña, mezedez, euskeraz egiteko. Erretoreak, obeitu ez, eta berriz ere' *erderaz*. Diputaziuak, azkenean, galarazi egín zion, indarrez, meza-garaian, kapilla artara sartzen; eta ola búkatu zan ezta-baida triste ura.

V.—¿ZERGAITIK EUSKERAREN KONTRAKO ZEROK?

Euskal-maitatzailleentzat' samingarri dira olako gertaerak. Ezkenuke sinistu bear, ordea, aipatu ditudan Apaiz eta Mojak, euskeraren benetako etsai litezkeanik. Benetako eta itxuragabekoago dan gauza' beste au dégu: Mojetan' baita Praille ta Apaiz askotan ere, eta geiago guzi oien goi-nagusi errespetagarrietan' bada siniste illun bezelako zer bat, zeiñek agintzen baitie, euskera eztutela erabili bear, ezin bestez baizik; iñola ere ez eskola ta ikasguetan, komentu eta seminarioetan, aundizkiren bat-edo lekuko datekean tokietan... eta abar.

"Siniste illun" ori dutenei' bi gauzok agértu bear dizkie Euskaltzaindiak:

1.º *Gaur egunean, orrela baztertúrikako mintzairek' ez dúketela bizi-izaterik.*

Orain dala 50-enbat urte-edo' euskotar erri ta uri geienetan' euskera génuan mintzai bakarra; erdera ganorazkorik' iñok etzekian, Eliz-gizon, Mediku, Eskribau... ta beste andizki banakaren batzuek izan ezik.

Garai artan' erderaren aldeko zer ori' ain kaltegarri etzatekean: euskaldunak bi-izkeldun egin nai izatea baizik etzirudian. Ori etzatekeala ain gaizki diot: Europa erdi-erdian berean ditugu, Erri, jakintza guzietan, txit aurreratuak diralarik' erri-mintzaira bi edo geiago goi-eskoletara jasotzen dituztenak: Suiza, Belgika, Luxemburgo... Baiña gu, gutarteko bi-izkelduntza ori iritxiz gero' galtzebiderik txarrenera eraman nai gai-

tuzte. Egiaz, baldin euskera, ikasguetatik eta abar urrundu, eta erdera bakarrik badarabilgu' gure mintzai ederra, erremedio gabe, iltzeko kondenatua degu.

Orra bada: lenbizi euskaldun-soil giñan; gero euskaldun--erdaldun. ¿Geroago erdaldun-soil guziok? Ontara gijoazkeala, ezta iritzi utsa, egi-egia baizik, euskal-uri askotan gertatzen ari zaigun egi agiri ta samingarria.

2n. *Euskera galtze orrek dakarzkian ondoren kaltegarriak, batez ere Erlijioarentzat.*

Gorago bir-esan ditut, guraso euskaldun askoren onako itz samiñak: "Ikusten baitugu atsekabez, diote, oraingo gazte asko, euskera galtzeak' zenbat gauza on eta eder galtzera eta itxusi ta zantar bideetara daramazkian".

Gauza on eta ederrok ¿zertzuk ditugu? Ortega y Gasetek apuntatzen zigun birtute oien sustrai sakon bat: "bizitza aurrerapideak azkar ikasi ta artu, baiña guraso zaarren irakatsiak aztu ta galdu gabe".

¿Au, nola iritxi dute euskaldunek? ¿Nola iritxi du Euskalerriak, beste Aberri edo Erresuma geienek ezin izan dutelarik? Dudatzeke, euskerak eta onek babesten dion erlijio sendo eta sakonak.

Euskera ta erlijioa dítugu, bai, euskotar birtuteen eusle nagusi.

Euskera ta erlijioa, beste aldez, elkarren eusle dira.

Euskera galduaz' Erlijiua berantz, beingoz eta iduriz ezpaldin bada ere; berantz, bai, makaltzen, oztutzen; euskotar erlijioaren barren-berotasuna, zaintsutasuna, zarata gutxiko baiña benetako erlijiotasuna' aultzen, erbailtzen. Eta eraberean, berantz euskotarren birtute ederrok ere, mundu guziak oiuztatzen dituan euskal-birtute ederrok ere.

Euskera ta Erlijioaren alkartasun ori' aintxiñatik irákasten digute euskal-esakun jakintsuek: "Euskaldun' fededun" "Euskerak atzerantz pausu bat' erlijiuak bi" "Jaungoikoak nai du euskera bizi dedin (Kardaberaz Aitak) "Gure ezaugarrietan (dio Aita *Laspiur* karmeldar idazle argiak) bi atalik ezagunenak euskera ta erlijioa dira. Bata iltzean bestea dijoakio lotuta... Ez dezagun aiztu euskera ilda erlijioa galduko dugula..."

Ba-dira Euskeraren eta Erlijioaren elkartasun ori autortu nai eztutenak, alegia, au esaten dutenak: "Euskera eta euskaltasun gabe ere ¿ez al dira kristau on eta birtutetsuak? —Bai orixe, diot nik; baiña itzaldi ontan' enaiz lagun *bakoitzen* erlijio ta birtuteez ari, *Erri osoenez* baizik, alegia, Euskalerri

osoaren erlijio ta birtuteez. Eta auxe dá gogoan artzeko, auxe dúte goragarri Ortega y Gasetek-eta ere, orixe baita gaitz, orixe miresgarri.

VI.—EUSKERA, ERLIJIUA ETA JAKINTZA IKASTEAK

Lengo idatz-ataletan, euskaltasunaren ontasunak egiztatzeko' Ortega y Gaset gaztelarra lekukotu det maiztxo. Jakintsu orren aurrez aurre' Unamuno euskotarra présenta ligukete norbaitzuek. Gakiozan, beraz, Unamuno orreri ere.

Egia esan, Unamunok, maite zuan Euskalerria, eta euskera ere bai noski (bere 64 euskal-abizenak, pozik oiustatzen zituan), baiña maitatze biok' bere modura. Erlijua ere, ola-ola, dokma gabekoa; ots. fedezko egi gabeko erlijiua zuan berekiko, Auguste-Comte-ren "religion positive" edo olako erlijiua.

Guzi ori ola zalarik' euskal-iendeek muxin mingoitz egíten zioten Unamuno jakintsuari. Gernika, nere bizitza-uri maitagarri onetako bizi-lagunek ere' muxin (bearbada, geiegitxo); au ere' mingoitzgarri, gernikarra baitzuan, Unamunok, maite-maite zuan emazte kutun eta txit eliztiarra.

Muxin guzi oien mingoiztasunek eranginda edo' agertu bear Unamunok, noizpenka, euskaltasunaren kontrako iritziren batzuk. Dana dala, iaurti zituan, bein, Bilboko teatru aundi batean, zer-esan aundia eman zuten itz batzuk au bezelakoak: "Europtiar kultura Euskalerrian edatzeko' euskera eragozpen aundia degula". Itzaldi ura bukatzean' aundiki batzuek baizik txalotu etzutela ikusirik' damutu omen zitzaion Unamunori esanak esatea.

Itz zakarrak, izan ere, Unamunoren itzok, zerren-eta, euskerak, ezpaitie iñoiz kalterik egin euskaldunai, bakoitzak bere zeregiñetan jatorki ekin' eta gure Erri au, kulturarik ederreneko Erri formatzeko; ez-eta, bear duanak, bear besteko erderak ikasi' eta jakintza arloan, baliozko aurrerapen guziak Euskalerriratzeko. ¿Gure kultura au, ez-ote obe, beste kultura merke ta azal utsezko asko baiño? Kultura merkea diot, alegia, guziok jakintsu gerala uste-izanik' guziok baliozko lanetarako gauza-ez izatera garamazkian kultura.

¿Orixe ez-ote du esan nai, Ortega y Gasetek, gorago kopiatu ditudan itz eder aiezaz?...

Unamunok, euskotar izanik' euskal-kultura gutxi-esten du; Ortega y Gaset-ek ordea, gaztelar izanik' kultura ori' bikaiñen eta gorengotzat esten du, Jakintsu biok, Euskalerria juzgatzean, ¿nola orren elkar-kontrako? Ala bada, biok ziran

arrazoi-uts zale (au da "razionalistak"); baiña, au ez izan aski, giza-iritziak berdintzeko. Unamuno-ri, ikusi degunez, bere biotz mingoiztuak illuntzen zion arrazoia; Ortega y Gaset-ek, arrotz genualarik' otz-otz begiratzen zituan gure gauzak, eta Unamuno-z oso bestera juzgatzen. Ola beraz; Unamunok, Europatiar kultura jártzen digu gurearen gain-gaiñetiko; Ortega y Gaset-ek ez, onek dionez euskotar kultura, zuzendura ta ondrautasuna' baliozkoago dira, eta gaiñera' (dio), birtute oik galdu gabe' azkar eta ederki bereganatzen dituztela, euskotarrek probetxuzko diran mundu-aurrerapide guziak; "mekanika-aurrerapideak" dio Ortega y Gaset-ek; ¿zer ote-da, benetan, orixe baiño geiagoko, Unamunok dion "civilización europea" ori ere? ¿Dokma gabeko erlijiua ta abar noski?...

Itz laburrez: Unamunok, Euskalerriaren aurrerapideetarako' kaltegarri du euskera. Ortega y Gaset-ek ez. Onek dionez' euskotarrek Europako kulturarik ederrena eta baliotsuena dute; eta ortara irixteko' eztiete, beuren izantza-lege ta agerpenai' uko egin, kontrara, beuren biotz barren-barrenean gordetzen eta indarrik zekenenaz éusten diete.

Auzi ori erabaki al izateko maixu gorengotzat' artu dézagun Americo Castro, España-ko izkuntzalaririk jakintsuenetarikoa; ona beronek zer dion: "¿Kulturarentzat, euskera galtzea, desiragarri lizatekeala? Ezterizkiot, uste ori, ontzat emangarri degunik" (3).

Idatz-atal au bukatzeko.—Euskalerriak eztu kanpotar-keri geiegi agertu bear. Esaera zarrak dirausku: *On ezagutzekoa* baiño' *txar ezagutua* obe dégula. ¿Zenbatez obeago ez-ote, *on ezagutua?*

Euskalerriak "on ezagutu ori" galtzea ¿Zenbateraiñoko penagarri luke? ¿Euskalerriak ez-eze mundu guziak ere, gaurko edonungo birtute-galtze izugarriak ikusirik? ¿Eta, guziz bereiziki, ez ote penagarri, kristau-Elizak, Pirene bealdeko gure txoko ontan aurkitzen duan perlarik ederren ori galtzea?

Perlarik ederrena díogu; baita beraz baliotsuena ere, zerren-eta *Perla orren erraiñu disdiratzailleek' Euskalerri barnean ez ezik, onen inguruetan ere, erlijio-birtuterik asko zabaltzen baitituzte.*

---

(3) «Me parece inaceptable la posición de los que hablan de la desaparición del vasco como algo deseable para la cultura» (Américo Castro. Cursos de Metodología y Alta Cultura. Sociedad de Estudios Vascos. Bilbao, 1921).

VII.—EUSKERA GALTZEAK, EUSKOTARREN BIRTUTEAI LEKARZKIEKEAN KALTEAK

Gorago (2n. idatz-atalean-eta) zerbait esan dizuet gai onezaz. Ekin dézaiogun emen ere, inportantzirik aundieneko baitugu.

Euskera ta eusko-birtuteak elkar loturikako ondasunak dírala genekusan an, eta bata galtzeak' bestea ere galtzeko arriskuan jartzen duala.

¿Arriskuan bakarrik? ¿Gaur-daneko ere, ez al-dira agiri, uri asko ta askotan, galtze biok elkarreri darraikietela?

Gure gurasoek, beuren ejenplu ta irakatsiez formaturiko gizaldiak' orain berritzen ari zaigunakin eztu konparaziorik: leendikoa' euskalduna, benetako kristautiarra eta birtutetsua génuan; orain formatzen ari danak ordea, ¿eman al dezake olako frutu bikaiñik? Iñola ere ez, baldin oraingo ibildura jarrai badeza. Ni bizi naizen uria bera' Bizkai biotz-biotzean degu, eta auzi ori juzgatzeko ejenplurik autatuenetariko dírudikegu. Aor ba, eta uri ontan, kristau asko-ta-asko (Erretore jauna Kulpitutik ere bai') kexu dira, arriturik dira: Euskalerrian iñoiz entzun ere egin eztiran gaurko gaizkeri ta lotsagabekeriez saminki kéjatzen dira. Eta gauza berau entzuten diegu Bizkaiko beste uri eta erri askotako kristau on eta jatorrai ere.

Eta esan bearrik ez: euskera ere, uri ta erri oietan' neurri bere-berean díjoa gain-bera.

Erlijio ta euskeraren elkarkizun ori ¿arritzeko al da?

Gai onezaz zer-ikusi aundia duan liburu baliotsu bat' badu, oraintsu idatzia, Frantziako jesuita jakintsu batek: Aite *Desqueyrat*-ek; liburu orrek, gazteleraz, "La crisis religiosa de hoy" du izena. Gaur, mundu guzian, erlijiua galtzen díjoala dio, eta galtze orren zegaitikoak' adimen argi ta zorrotzez ázaltzen ditu. Zegaitiko bat' *sustrai-galtzea* itzaz ádi-arazten du. Egia, gizonok, erbesteratzeaz, edo-ta, geure Errian diraugularik ere, bertoko izate modutik urrinduaz, Erri orreri atxikitzen ginduzten *sustrai* sakonak eten, ausi ta galdu égiten ditugu; atxikidura oik' lokarri oik' erri-oitura ta ekanduak, itz-errikoiak, *erri-izkuntza bera génituan,* eta oik galduaz' *erlijiua* ere otzitu, urrindu, eta galtze-bidean jártzen degu.

Aita Desqueyrat-ek' gauza oik' munduko Erri guzietan gértatzen dirala dirausku. Baiña Euskalerrian (diot nik) bereiziki izan bear, ondoren txarragoko, gaiztoagoko. ¿Zergaitik au? Onetxegaitik: Ortz txiki bat, agin txiki bat ateratzeak' aoan zauri ta min gutitxo égiten digu; ordea, sustrai asko ta sa-

konak dituan matrailla-agin aundia ateratzeak erasoten dizkigun oiñaze, zauri eta beste ao-gaitzak' askoz aundiago dira.

Aor bada, eta euskaldunen mintzaira, oitura, ekandu ta izate-modu guztien sustraiak' Europa-ko Erri ororenak baiño aintxinagoko agértzen dira: ori gauza jakiña degu: Europa-ko jakintza eta jakintsuek' or arí zaizkigu, Euskalerritarroi, orixe gogora-arazten, predikatzen eta goratzen.

Beraz, oraiñarte ain ondoren eder eta ongarriak eman dizkigun izantza ori galtze-bidean eraztea, eta batez ere, izantza orrek eutsigarririk bikaiñen duan euskera bera, sustraitik, erro-errotik kanpora ateratzea ¿ez ál degu beldur izateko? Beldur izateko, bai, Aita Desqueyrat-ek erlijio galtzeaz diona' asaldagarriki gerta ez ote dizaikegun; iñongorik azaldagarrikien diokegu, zerren-eta galtze orrek, Euskal-izantza zaar eta sustraitsuagan' makurtzerik eta ondamendirik aundienak dákarzke, alegia, arako matraila agiñik sustraitsuena ateratzeak, ao gaixoan egin oi dituanen pareko.

Gogoeta guzi oik eta beuron ondorena' gorago esan dedan zer onen jarioa degu, alegia, galtze oik etortzea' Katoliko-Elizak dúkeala penagarrien. Penagarririk-penagarrien, bai, Elizarentzako, euskal-izantza ori galtzea; penagarri, nion, Pirene bealdeko txoko ontan Elizak aurkitzen duan *perlarik* ederren ori, bertan bera utzi' eta galtzea.

¿Nola, beraz, Elizako Buruzagi ta serbitzari guzi guziek, EUSKERA, amodio bizi ta eragikorrez babesten ez? ¿Nola ez, baldin *perla* ori gordetzen duan maskorrik gogorrena, koskolik zaillena, *euskera* bera dutelarik?

VIII.—ELIZ-BURUZAGIEI ERREGU BAT

Orra or euskeraren bizitzak, *gaur*, agirien eta minbereen agertzen duan arazorik nagusiena, beraz, Euskaltzaindiak ardurarik aundienaz gogoratu ta ausnartu bear lukeana. Baditu, bai, euskal bizitzak, beste zaindu bearreko eragozpenik asko ere, baiña Elizarekiko ori' guzien gaiñetikoena eta leiazkoena; ori erremedi ezpageneza' alperrikako dítugu beste ekin-bide guziak. Gaitz-iturri ori beár litzateke, beraz, sendatu lenbizi, eta sustraiki, sakonki; ortan zapi-epelezko" erremediuak' eztira aski, eztukete askorik balio.

Euskaltzaindiak, lan ortan asteko' baditu, nik uste, euskaltzain autagarriak; oiek beár diote presentatu Eliz-agintari goieneko ta beieneko orori, errespetuz, baiña artamendurik aundienaz, idazki ontan agertzen dudan guzia.

Euskaltzain autatuok, agertzapen orrezaz' bear lituzkete Eliz-agintarien zentzua argitu eta biotza ukitu; sinistarazi, badala, Euskalerriko gertaera oietan, katoliko-Eliza osoak, arduraki begiratu ta eskuratu bear lukean auzi bat.

Eliz-agintariok, ideia ortara iritxiko balira' artuko lituzkete, gogoz eta biziki, urrengo jartzen ditudan (edo oik baiño aundiagoko) erabaki batzu.

Erabaki-gai oik, Euskaltzaindiak ezin presentatu litzaieke Eliz-agintairei *egin bearreko* lituzteken bezela: au ezkenuke errespetuz itz egitea. Ordea, esan génizaieke, itzik samurrenez baiña bizienez ere bai, eskatzen dieguna' *euskeraren osasunak bear-bearreko dúala.* Erregu au egitea' eskubidezko ez-ezik, obligaziorik aundieneko ere ba-degu euskaltzaiñok.

Ona bada, emen, gure erabaki gaiok:

1.º Eliz-agintari guzi oiek, bear dituzte ezagutu, ezagutu-arazi eta goraltxatu, edonun, Euskalerriaren kristau birtuteak.

2n. Ezagutarazi, eraberean, birtute oik irauteko ta indartzeko, euskerak duan balio gorengoa.

3n. Euskalerriko Eliz-gizon guziek' batez ere euskal-prediku ta konfesio lanetan ari-izatekoek' bear dute euskera ongi ta errez mintzatzen alegindu, ortarako, elkarren artean euskeraz itz egiñaz, eta, aukerako eskoletan' (Seminario, Komentu eta abarretan') ikaste luze ta sakonak egiñaz.

4n. Apaiz, Praille eta Mojak (¡otoi, Mojak, Jaungoikoarren!) gobernatzen edo-ta zaintzen dituzten eskola, gaixo-etxe eta abarretan' irakatsi orori, lenbizi, euskera biotzez maitatzen, eta gero' (al-duten neurrian') itz-egiten, irakurtzen, idazten eta abar.

Gauza guzi oik ongi egiteko eta frutu-emaille izan ditezen, ¿ez al liteke aurkitu benetako biderik? Bai, egiaz eta biotzez nai izan ezkero; ortarako, bear lítzateke (zergatik ez?) Eliz-gizonen batzar, bilkura edo olako zer aundi bat antolatu; eta aintxe, Apaiz, Praille, Moja eta abar, beuren gorengo Agintariak buru dituztela' aztertu eta eztabaidatuko lituzkete, gutxienez, nik jarritako lau erabaki gai oietan agertu dedan guzia. ¡Amaikatxo Katoliko-Kongresu, apaillatzen dira, an-or-emen, euskeraren alderako ekintza onek bezin fruitu baliotsu ta bearrekorik ematen' gaitz duketenak!

IX.—AZKEN ITZAK

Orra, nik, itzaldi ontan esateko asmo nuan guzia azalduta.

Eta azaltze ori bukatzean' gauza txit pozgarri ta maitagarri bat datorkit burura. Gauza ori ezta berria, euskal-maitatzaille orok dákite, baiña emen aitatu gabe, ezin utzi; ona emen: *Naparroako Lege-zar Diputazioak* ("Diputación Foral" delakoak) euskeraren alde, dirutza eder bat eralgitzea erábaki du; orrenbesteko dirutzarik (¡euskera gaixoa!) ez omen du iñoiz iñok eman ortarako, alegia, euskeraren bizitza zaindu ta indartzeko asmo uts-uts orrezaz. Euskaltzaindiak, eta euskaldun guziok, bear degu eskertu, biotz-biotzez, Napar, Diputaziuaren erabaki aberkoi ori. Aintxiñadanik déitu zioten *Euskerari* "Napar-izkuntza" ("Lingua Navarrorum"), eta Naparroari berorri "Euskalerriaren Muiña" ("Médula de Euskalerria", au oraintsu, M. A. Astiz idazle azkarrak).

Ekin bezaiote, naparrek, bide ortatik, euskera berriro "Lingua Navarrorum" datekean arte; orrela ber-irabaziko du sekula galdu bear etzukean titulu ederra: Euskalerriaren anai-nagusi, bateratzaille ta buruzagi titulua.

Gernika-n, 1959-ko Urtarrillean.

S. Altube-k

XIX'GARREN GIZALDIKO EUSKAL IZKRIBUAK

Eusebio Maria Dolores de Azkué euskal olerkariak Bonaparte printzipearendako Bizkaiko euskalkira itzuli zuen "Dies irae"

Eusebio Maria Dolores de Azcué (1) euskal olerkariak Bonaparte Printzipeari "Dies irae" Bizkaiko euskerara itzulita bialdu zion, gaztelaneraz egindako eskutitz batekin, 1861'garren urtean (2).

Bizkaiko Diputaziñoaren Artxibuan gordetzen da, Bonaparteren paperen artean (3). Joan dan illean egon nintzan Artxibu artan, eta bertako Zuzendari dan Carlos González Echegaray adiskideari eskerrak eman bearrean nago eskutitz eta itzulpen au kopiatzeko eman zizkidan erreztasunakatik.

* * *

"[Sello en relieve: E. A. Y CIA. IRURA DE TOLOSA].

Srmo. Sr. D. Luis Luciano Bonaparte, Principe Ymperial de la casa Reinante de Francia.

Alteza Ymperial.

Cada vez que he leido la siguiente plegaria, atribuida al Emmo. Cardenal Malebranca, sobrino de S. Santidad Nicolas Tercero, sus aterradoras frases han conmovido mi alma, y me han inspirado el deseo de que se popularizase: sabedor de esto nuestro amigo el Rdo. Fr. Jose Antonio de Uriarte, me indicó que me encargase de su versión á metro Vascongado; y aunque convencido de la debilidad de mis fuerzas para este trabajo, me propuse dar gusto á mi amigo.

Yo que hasta entonces solo habia admirado la grandiosa vehemencia de esta obra, tuve que ocuparme de la forma del lenguaje, y sin mucho esfuerzo me convencí de los grandes del Autor en espresarse en tercetos aconsonantados de ocho silabas, para lo que se vió en la necesidad de suprimir, mutilar y variar terminos y partes de la oracion; presentando su composición de manera que cada lector tuviese que regularizar las frases, enlazarlas, y ayudado de la fé adivinar mucho de lo que quiso decir: he visto tambien en alguna estrofa faltas de exactitud metrica, y he visto que las dos ultimas no son del Autor sino de algun entremetido [sic] mono; pero Malebranca felízmente estuvo inimitable.

No me persuado que mi trabajo sea mas que una muestra de mi ignorancia; pero me ha sido imposible resistir al deseo de ofrecerle a V. A. Ymp. y mis votos quedaran satisfechos, si jusga que no he perdido absolutamente el tiempo que he dedicado á el.

Dios güe á V. A. Y. ms. as. para ornato de las letras y lustre de la lengua Vascongada.

Mundaca y Novre. 7 de 1861.

Eusebio Maria D. de Azcué [rúbrica]".

[1]

«¡Bildots mantsoen asserre eguna,
eguna ikaragarrijha!
auts biürtuko dabena süak
jhaijho ta erne dan guztijha.
Testigu David eta Sibila
eukana ceruko arguijha.

Dies irae, dies illa
Solvet seclun in favilla
Teste David cum Sibilla.

[2]

¡Ce itzaltassuna ta ce ikaria
zabalduko da munduan,
Juez arteza bici ta illuna
etorriko dan orduan;
gauza guztijhak ciats ikusten
jhasso dirian moduan!

¡Quantus Tremor est futurus,
quando Judex est venturus;
cuncta strictè discussurus.

[3]

Trompetiagaz jho soñua ta,
«jhaguiteko illak batera»
ceñen durundu miragarrijha
zoli elduko da lurpera;
jhoan biarko dabe guztijhak
bere Tronuen aurrera.

Tuba mirum spargens sonum
per sepulchra regionum
coget omnes ante Tronum.

[4]

Erijhotzia ¡ay! arrituko dau
eta izatia gauzêna
gizon ostera biürtutiak
autsa lengo guizonena;
contu emoteko Juez Jaunari
lengo bici guztijhena.

Mors stupebit et natura
cum resurget creatura
judicanti responsura.

[5]

Zabalduko da libru, ceñetan
izan dirian sillaüak
berbak eta obrak; gelditu barik
aistu ta pestsamentuak;
izan deitezan libru onetati
guizon guztijhak juzgaüak.

Liber scriptus proferetur
in quo totum continetur
unde mundus judicetur.

[6]

Asten danian Juez arteza
jharri ta contüa artuten,
gauza estarijhak asiko dira
danên aurrera aguertuten;
ez dabela ecer Juez Justuak
egun âtan parkatuten.

Judex ergo cum sedebit,
quidquid latet apparebit
nihil inultum remanebit.

[7]

¿Cer esango dot nik gaisho-onek
ofendiduen aurrian?
¿ce bitarteko neure erreguak
billatuko dau-urrian;
egongo bada justua bere
galduteko bildurrian?

¿Quid sum miser tunc dictu-
[rus?
¿quem patronum rogaturus;
cum vix justus sit securus?

[8]

¡Erregue ceñen Magestadia
guztiz da ikaragarrijha!
¡eguin zenduna, zor ez dozula
emoteko onai, glorijha!
Salvau naizu, arren, errukijharen
azkenik bako iturrijha.

¡Rex tremendae Majestatis!
¡qui salvandos salvas gratis!
salva me, fons pietatis.

[9]

Gomuta zaite, neure Jaun ona
ta Jesus errukiorra,
ni gaiti guizon eguin ta igaro
zenduna Crutze gogorra:
ez cidazu arren bota egun atan
ganera betiko zorra.

Recordare, Jesu piè
quod sum causa tuae viae;
ne me perdas illa die.

[10]

Zu, Jaun andijha, jharri ziñian
nekatu ta neure billa:
izan zinian ni irabazteko
jhosi Crutzian, eta illa:
aimbeste neke neuretzat Jauna
galdua izan ez dedilla.

Quaerens me sedisti lassus,
redemisti Crucem passus:
tantus labor non sit cassus.

[11]

¡Juez Justua bere epaijhetan
errukirik ez daukana!
parkatuidazu, damu dot eta,
ceure contra eguin dodana,
betiko epäijha, guero bakoa,
jhausi baño len neugana.

Juxte Judex ultionis
donum fac remissionis;
ante diem rationis.

[12]

Errua daukat, eta negarrez
naukê neure pekatuak;
lotzaz gorritu deust arpeguijha
chingartu artian erruak:
¡Jauna errukijha! ¡Parkatu Jauna!
entsuizuz neure erregüak.

Yngemisco tamquam reus,
culpa rubet vultus meus:
suplicanti parce Deus.

[13]

¡Zuk Marijhari kendu zeuntsana
pekatuaren katia!
¡zuk lapurrari crutzian illten
entsun zeuntzana fedia!
ichi zenduan neuretsat bere
fede esperantzaz betia.

¡Qui Mariam absolvisti
et latronem exaudisti!
mihi quoque spem dedisti.

[14]

Ecer eza naz eldu deitezan
ceugana neure erreguak;
baña ona zara ta arteztu eidazuz,
Aita lez, neure pausuac,
ez neijhen erre sekula ta inosh
guichituten ez dan süak.

Proeces meae non sunt dignae,
sed tu bonus fac benignè;
ne perenni cremer igne.

[15]

Jauna emoidazu ceure eskumati
lekua ârdijhên tartian;
ta ez ezkerreti, ez arren Jauna,
akêr deunguen bitartian:
madarikatu sekulakoak
Jauna Jauna dan artian.

Ynter oves locum praesta,
et ab haedis me sequestra
statuens in parte daestra.

[16]

Madarikatu deungak bota ta
beteten euren epaijha
su gogorrera, bitarte bako
erassoten dabena ay[y azentu zirkun-
flejoduna]-jha:
eguizu onakaz nik entsun deidan
ceugaz jhoateko deijha.

Confutatis maledictis
flammis acribus addictis
Voca me cum benedictis.

[17]

Eskatuten dot auspaz, errüen
pishuagaz makurturik,
eta bildurrak sutako autsa lez
neure bijhotsa urundurik:
euki neizula neure azkenian
arren Jauna, ceure eskurik [sic].

Oro suplex et aclinis
cor contritum quasi cinis:
gere curam mei finis.

[18]

¡Oh ikaragarri jhay[y bi puntuduna] hoêtsako
egun â negargarrijha!
ceñetan autsak, len guizon zanak,
artuko daben bicijha;
errutsua lez juzgau ta artseko
irfernua edo glorijha.

Lacrimosa dies illa
que resurget ex favilla
judicandus homo reus.

[19]

Oneri bada parkatuijhozu,
Jesus Jaungoiko laztana,
Jaun errukitsu guizona gaiti
guizon eguin ziñiana
eta emoijhozu atsagon leku
Autüêntsat dagoana.

Huic ergo parce Deus
piè Jesu Domine
donna ei requiem.

Alan izan dedilla.

Amen."

N. Alzola.

---

(1) Lekeition jaio eta il (1813-1873). Euskaltzaindiaren lendabiziko Lendakariaren aita. Bere bizitzaren berri, laburki, ikusi A. Onaindia'ren **Milla Euskal Olerki Eder** liburuan: I, 274'garren orrialdean.

(2) Mundakan bizi izan zan urte ontan, eta A. Onaindiak diñoenez «...Lekeition, batez be 1861'tik aurrera».

(3) Alzolako Urberuagan 1906'garren urtean Carmelo de Echegaray-k egin zuen arkibidean aurkitzeko (): **B-4.—Carta n.° 143, de don Eusebio María Dolores Azkue** [sic], **conocido poeta vizcaíno, al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, acompañada de una traducción del** Dies irae, **hecha en verso y en vascuence, que le era propio y natural.**

() **Manuscritos procedentes de la Biblioteca del Príncipe Luis Luciano Bonaparte.** Bilbao, Imprenta Provincial, 1906.

AZKUEREN IZTEGI BERRITU ETA OSOTURAKO

Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburu argitara gabekoetatik ateratako itz sailla

Emen ikusiko duzun itz sail ori, irakurle, Joakin Lizarraga Elkanoko Apaizaren liburuetatik ateratua da. Argitara gabeko liburuetatik. Elkano, Iruña urbileko errixka bat da. Joakin Lizarraga yauna Elkanon jaioa zan eta aunitz urtez Elkanoko apaiz izan zan. Orrengatik Iruña aldeko euskera darabila. Azkue yaunak Lizarragaren liburu argitaratuak ongi ikuskatu zituen. Amaika nafar itz badaude aren Iztegian, Lizarragaren liburuetatik artuak. Baño Lizarragak, argitaratu baño, argitaratu ez diran liburu geiago ditu. Iruñeko Apaizgaitegiko liburutegian lau badaude, letra xe txukunez idatziak, irakurgai aunitz dutenak. Emeretzigarren mendeko len aldekoak. Kristau Ikasbideaz eta Santuetaz eta itz gaiak. Onela deitzen ditu. Nik lau liburu oietatik bi ikuskatu ditut. Bien artean 1.200-en bat orrialde dute. Azkueren Iztegian nere ustez ez dauden, edo esan nai berdinarekin ez dauden itzak autatuz. Astia dezadanean, berze biak aztertuko ditut, Yainkoak nai badu, xede berari buruz.

A

ADIERANZA: Persuasión (Larramendi). *Matrimonioaren zelebratzeko adieranza in dezakena Apez Aitak eldu direnei ezkontzera elizan.* A continuación trae la Exhortación del Ritual.

ADIMENTUA: Oído. *Gorputzaren sentidoak dire borz: Adimentua, Bista, Usma, Gustoa ta Ukimentua.*

AINKURIA: Lamento (?). *Eta ikusi da etsai gaixto gura [= ura] loturik Errosarioas nola katea fuerte bates... ainkurias lamentatzen...*

AIPAKUNDE: Mención: *Aipakunde gaixtoa da aipatzea iras deabrua.* En Baztán se dice *aifakunde: Aifakundean otsoa,* al mentar al lobo.

AKABANZA: Terminación. *Nai izan zue alaber seguratu gure biziaren postrea, bukateroa, ta akabanza Olio Sainduaren Sakramentuareki...*

AKORDU: Conocimiento, juicio. *Oliatzea... obe da errezibitzea bere akordu onean.*

AKORRITU: Volver en sí, reponerse. *Soldado guardiakoak akorritu zirelaik beren lotsarriziotik.* Habla de la Resurrección de Nuestro Señor Jesucristo.

ALDIRITAR: Aldeano (Larramendi, comarcano, cercano, inmediato). *...ala nola ellega laiken aldiritar pobre bat erregue andi batengana.*

ALGO: Poder. *Algo emanzale.* Azkue trae esta palabra como tomada sólo de Iztueta, pero se usa también en Baztán: *Oiek eztute algoik Semea Seminariora bialtzeko.*

ALKAIZUNGARRI: Vergonzoso. *Zer irabazi duzie gauza alkaizungarri gaiekin?*

ALOKABIDE: Medio de ser contratado. *Bein joan ze alokabide billa... Jangoikoak nai ta etzue arkitu egun gartan.* No encontró quien le contratara.

ALTSAI. Azkue toma *alsai* de Araquistáin con el significado de 'pastor' y añade: "Debe de ser *alzai*". Pero Lizarraga, hablando de la adoración de los pastores, les llama varias veces *arzaiak* y poco antes usa *alsaiak: bazela etxola bat, nora biltzen ziren aziendak ta alsáiac; ...geradela geienok munduan, ala nola aziendak arbolearen pean daudenac, jan ta jan murruxkas janari botatzen diotena altsaiak arbole gañetik, baña ez oroitzen ere...*

AMARRENDU: Diezmar (dezmar, pagar el diezmo, Larramendi). *Zeren ezi dion becala S. Agustinek, zuk ezpaitiozu pagatu nai ongi Jangoikoari zeure fruituen amarrenak, Jangoikoak amarrenduko zaitu zeurori; ...au baita amarrenze costosoa.*

AMOROSTU: Enamorarse. *...amorostea Jangoikoas arima* (passim). Azkue lo da, tomado de Araquistain, sólo con el valor de 'amancebarse'.

ANBATE: Cantidad (Larramendi). *...aurkitu zire irur bolatto bardin bardinak guzietan, kolorean, ambatean, pizuan, ezpaizeike distingi...*

ARAGI-GENDE: Cosas de carne. *Zer yago debekatzen da baru egunean? Jatea aragui-guenderik, ta garizuman arrauze ta esneguenderik.*

ARARATU: Llegar allá. *...paratu tigu abasto medioak ta erremedioak araratzeko [= zeruratzeko] gu ere.*

ARAUZTEA: Delinquimiento (Larramendi). *Baña non abasto izan zen arauztea, an abastoago aguertu ze grazia ta miserikordia.*

ARDOTEGIA: Bodega de vino. *Sartu nindue erreguek ardoteguian.* "Introduxit me Rex in cellam vinariam".

ARGI-UZTAI: Arco iris. *...paratuko dut lañuetan ene ostadarra, edo argi-uztaia.*

ARRAIGENDE: Cosa de pescado. *...ezta dispensatzen jateko otronze berean aragui ta arraiguende.*

ARRANTZU: Pesca. *...milagrosko arrantzu andi gura Jesusen izenean.* Azkue lo trae, pero no en el sentido de 'pesca'.

ARREROAK: Escorpiones, probablemente (en Salazar *arrero* es salamandra, según Bonaparte). *Gorputzeko miembro-lagunak elkar engaña baleitez, begiek eskuei erran balezote brasak direla lore, oñei arreroak direla txinurri..., nola leike bizi?*

ARRESTI: Alegre, afable, risueño(?). *Beiratze gura ain arresti amoroso.*

ARZAIESA: Pastora. *Bereala aguertu zekio arzaiesa-iduri bat,* una como pastora.

ATERTU: Cesar. *Orazio egizie atertu gabe; jaiak guardatzea..., au da atertus lurreko lanetaik.*

AUNKARI: Ladrador. *Txakur aunkaria.*

AUSNARRI: Rayo. *Bedeikatu ta lauda bezate airean diren lañuek, otzek, beroek, erauntsiek, ortosek, zentellaek, ausnarriek; aguitzen direnak aizearen kampadera gortan: aize, lañu, ortots, oñastur, zentella, ausnarri, kaskaragar...*

AYEN: Vid. *Ayen soberano garren zarmendu. Beira ayen bat ain ear-iduri neguan, gero ain berde eder pampanos, zarmendus, ostos, lores ta matses.* Azkue traduce 'sarmiento'. Lizarraga vivía en región de viñas.

AZOTUKALDI: (Golpe de) azote: *borz milla eun ta amaborz azotukaldi Agredako Benerableak diones.*

B

BAIASTATU: Pasar por el cedazo. ...*Satanasek nai zaizte garia bekala baistatu.*

BAIEZKIKO: Afirmativo, positivo: *Zer mandamentu da fedearen alde?* (Obligaciones que tenemos respecto de la fe). *Badire borz: irur baiezkiko, ta bida ezetzkiko,* tres positivas y dos negativas.

BAKANTASUN: Solo, privado, particular. "*berzeeki bateo errezatzen dugulaik, bear tugu segitu berzeak. Baña bakantasunean, errezatzeik obena da errepausatus, ausnartus.*

BAKOTX: Pocos, contados. *Bakotxak dire dutenak ditxa... despreziatzeko munduko... exempluak.*

BARNATU: Profundizar, interiorizar. *Eta barnatu ondoan aski considerazioa...*

BEARREZTENKERIA: Desorden *(bearr-eza,* escusado, inútil, Larramendi). *Ala da mandamentu gonen kontra gaitz ematea bere buruari jan, edan ta edozein desorden ta bearreztenkerias.*

BEZANBATES: En cuanto... *Lenbizikoa sinestatzea, Kristo gure Jauna gizon den bezanbates izan zela konzebitua...*

BISORRAI: Virrey. *Napolesko Visorraia joan ze bein... Ola erra zue Visorraiak.*

BOZKARIUNDE: Gozo. *Du konsolazio, bozkariunde ta alegria guziaren gusto.*

BUKA: Fin, término, terminación (Larramendi). *Ori da azitze onaren buka, perfekzioa ta korona.*

BUKANDEA: Consumación, fin (Larramendi). *Oliadura baita ez solamente penitenziaren, baitare bizitza kristio guziaren perfekzio ta bukandea.*

BUKATERO: Término (?). *Nai izan zue alaber seguratu gure biziaren postrea, bukateroa ta akabanza olio sanduaren Sakramentuareki...*

BURLERIA: Burla. *Desprezia mundukoen jardukiak eta burleriak.*

BURUSBERA: Precipicio, abismo (?). *Imajina aur bat esnean dagona oraño, joan dela arrastaka burusbera baten pokalera ez erori bai erori... Ez erori bai erori gabiltza beti infernurako burusberan.*

BUSTINDU: Irritado (?). *...sinesta bezada... ezpadida sinestatu nai niri sinesta bezo aurtto garri... Bereala aurttoak erran zue... egietafedea da... Bustindurik Tiranoak erraten dio aurrai, Nork erran dik iri? Aurrak berla, niri nere amak, ta nere amari Jangoikoak.*

D

DESAGERTU: Desaparecer (Larramendi). *...erran ta desagertu ze.*

DESARRAZIO: Sinrazón. *Guziek pondera berzearen desarrazioa, gaizki egina, txarkeria. Ala biz: orduan da bada barkatzea...*

DESERAGOTZI: Desembarazar (Larramendi): *Artako ere bear litzake bat deseragotzi lurresko sentido gueben kostumbre usatu gontaik.*

DESERRAN: Desdecir (Larramendi, *desesan*). *Deserranes errana.*

DESGARAI: Deshora. *...dabilanak aien [buratsoen] desgogora, desgarai, joku, peligro ta desordenazioetan.*

DESGOGO: Contra la voluntad (desafecto, Larramendi), vid. *desgarai.*

DIAKINDE: Función, acto público (Larramendi). *Arrazio da zelebratzea bataioa solemnidade andiareki, zeren diakinde andia baita. An aldatzen da estados arima, Jangoikoaren desgraziatik graziara.*

DIRUSARI: Cosa que vale dinero (?). *Baña nork ez dezake zerbait gisaz [egin limosna]? Ezpada dirus dirusaris. Zatozte, erosazie dirurik gabe ta dirusaririk gabe ardo ta esne.*

DOANDITU: Laudar, solemnizar (Larramendi). *Magnificat anima mea Dominum. Ene arimak doanditzen du ene Jauna.*

E

EGIETAFEDE: Dogma de fe (?). *...au dauka deklaraturik Elizak egietafedea bekala.*

ELIZA-GIZON: Clérigo. *...gero da sazerdote, gero diakona, gero Eliza-gizona, gero edozein gizon.* Habla de quién debe bautizar en caso de necesidad.

EMANKA: Amenaza (?). *...debekatzen tigu emankak, erran gaistoak, maldizioak. Eritus, golpatus, emanka egines.*

ERABAKIERA: Explicación (Larramendi). *Kredoaren, Mandamentuen eta Sakramentuen erabakiera plau, senzill, klaro.*

ERABAKITZEA: Explicación: *Aita Gurearen erabakitzea.*

ERAUNTSI, ERAUNTSITU: Llover. *...eraunsteko bear tugun ondasunak. ...Israeldarrak mantenitu zitue bidean janari erauntsitzen zioten bateki zerutik goizoro.*

ERDETXIMENTU: Logro, consecución. *...guziendako, gaitz guzien erremedio, ta on guzien erdetximentu.*

ERDIKAL: A medias, no entero (Azkue *erdika, erdikala*). *...gogoa barindaba erikara ta erdikal jokatuko zaio* [*deabrua*].

ERRAÑU: Rayo (de sol). (Sombra, rayo del sol, refracción del sol, Larramendi). *...iruzkia zeñen errañuak diren.*

ERREFLON (?): *Kontatzen da monje bates Kredoaren itz gaietara* [*et incarnatus est*] *zegola tzut tzuta paratu gabe belauriko, eta deabruak eman ziola erreflon bat ederra ziola, ingratoa, nola eztuk yago estimatzen Jangoikoak in zizen faborea gizonei?*

ERREÑARI: Reinante (*erreinari*, Larramendi). *Gure Jangoiko, gure errege erreñaria da Jesus guruzifikatua, bereganatu du guzia gurutze garren medios.*

ERRES: Res. *...erran bai zio onek* [*Isaakek*], *Aita, ona sua ta egurra, baña non da erres il bear dena?*

ERREZARI: Rezador, el que reza. *Ala dire asko errezari flako birtutean.*

ERROGAZIO: Rogativa. *...edozein prozesio, errogazio, konjurio, bedeikazio.*

ERRU: Grande, extraordinario. *...oñace ta pena errueki agonizatzen.* Azkue trae la palabra, pero no como adjetivo.

ERTXIKIRO: Rigurosamente. *Nola atra gaizke ongi kontuetan artzen baitigu ertxikiro?*

ESKALE-BURU: Rellano de escalera. *...ala nola eskale batean gradas grada igaten den eskale burura.* En Baztán, *eskalaburu*, id.

ESKUNARA: A mano (?). *Beñik bein prest eskunara balitz sazerdotea ...ark egin bear du* [*bataiatu*]. Será como el baztanés *eskuar.*

ESKUPE: Cautiverio. *Salbatu ginduza deabruaren eskupetik.*

ESNEGENDE: Cosa de leche, lacticinio. *Zer yago debekatzen da baru egunean? Jatea aragi-genderik ta garizuman arrauze ta esnegenderik.*

ESTALZALE: Encubridor. *...ori litzake egitea alkahuete ta estalzale, ez Ama.*

ETORKI: Procedencia, origen. *Semearen etorkia Aitaganik.*

EZAUMENTU: Noticia, conocimiento. *...emateko bere Majestadearen ezaumentu zerbaitto.*

EZAUMENTU: Uso de razón. *Ezaumentura ellegatus geros.*

EZAUNTZA: Conocimiento, conocidos. *S. Juan, Pontifizearen etxean ezauntza izanik.* San Juan tenía conocidos en casa del Pontífice.

EZETZKIKO: Negativo. Véase texto s. v. *baiezkiko.*

EZINDE: Imposibilidad (Larramendi). *Irur kausa gisa dire libratzen dutenak [Meza entzuteko] obligaziotik: lembizikoa impossibilidadea edo ezindea.*

F

FALSIKIN: Falso. *Herodes falsikin traidore hipocrita.*

FARRASKA: Vanidad (?). *Ume prodigoaren gisa... utzi tut Aita divinoaren amoreak eta faboreak munduko farrasken eta miserien truk.*

FARRASKERIA: Id. (?). *...lurreko ondasun, dibersio, gusto ta gañarako farraskeria debekatuak.*

FLAKURIA: Debilidad. *Flakuria, indargutia.*

FLAKURRATU: Extenuado (?). *Alzinetik izanen dire señaleak, gerrak... lurraren ikaradurak, pesteak goseak... gizonak flakurraturik ibiliko baitire beldurres agituko denas munduari.* Habla del juicio final.

FRUITADI: Plantación de árboles frutales. *Ango [zeruko] kanpaderak, amenidadeak, lorediak, fruitadiak.*

FUNDITU: Hundirse (?). *...ala nola aurra loiean funditu delaik, baitoaie negarres amagana garbi dezan.*

G

GAINGATU: Rebosar. *Espiritu Sandua etorriko da zuregana. Zertako? Betetzeko mukuru, gaingatu arteo, barratzeko guziendako.*

GAIXTOFIKATU: Endurecido en el mal (?). *Ebek gaixtofikatuek [deabruek].*

GAIZKIA: El mal. *Zure gaizkia dena dela, gizonarena da... nola txindi bat itsasoaren aldean, da gizonaren gaizkia Jangoikoaren ontasunaren aldean.*

GALKIDA: Corrompimiento (Larramendi). *Eztuzu ikusten, gorputzaren aldetik zein lesiatua galkidara, zenbat gaitz ta bearretara!*

GALMENDE: Perdición, condenación (desolación, Larramendi). *Desesperazioan, au da etsitzea bat bere galmendeas.*

GIZAKIDE: Varona (?). *...au [Eba] deituko da gizakidea, zeren gizonaganik artua den.* Así traduce *vocabitur virago* del Génesis.

GLORIASTATU: Glorificar. *...non [zeruan] gloriastatzen tuen bere umetako artuak.*

GOGAIZTU: Desesperar. *...bekatuen pena gogaiztu desesperatu triste gure ezta amores, ezta Jangoikoaganik baizik deabruaganik.* En Larramendi *gogaizio,* desesperación, despecho.

GOITALTXATU: Ensalzar (Larramendi). *...laudatua biz ta betiko goitaltxatua Jangoikoaren borondatea.*

GOIZ EDER: Felizmente pronto. *Goiz eder gure Salbazalea egin zaigu Mediku; ...goiz eder asi ze egiten penitenzia.*

GORA: Altura. *Gloria goraetan Jangoikoari.* Gloria in excelsis Deo.

GOZAGAIZTU: Echar a perder *(gozakaiztu,* desabrirse, disgustar, exasperar el ánimo de alguno, Larramendi). *...gozagaizten dute ungendu onen suavidadea,* perdunt suavitatem unguenti. Azkue trae esta palabra, tomada de Lizarraga, sólo en el sentido de "desafinar".

GOZANDE: Deleite (Larramendi). *...egoten bada bere baitan gozatzen, ta zebatzen gaizki gogoratuan. Ori deitzen da gozande gaixtoa, edo gusto artzea".*

GURTE: Culto, veneración (culto Larramendi). *Irur gurte, adorazio edo onratze modu berexten dire Elizan.*

GUTI-BANA: Despacio (?). *...erranes guti-bana Jese Kristo ene Jauna.*

I-J

JAIOBERRITU: Renacer. *...jaioberritzea, edo espiritualki jaiotzea graziara da len.*

JANGOIKOSTATU: Divinizar. *...nola utzi bide zue Jangoikostaturik.*

JASI: Levantar, (fig.) apadrinar. *Ala iten dire [Aitabitxi ta Amabitxia] aide espiritualak jasiarekin,* con el apadrinado, lit. con el levantado. Vid. infra *txasi* y *xaxi.*

JAUNDIAK: Grandes señores (Larramendi). *Bere [Jesusen] erreinuko jaundiak ere dire pobreak.*

JAUNKETA: Berorika. *Zuketan dago katetxima antiguasko euskaras ta orai ere ala mintzatzen diote umeek aita ta amai montañetan; baña guk mintzatuko diogu [Jangoikoari] Jaunketan. Aita bada gurea zeruetan dagona, ori zeruan, gu lurrean, ori andi poderoso, gu apal pobre; ori ona, gu gaixtoak...* (Creo que habla de las palabras del Padrenuestro).

IDURIARAZI: Hacer parecer. *Ongi eldu da emen erratea, finjitzen edo iduriarazten duela trabaju mandamentuan, zeren ezi nik eztakusat trabajurik, eta eztakit nola den ertxi edo mear berorrenganako bidea* (Palabras de Santa Teresa).

IDURIKAL: Con la imaginación, proporcionalmente, por analogía. *...beira izarrak, planetak, ilargia ta iruzkia... Eta direlaik ayek zimenduak bekala ta estakiak Zeru goienaren edo paraisoaren, atra kontua idurikal, nolakoa bide den paraiso gura.*

JENDETZE: Mutitud. *...baña jendetze andiaren casos, eta pobre iduritus, etze izan lekurik.*

IGETZE, IGETZETTO: Pasado, ajado. *...ala nola borrasko zatar igetze erdi ustelak urratzeko aski baita tiraldi gutiago ezi mise finak ta usatugabeak. Sobra emanarazten beren soñari banidadeak eta igetzettoak berere pobreari ematea bear luke egin karidadeak* (Azkue trae *igetzetu,* ajarse, BN).

IGITARLE: Segador (con hoz). *Igitarle batek.*

IKARADURA: Temblor: *Lurraren ikaradurak, pesteak, goseak ta lotsamenturak zerutik.* (Habla del Juicio final).

INBOLOKATU: Enredarse. *Lakio gontan inbolokatzen dire.* (Azkue trae *inbulikatu,* R., llenarse completamente un árbol. Cf. acaso el siguiente).

INBULUZKA: Revolcándose. *...zebila lurrean inbuluzka.*

INDARGUTI: Debilidad. *Flakuria, indargutia.*

INDARRUSTU: Perder las fuerzas. *Jesus ya ezin jasis, ezin joanes indarrusturik ainberce tormentu pasatueki.*

INDARTE: Fortaleza, esfuerzo (Larramendi). *Birtute kardinalak dire laur: prudenzia, justizia, indartea, templanza.*

IRRIKOS: Sonriente. *Sanduak [S. Agustinek] irrikos, maite, bada eztakusazu...?*

IRRINGOLA: Rueda (??). *...ikustearekí an gora zeru gaiek ain ederrak, ilargi ta izar eta espezialki iruzkiaren irringola miragarria, nola dabilan kontino ain orden onean... Nork dabila ain puntual iruzkiaren irringola argi eder gura, argitzeko, alegratzeko ta ongi egiteko guri?*

IRURTASUN: Trinidad. *Trinitate zer nai du erran? Irurtasuna, personetan.*

ITSATU: Cegarse (?). *Maria Jangoikoaren Ama... dirudi kristalesko urna bat daukana bere barnean iruzkiaren irringola. Itsatzen da gure bista ezin beiratus ainberze argitasun.* Azkue trae *itsatu*, G. (Uriarte), juntarse.

ITXEKINDE: Apego. *Kodizia, guzi guzia, biotzaren afizione ta itxekindea ondasun lurrekoetara.*

ITZGAI: Plática. *Itzgaia edo platika.*

JOANKERA: ¿Como *ibillera? ...artarako deabruak injeniatu tuen bideak eta zeboak, modak, musikak, danzak, kantak... joankera, mogimentu, keñu, ...*

JOMUGA: Blanco, terrero (Larramendi). *Beira Jaun guzis poderosoa bere passioan... dena eginik odioen, desprezioen, persekuzioen jomuga bekala. Ona aurtto gau izanen da... jomuga bat bekala, zeñen kontra emanen duten...*

JUANDESALBATORE: (Fiesta de la) Ascensión. *...gure euskaras Juandesalbatore deitzen den egunean.* Azkue dice *Jaun done Salbatore,* del cual será contracción *Juandesalbatore.*

K

KARGUDUN: Autoridad (persona). *Erregeak, Superiore ta kargudun guziak.*

KOLOREGAITZ: De mal color. De aquí KOLOREGAIZTU. *...zoeie Sandua eartus ta koloregaiztus.*

KOMEKADURA: Comunión. *...ekarri ziotelaik komekadura.*

L

LANDARA: Además de (excepto, fuera de, en Azkue). *Emengo bizias landara badela berze bizi bat.*

LANGAI: Trabajo, ocupación. *Zazpigarrena ilak orzitzea. Langai guti da ontas gure leku ta denboran.*

LARRANJEA: Piel, clase de piel. *Lepraren itsusia larranjearen garbi ederrak monstratzen du... eta gauza guziak agertzen dire beren kontrarioen aurkasetik obeki.*

LARRI: Adulto. *...fedea sollik aski delaik aurrendako, baña larriendako ez.*

LEGARAUKIRO: Legalmente, lícitamente (Larramendi). *Ezta izanen koronatua eztena peleatzen legaraukiro. ...utzi zue... komuniatzeko alaber potestadea sazerdote ordenatzen zirenei legaraukiro Elizan.*

LEKUKIDE: Compañero de lugar. *...naiz den [Ama Birjiña] Kriatura lurretik artua gure lekukide eta aide naturalezas.*

LENDANIKAKO: Preventivo. *Zein dire erremediorik obenak? Lendanikakoak.*

LENIJAIO: Primogénito. *Badugu anaia bat leni-jaioa,* primogenitus in multis fratribus.

LESIATU: Inclinado, herido (?). *ezpauzu alakorik [arimaren gose ta gusto... deseo ta afizione... Jesus onagana], baizik lessiaturik bazaude munduko tipula ta farraskerietara... Eri dago gizagendea lesiaturik irur amore gaixtoes, au da, andinaies, gustonaies, ta aisanaies.*

LIGU: Lino. *...ala nola miseak ta liguak kastigatus golpatus lixuatus txuritzen ta edertzen baitire.*

LIXTATU: Alistarse *(listatu,* sentar o escribir en lista, Larramendi). *...mandamentu bat lixtatzeko mundu guzia.*

LIXUATU: Hacer la colada. Vid. *Ligu.*

LOREDI: Jardín. *Angо [zeruko] kanpaderak, amenidadeak, lorediak, fruitadiak.*

LOSTORDITU: Dormido con sueño profundo. *Gizonen umeak, noiz arteo lostorditurik biotza?* Filii hominum, usquequo gravi corde?

LOTARI: en *suge lotari,* áspid (Larramendi). *Aspid edo suge lotaria.*

LOTSAMENTU: Pavor. *...itzuli zirelaik akordura beren lotsamentutik.* (Habla de los soldados que guardaban el sepulcro).

LOTSAMENTURA: Id. *...odol izerdi bateki lotsamentura ta kongojaren utses. ...ezi onen kasos izan zuela asko bisione ta lotsamentura.* (La mujer de Pilato).

LOTSARRITU: Quedarse petrificado de miedo. De aquí LOTSARRIZIO: *Soldado guardiakoak akorritu zirelaik beren lotsarriziotik. ...lotsarriturik ikar ikar.*

M

MAGI: Vaina de la espada. *...erran zio S. Pedrori: itzulazu ezpata goi bere magira.* (En Larramendi *magia).*

MANERATU: Preparar (?). *Doktrina kristioaren kathetxima euskaras... aldiritako apez-aita batek maneratua...* (Título de la obra). En Larramendi *maneatu,* disponer.

MARTXA-LAÑUAK: Nieblas de Marzo (?). *...aisa dezazke banatu alakoen lanak..., ain nola kea, ain nola Martxa-lañuak.*

MEATZA: Mina. *Urre meatza billa zulaturik lur zati bat.*

MENDORTZ: Collado (?). *Iruzki dibinoaren mendortz ederra ta Ama Maria* (Azkue trae *mendotz,* collado, tomado de Añibarro, quien lo da como vizcaíno).

MORTAXARAZI: Hacer amortajar. *...mortaxarazten, orziarazten aliza-lurrean, akonpañatzen ere ilarian.*

N

NASTALARI: Embustero (Larramendi). *...alako kontulari ta nastalariak dire errietan izurriak.*

NASTEKAZALE: Revolucionario (revolvedor). *...ekarri didaze gizon gau jendearen nastekazale bekala.*

NASTEKAZIO: Revuelta, revolución. *Franziako nastekazioaren prinzipioetan... manatzen ziote erran zak Biba Errepublika.*

O

OBIA: *Beti usatzen du [ur bedeikatua] konjurioetan, bedeizioetan, ilarietan, obiaetan ere ta berze asko gauzetan.* ¿No será *obiaeta,* entierro? Azkue trae *obita,* L-ain, funeral.

OBISPOTASUN: Condición de obispo, episcopado. *Eta dei daike Jangoikoaren Ama?* Er. *Daike... naiz ez eman Amak*

Jangoikotasuna, ala nola obispoaren ama, naiz amak eztion eman obispotasuna.

)FRATU: Ofrecer.

)GITU: Hacerse, volverse pan. *...ala nola oranza oreareki ogitzen baitire.*

)RNIMENDU: Provisión (Larramendi, proveeduría). *Nai izan zue alaber seguratu gure biziaren postrea, bukateroa ta akabanza olio sanduaren Sakramentuareki, arma ta ornimendu fuerte ta firmeareki bekala.*

)ROSENDAI: Sánalotodo (Larramendi). *Sanalo todo edo orosendaia da karidadea.*

)RRATXIKIN: Alfiler. *Orratxikin bates, orratxikines.*

)RRATXUSTE: Aguja. *...aisago dela, dio, kamello bat orratxuste batean pasatzea ezi abratsa sarzea zeruetako erreinuan.* Azkue trae *kale,* ojete de la aguja, navarro según Araquistain.

P

PAGAMENTA: Pago. *...alzinatu du pagamenta gure partes.* En Azkue *pagamendu.*

PAKALE: Borde, brocal. *...eta ezpañen pakalera mia guti bat atrarik geldi geldia errezibitu Sakramentua.* Posiblemente errata por *pokale,* que se lee otras veces.

PERLESIATU: Atacado por la perlesía. *...eskatu zio senda zezon bere mutil bat perlesiaturik zeukana goatzean.*

PLATIKARI: Conversador. *S. Luzia lotsarriturik egon bearrean zego agitz platikari Jangoikoaren grazias.*

PLAU: Llano. *Kredoaren, Mandamentuen eta Sakramentuen erabakiera plau, senzill, klaro.*

PRESTUKIRO: Honradamente (Larramendi). *...nai izan baita [Jangoikoa] mendekatu prestukiro guzis.*

PROGAALDI: Rato de probar: *...ala sentitzen zute emen zenbait progaaldi zeruko gustoen.*

PRONTIDADE: Prontitud (?). *...tiro bateki bota duenak bat prontidadean, naiz urriki berla, ila il da.*

PROTXAL: Provechoso. *Ikasi bear dugu bada lenik eskatzea dela preziso ta protxal. Zein protxal den orazio egitea, nork explika?*

PULSALDI: Pulsación. *Pulsaldi ta atsaldi bakotxean.*

S

SAKARIA: Sacador (a la pelota). *Egun bates disponitu ze pilota joku bat palas karrikan... Sakariak sakaturik pilota, errestazaleak tiratu zio bolea...*

SENAR: Marido. *...desposatu zuzte bi persona munduan ziren obenak... S. Josef dela bai Maria Santisimaren esposo, baña ez senar...*

SENTIGARRI: Sensible (Larramendi). *...gorputz birjinale gura baize guzis delikatu sentigarria.*

SIN: Verdadero, sincero. *...lenbizikoa da intenzio sina kunplitzeko.*

SOMIN: Ardor, ganas (?). *Jende fatuo deus gutitakoa, itz bat aitu orduko bereala somiñeki erran naiak... Aitu naiak ta erran naiak dire elkarren anaiak.* Azkue trae *sumin*, del que será variante *somin*, pero no concuerda del todo el significado. Un seminarista mè trajo esta frase de Artazu: *Los axunes dan sumin.*

SOÑARTE: Espalda. *Olio sanduas unjitzea bularra ta soñartea*, inter scapulas.

SORGINDERI (A): Brujería. En Azkue *sorginkeri (a).*

SUALE: Botón de fuego. *S. Franziskori ematerakoan sualeak begietan. ...bada etzue sentitu surik ta deus, bai iduritu zegola glorian.* En Azkue *ale*, botón.

SUGARRASTA: Serpiente (Larramendi). *Mi gaixtoa sugarrasta bat betea beneno mortales.*

SUTILLETE: Tizón. *Alakoak dire deabruaren auspoak, infernuko sutilleteak.*

T

TENTABIDE: Ocasión de tentación. *...kentzea tentabideak dela obena edozeñek daki.*

TIRRIKATU: Excitar el deseo (?). *Tentazioa da tirrikatzea, inzitatzea, bulkatzea gaizkira.* En Azkue *tirria*, inclinación.

TRAILLATU: Trillar (Larramendi). *Kontrizio, itz gau da latineskoa, signifikatzen du traillatzea, mastrikatzea edo prensatzea biotza.*

TRAPOTS: Ruido de pisadas (*trap, trap, trap otsa*). *Ya senti ze eldu zirenen arroitua: senti ze ya oñen trapotsa.*

TRIPOSKERIA: Gula. *Ainberze triposkeria ta ordikeria ta aïn guti penitenzia.*

TX

TXASI: Levantar, sostener (Vid. *jasi*, supra). *...añaditua desayuno ta kolazioa [baruari] ala nola muleta batzuk txasteko baru eri miserablea. Merkatari abrats limosnagille andi batek eman balio okin bati ogei milla otxin, emateko onek ogi txasala pobre guziei... Ogi gau..., da erosirik edo doaiik? Doaik eta erosirik. Txasala* será *txas* (*i*) *ala*, todo lo que puedan llevar.

TXATXAKATU: Aplastar. *...ark txatxakatuko dik iri buru oi*, conteret caput.

TXINTXA: Ruido. ruido pequeño. *...ezta sentitzen txintxaik ere.*

U

UGAINDE: Inundación (Larramendi). *Adanen bekatutik eldu da passione, bizio ta bekatuen ugaindea.*

UKIMENTU: Tacto. *Gorputzaren sentidoak dire borz: Adimentua, bista, usma, gustoa ta ukimentua.*

URRINTZU: Maloliente. *Bada eztu utziko trukatzera Jangoikoa ain merke gorputzen onzi urrintzu geben amores.*

X

XAKINDE: Sabiduría, ciencia (Larramendi *jakindea*). *...agerzeko munduari Jangoikoaren xakindea.*

XARRETXI: Menospreciar. *Alfer da nekatzea xarretxi naies gure entendamentuas Ama Birjinaren grazien abantalla.* Como *txar-etsi.*

XAXI: Levantado, apadrinado. (Vid. supra, *jasi* y *txasi*). *Aitabitxi ta amabitxiak... atra zire fiadore xaxiaren.*

Z

ZALE: Afición, apetito (Larramendi). *Luxuria edo loikeria da gorputz miserablearen passione loizuetarako zalea.*

ZEARKIRO: Indirectamente, oblicuamente (Larramendi). *Eskandalo edo galbide indirektoa da, ez berariaz tentarazi naies, bai zearkiro ematen dena.*

B. Fagoaga.

ALGUNAS CONSIDERACIONES SOBRE EL PREFIJO *LA* EN LOS TOPONIMOS

Hace algunos años, cuando visité por vez primera el Pirineo navarro, entre la cartografía que me proporcioné para dicha excursión atrajeron mi atención algunos topónimos que poseían el prefijo *la*, que en unos sitios aparecía como artículo "la" del castellano; sobre todo en el nombre que en un plano aparecía como *La Herrería* y en otros *Larrerria* o *Larreria*. Con significado dispar en castellano y euskera.

Lógicamente, era muy comprensible el caso de *La Herrería:* tratábase de un *lapsus linguae* de algún cartógrafo que desconocía nuestro idioma. Pero, para los que no encontraba explicación era para aquellos topónimos, tales como *La Carchela, Lacora, Lapazarra, La Solana* y otros análogos; a veces con "la" separada y otras unida al sustantivo. Y desde entonces presté atención, en mis jiras montañeras, a los nombres precedidos por el componente *la*, hasta reunir el material suficiente que me permitiera sentar una base sobre su procedencia.

Como mi labor no perseguía ningún fin de exteriorizar las conclusiones a las que había de llegar, sino más bien era para mi propia satisfacción, no se me ocurrió dar a la publicidad, y hubieran permanecido en la oscuridad a no ser por el trabajo "Toponimia de Ezcaray" de Santiago Arregui, publicado en EUSKERA, tomo III, pág. 83, 1958.

En este interesante estudio toponímico, su autor se ha encontrado con la misma sorpresa que yo antaño, y he aquí algunos de sus párrafos alusivos al prefijo *la:*

"Observo que el artículo castellano *la* acompaña con frecuencia a muchas palabras vascas y las modifica mucho.

No encuentro con claridad niniguna hondonada, profundidad ni hoya. *La Hoya* son cimas.

Así existen otras formas, como *La Cutia*, que podría ser interpretada como *Lacutia*. *La Cuturria* como *Lacuturria* y pudiera tenerse como *Lucuturria*. He puesto así en el plano, ya que al otro lado del *Monte Mayor* tengo puesto *Cuturria*.

También me hace dudar si es *Zagorria* o *Lazagorria*; *Arroza* o *Larroza*; *Acha* o *Lacha*; *Barria* o *Labarria*.

Aunque tenía puesto en el plano *Lamina*, pienso que tiene que ser *La Mina*, palabra castellana, porque hay señales de minas, según recientes informes.

Hay palabras que no son de dudar, como *La Zalaya*, que es *Zalaya*; *La Aranzadia*, que es *Aranzadia*; *La Rubiartia*, otros dicen *La Arrubiartia*, es sin duda *Arrubiartia*".

Como por otra parte desconozco si alguien anteriormente se haya ocupado del aludido fenómeno y, por otra, ha dado lugar a suscitar dudas a un investigador, estimo conveniente el hacer una exposición aclaratoria del mismo.

En primer lugar, he de advertir que los topónimos que contienen el prefijo *la*, sin que entre ninguna otra consonante a formar sílaba, tales como *lar*, *las*, *laz*, etc., o asimismo le suceda la *r* a formar una sílaba contigua, se encuentran, principalmente, en territorios que antes se habló la lengua vasca y rara vez donde se sigue hablando.

La abundancia de dichos prefijos es tal, que ni en el corazón de las dos Castillas los podríamos localizar con análoga copiosidad.

Harto sabido es que entre los que perdieron el idioma vasco, así como entre los que no lo poseen, hay cantidad de sonidos difíciles de pronunciar y hasta impronunciables: *tza*, *dza*, *tta* y *xa*, principalmente. Así como en otros casos se observa la pérdida de la *e* protética; por cuya dificultad, los no euskaldunes, han transformado los apellidos como *Erroteta* a *Roteta*, *Errekalde* a *Recalde*, entre otros muchos. Y otros casos conocidos que no merecen numerarse y algunos que aún no se habrán estudiado.

Este debe ser el caso del prefijo *la* que, sin lugar a dudas, debe derivarse de la raíz *lar* "zarza" en algunos casos, pero más bien *larre* o *larra* "pastizal o dehesa", y que fué desfigurada por su dificultad de pronunciarla en castellano.

Una vez que la sílaba *lar* quedara desplazada a otro idioma, por esas razones de dificultad de pronunciación, debió

de perder la *r* para quedar en *la*, que lógicamente no halló sentido en castellano y con frecuencia había de confundirse con el artículo *la*.

El caso es que, en los lugares a los que he llegado personalmente, he podido comprobar que la orografía del terreno, siempre o casi siempre, concuerda con la denominación vasca de *larre* o *larra*. Y por añadidura, casi nunca se encuentra un nombre solo, sino que éstos se suceden en sus inmediaciones y, por lo general, encontraremos en las proximidades los dos casos de *lar* y *la*. Así he podido observar en las zonas que he visitado, y, aunque no todos, citaré los casos más sobresalientes.

Comenzaremos por el Pirineo navarro o roncalés.

En las regiones montañosas circundantes al valle de Belagua (Isaba), que seguramente será donde más abunda el fenómeno que tratamos, se localizan los siguientes: *La Carchela*, monte de 1.969 metros de altitud, en algunos relatos montañeros he leído *Lacarchela*; *Lacora*, cumbre rodeada de pastizales, a veces he leído *La Cora*; *Lacherito*, pastizal alto al sudeste del monte *Petrechema*, en las vertientes que dan hacia el valle de Ansó; *Lapaquiza de Linzola*, monte de 2.100 metros de altitud al noreste de *Macelarra*, en cuyas vertientes se hallan los pastizales más importantes del valle de Belagua y se conocen por *Lapaquiza*; *Lapatia*, collado entre *Larrondoa* y *La Carchela* y regato del mismo nombre que nace en sus proximidades, en este caso pudiera derivar de *las* "arroyo"; *Lapazarra*, monte al sur de *Larra*, muy próximo a *Larreria*; *La Solana*, hayada muy extensa y con pastos a unos 1.700 metros de altitud; *Latourelle*, cumbre en la vertiente francesa; *tourelle* más parece responder a torreón en francés, pero en sus proximidades se encuentran el refugio de *Laberouat* y el regato *Lanorque*, que son igualmente zonas de pastos; *Latras*, cumbre a 1.944 metros de altitud, al extremo este de *Larra*, etc.

En las proximidades e intercalados entre los aludidos topónimos con prefijo *la*, localizaremos otros que no necesitan de explicación para saber que se trata de lugares de pasturaje; tales son, por ejemplo: *Larra*, *Larreria* o *Larrerria* (collado a la parte sur de *Larra*, a 1.643 metros de altitud y que en el primer plano editado por el Club Deportivo de Navarra figuraba como *La Herrería*, y que ningún sentido tiene a tales altitudes entre pastizales rodeados de peñas que hubiese alguna

herrería (1), no cabe lugar a dudas de que es un error de interpretación ocasionado por individuos que desconocen nuestra Lengua); *Larrondoa,* cumbre de 1.703 metros de altitud, al sur del collado de *Lapatia.* Al norte del Pirineo navarro, al pie mismo de las montañas, encontramos la típica aldea suletina de *Larrau.*

Aunque no con tanta abundancia, formas similares localizaremos también en el Pirineo aragonés, pero por ahora no los daré a conocer, por no extenderme en exceso con el presente trabajo.

Si nos trasladásemos al sur de Alava, a lo que se conoce por la Rioja alavesa y sus inmediaciones, volveríamos a encontrar análogas coincidencias; por ejemplo: *Labastida, Labraza* (¿derivado de *Larbasa?), Lacorzana* (cerca de Miranda de Ebro), *Lagrán* (¿no sería *Largan*?), *Laguardia, Lanciego,* etc. (2). El puerto de *La Herrería* o *Herrería,* entre Peñacerrada y Laguardia, que bien pudiera proceder de *Larrerra,* como en el caso del collado de *Larrerria* del Pirineo navarro.

Son demasiados casos para ser fortuitos. Además, no muy lejos del mediodía alavés, en territorio navarro, se encuentran los lugares de *Larraona, Peñas de Larraiza, Lazagurria* (aunque tal vez pueda venir de *lats* o *las* "arroyo"; o *latz* o *laz* "áspero"), *Lapoblación* (aunque lo más seguro haya sido *La Población*), *Larrión* y *Larraga*; más *Lardero,* a cuatro kilómetros al sur de Logroño.

Tenemos otro *Labastide* en Laburdi, y asimismo el monte fronterizo *Larrun,* al que los franceses denominan *La Rhune,* y no muy lejos de él, más al este, en la misma muga y sobre las poblaciones de Labastide y Errazu, se alzan las cumbres de *Laordenakokaskoa* y *Latxipi.*

Pero vayamos al caso de los sinónimos de la Rioja Alta, donde se asientan las poblaciones de Ezcaray, Ojacastro, Santurde, Santurdejo, Valgañón y Zorraquín. De donde existen testimonios de haber hablado euskera por lo menos hasta el siglo XIII o XIV.

---

(1) Según Luis Michelena, **-erri** es la forma antigua de algo así como «tierras, sembradío o planicie»: **liguerri** en Salazar, **ñierri** en Roncal. Y de ahí proceden las formas castellanas de **linar, pedregal,** etc.

(2) Según opinión de nuestro renombrado filólogo Luis Michelena, en nombres de ciudades como **Labastida, Labastide** (probablemente de **bastión**), **Laguardia,** etc., debe tratarse del artículo «la» del castellano.

Excepto la "Historia de la Legislación", de Marichalar y Manrique, es José Bautista Merino y Urrutia quien dió las primeras y más profundas noticias sobre aquella región, bajo el título de "El vascuence en el Valle de Ojacastro", publicado en el Boletín de la Sociedad Geográfica Nacional, tomo LXXI, pág. 254, y tomo LXXII, pág. 451. Madrid, años de 1931 y 1932.

El señor Merino y Urrutia recoge en sus páginas un hecho la mar de curioso. Un alcalde de Ojacastro, al que según los documentos podríamos considerarle como el primer defensor del euskera. El hecho debió ocurrir a principios del siglo XIII; transcribe la noticia que, a su vez, la recogió de la "Historia de la Legislación" de Marichalar y Manrique, tomo II, pág. 273. La noticia en cuestión, es la siguiente:

"*De una fazanya de Don Morial Merino Mayor, et del Alcalle de Oia-Castro.* Esto es por fazanya que el Alcalle de Oia-Castro mandó prendar D. Morial que ere Merino de Castiella, porque juzgara que el ome de Oia-Castro si le demandase ome de fuera de la Villa o de la Villa que el recudiese en Bascuence. Et de si sopo Don Morial en verdad, que tal fuero habían los de Oia-Castro, e mandol dexar e dexaronle luego, e que juzgase su fuero".

A la vista de estas y otras pruebas, el señor Merino y Urrutia hace las siguientes declaraciones: "...demostrado documentalmente que en la Villa de Ojacastro se hablaba aún el vascuence en la primera mitad del siglo XIII, ya que sus habitantes tenían el fuero de prestar sus declaraciones en esa lengua. Y si en la citada Villa, cabeza del Valle en la Edad Media, imperaba el vascuence, lógico es pensar que en sus demás pueblos ocurría lo propio, cuando por otro lado la toponimia también lo atestigua, como después veremos. Y no es de creer que el vascuence se perdiese a continuación, sino que perdurara hasta el siglo XVI, por lo menos, época relativamente próxima".

En mis tres visitas a aquella región de la Rioja Alta, he podido comprobar que, al igual que en el Pirineo navarro, los topónimos que poseen el prefijo *la* o *lar* concuerdan en configuraciones de terrenos donde ubican dehesas o pastizales. Lo cual nada tiene de extraño en una región como aquélla que casi con exclusividad se dedica a la ganadería y arbolado.

De ahí la extrañeza del señor Arregui de que los lugares denominados *La Hoya* sean cimas y no hondonadas. Fácil se advierte de que esa *la* casi nunca responde al artículo castellano, sino más bien forma prefijo en los diversos sustantivos.

De ese modo, *La Hoya* podría ser derivado de *Larroya*, de *larre* "pastizal" y *oya* u *oyan* "selva o bosque". Del mismo caso que Ojacastro, cuya primera etimología deriva de *oya* u *oyan*, al igual que el río que nace en la comarca de Ezcaray, río *Oja*, y que dió el nombre de *Rioja* a toda la provincia comprendida por Logroño. Además, en Ezcaray encontraremos otro topónimo *Oia* que procede de la misma raíz.

El nombre *Larroza*, que cita Arregui, no es otra cosa que "pastizal frío".

Lamina, que Arregui cree ser *La Mina*, aunque menos seguro, puede proceder del numen mítico *Lamia* o *Lamiña*, puesto que es muy frecuente en nuestra toponimia encontrar otros parecidos; por ejemplo: *Lamiako*, *Lamiategui*, *Lamindanao*, *Lamin-zulo*, etc. Estudiados por José Miguel de Barandiarán en "Eusko-Folklore" (Materiales y Cuestionarios), MUNIBE, tomo VIII, pág. 158. Aunque por mi parte, aun suponiendo que es mucho aventurar, más me inclino a creer que proceda de *Larmia*, puesto que en euskera *mina* es *mía*, y al mismo tiempo coincide con "escaso" o "sutil", y en cualquiera de ellos se le encuentran raíces vascas. Lo que es, nada tendría de extraño que en toponimia vasca se encontrase *Lamina*, *Larmina* o *Lasmina*. Por ejemplo, el apellido *Lacuesta* no es sino *Lascueta*, pero ninguna forma encontraríamos a *La Mina*, y si como dice el mismo Arregui, que dicho topónimo se encuentra como *Lamina*, sería su razón de ser como palabra euskérica. Para aclarar habría que comprobar si han existido minas en aquel lugar.

Por no extenderme demasiado, y basta que no conozco suficientemente la orografía de la Rioja Alta, me limitaré a transcribir, en primer lugar, los sinónimos publicados en las relaciones toponímicas de José Bautista Marino y Urrutia y Santiago Arregui, y a continuación los que he recopilado del mapa al 1:50.000 del Instituto Geográfico y Catastral, de forma que el lector, después de estas consideraciones mías, pueda juzgar en consecuencia.

En Ezcaray: *Labarda*, *Labarena*, *Labarria*, *Lacha*, *Lagunzana*, *Lai*, *Lambarrena*, *Lambarzena*, *Lamberza*, *Lamina*, *Lamoriana*, *Lanituria*, *Laparcia*, *Larcia*, *Largucha*, *Larinzala*, *Larraura*, *Larrinzala*, *Larrizabala*, *Larroza*, *Lastra*, *Laucilla*, *Laurcia*, *Lazagorria*, *Lazagoria*.

En Ojacastro: *Labarena*, *Laconturria*, *Lambarena*, *Lamizcarra*, *Lampisorna*, *Larrizabala*, *Laurcia*, *Lazarrazabala*.

En Santurdejo: *Larta*.

En Valgañón: *Laurena*.

En Zorraquín: *Langórina*.

A la vista de las pruebas, fácil se puede deducir que, aunque no todos, por lo menos la inmensa mayoría de los prefijos proceden de la raíz *lar.*

Si echamos una ojeada en los términos colindantes a Ezcaray en las hojas números 202 y 240 del mapa al 1:50.000 del Instituto Geográfico y Catastral, que corresponden a las zonas de Santo Domingo de la Calzada y Ezcaray, respectivamente, se encuentran otros topónimos con el prefijo *la,* que en muchos casos responde al artículo castellano, pero en otros, sin lugar a dudas, se emparentan con el *larre* o l*asa* euskéricos. En Valgañón: *Arroyo de Lanuza, La Tejera* (en Cañas se encuentra otro *La Teja,* y en Belagua (Isaba-Navarra) *Bordas de Tejería);* en Pazuengos: *La Fonfría* (indudablemente de "fuente fría"), *La Pieza;* en Manzanares de Rioja: *La Retuerta,* cota a 1.144 metros de altitud, muy próximo a la cota de *Mendirasque,* de 1.141, que hace muga entre Manzanares de Rioja y Santurdejo; en Santurdejo: *La Riberilla* (no citado por Merino y Urrutia); en San Millán de la Cogolla (3): *La Cereceda*; en Villarejo: *La Horca,* cota a 859 metros; en Santo Domingo de la Calzada: en las vertientes del monte Matacón, *Laguna,* en cuyo lugar no existe ninguna laguna; en Ventrosa: *La Barbageda, La Retuerce* y collado de *Ferrerías*; *La Hoya* es también una cumbre de 2.045 metros de altitud que hace de divisoria entre los términos de Anguiano y Villavelayo; radicados en términos de Mansilla y Villavelayo, se encuentran: *Lagunillas,* cumbre de 1.566 metros de altura, y en sus proximidades, al este, la fuente de *La Croz, La Muñeca, La Era, La Campana* y *La Duruela.* Y en los pueblos colindantes que pertenecen a la provincia de Burgos, en Fresneda de la Sierra de Tirón: *Larrea,* portillo en sus límites con Valgañón, otro *Lanuza* y, además, *Lagunitas* en la vertiente norte del monte *Zarzabala* de 1.902 metros; en Barbadillo: *Las Rasadas,* en cuyas proximidades se encuentra también *La Basardia.*

Como el lector podrá observar, en los mapas del I. G. y C., casi siempre se encuentra "la" separada, por razones de querer atender al artículo castellano, puesto que los topógrafos que recopilaron los nombres considerarían lo más lógico.

En el mismo término de Ezcaray se encuentran algunos topónimos de esta clase, no citados por Merino y Urrutia y Arregui. Tales son: *La Rasilla,* cota a 1.872 metros de altitud;

---

(3) El mismo **La Cogolla,** ¿no procederá de **Larkogoya?** Sería lo más probable.

La Repularia, en las proximidades de *Larrizabala; La Puerca,* cota a 1.515 metros, y *Puente de La Herrería,* en el barrio de Posadas.

Sería muy interesante hacer una descripción detallada del lugar de cada topónimo, con objeto de clasificar los nombres que responden a terrenos de pasturaje. También los documentos antiguos aportarían alguna luz, y en Ezcaray y Ojacastro no han de faltar estos documentos. En el Pirineo navarro, los prefijos *la* están enclavados en pastizales y además entremezclados con otros nombres que aun hoy empiezan con *lar;* y lo más seguro es que coincidan en lo mismo los nombres de lugares de la Rioja Alta.

Juan San Martín.

LOS NOMBRES VASCOS DE LOS DIAS DE LA SEMANA

Los vascos, anteriormente a la repartición del mes en semanas de siete días, poseyeron quizá otros ciclos lunares: uno mayor *aste-igande-zarbarriarte* cada 14 ó 15 días, a comenzar del novilunio *(aste)* hasta el plenilunio *(igande)* y de aquí hasta la nueva luna siguiente *(zar-barri arte).* Si hubo otro ciclo menor de tres días, una *ebdomada triduana* de que habla San Agustín y conocemos por la Etnografía, no está claro.

Lo cierto es que a la semana *(septimana* o *ebdomada)* de siete días, tomada a los romanos —como éstos a los orientales— llamaron *aste,* por comenzar el mes por la inspección de la luna nueva o novilunio en el cielo de la tarde, de donde también —como en otros pueblos— el comienzo del día —de 24 horas o ciclo de noche a noche— a la puesta del sol *(gau-egun).*

Los romanos a los días de la semana impusieron los nombres latinos de los planetas —como los orientales en su lengua—, así: *domingo* era "día del sol", y sucesivamente, de la *luna,* de *Mercurio,* de *Jove* o *Júpiter,* de *Venus* y de *Saturno.*

Los vascos paganos adoptaron estas denominaciones tal cual o traduciéndolas así: *Illen* "de la luna", *Martitzen* "de Marte", *Eguen* "de Jove" o "del cielo, del día (claro)" del sistema occidental vasco, o sea, el vardulo-autrigon donde, como en *Iberia,* no se añadía al nombre del planeta el determinante *día;* en cambio, en el sistema del vasco oriental o vascón, tenemos *Ostegun,* traducción de *Iovis dies* "días de Júpiter", como en los sistemas galos e itálicos; p. e., *lun-di* en francés, *lune-di* en italiano. El grupo vascón participó también, por su conti-

güedad con la Galia, de otras influencias etnográficas y lingüísticas que en otra ocasión se han de exponer.

Esta uniformidad latino-pagana sufrió la interferencia cristiana, que obró en dos sentidos, dando origen a los dos sistemas de semana vasca, repartidos según esa división territorial indicada que también coincide con la polarización dialectal, cualquiera que sea su origen, y que ahora no nos toca explicar.

A) SISTEMA OCCIDENTAL

DOMINGO	*Domeka.*
LUNES	*Illen.*
MARTES	*Martitzen.*
MIERCOLES	*Eguazten.*
JUEVES	*Eguen.*
VIERNES	*Bariku.*
SABADO	*Zapatu.*

En el Erizkizundi de la Academia de la Lengua Vasca pueden verse otras variantes y su repartición.

En el fondo, tales denominaciones o sistema responden al preconizado por el Papa San Silvestre, gran organizador de los tiempos de la Paz constantiniana, que aconsejó la siguiente terminología:

Domingo.
Feria II.
Feria III.
Feria IV.
Feria VI.
Sábado.

Los portugueses conservan mejor que otro pueblo estas denominaciones netamente eclesiásticas, sea que las tomaran desde entonces o mejor en los tiempos de Profuturo de Braga, que pedía a Roma los usos litúrgicos.

En los vascos occidentales —y resto— penetró la clasificación de las *ferias*, solamente el *domingo* y *sábado*, desde entonces o quizá más exactamente de tiempos anteriores a San Silvestre.

El *sábado*, como se sabe, de origen judío, era el fin de semana, el día de fiesta, pero los cristianos poco a poco, por no "judaizar", trasladaron la festividad, aunque no abando-

naron la denominación tradicional del *sábado*, al día siguiente o *domingo*, día de la Resurrección del Señor.

Sábado es, pues, *zapatu* según la fonética, que conserva bien el carácter latino fosilizado, menos evolucionado que el románico; p. e., *sábado* castellano, por razones conocidas en que el latín de los vascos quedó aislado a la invasión de los bárbaros.

Domingo es *domeka* —*Domenka* en Onomástica— y reproduce la forma femenina (existió también en la forma masculina *Dominicus dies)* popular, ya disimilada en el vocalismo, como vemos igualmente en el italiano *domenica.*

En los siglos medios aparece en la onomástica navarra sobre todo el nombre personal de *Dominiku* (Domingo), sin duda por los nacidos o bautizados en ese día, como Pascual y Epifanio o Aparicio porque se bautizaban en Pascua y en el día de Reyes.

En la semana occidental no figuran las ferias, según deseos de San Silvestre, pero existen otros dos nombres, el del *miércoles* y *viernes*, de sabor arcaico cristiano. El arraigo popular de los días planetarios fué difícil de abandonarlo, a pesar de los escritores anteriores a San Silvestre, como Tertuliano. El mismo Tertuliano, en obras que dirige a los paganos, habla del *día* del *sol*, y cuando trata de cristianos emplea día del Señor o *dominico*. Ya en Elvira, más cerca de nosotros, tenemos el empleo de *dominico* también, por el tiempo de San Silvestre. En cambio, en los anglosajones tardíamente cristianizados, se conservan los nombres de *Saturday, Sunday* paganos, mientras que en los germanos evangelizados por Ulfilas, arriano, siquiera el nombre del *sábado* no es el pagano de *Saturno*, sino el *sábado* en su forma griega *sambato.*

Como decimos, los vascos occidentales habían adoptado para el miércoles y viernes —días especialmente destinados al ayuno en recuerdo del día de la decisión del Sanedrín y de la muerte del Señor— otras denominaciones.

Miércoles es *eguazten*, o sea, "día de *estación*" *(stationem)*, que lo vemos empleado en las Actas de San Fructuoso, obispo de Tarragona, nuestra metrópoli provincial, tanto para el *miércoles* como pala el *viernes*. El *viernes* quedó siempre como día más especialmente de *ayuno*. Así *bariku, bariaku* (¿de BARAUKI?), parece estar relacionado con *barau* "ayuno", o sea, "refección tardía, de la tarde", cf. *bera, berandu.*

En resumen, junto a *illen, martitzen* y *eguen* "lunes, martes y jueves", tenemos de una parte *zapatu* y *domeka* "sábado

y domingo", siempre unidos en los oficios litúrgicos de la Misa y Vísperas, como de otra parte *eguazten* y *bariku* "miércoles y viernes", igualmente hermanados con ocasión del ayuno eclesiástico.

En alguna zona del dialecto occidental existe para *viernes* el nombre de *egubakoitz*, que en zonas del oriental se aplica al *sábado*. Lo veremos luego.

B) SISTEMA ORIENTAL

En este sistema, el primer día de la semana no es ya el *domingo*, sino el *lunes*. *Aste-len* "primero de la semana" seguido de *aste-arte* y *aste-azken* "intermedio de semana" y "fin de semana", aplicados respectivamente al *martes* y *miércoles*.

El resto de los días son también más o menos profanos, así *ostegun* "jueves" es traducción de *iovis dies*. *Ostirala/ostilare* y otras variantes son también acomodación de *viernes* o *veneris dies* "la estrella por excelencia o lucero matutino y vespertino", de donde con el elemento indígena que vemos en *ostegun*, o sea, *os, ost* "cielo" se interfiere el latino *stella* o *stellare*, para dar las formas citadas de *ostirala* y *ostilare*.

Sábado, asimismo, es nombre profano y adaptación del *Saturno* pagano, cuyo símbolo es el "plomo", *berun o beraun* en vasco, del latín *plumbum*, y productor de humores "saturninos", o sea, tristes, melancólicos (cf. *Sotorroin* de *Saturnino)* que se refleja en el nombre del *sábado* llamado *larunbat* y otras variantes, cf. *larunba* "melancólico", literalmente "plomizo", donde parece ha interferido la forma *sambati* —como en francés *same-di*— griega que veíamos en el alemán gótico, o sea, *sams-tag* —ant. alt. al. *sambaztac*—.

Así, pues, el sistema oriental, a pesar de las denominaciones al parecer profanas, encierra sin embargo esencia cristiana quizá tan antigua como el otro sistema en algunos puntos; p. e., el señalado de comenzar la semana más antigua en *lunes*, como sospecha Jungmann. También tiene la curiosidad de tener los tres primeros días como si fueran índice de una semana de tres días, ya mentada.

Pero, sobre todo, el nombre para el domingo revela la cepa cristiana.

Es sabido que en Jerusalén la *Semana Santa* revestía esplendor inusitado para las ceremonias conmemorativas de las escenas de la Pasión del Señor, y donde día tras día se recordaban al pueblo. Según el testimonio de Eteria, la monja ga-

llega que la visitó y reseñó, la llamaban *Semana Mayor* —como hoy también en el rito romano *Ebdomada Maior* y que el dialecto occidental ha traducido por *Aste Guren*—, se llamaba también *Semana Santa* especialmente y en Milán y en el rito galicano influenciado de Oriente *auténtica* o *semana* por excelencia, la semana modelo, que acababa con la celebración de la *Pascua* en el domingo de Resurrección, ya desde Nicea, pero que anteriormente este nombre de *Pascua* se aplicaba al *Viernes Santo* y podía celebrarse como los judíos aun en días entre semana.

Es sabido cómo la *Pascua* o *Phaseh significa* "tránsito, paso" en memoria del ángel exterminador que en una noche mató a los primogénitos de Egipto, como recuerda la historia hebrea. Los cristianos antiguos debieron traducir este "paso" (cf. sufrir, pasarlas malas, etc., en dichos populares) por *Passio, Passus*. Ahora bien, en el calendario indígena vascón existía de antiguo la fiesta del plenilunio, como en plenilunio también los hebreos su pascua, llamada en vasco *igande* "la subida" en contraposición a *aste* "el comienzo o novilunio", según indicábamos ya más arriba, y Estrabón testifica ello en un texto ya muy conocido, cómo los celtíberos y sus vecinos (los vascones) celebraban de noche en el plenilunio la fiesta de la luna.

Pero es curioso también el detalle de que en vasco asimismo *igan* (forma oriental, mientras en occidental es *igon)* significa "paso, sufrimiento", como el latín "passus" y "passio". Hubo, pues, una acomodación normal del calendario vascón primitivo al calendario cristiano fundado en la celebración de la Pascua judía con el curso de la luna en el mismo plenilunio.

En resumen, la semana vascona, si bien no posee el encanto de la semana várdulo-autrigona, donde vemos las diversas influencias romano-paganas y cristianas populares, posee sin embargo una esencia venerable igualmente.

Hemos dejado para el final las denominaciones de *egubakoitz* y otras variantes, o sea, "día simple, día único" aplicado en dialecto occidental al viernes y en el oriental al sábado en zonas restringidas de los mismos, pero interesantes bajo el punto de vista tanto histórico como lingüístico.

Proviene sencillamente que el *sábado*, junto con el *miércoles* y *viernes*, se practicaba en algunas iglesias el *ayuno*, y en España el Concilio de Elvira lo prescribió regularmente con ciertas condiciones. Así, pues, *viernes* y *sábado* se "superponían", se prolongaba el ayuno, era considerado como uno.

Otro nombre del *sábado* en el dialecto suletino es el de *neskanegun* "día de las doncèllas" al parecer. Se han dado varias interpretaciones de designación tan curiosa. Creo se debe a elegir el *sábado* ya tardíamente como día especialmente consagrado a la Santísima Virgen y celebrarse los matrimonios de las muchachas jóvenes en tal día, mientras que el *martes* (otros días también según la etnografía) eran destinados al matrimonio de las *neskazarras* y viudas.

Así, creo haber contribuído con las anteriores notas a descifrar un poco el misterio que encierran los nombres vascos de los días de la semana.

Juan Gorostiaga.

EUSKALZALEEN BILTZARRA

Bilbon, 1958, Abenduaren 13 eta 14-an

Bilbon 1958, abenduaren 13 goizean Diputazioaren Bibliotekan asi ziran Euskaltzaindiak antolatutako itzaldiok. Goizeko ll-etan eman zitzaion asiera. Maipuruan zeuden: Severo de Altube, Nazario de Oleaga, Juan Gorostiaga, Aita Luis Villasante, Aita Mugica, Aita Onaindia, Jaureguibery andrea, eta Irigoyen sekretario bezala. Geroago agertu zan Luis Michelena. Gero Arruza ere izan zan. Lendabizi Irigoyen-ek egin zien agurra ta ongi etorria batzarkide guziai:

Gorostiaga jaunari ematen zaio itza.

Egun on jaun andrak:

Nire lenengo berbak agur egiteko dira. Agur maipuruan dagozan jauneri, agur etorri zarien guztiori, agur ezin etorri izanik agurra eta lanen bat bialdu deuskueneri, eta eskerrak Bizkaiko Diputaziñoari eta biblioteka onetako zuzendariari laguntasun benetako onegaitik. Eskerrik asko.

Orain urte bi Arantzazu-n izan genduzan batzar bizi eta eragille areik gogoan arturik Euskaltzaindiak barriro be egitea erabagi dau euskal estudioen onerako izango direalakoan eta euskal soloa geroago eta argi andiagoagaz landuteko balioko dabelakoan. Eta orretarako Bilbo uri andi au aukeratu dau, espirituko gaietan abiada andi baten bearrean dagoen uri andi au. Apurtxo bat berandu, ia neguaren biotzean gertau dira, baiña alan da guztiz be uste dot gure zaletasun sendo, gogor, eta beroarentzat eztala oraindiño naikoa otzegi.

Gaia, lexikografia, lexikologia eta literatura mueten legerik nagusienak imini da, gaur eguneko gai bizia eta argitu bearrekoa. Arantzazun be urten eban gai onek zelanbait, baiña orduan ezan erabagirik artu. An, egokierea egoan guztietan gaiak euskeraz erabilteko eskatu zan, geroago Euskaltzaindiak bear direan erabagiak artu aal izan eizan itzen kontuan. Urte bi igaro dira ordutik ona eta badirudi zerbait argitu bearra

dagoela. Asko ta asko zimentarri batzuen begira daukaguz trankil asko bide bat artzeko. Euskaltzaindiak egiñik baleuko sekula egin bako euskal iztegia an egongo litzakez dotoretzat eta erabilgarritzat artutako berba guztiak bakotxa bere esangura zeatzakaz. Ori eztagoen ezkero ez ete da komeni zimentarri batzuk imintea, nozbait euskal iztegi ori egingo balitz zelango arrazoiak egongo litzakezan itzak an sartzeko edo ez sartzeko esanik? Gai ori Mitxelena jaunak artu dau zuzenean bere lepoan, gure artean arazo orretan gizonik argiena dogunak, eta euskalduntasunari Euskalerritik kanpo be ohore andia egiten deutsanak ezeren duda barik.

Batzar oneitan, itzaldi bakotxaren ostean, eskatuten dauen guztiari berbea emongo jako izlariari itaunak egin deiozan eta arek erantzun deion argitasunak emonik. Eta norbaitek zer esanik baleuko gaiari ez jagokona ,imiiniko da aldi berezi bat esan bear guztiak adierazo daizan.

Ia bada, emendik, guztion artean etorkizunerako argibiderik agertuten dan, jokabide sendo bat, zimentarri benetako bat, gauza utsetan bat ezpagatoz bere.

Olan izan bedi.

A. Irigoyen.

S1187.-

EUSKERA BAT EDO UNIFICACION DEL EUSKERA

Adiskide eta gogaide:

Gure euskera, euskaldun guztientzat edo beiñik-bein euskal-idazle guztientzat bat-bat egitea, gai onek ekarten deustazan gogoetak orain zuen aurrean, zuen oneritziz laburzki azalduko dodaz.

Auzi onetan, iñori etxako, etzaio iñori beartzen bere aburua utzi eta nireagaz bat mun egin daien.

Idorra litzake jakinduria, erriak ere ez luke gauza andirik irabaziko, usteak eta eztabaidak, bata bestearen aurrean, ollar-

txuak bezela, jarrai ezin ez-bageinkez... gure artean, oñaztar eta ganboarren semeen artean.

Au da gure min andia: euskera bat ez da, alde andia da, ez lurrez, izkeraz baizik, Zubero eta Bizkai artean.

Baztar zabalak ez ditu Euskalerriak, baña bai bi... zortzi... euskalki bere barruan erdi-lo bizirik.

Era onetan ez dago euskaldunen artean ez batasunik ez alkartasunik, ez...

Alan da guzti, euskal-idazleak, lenen, guk jardun bear dogu euskera bat izan daiten.

Nola?

Beste errietan len eta oraintsu egin dan bezela.

Griego, latin —badakizue— español, frantzes, italiano, aleman eta abar, guzti onek asieran txikar, mehe, estu zireala, orain, barriz, erri guztiko eta idazle guztien izkerak direala. Batzuk politikako bidetik, beste batzuk kulturako goreagaitik anditu, loditu eta zabaldu dira, eurekin batean egon eta bizi zirean izkerak eta izkelkiak baztertuz, estalduz, il edo illunduz. Nik uste irugarren bidea ere badala, guretzat egokiena eta bakarra, oraingoan beintzat. Zein? Naia.

Orain len baño askoz geiago itz egiten da, irakurri eta idatzi. Nai aberatsak, nai txiroak, orain guztiak dakite irakurten eta idazten. Alan, ba, errazagoa da guztien naia batasunerako eramatea. Len izkera bat etxe barruan, etxeko ormak-inguruan zabaltzen zan. Orain, barriz, izkera bat betiko galdua da eskoletan eta periodikoetan, radioan eta ziñean eta batez ere erri-arduraetan egoak edatzen ez baditu. Len izkera bat utzi, beste bat artu, ez zan gauza mingarria. Orain erri bakotxak bere gogoz babesten du.

Ikus daigun nola gai bear-bearrezko au griegoak artu zuten.

Erbesteko kriselluak gure etxeko bazterrak argitzeko on-baderitxagu, Greziako eguzkiaren izpitxuak izan bediz gure gaiak eta eztabaidak argituko eta leunduko dabezanak.

Arek eta gu —Reclus'ek iñoanez— "eguzki-semeak" (heleno: elios'tik, euzkotar: eguzki'tik), ustez odolez ez bada ere, ondo alkartuko gara.

Zorioneko poza artzen dogu gure arteko miñak bigunduteko eta osatuteko, beste errietan, kanpotarren mugaetan erabili diran bigungarriak eta sendagarriak jakin-gura eta billa gure gizaldi gazteak ikusiz, emen orain gure begiakaz ikusten dogunez.

Grezian, gurean lez, izkelki ugari ziran, eoliko, doriko, joniko, atiko, ezagunenak, baña uri bakotxak, errialde bakotxak

bere izkelkia zuen. Homero eta zarrak onetan idatzi zuten. Alan da guzti, beste izkelki barri bat sortu zan "Koine" dialektoa, guztien dialektoa, dialekto komuna eritxona, osterantzeko izkelkiak estali eta ayen ordean bizi izan zana.

Izkelki berri onek latiña Grezian sartzen galerazo eban, eta Greziako ats-pean bizi ziran errietatik urrundu. Izkelki barri au edonora zabaldu zan, Erromaraño, eta kristautasunaren bidez askotara zabaldu zan.

Enaz sartuko orain bere orea zein eta zelakoa zan.

Atenas'en laugarren eunkian Jesukristo baño len eregi eban burua eta luzaro bizi zan.

Auxe geratu bedi: Uri batek, Atenas'ek beretzat artu eban eta onen kutsua beste uriak jarraitu eben.

Gurean, zein izango euskaldunen Atenas? Griegoen artean, gurean bezela, itz-zar zaleak eta itz-berri zaleak ere sortu ziran, baña ezeben ezer lortu.

Amaitzeko. Griegoen "koine"-k argi zerbait guregana bialtzen badu ez du ez beingo baten lortuko euskera bat guztiena, luzaroko dogu lana, bidea bai baña lasterragotu geinke, aldia laburtuagotu, sostorrak kenduz eta laguntzak ipiñiz.

Onetarako:

1) Euskalkien aldeak eta latzak, diferentziak eta partikularismoak, ez gogortuz, ez zabalduz, baizik antzak urreratuz eta ezkonduz.

2) Urteoroz edo garai deritxanean, batzar bat eukiz, aurrerapenak eta ikertzeko.

3) Euskaltzaindiak edo, guztien bakean, erabakiz, legeak ateraz guztiak betetako.

Zelako lege moduak? Ona emen. Badakizue, izkuntza bat iru edo lau zatitan ebagi leikeala: fonetika, gramatika (morfologia, sintaxis) eta lexikoa.

Ni niketz sintaxis eta lexikorako nasai izango nintzake, bakotxak dakian moduan egin daian. Baña ez fonetikarako eta batez ere morfologiarako. Onetan gogorra nintzake, zorrotz erabagiko neunke. Morfologia —verboa, konjugaziñoa— dalako gure kontra geien dabillena.

Itz batez, gure problema ekiñaldi andi baten eske dago, gure adimenen eta gure naimenen batasunarena lenengoz.

Euskera bat euskaldun guztiena oraingoan ezin bada, beintzat euskera bat euskal-idazle guztiena izan bedi ASMOZ ETA YAKITEZ.

Juan Gorostiaga.

Gorostiaga-k adibide batzuek jartzen diozka bere itzaldi oni esanik nola, fonetikan eta morfologian gogor erabakiko lukean. Konparazio baterako **etxea, etxie, etxia** modu batera erabili bear lukete guziak, baiña modu batera! Morfologian —verboa, konjugazioa—, **ikusten dot, ikusten dut, ikusten det** esan dezagun batera, baiña guziok! Berdin **aitakin** edo **aitagaz.** Dio orretara bere ustez euskera batasunera etorriko litzakeala errez. Lexikoan libertade osoa itxiko lukeala, itz berria dala edo zaarra dala orrek eztuela ajola. Ta berdin sintaxis edo estiloan. Egia da beti euskal-atsaren azpian eta kutsuan izan bear duela, jakiña.

Altube jaunak dio batera itz egitea eztegula sekula lortuko. Beste izkuntzetan ere ezta egiten. Alemanian bertan ere modu askotara egiten dute. Baiña bai ordea literatura. Dio batasun ori dala bere ustez Gorostiaga-k esan nai izan duena, idatzi danak modu batez. Eskoletan, literaturan. Batera itz egitea ezta iñon ere lortu eta guk ere eztegu iñoiz lortuko.

Gorostiaga-k esan duen sintaxisko libertade osoaz dio badirala lege batzuek izkuntza guzietan —alemanez, gaztelaniaz, italianoz— aldatu ezin litezkeanak, eta aldatzen eztiranak. Esate baterako izkuntza romanikoetan **cuantos fueron, cuantos hicieron tal cosa,** ori ezin liteke aldatu. Gorostiaga-ren kutsua-itzari diotsa badala zerbait geiago, lege batzuk dirala, aldatu ezin litezkeanak.

Gorostiaga jaunak ejemplu batzuek jartzen ditu modu askotara esan litezkeanak euskeraren barruan: «Peru ona da baiña ez aberatsa», «Pero da ona ez baiña aberatsa», «Ona da Peru aberatsa ez baiña». Baiña **cuando vino** zelan esango dogu euskeraz **etorri zanean** baiño, eta ez **zanean etorri.** Dio eztuela ukatzen lege batzuek egon bear dutela, baiña badagoela ere estilistika kontua.

Altube-k dio legerik nagusienak finkatu ezkero —gutxi batzuek— andik kanpora libertade osoa.

Kepa Zubia jaunak dio askok esaten dutela sintaxis ona eta txarra, eta erriak askotan eztuela erabiltzen ondo. Erriak esan edo esaten eztuena bere ustez ezta euskera. Erriak esan edo esaten dituen moduak dira euskera.

Gorostiaga-k dio erriak erabiltzen duen guzia eztala erritarra.

Oleaga jaunak: Nik ezagutzen dot erri bat ...zein-da..., zeinetan... joskera ori asko ta asko ta asko erabilten dana. Ori zelan ikasi dauen erriak eztakit. Abadeakandik, sermolariakandik urrean. Baiña dana dala orretara itz egiten dabe erri guztian, ta erriaren izena be esan nei: Ubide.

Altube-k: eta ...zegaiti-ze... zeinbatek eztau esaten?

Oleaga: Beste erri batzuetan be nozean bein zeozer esaten dabe, baiña ez, erriak garbi egiten dau.

Altube-k: ...zegaiti-ze... orri zer egingo zaio ba? Olakoak pulpitotik edo nonbaitetik sartu dira-ta, eta asko sartu badira, errian sustraituta, zabalduta dagoenaren kontra ezin liteke joan. Eta lexikoan ere, —Gorostiaga-ri zuzendurik— eztakit zuk zer diozun. Libertadea. Baiña an ere legeak jarriko nituke nik. Garbitasuna, sustrai-jatortasuna gauza ederra da, poztu egiten gaituena.

Baiña bada beste lege aundi bat izkuntzetan: zabalkundea, edakundea. Itz bat Euskalerri guzian egunero erabilia baldin bada, titulu aundia du literaturan. Eztago dudarik ere. Eta niretzako titulurik aundiena. Autatu itz garbi bat orain berrogei gizaldikoa, baiña gaur iñork ere erabiltzen eztuena eta aren ordez erri guzietan beste bat zabalduta dago. Zarrari agur ederrak egingo diz-kiogu eta beste zenbait ohore. Baiña orain erri guziak esaten duen itza, ta eguneko literaturak, erriarentzako egiten dan literaturak, ta erri guzti guzti guztietan erabiltzen dan itza titulu aundikoa da. **Kolorea** berbarako, **kantua** berbarako, asi Zuberotik eta Biz-kaiko beste puntaraiño egunero ta egunero erabiltzen dan itza. Eta ori baztertu eta **kolorea**-ren ordez **margo.** Mitxelena-k egin du zerbait ortaz. Arrazoia du. **Margo** bai bai erabili liteke gauza batzuetan, erriarentzat eztiran gauzetan, nik eztiot ezetzik. Nik neuk eztet maite, batetik badio Mitxelenak ez jatorriz ez beste iñola eztala. Tira, ori or konpon. Baiña kolore kendu, askok egi-ten duten legez, ta esan gura ez, eta iñoiz ere esan gura ez, eta au besterik ez!!! Ori ezin liteke. Orretara eztago literaturarik ez zaletasunik ere. Beraz, lexikoan esan bear degu badagoela lege bat. Jatorriz datorrena ederra da. Baiña beste gauza bat da zabal-kundea, edakundea. Asko zabalduta badago itz bat txapela kendu bear diogu danok, baita literatura gorengoenak ere. Ez esan nik zerentzako egiten det itz. —Bai, bai, egingo dezu, baiña baztartu ez zazu egin ba. Bizi bizi bizirik dagoen gauza iltzen asten bagera, orretara ezin liteke.

Gorostiaga: Lege oneik batzar baten-edo eta batzar onetan be zeozer egin lei, baiña oba litzake batzartxu bat Euskaltzain-dian-edo.

Irigoyen: Lenago beste batzuek itz egin bear dute ta guziak amaitutakoan, orduan erabaki liteke.

Aita Villasanteri ematen zaio itza.

BIZITZATIK URBIL

1.—**Euskera bizitik urbil dabillen literatura bat bear dugula.**

2.—**Euskal itz jatorrak zokoratu izan dira, erderazkoekin antza dutela ta beste gabe.**

3.—**Izkuntza berezien gaiñetik edaturik dauden itzak, gureak ere ba-direla.**

4.—**Itzak eta itzen azpia, gogamena. Gogoeta egitearen aldakuntzak, izkera bera ere aldatzen dute.**

5.—**Uri aundietako euskeratik ba-dugula zer ikasi, beti baserriei begira egon gabe.**

6.—**Formalismuaren gaitza.**

7.—**Gure euskera idatziak, itzegiñaren gaiñetik bear duela etorri.**

8.—**Ikasien literatura.**

Euskal idazlariek ba-dugu naiko lan iztegi-kontuakin. Danok nai dugu euskera zernaitarako mintzabide izan dedin. Ori, ordea, nola lortu? Or dago korapilloa. Batzuk itz berrietara jotzen dute, beste batzuek uste dute kanpoko itzei atea zabaldu bear zaiela (orain arte egin dan baiño geixeago bai, beintzat). Beste batzuek, bi joera oiek txartzat emanik, erriko euskeraren itzen bidez nai lukete dana adierazi. Baiña erriko euskeraren iztegia, naiz ta ugaria izan landa batzuetan —ugariegia ere esango nuke—, beste barruti batzuetan oso urri, eskas eta motx gertatzen zaigu, Plazido Muxika iztegigilleak oraintsu aitortu duanez.

Beste aldetik, euskera idatzia erriko izkera bizitik geiegi urrundu eta aldendu egiten bada, erria bera euskerarako galtzeko zorian gelditzen gera. Eta zer irabaziko genuke lau katurentzat literatura eder, garbi, zoragarri bat egiñaz, erria bera euskerarentzat galtzen badugu? Eta au da gaurko arriskua, gaurko gure egokera larria. Eta il edo biziko egokera ontan, gure literaturaren aurrenengo eginbidea ta betebearra da, nere ustez, euskeraren bizitzari begiratzea, eta ortarako euskera biziakin eskuz esku eta urbil ibiltzea. Gogoan euki ezgerala izarretan bizi eta bai illargipeko mundu triste onetan.

Gaurko egokera ontan, bada, nere iritzi apalez zer jokabide artu bear luken euskera idatziak: ori azaltzea izango da itzaldi kaxkar onen gaia. Gaurko egokera ontan diot. Eta onekin esan nai dut, nere arrazoibideak eztaukatela gogoan izarretan bizi ditekean euskera ideal bat. Lur gaiñean bizi dan euskerari nagokiola, alegia.

Eta erritik ez urruntzeak eztu esan nai arlote edo zarpil-maillara jeixtea. Erritik gertu, erritik urbil, ori bai, baiña ala ere erria baiño goraxeago.

Ondoko lerroetan argibide edo arau batzuk ematen ditut, iztegi-kontuan nere ustez gogoan euki bearrekoak diruditenak. Neronek, idaztean, gogoan eukitzen ditudanak izango dira geienak. Eta guztiak daukate sustraitzat edo oiñarritzat onako lege au, alegia: alde batetik, izkuntza literarioari zor zaion prestutasuna ez galtzea, eta bestetik, argitasunaren kezka izatea eta irakurleak ulertzeko maillan gelditzea.

* * *

1.—Aurrena, bada, eta gauza guztien gaiñetik euki bear dugun kezka, nere ustez: euskeraren bizia. Izkuntza galtzeko zorian dagoan bitartean, gure literaturak bear du izan erriko euskeraren babes eta euskarri. Eta ortarako, erriko euskeratik urbil eta gertu bear du egon. Bestela, euskera idatzia, euskera bizitik geiegi aldendu ta urrundu egiten bada, irakurlea zaletu ta berotu bearrean, uxatu egiten dugu. Eta euskal liburuekin ori maiz gertatu dala esan bearrik eztago. Erriko euskeratik gertu. Erriko euskera oiñarri. Bestela, bakoitza bere aldetik ibilliko da: euskera bizia alde batetik, literatura bestetik. Literaturak eztu euskera bizia menderatuko eta bere bidera ekarriko, bai zera! izkuntza biziak ba-du bere sena ta joera, ta orren agintepean bizi baita. Guri dagokiguna da euskera biziari jarraitzea, andik barne-izerdia atera eta erriko euskerakin artu-eman estuan egotea. Orduan erriko euskerak bizituko du gure literatura, eta orobat literaturak bere babesa emango dio euskera biziari. Erritik aldendurik dabillen literatura, gezurrezko zerbait biurtzen da, gauza igarra, izerdirik eta gizenik gabekoa. Zaletu bakan batzuek engañatzeko aukerakoa. Minoria edo gutxirengo batentzat ona. Eta euskal literatura arrisku ontan dagoela ematen du, minoria baten literatura biurtzeko arriskuan. Eta ori gertatu eztedin, alegin guztiak egin bear dira. Euskaldun literaturak bear du izan euskaldun erriarentzat, ez minoria batentzat; ez euskaltzaleentzat, euskaldun soillarentzat baizik. Ez dezagula aaztu orain dala urte asko

Orixe Jaunak esandakoa: "Geldixeago joango bagera ere, daramagun erria gurekin" (1). Bai, berreun edo irureun irakurle izateaz eta oientzat bakarrik idazteaz ezin gindezke ase. Banaka batzuentzat izango al da euskera? Eta euskaldun erria galtzen utzi? Orduan gureak egin du. Idazleak alegiñak egin bear ditu, nere ustez, irakurleak ulertzeko maillan egoteko; eta askotan nik esango nuke humiltasuna ere bear duela izan; bere irakurleari zor zaio, alegia, eta ikusten baldin badu onako itz-au jarriaz, irakurlerik geienak eztutela ulertuko, gutxi ezaguna edo berria dalako, eta arako beste ura ipiñiaz bai, arrunt erabillia dalako, zer egingo du? Ezaguna ta erabillia dana erabilli, naiz ta bate batek ezjakintzat edo mordoillo-zaletzat joko badu ere. Ezpaitugu idazten euskaltzale profesional oientzat, euskaldun erriarentzat baizik.

Onekin eztut esan nai minoria orrentzat ere liburu autatu batzuek egitea gaizki dagoanik. Baiña euskal literatura osoa edo geiena, eredu oien gisa tajutu bear al dugu? Ori gure literaturaren eriotza litzake.

Eta ontan datza gure arriskurik larriena: euskaldun erria galtzen ari gerala, eta euskaltzale gutxi batzuentzat idazten dugula. Orain dala bi illabete Altube tar Seber jaunari ikustaldi bat egin nion. Dakizutenez, Gernikako Taberna Vasca-n bizi da orain. Jaun prestu onek bere bizitza guztia eralgi du nik orain esaten ditudan gauza auek berberak irakasten eta zabaltzen; alegia, erriaren bidetik bear dugula jo, erriaren izkera erabilli, erriaren itzak ez baztertu eta berrikeria gutxi sartu gure lanetan, ta abar ta abar. Jaun onek, bada, kontatu zidan berari oraintsu gertatu zaion zerbait. Gernikar batek erregalu bat berari egin nai, eta euskerazko liburu bat erosi ta ekarri omen zion. Altube jaunak erregalua estimatu bai, baiña onela esan omen zion bere lagun ari: —Baiña, gizona, libru au niretzat barik, zuretzat erosi bear zenduke. Zeuk daukazu libru onen premiña geiago, nik baiño. Eta besteak ara zer erantzun zion: —Akademixako euskera ori guk ez dakigu...

Eta gertatu ori kontatzean, Altube Jaunak auxe zion: —Egia biribilla ta ateraldi polita gizon arena. Izan ere, orixe da guri gertatzen ari zaiguna. Idazten ditugun gauzak, euskaltzaleentzat bakarrik izan oi dirala, zaletu gutxi batzuentzat, eta euskaltzale izateko ez astirik, ez bururik edo gogorik eztaukanarentzat, gure lanak oso zail eta egoskaitzak izaten dirala.

---

(1) Orixe, Euskal literaturaren atze edo edesti laburra, 1927-ko Euskal Esnalean. Azken **Irakaspena.**

Ba-dakit nik asko ta askok erantzungo luketena: "Euskeraz eskolarik ez izateak egiten du ori". "Ori da erriak euskeraz irakurtzeko oiturarik eztualako". Bai, orregatik izango da, noski; baiña ori ere kontuan euki bear dugun gauza da. Traba guzti oiekin kontatu bearra daukagu. Ain zuzen, arrazoi andia da au diodanaren alde. Gauzak ala dauden ezkero, askoz geiago saiatu bear gera irakurleari oztopoak gutxitzen eta kentzen.

2. Beste zerbait ere gertatzen zaigu euskal idazleoi, eta esan bearra dut, lotsa ematekoa bada ere. *Veritas liberabit vos,* zion Kristok. Ausardia eta zintzotasuna bearrekoa dugu, iñoiz bide onera etorriko bagera. Euskal idazleak danak dira jende ikasi edo eskolatu oietakoa, danak dakite erderaz eta euskeraz, eta geienetan erderaz, euskeraz baño obeto (beren ikasteak erderaz egin dituztelako edo erdal giroaz inguraturik bizi diralako). Exzepziorik baldin bada ontan, erregla sendotu baizik eztu egiten. Eta enara bakar bat, esan oi danez, uda egiteko ezta aski. Eta jakiña, barruan dugun erdaltasun ori nai genuke gorde eta ezkutatu; eta falta zaiguna —euskaltasuna, alegia— ori nai dugu arro-arro kanpora azaldu. Nai dugu erabateko euskaldun agertu gure burua. Eta nola gure buruan bi izkuntza bizi diran, eta erdera euskera baiño biziago, euskal itzak berdinkaratu egiten ditugu erderazkoekin, eta bien artean aidetasunik edo antzik sumatzen baldin badugu, orduan euskal itz ura baztertu egin bear da, eta beste bat asmatu, erderakin kanpoko itxuran antzik eztuena. Baiña jokabide ori nere ustez zozokeria da, eta euskerari berari kalte egitea.

Adibide bat, nere gogoa obeki adierazi dezadan: *kafe* itza. Euskaldunak beti eta euskalki guztietan esaten du *kafe, kafea.* Baiña erderaz berdintsu esaten da: *café.* Ba-dator garbizalea, itz orri erdal kutsua sumatzen dio, eta beste gabe bijoa kanpora, eta bere lekuan sartu nai digute *akeita* parregarri ori, iñun eta iñoiz euskaldunak esaten edo esan eztuena. Baiña Jainkoaren amoriarren, ortik edo ola nora goaz? Gogoan dut Naert, Sueziako linguista jaunari joan dan udan entzun niona. Garbizale oietako batek esan zion nunbait kafeari euskeraz *akeita* esaten zaiola, eta ark arriturik pentsatu omen zuan beretzat: "Ba euskera izango da munduan diran izkuntzetan kafeari kafea esaten eztion izkuntza bakarra. Berak dakizkin izkuntza danetan kafe itz ori zabaldua eta onartua baitago.

Itz arruntak, euskera bizian zabaldurik eta sustraiturik daudenak, baztertu nai izan ditugu. Eta zer pekatu egin dute itz oiek? Erderazkoekin antza dutela, ez besterik. Baiña gau-

zak ondo begiratu ezkero, ezta ori arrazoibidea. Nik nere bideari jarraitu bear diot, erderari begira egon gabe. Eztut uste erderak beste ainbeste egingo duanik: alegia, erderaz esaten dan itz batek, euskeraz erabiltzen danakin antza ba-duela ta beste gabe, itz ura galerazi. Eta polita legoke frantsesa, espaiñolakin antza duten itz guztiak baztertu bear balitu.

Eta oartzekoa da, joera au, erdal itzaren bildur au, euskaldun berriagan, edo erdizka bakarrik euskaldun danarengan nabari dala baitipat. Euskaldun jatorrak eztu olakorik adierazten, goizetik gabera, beti eta nunai eta etengabe euskeraz mintzo danak. Onek, bere euskera biziaren uharrean milla itz erabiltzen ditu, nundik edo andik artuak (eta itz guztiak datoz nunbaitetik, beren jatorria billatzen asten bagera), baiña orri eztio batere jaramonik egiten: berak ikasi duen euskeran ala esaten da, eta kito. Edo erdal itz batekin antza duela-ta, orregatik bizitzeko eskubidea ukatu bear ote zaio euskeraren itz bati? Neri eztidate zozokeria ori buruan sartuko. Erderak esan dezala nai duan bezala. Nik, nola esan bear dudan jakiteko, eztiot erderari begiratu bear. Euskerari bakarrik egin bear diot jaramon: euskeraz nola esaten, edo nola esan dan, eta gure idazle onenak nola esan duten: orra euskeraren iturri garbiak, oiei bai, oiei leial egoteko obligazioa daukat.

Beste erakusgarri bat: *kolore* itza toki guztietan eta beti erabillia izan da, dakigunez, eta besterik eztu euskaldunak ezagutzen. Baiña pekatu bat du itz orrek: erderazko *color*-ekin antza duela. Beraz, eriotzera kondenatu dute itz eder ori, eta bere lekuan sartu nai digute *margo,* iñun erabiltzen eztana. Jainkoaren amoriarren, diot berriz ere, ez gaitezela ibilli gure izkuntza gaxoari olako operazio alperrikoak eta galgarriak egiten, beronen bizia arriskuan dugularik.

Beste ainbeste gertatu da *frutu* itzakin. Erderakin antza duelako, nai izan dugu euskeratik bota, eta bere lekuan *arnari* ta *igali* sartu; baiña euskal itza leenbiziko ura da, eta ez beste oiek. Eta berdin esan bearra dago *eliza, zeru, aingeru, errege* eta olakoezaz. Oien lekuan ere, *txadona, donoki, gotzon, bakaldun* eta zer txorakeria edo gezurrezko itzak eztira asmatu?

Euskeraz ari geranean (batez ere eskribuz ari geranean) buru-belarriak ernai jartzen ditugu, erdal usaia darion guztia erditik kentzeko. Erderaz itzegitean edo idaztean eztu iñork olako kezkarik izaten. Gazteleraz mintzo gerala, eta adibidez *garage,* naiz *chófer* edo *jefe* esaten dugunean, konturatzen al da iñor itz oiek frantsesetik artuak dirala, eta gutxiago oraindik pentsatzen al du iñork itzok esatea pekatu danik? Edo latin eta griegotik aldatu diran millaka itzak egoztekoak dira-

nik? Eta zergatik jartzen diogu euskerari, beste izkuntzei jartzen eztiegun traba izugarrizko ori? Orrela, lagundu bearrean, euskera ito eta ezin jasanezko estuasunean jartzen dugu.

3. Eta askotan, guk kanpora bota nai dugun itz ori, euskeraz eta gazteleraz ezezik, Europako izkuntza danetan edo geienetan ere erabillia izan oi da. Itz orokarra edo europatarra, edo kulturak nunai ta noranai zabaldu dituen oietakoa izan oi da. Eta beste izkuntza landuak onartzen baldin badute itz ori, ezta ikusten guk zergatik eztugun artu bear. Europako errialdeak artu-eman estuak izan dituzte elkarrekin, eta orrek egin du nunbait, itz batzuek, izkuntza berezien gaiñetik, erri danetan zabaldurik egotea.

Euskera arruntean erruz erabiltzen dugu, esate baterako, *konpota* itza. Gazteleraz ere berdin. Baiña gero beste izkuntzen iztegiak aztertu, aietan ere agiri zaigu itz ori, ala nola alemanez, eta frentsesean zer esanik ere ez, ta abar. Beraz, ba-dira itz batzuk, izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik daudenak, orokarrak, edo bederen europatar diren itzak. Eta oiek zer dala-ta bear ditugu gaitzetsi? Ez al gera europatarrak gu ere? Eta zenbat olako! *Nazio, Politika, Teknika, Makina, Religioa, Literatura, kultura, Morala, elefantea, teatroa...* Oker dio, itz oiek gaztelarrak dirala dionak. Eztira izkuntza bakar eta soil baten iztegikoak. Europako izkuntza geienen edo danen ondasuna biurtu dira itz oiek, eta guk ere ba-dugu ondasun ortan gure partea.

Danak dugu gogoan nola, orain bi urte, inglesak eta frantsesak egin zuten eraso edo gerla txiki ura, Suez-ko Kanala arrapatu naiean. Artean Mister Eden zan Inglaterrako Gobernuaren buru. Laboristak, nunbait, Eden-en jokabidea gaizki ikusi edo, eta jaun ori Komunez deritzaion ganbaran azaldu zanean, *Dimission, Dimission* aldarrika asi zitzaizkion. Egun aietan erri txiki bateko apaiz euskaltzale batekin itzegitea gertatu zitzaidan, eta itz ori jarri nion erakusgarritzat: "Or duzu itz bat *dimission* ori, bai espaiñolak eta bai frantsesak, inglesak ta abar politika-arazoetan erabiltzen dutena, erri oietako izkuntza danetan sarturik dagoena. Baiña nik euskeraz erabilliko banu itz ori, laister asiko lirake garbizaleak soiñekoak urratzen eta esaten: "Zer euskera mordoillo da ori!" Zer euskera mordoillo? Munduko izkuntza landu guztiak erabiltzen dituzten itzak, guk, zer dala-ta eztitugu artu bear? Edo burutik egiñik al gaude? Gure ezjakiñakin eta maitetasun itsuakin euskera ondatzen ari gera, ezertarako eza biurtzen. Itz oiek eztira erderakadak, eztira beintzat gaztelerazko itzak, askok

uste duten bezela, inglesak eta abar erabiltzen dituzten ezkero. Izkuntza landu guztiak erabiltzen dituzten itzak dira, eta aien antzera, guk ere ba-dugu eskubidea, eta bai bearra ere, erabiltzeko. Bestela, bearreko diran gauzak ezin esateko estuasunean jartzen gaituzte. Gaurko kultura orokarrak milla itz zabaldu ditu bazterretan, eta itz oiek berdintsu erabiltzen dira Europako izkuntza geienetan.

4. Auzi onen sustraira eldu nai izate ezkero, bi gauza bear lirake emen bereizi: itzak eta itzen azpia. Itzen azpia, gogamena da, gogoeta egiteko moldea. Eta kulturak zabaldu duena da —itzak baiño lenago eta itzen gaiñetik— gogoeta egiteko tankera berezi bat, eta tankera orrek gero bere itzak edo izenak eskatzen ditu. Gaur eguneon, kultura orokarrari eskerrak, abstrakto-kutsua duen gogoeta-molde bat edatu da izkuntza landu guztietara, eta molde orren kontra joaterik eztugu. Egin bear duguna da etxeko biurtu, asimilatu, egokitu euskera molde ortara. Nola egin ori? Bi bide ditugu begien aurrean. Lenengo bidea: ideakin edo kontzeptuakin batean, itza ere artzea: izkuntza askok egiten duten gauza da. Bigarren bidea: idea artuarren, izena edo itza gure izkuntzako gaien bitartez eratu.

Alemanak, esate baterako, itz asko lotsa gabe artzen eta erabiltzen ditu, zenbaitek uste duten baiño geiago. Herder-en Enziklopedia ikusi besterik eztago: *Das Klima, Die Vegetation* ta milla olako erabiltzen dira an. Baiña egia da orobat sarritan alemanaren beraren gaiakin ere itz berriak sortzen dituztela, kulturak ekarritako kontzeptuok adierazteko. Eta itz berriok eratzeko artu diran itz bakunak, sinpleak, osorik gordetzen dituzte, beren esanaia edonork ulertzeko eran; eta ortik eldu da alemanen itzak ain luzeak izatea: askotan bi edo iru itz oso-osorik bata bestearen ondoren elkarrekin josten dituztelako. Guk ere batzuetan lenengo bide ori (itza artu), eta beste batzuetan bigarrena (euskal itzekin itz berria sortu) egin genezake. Eta noiz jo lenengo bidera eta noiz bigarrengora, ori nere ustez matematika-bidez ezin diteke erabaki edo mugatu. Senak edo izlariaren gustoak ere asko esan nai du ontan.

Erakusgarri bat edo beste ipiñi dezagun, inguruko izkuntza landuetan ba-ditugu *ocasión, condición* ta olako itzak. *Ocasión* esateko, euskeraz *bide* erabiltzen dugu, baiña *bide* ori ain da erabillia, beste esanaiekin dago naastua, eta gaiñera beti eztator ondo erderazko *ocasión* orren esanai eta adibide eder asko adierazteko. *Okasio, okasino* itz berbera ez ote zitekean artu? Galdezka diot. Axularrek kezka gabe erabiltzen du bein-

tzat: "...etsaiec gueure faltac erranez... emaiten deracute *occasino* ernatceco, iratçartceco..." (Ax. Cap. I, ed. 1.ª, p. 28).

Condición esateko, berriz, oso egoki asmatu dira *baldintza* eta *baldinkizun*. Baiña emen ere erderazko itzak dituen esanai-izpi guztiak nekez ezarri datzazkioke euskal itzari. Adibidez, erderazko esaldi auek: *En el planeta Marte no hay condiciones de habitabilidad* edo *Este salón reúne buenas condiciones acústicas*. Milla esaldi olako dira gaurko izkuntza landuetan, eta gu larri ibiltzen gera esaldi oiek euskeraz emateko, beintzat tankera ortara, eta bere zer ortan daukaten berebiziko indar orrekin.

Wartburg jaunak ba-du liburu bat, frantses izkuntzaren evolucioaz (2). Izkuntza onek mendeetan zear ekarri duen bidea, erakusten digu liburu ortan. An agiri da, izkuntzak eztirela bizi gizonetatik kanpo, eta gizonak nolako goraberaen azpian dauden, izkuntzak ere taju orretara moldatzen eta egokitzen direla. Adibidez, Erdi-Aroko frantsesean aditza agiri omen da nagusi. Orduko idazleetan aditza erabiltzen da ugari, aditzetarako jokera aundia azaltzen dute orduko idazleek. Gizonak ere alakoxeak nunbait, kanpoaldeko egiteari ta jardunari emanak, eta verbua izan, izkuntzaren parteetan, jarduna, lan egitea eta ekintza adierazten duena. Oraingo frantsesean, berriz, jaun orrek dionez, verbua zearo bazterturik dago, eta izenak, substantivuak batez ere, artu omen du lehen-tokia. Izan ere, oraingo kulturak eta gogamenak, ba-du alako abstrakto-kutsua, gorago esan dugun bezala. Begirada bat eman besterik eztugu, egunero azaltzen diren liburu eta artikuluen tituluei, edo berdin propagandako idazkiei. Verbu gutxi ikusiko dugu oietan: *Publicidad en las carreteras, Instituto de Previsión, Documento Nacional de Identidad, Por un mundo mejor, Moral Social, Moral de la situación, Demostración de la existencia de Dios*, ta abar. Dena substantivu eta adjetivu batzuen inguruan borobiltzen da. Verburik bat ez. Eta ori da gaurko izkuntza landuen jokera, ez frantsesarena bakarrik. Eta nai badugu jakin ia zergatik duten izkuntzak jokera ori, erantzuna ezta zailla: iztunak orrela daudelako tajutuak, gaurko zivilizazio eta kulturak orrela moldatu gaitulako. Ba al dago euskera egokitua edo gaitua jokera edo izate-modu ortarako? Ez, edo oso gutxi. Eta gaurko zivilizazioak bere menpean

---

(2) W. von WARTBURG: **Evolution et Structure de la lange française.** Ikus batez ere 105, 134, 250, 261 orrialdeak.

gauzka euskaldunok, gero ta geiago, noski, eta euskeraz mintzatzen jarraituko badugu, bide ortatik jo bearko du etorkizuneko euskerak, nai ta ez. Itzak bear, eta iztegia dugu motx, eta gerok ari gera urritzen eta moztutzen, idazleok, garbikeri geiegizko kezka orrekin. Eta orrekin eztiogu euskerari batere mesederik egiten.

Oiek ola eta esanak esan, aitortu bearra dut alere (iñork okerreko gauzarik siñestu ezdezan) Purismuaren alderdi onak gogoz ezagutzen eta aitortzen ditudala, batez ere kondairari begiratuaz. Larramendi-ren denporan ba-dakigu orduko jende ikasia erabat zala ajolakabea euskera-kontuan, oso euskera zarpil eta lardaska zerabiltela, gaztelerazko itzak bat ere premiarik gabe sartuaz, zabarkeri utsez. Larramendi-ri eskerrak, sartu zan euskeraren kezka ta ardura ori. Eta gure jende ikasiagan kezka au oartzen dugunetik, ikusten da abiadura eta saiaketa bat, euskeraren barne-indarrak eta gaitasunak agirian jartzeko eta literaturan egiztatzeko. Joera ta abiadura oni zor zaio geienbat, euskera apaintzean eta garbitzean egin dan lana. Baiña or dago ba! Gizona nekez gelditzen da erdiko bidean. Muturrik mutur ibilli oi da maizenik. Eta joera ori, bere neurrian erabillita, mesedegarri ta onurakor izan bada, kaltegarri ere biurtzen zaio euskerari, neurritik ateratzen geranean. Eta ori da, nere ustez, gaur gertatzen zaiguna. Gaur ertsikerian gaude, beste muturrean.

5.—Bildur naiz bizitzaren ur lasterrak ez ote duen euskera alde batera utziko, bide-bazterrean zokoratua. Euskera benetan maite dugunok, bizitzaren taupadak sumatzen dakian euskera billatu bear dugu, gaurko giroak eskatzen duen bezalakoxea. Or duzue Eibar. Euskaldun errien artean, aurrera-zale, aurrerapide-mota guztietan atzean gelditzen eztakian erria. Eibartar jatorrak, berez, eta garbizaleen teoriei jaramon egin gabe, mintzo direnean, milla esaldi eta ateraldi esaten dituzte, gaurko gogamenaren jokerakin txit ondo datoztenak. Eta onek esan nai du, uri azi samar eta aurrera-zaleetako euskera arruntetik zer-ikasi asko dugula idazleek, beti baserri urrundu eta aldrebesai begira egon gabe.

"La Gaceta del Norte"-n irakurri nuen bein pelota-joku batean eibartar jator batek botatako esaldia. Eztakit itzez itz eta zetorren bezala gogoratuko dudan, baiña gutxi gorabera onela zan: *Fakultade astronomikoak zeuzkak orrek* (Pelotari batengatik esana zan). Periodistak, jakiña, adarra jotzeagatik edo irri egiteko zekarren frase ura, eta oituak gaude Eibarko euskeraren bizkarretik parre egitera. Baiña ezta oraindik gar-

bizale mutillik jaio, esaldi ori bere indar ta giar orrekin esaten dakianik. *Posibilidades astronómicas, cifras astronómicas* ta olakuak, egunero entzun oi da gaurko izkuntza landuetan, eta guk, euskeraz, eztugu biderik ez erarik orrelakorik esateko, purismuak ateak ertsi dizkigulako; eta orrela, gaurko jokeretatik urrun gelditzen ari da euskera, erkin, zurbil eta geldo, gure mendetik kanpora. Ez, euskera ezta aingeruen izkuntza, gizonena baizik, eta gizonekin batean bere aldaketak artzen ditu. Gure mundu onen ibillera eta taupadakin etengabe aurrera joan bear du, iñoiz gelditu gabe. Bizitzaren joana alde batera utzi, eta lau zaletuentzat literatura garbi, eder eta igarra egiten denpora pasa, ori gure burua engañatzea litzake, euskera bizia eriotzean amiltzen utzi.

¿Edo erri euskaldun batek, gaurko zivilizazioak dakarzkin arazotan murgiltzen daneko, nekazaritza ta artzaintza utzi eta industrian sartzen daneko, euskera baztertu bear ote du? Orain arte ola gertatzen da beintzat, eta ori da señalerik nabarmenena gaurko bizitzatik urrundurik gabiltzala ikusteko. Eta ortan ez ote dugu errua idazleok, gure garbitasun-kontuakin izkuntzari aurrera bultza egin bearrean, bideak ertsi egiten dizkiogulako? Nik eztut nai euskera kaikukeriak idazteko bakarrik izan dedin, ez: baiña ezta ere eredutzat edo ispillutzat jartzen dizkiguten lore garbi oiek bakarrik emateko. Betoz kaikukeriak eta betoz lore garbiak, baiña betoz batez ere gaur eguneko gorabera ta gai praktikoak darabilzkiten libruak, eta errebistak eta orriak, euskera bizi-bizian, egunekoan, kalekoan, iztegi zabalakin, itzak nondik datozten begira egon gabe. Baiña zer gertatzen da? Euskaltzaleok geu gerala sarritan gure itsukeriagatik olako asmoen etsairik aundienak.

6.—Orain urtebete idazki bat egin zuen Txillardegi jaunak, euskal literaturak artu bear luken jokabideaz. Jaun onen iritziz, gure literaturak ba-du gaitz ezagun bat, formalismuaren gaitza. Idazleak idazten du izkuntza soillari begiratuaz, eta irakurleak ere, euskaltzale oietakoa bada beintzat, berdin: izkuntzan bakarrik kokatzen du bere arreta: darabillen euskera eztala bear luken bezin garbia, ta olakoetan. Barreneko mamiari ajola gutxi, azalean gelditzen gera. Erderaz *mirada refleja* esango genuken ori, izkuntza soillaren aztertze ori, gaiso bat da nunbait, eta gure literatura makal dagoelako ezaugarria. Ez idazleak eta ez irakurleak eztu bere ardura nagusia ortan kokatu bear. Gaiari, barreneko mamiari eman bear diogu lehenbiziko tokia. Izan ere, izkuntzak orretarakoxe dira, mami zerbaiten adierazle ta eramale izateko. Gure arreta guztia iz-

kuntzan bakar-bakarrik jartzen dugunean, izkuntza bere zeregiñetik edo bere baitako xedetik ateratzen dugu. Emen ere, beste gauzetan bezala, espezialistaren begiraldia ezta gizon arruntarena. (Ta emen espezialista oiek, euskaltzaleak ditugu. Orregatik esan det asieratik, idazlariak eztuela oientzat idatzi bear, eta bai euskaldunarentzat). Gizon arruntak eztu libru bat irakurtzen izkuntzagatik, barreneko mamiaz jabetu nai duelako baizik. Eta guk ere ortara jo bear dugu, bai idaztean eta bai irakurtzean. Gaiak nagusi, barrena lehen. Eta azala, gaiñeko jantzia, mami orren azaltzeak eskatzen duen bezalakoa. Orrela bakar-bakarrik sendatu gindezke formalismuaren gaitzetik. Bestela, erria zearo galduko dugu. Bost importa zaizkio ari gure itzen jokoak. Umekeritzat dauzka, eta arrazoi osoarekin, gaiñera.

7.—Bestenaz, idazteak bereztasuna eskatzen du, etorria, jarioa, eta orretarako izkuntza biziaren ondorea izan bear du, ezpaiñetan darabilgun izkeraren ume. Euskeraz itzegin lehenbizi, eta idaztea gaiñeko zerbait bezala izan dedilla. Baiña itzegiten dugunetik idazten dugunera alde ikaragarria badago, edo idatzi bai eta itzegin ez egiten badugu, orrela gure literaturari benetako jatortasun ori kentzen diogu. Gezurrezko zerbait billakatzen da. Ezta jator, ezta autentiko. Bein baiño geiagotan egon naiz pentsatzen, gure artean darabilzkigun auzi guztiak emen dutela bere sustraia. Euskal idazle ta euskaltzaleok, beti, goizetik gabera arte, euskera erabilliko bagenu gure izkuntza propioa bezala, orain erabaki eziñik dauzkagun iztegi-kontuok eta korapillook, berez askatuko lirakela, bizia baita korapillo guztien askatzaille oberena. Eta eguneroko euskera arruntean nai ta naiez milla itz sartu bearrean arkituko giñake (eta izan ere, ala egiten dugu, euskeraz iñungo kompromisu gabe diardugunean). Eta gero, itzok eta izenok, berez eta konturatu gabe, euskera biziaren maillatik euskera idatziaren maillan sartuko lirake.

Ontan ere aspaldiko idazle zaarrak bentaja egiten digute. Euskera, gugan baiño biziagoa zegoan aiengan, eta barnean bizi-bizi zegoan iturri ortatik ematen zuten kanpora. Idatzi ere, benetako euskaldun jatorrentzat egiten zuten. Orain, berriz, bai idazleak eta bai irakurleak, izkuntzaren beraren kontemplazioan jarri gera, eta jakiña, ori lau zaletuen zeregiña izan liteke, baiña ez erri batena. Eta ola gure literatura bizitzatik gero ta geiago aldenduaz joango da, eta bere korapillo oiek azkatzeko bidea galtzen. Latiñistei gertatzen zaiena gertatzen zaigu guri ere. Dakizutenez, ba-dira latiñista garbizaleak.

Zizeronen latiña artzen dute eredutzat, eta idazle orrengan eztatorren itzik eztute erabilli nai. Eta ikustekoa da nolako itzul-inguru bitxiak asmatzen dituzten, gaur eguneko tresna eta aurrerapide guztiei izena emateko. Bein irakurri nuen latinista oietako batek *café exprés* esateko asmatu zuena: *Potatio arabica coram expressa.* Onek ere, euskaltzale batzuen antzera, *kafe* itza etzuen erabilli nai. Zizeronengan arkitzen eztalako, noski. Umeen jolasak dirudite oiek. Bizitzatik urruti dabiltzan zaletu batzuen errugabeko jokoak. Eta izkuntza ildako batekin ola ibiltzeak eztu ajol aundirik. Baiña bizi dan eta bizitzea nai dugun izkuntzarekin? Ez, ta ez, milla bider! Jokabide ori artzen badugu, gure errukarriak! Gureak egin du, eriotzaren atzaparretan uzten baitugu gure izkuntza.

8.—Ba-dakit nik batek baiño geiago zer izango duen gogoan, gauza auek entzutean: "Guzti ori —esango du, bearbada— ondo dago, erriarentzat idazten danean. Baiña euskaldun jakitunentzat ere ez al dugu euskeraz idatzi bear?" Bai, ni ere ortan nago. baiña ontan ere ba-dira naaspillak eta okeraditzeak franko. Nik konprenditzen dut liburu batzuek minoria batentzat egiñak izatea gaiarengatik, gaia, berez, karreradun batek ulertzeko modukoa dalako, baiña izkuntzak, mintzabideak, orduan ere danona izan bearko du, noski. Nik Ars-ko Apaizaren Katezismuak euskeraz ipiñi nituanean, nere adiskide dan euskaltzale batek, bere xalotasunean, auxe jaulki zidan: "Bueno, euskera-mota au erriarentzat ondo dago; baiño ikasientzat beste era batera idatzi bear da..." Egia esan, olako bitaratzeak nik eztitut konprenditzen. Nik uste dut frantsesez, Vianney Santuaren Katezismuak berdintsu daudela idatzirik danontzat, eta frantses berdin ortan irakurtzen dituztela bai goikoak eta bai bekoak, gizon landuak eta erri xeak, izkuntza bat eta bakarra baita. "Ikasientzat beste era batera" esan oi da. Baiña ikasi oiek zertan diran ikasiak ere bearko da jakin. Gai teologikoak erabiltzen baditut liburu batean, jakiña, ikaskizun oiek dauzkatenentzat izango da nere liburua, apaiz eta olakoentzat; baiña izkuntza, mintzabidea, danona izango da, euskaldun arrunt eta jatorraren mintzoa. Teologiako itz tekniko batzuk sartu bearko ditut, baiña, gaiñerakoan, nire euskerak euskaldunarena izan bearko du. Apaiz euskaldunarentzat idatzi bearko dut. Apaiz euskalduna diot, eta ez apaiz euskaltzalea. Len ere bereizkuntza berdiña egin genduan: erri euskaldunarentzat idaztea ezta euskera-gaietan, beste zeregiñik gabe, saiatzen danarentzat idaztea. Euskal literatura geiena eztedilla lau katuren gauza biurtu. Eta jakin-

tza-gaietan idazten dugunean iñoiz baiño geiago gaude arrisku ortan. Apaiz euskaldunik geienak dakiten euskera, zer moduzkoa da? Erriarena, arrunta, euskaldun soillak darabillena. Eta apaiz euskaldunarentzat izan bear luken liburua, beti euskera-gaietan murgildurik dabiltzanak bakarrik ulertuko badute, orrekin eztiogu euskerari mesede aundirik egingo; apaiz euskaldunik geienak, zaletu bearrean, uxatu bai betiko. Euskaltzaleak indar aundia dira eragiteko ta euskeraren alde lan egiteko, baiña idazleak, idaztean, bere gogoa oiek baiño arutzago, urrunago jarri dezala. Erria bere osotasunean artzeko kezka izan dezala; erria, naiz erri xea, naiz erri landua, baiña erria, euskaldun erria, alegia. Kezka ta alegin guztiak ipiñita ere, muga ortatik urrun geldituko dala ba-dakit. Baiña asieratik bertatik bi edo iru euskaltzale bakarrik baditu gogoan, zer moduzko literatura aterako zaigu?

* * *

Labur (eta bukatzera noa): Onena, onaren etsai omen da. Eta gaurkoz, onarekin gelditu bearko. Nik beintzat naiago dut eskuko txoria, aideko arranoa baiño. Esan nai dut, euskera biziari eutsi ta babestu. Daukagun apurra, ez dezagula galtzera utzi, ametsezko euskera ideal batengatik. Eskuko txoriari iges egiten utzi eta laiñoetako arranoa atzeman ez: ori litake ezerezekin gelditzea.

Eta iztegiari buruz, erderaren bidez sartzen zaizkigun itzak artuaz eta asimilatuaz (bearreko diranean, jakiña), eztut uste euskerari kalterik egiten zaionik, eta bai mesede, orrekin armak eta bizigarriak ematen zaizkiolako irauteko. Bear lirakenak artu, baiña gauden euskaldun. Ez al da ori bera gure aurrekoek egin zutena, erromatarrekin ar-emanetan sartu ziranean? Aien kulturako itz eta izen asko artu eta asimilatu zituzten, eta orri eskerrak gure mintzoak iraun zuen bizirik. Gure maitetasun itsuak ez dezala orain euskera iltzera eraman. Ez gera illargian bizi, eta bai lurrean, beste erri eta izkuntzez inguraturik, eta oiekin artuemanik estuenetan. Euskaltasuna gorde, baiña irauteko bear dana, artu: ona emen nik zer pentsatzen dudan.

Itz batean: euskera izan dedilla plazako eta kaleko izkuntza. Ez mintegi bateko landare makal zimela. Eta euskal literatura, izkuntza bizi orrekin besoz joan dedilla.

"Euskara, ialgi adi plazara" (Detxepare).

Amaitu dut

RESUMEN EN CASTELLANO

En nuestra ponencia hemos hablado acerca del vocabulario que ha de emplearse en el euskera literario. Es ya pleito viejo entre nosotros éste del purismo lexical. Colocándonos en un plano más bien realista, hemos hablado de los graves inconvenientes que trae el que la lengua literaria se aleje demasiado de la viva o corriente. Un purismo exagerado convierte la literatura vasca en cosa de un círculo de iniciados, al margen del auténtico pueblo euskaldun. Hemos expuesto, pues, la orientación que nos parece más oportuna: una lengua literaria que se mantenga cerca de la lengua viva, que guarde la dignidad de toda lengua literaria, sin descender a lo chabacano, y tenga la preocupación de la claridad, comprensibilidad, y de servir al destinatario, o sea, al euskaldun de carne y hueso, no a un euskaldun ideal que nos forjamos nosotros y que no existe en este mundo sublunar. Sobre todo mientras la vida de la lengua está amenazada, la primera misión de la literatura es proteger a esta lengua viva y real: y para esto es elemental que la literatura se mantenga cerca del habla popular. Que el escritor tenga conciencia de dirigirse, cuando escribe, no al especialista de la lengua, al erudito que está al corriente de todos los términos arcaicos o neológicos, sino al lector euskaldun en general, que no ha cursado carrera de neologismos ni le interesan gran cosa estos pelillos de palabras.

El escrito vasco siente un horror instintivo —yo diría que es una especie de tabú, aunque gracias a Dios parece que se va superando—, horror a no proferir una palabra que guarde parecido o identidad con las palabras castellanas, que él desde luego sabe muy bien, porque es bilingüe, y generalmente sabe mejor el castellano que el vascuence, sea por su carrera, estudios, profesión, etc. Esta tendencia purista, como tendencia, no parece criticable. Ella ha levantado a la literatura vasca a un grado de depuración que admira, y desde luego es un perenne acicate que espolea al vasco a actualizar las virtualidades implícitas en su lengua. Pero cuando pasa de raya o llega a ciertos extremos, se convierte en enemigo número uno de la misma lengua a la que pretende salvaguardar. Además, porque una palabra del vascuence coincida más o menos con otra castellana, ¿por eso dejará de ser menos vasca? Extraño criterio: ¡mirar a otra lengua y sacar del hecho diferencial la norma para saber lo que es nuestro!

Además, sucede con frecuencia que las que rechazamos como palabras castellanas, son en realidad de uso internacional, patrimonio de todas las lenguas europeas y arraigadas también en el vascuence vivo y popular. Por lo tanto, con todo derecho, estas palabras el vasco las puede y debe considerar como parte de su tesoro lexical.

Sabido es, por otra parte, que la lengua está íntimamente condicionada por el pensamiento. Así, a nuevos tipos de pensamiento o mentalidad nueva, se sigue la necesidad de voces correspondientes y modos de expresión nuevos. La cultura moderna, por ejemplo, ha extendido por doquier ciertas formas abstractas de expresión, para las cuales el vascuence está poco adaptado, y los criterios de nuestros puristas más bien obstaculizan que favorecen tal adaptación. Y al decir esto pienso, más que en los puristas lexicales, en los puristas del giro y del modismo.

El mal del formalismo es otra enfermedad de nuestra literatura. El mirar a la lengua sola (a su pureza externa, de aspecto meramente visual) y no al fondo, lo cual equivale a olvidar la función de la lengua, el *finis operis* que decían los escolásticos. Enfermedad que no se superará sino restableciendo la prioridad del fondo, del tema sobre la lengua, que sólo tiene razón de vehículo.

Tampoco deberíamos olvidar (como ya lo recordó D. Severo Altube, que tan magistralmente escribió hace ya muchos años sobre estas cosas) que la función de escribir debe ser como un complemento del hablar, y que cuando se escribe y no se habla, o se escribe al margen de lo hablado y de lo vivo, se crea una literatura artificial, de una brillantez engañosa, porque es algo falso e inauténtico. Algo que parece muy perfecto, pero que en la práctica no marcha, no carbura, como suele decirse. La vida es la gran solucionadora de los problemas, y si hablásemos constantemente el vasco, bien pronto y por sí solos se resolverían todos estos problemas de léxico: el torrente de la vida nos los daría resueltos. Por otra parte, el incorporar y asimilar los elementos que uno necesita para perdurar y sobrevivir es un ineludible derecho y deber de todo viviente. Y si miramos a la experiencia universal, es evidente que el alimentarse de fuera es el procedimiento normal y corriente en todas las lenguas. ¿Y ha de ser precisamente el vascuence la única lengua que haya de bastarse a sí misma? Ello resulta ridículo, absurdo y suicida.

En resumen, mirando con realismo las cosas, nos hace falta una literatura más cerca del vascuence de la calle y de la vida. El alejarnos de aquí conduce a brillanteces que fácilmente fascinan y engañan, pero que en realidad representarían la muerte.

Fr. Luis Villasante, O. F. M.

Oleaga: Oso egoki deritxat Villasante jaunak esan dauen guztia. Nire ustez bearrezkoa da erderazko itzak artzea esan gura direan gauza guztiak esan al izateko. Baiña beti neurriz. Euskerazko berba zabal, arronta ta ezaguna dagoanean axe erabili, eta ez erderazkorik sartu. Ta orretarako argibide bat emongo dot. Oraindiño ezta antxiña errebistatxo bat irakurri nebala, eta an etorran, esate baterako, **entrevista** berbea. **Entrevista** erderazko berba ori an zetan sartu ezegoan. Gitxiago, bertan, orrialde berean lerro batzuk geroago, **alkar-ikustea** berbea etorrela. Idazle orrek **alkar-ikustea** berba ori baekian eta **entrevista** berbarik zetan sartu ez eukan.

Oraindiño beste gauzatxo bat. **Señal** erderaz ta euskeraz sarri erabilten dogu. Baiña guztiok ezagututen dogu **ezaugarri.** Eta bada **ezaugarri** berbea euskeraz, eta guztiok erabilten badogu, **señal** sartu bearrik ezteritxat.

Aita Villasante-k diotsa asko sartuta dagoela eta eztuela uste ajola aundirik daukanik.

Oleaga:-Ez, eztauko, erabilia dan ezkero, baiña **entrevista** ezta erabilten iñon be. **Alkar-ikustea** bai, leku guztietan, Euskalerri osoan erabilten dabe. Ez baztertu euskeraz arrontak, ezagunak, eta zabalduta dagozan itzak eta ordez sartu erderazko bear eztirean berbak.

Mitxelena: Nik gauza bat esan nai nuke, alegia. Jakiña ni zurekin bat nator **señal** erdal-itza dala eta eztala euskeraz erabili bear. Baiña **seiñale** euskal-itza da eta nire ustez euskeraz erabili ditekeana. Or diferentzi txiki bat badago.

Irigoyen: Gaiñera Gurutze Santuan ere **seiñale** itza erabiltzen da.

Altube jaunak dio Gernika aldean lenago nola egiten ziran ezkontzak gurasoen artean itz emanik. Baiña ori ontzat emateko auxe egin bear zan: alkar-ikustea. Eta bere eguna izaten zuten ain tokitan. **Entrevista** len esandako itzak eztu uste ainbeste balio duenik beste itz ederraren parean.

Querexeta jaunak esaten ditu itz batzuek. Batzar batek ikasi eta esan bear lukeala itz kontuetan toki batekoak bakarrik di-

ranak edo-ez, eta zeiñek sartu eta zeiñek ez. Villasante-k diotsa iztegi bat bear gendukeala ortarako. Eta jarraitzen du, eta **arnari** itza ateratzen da Azkue-k Morfologia Vasca-n dakarrela esanik. Mitxelena-k erantzuten dio orri Euskera-n itz ortaz argitaratu zituanak adieraziz.

Aita Onaindia: Itz ori Bizkaian asko erabilia da, bai pulpitoetan, eta batez be Eguzkitza-k Loretako illean ia beti beti **arnaria** ipinten dau. Erabili bagea izan balitz itz ori bertan bera itxi eitekean. Baiña gaur Eguzkitza-k Bizkaian indar andia dauko, eta pixu andia, eta berak sarritan bere idazki guztietan erabillia da.

Lose Luis Alvarez: Barkatu. Baiña zeiñek du inportantzia geiago, erriak ala Eguzkitza-k?

Onaindia: Literaturak be egiten dau.

Seijo jauna berba egiten asi da eta berotu. Erriak itz egiteko bizia, indarra eta eskubide geiago bear omen ditu eta lortu bear omen dira. Eta ebagi egin zaio esanik nola gai jakin bat dagoen eta eztegula gai ortatik kanpo atera bear.

Jaun batek dio nola gertatzen dan askok **tio** ta **tia** euskeraz erabiltzen dituztela eta zergatik ez al ditugun guk ere erabili bear. Dio nola erderazko izkuntzan esaten dan «giro no correcto» ta olakoak.

Villasante-k dio mugak ezin jarri ditezkeala arazo ontan matematikaren bidez.

N. Echaniz: Nik uste det beste gauza bat ere ikasi bear degula euskaldunok. Moralean gertatzen dana gertatuko da emen ere. Aita Villasante-k esan duena oso ontzat danok artuko degu. Baiña gero oiñarri oiek nola bati ta besteai ezartzen zaizkion, ortan iritzi asko izango ditugu. Ta ori ezin diteke iñola ere kendu, iritzi askokoak izatea gu. Baiña euskaldunok ikasi bear degu, bi iritzikoak geranean uskeri batzukatik, ez asarratzen alkarrekin. Bestela ezingo degu alkarrekin lan egin. Esate baterako, bizitza guztian, amairu urte ezkero beti euskeraz eskribitzen ari gera. Ta ala ere beiñere etzitzaigun guri burura etorri lengo autore zarrik irakurtzerik, ta orain konturatu gera ori ere mesede aundia izango genduala, irakurri izan bagenitu. Baña ori dana, ikusten danean eta esan. —Nik etzekiat ori. Ba ez asarratu irakurri duanak esaten baldin badu lengo autore danak ola edo ala esaten dutela. Baiña orregatik, ori entzun arren, pakean egon gaitezen. Beste gauza batean erreztasunak ezditugula guk gure aldera eramateko, eskolatan, radiotan ta beste gauzatan? Guk ezin degu ori erabaki, eztago gure eskuan. Naiko genduke danak, zabalkunde guztiak eukitzea. Beste alde batetik ere piskat esperantza geiago bear degu izan erriak guk uste baiño errezago artzen dituala itz berriak ere. Len ezer ezuen izan sermoia besterik itz berriak zabaltzeko eta

ala ere arritzekoa da lengo urte aietan erri xeak, arruntak zenbat itz berri ikasi zituan sermoietan bakarrik entzuten zitualako. Ta orregatik nik uste eskolak eta eztitugun bitartean ere guk alegiñak egin bear ditugula neurri orretan errian erakusten geure zera, al deguna. Ta nik uste ouk uste baiño geiago erriak artzen dituala, erri ezjakin ezjakiñak. Baiña batez ere ori, ez asarratzea alkarrekin iritzi bikoak geralako.

Altube-k diotsa gauza batzuek argi ta garbi daudela ark esan dituanak. Neurri matematikurik eztu iñork asmatuko. Baiña ori zerbait matematiko antzeko egiten dute akademiak. Ortarako iztegi bat egin bear izango genduke, eta onek matematiku osoa ezpaldin bada ere beintzat neurri piskat badu. Aipatzen du berriz ere nola itzak asko zabalduak edo bazter batean baizik esateı eztiranak kontuan izan bear diran. Bardiñean, jakiña da jatorra erabilgarriago dala. Baiña batzuetan izaten da biak erabili bearra ere, zearo berdin eztiralako. Erriak berak egin du divisio bat gauza bat erabiltzen da gauza baterako eta bestea besterako. Eta ori aberastasuna da izkuntzarentzat. Baiña lan zeatzok olako batzar batean erabili bear diranik ere eztut uste, eta Akademia bezalako zer batek, eta ark ere kontuz, iztegi bat egin bear duenean, an jarri bear ditu zeaztasun guztiak.

Jaun batek dio eztuela uste eskubiderik daukagunik **populua** esateko.

Aita Villasante-k dio **Herria** asterokoan itz ori sarri erabiltzen dutela an sustraitua dagoelako. Emen ez. Eta emen erabiliko balitz ere batasuna leku guzietakoa dala.

Altube-k berriz dio sarri gertatzen dala askotan biak bizi izatea. Baiña bakoitzari aldakuntza txiki bat nabaritzen diola erriak. Olako itz asko omen daude, jatorriz esangura berdiña zutenak eta gaur euskaldunak, beti euskeraz itz egiten dutenak nastatzen eztituanak, eta ori aberastasuna da izkuntzarentzat. Eta Euskaltzaindiak berezi eta finkatu bear luke zeatz nola dan, nolako kasutan erabiltzen dan bat eta nolakoetan beste. Biak sartu bear ditu iztegian eta definizioa egin: Bata alako ta alako ta alakoetan. Eta bestea alako ta alakoetan. Villasante-ren esana aintzat arturik matematiku zerik ezin artu baditeke ere beintzat oiñarri batzuek jarri bear lirake, Euskaltzaindiak iztegia egin bear badu olako ta olako sartu bear dituala esanik. Esate baterako, oso zabaldua bada itza txapela erantzi bear diogu. **Kolore** itza ejemplutzat. Egon ditezke ere jatorriz oker sartutako itzak. Adibidez **arnari.** Eta jaun batek diosku, baiña zabaldu egin da. Oker sartutakoa, baiña zerbait zabaldu bada, zabalkunde onek ere bere eskubideak ditu. Zabalkundeak beti ditu eskubideak. Itz au eztakigu noraiño zabaldu dan baiña. Beste izkuntzetan ere zenbat itz ez ote dauden

oker sortuak. Orretan ari da beti Orixe ere. Unamuno ere ortan zalea zan eta esaten zuen **filatelia** itza zorakeria bat zala, baiña ala ere sustrai aundia du. Dana da neurrizko gauza. Itz auek bearrizanak sartzen ditu.

San Martin-ek Eibar-en **seiñalea** zer dan adierazten du.

Mitxelena: Nik len Querexeta jaunak esan duanaz gauza bat esan nai nuke eta Altube jaunak ere ori bera aitatu du. Orain bi iztegi ari dira egiten. Bat Aita Mugica eta bestea ni ari naizena, Azkuena jakiña. Baiña ez bata ta ez bestea eztira guk auzi ontan bear ditugunak. Aita Mugica-na da, noski, erdal-euskal iztegia. Beraz iztegi orrek erakutsiko digu nola itzuli bear genituzkean erdal-itzak. Baiña ez zein diren euskal-itzak, okerbidez baizik. Eta Azkue-ren iztegia, danak dakizutenez ezta bilduma bat besterik. Bertan sartzen dira alde guztietakoak, zarrak, berriak, eskubikoak eta ezkerrekoak. Orrek eztu esan nai an agertzen diran itz guztiak merezimentu berdiñak dituztenik, gaur denak berdin erabili bear genituzkeanik. Ezta normativua.
Beraz, ortaz gaiñera, Altube jaunak ondo esan duen bezela bear genduke Euskaltzaindiaren iztegi bat euskeraz azaldua. Ortarako len esan duen bezela oiñarrietan bat etorri bear genduke. Ni bildur naiz gaur bertan iztegi ori ezin izango litzakeala egin bi gauzagatik. Batetik lan gaitza ta nekagarria dalako, ta luzarokoa, eta bigarren nik eztut uste Euskaltzaindian bertan ere bat etorriko giñakeanik beti. Nik ala uste dut. Baiña nolanai ere oiñarriak beintzat piska bat aizatuko baldin bagenitu emen, naiz ez denak bat etorri, uste dut gauza aundia aurreratuko gendukeala.

Irigaray jaunak lan bat bialdu du:

LIZARRAGA ELKANO'KOA

Irigoyen adiskideak otoizten dit zerbait presta dezadan, biltzar gogoangarri oketako. Bainan, damurik, ez dut astirik, eguna gainean dugu eta. Ala ere, zerbait egin gabe ez dut nai gelditu; eta oroitu naiz baditudala zirriborro batzu aspalditik bilduak, Lizarraga Elkano-koari buruz.

Ala bada, deliberatu dut, zuen barkamenarekin, zirriborro oriek dauden bezala igortzea irakurtzeko, batere landu gabe eta dokumental bat bezala: iduri bai zait idazlari nafar orrek merezi duela irakurtua izan dadin.

Joakin Lizarraga 1478 urtean sortu zen Elkano, Nafarroko errixkan, eta hil bere hartan 1835 urtean, 86 urtetan. Bere bizitza luzean, euskeraz idatzi zuen bederik Nafarroako beste guziek baiño aunitz geiago; ez dut esaten obeki, ezen bere yoskerak erderatiko kutsu bat badu; bainan oso aberatsa da bestalde verboaren itzulietan, itzetan eta esakeretan ere: beraz, linguistaendako preziatsua eta ikasgarria.

Nondik sortu zitzaion Lizarragari euskalzaletasun ori, Nafarroako eremu otzean? 1766 urtean sartu zen Loyola-n eta orduan han aro ona zuen euskerak, Larramendi, Mendiburu eta Kardaberatz-en liburuei esker. Gero sakabanatu bear izan ziren jesuitak beren komentuetatik, eta urrengo urtean gure Lizarraga itzuli zen Elkano-ra berriz, eta erriko erretore izendatu 1774 urtean. Orduko asia zen euskeraz idazten, ezen leeneko eskuz-iskiribua 1771 urtekoa da, bigarrena 1776-koa eta irugarrena 1800-koa.

Nafarroako Artxiboan gordetzen dira bere obra guztiak, Bonaparterenak izan zirenak, bainan etzen Prinze jakintsunaren laguntzalea izan, oker esan den bezala, orduko hilik bai-zegon gure apez ohoragarria.

Artxibo hortan (Caja 10-43) daude iru liburu lodi, eskuz-egindako predikuekin, eta Bonaparteren esku bereko oharpenekin. Gero, *Ioanes-en Ebangelioa, Sanduen bizitzac, Coplac* eta *Doctrina Christioa euscaras Iruiñ aldean usatzen den mintzaeran* (160 pág., 1821 urtea).

Ortaz landa gorde dira Iruñeko Apezgaitegian beste liburu lodi batzu oraindik, euskeraz, Lizarraga'ren eskutikakoak.

Uzta yoria, beraz, bainan langille eskas!

Demagun leenik 1776 urtean eginikako *Liber continens Sermones de Eucharistia... populum rusticanum cantabro. idiome.* deitu manuskritotik, lerro batzu, eta gero esakera eta itzuli berezi batzu andik eta emendik laburzki artuak.

* * *

"S. Lucasen 14-capitan. contatzen dú parabola bát, nola gizon bátec prestatu zuen, otrontze bát ándia ta deitu zituen ánitz. Garái zélaic ez agéri convidátuac eta biali zué mutila deitzerá. Aiec atra zúte achequia ez joateagátic; bátac erosi zuela heredage bát ta icusi bear zuéla; berceac erosi zi-

tuela idiac, ta progatu bear zituéla; berceac ezcontzen céla, ta orgátic etzeiquela joán. Asarréturic Jaun arc manatu zió mutilari: *Zoáz bérla errico plázac ta carricac bárna, eta póbreac, itsuac, maldérrac ta ezinduac ecarzkizu onát...* Eginzue erran *becála*, ta oraño bazé lécu máiean... *Zoáz*, erránzio, *videac ta éstiac bárna, ta obligazkizu etorcerá bete dáien nere échea; ezi diót sinés*, [zinez] *convidatu gaiétaic niórc ére eztú shastatúco nere otróntzea.*"

* * *

"S. Mateoren 22 capitan. contatzen dú parabola bát errege báten semearén bódes, gisa berécoa, ta cembaiten ústes berbéra: solame. ezi an dió yágo, bazcaltzerácoan sartu zéla errége icusterá máiean jarriric zeudénac, ta icusi zuéla an bát, bodetáco tresenaic gábe ta errancióla: *Adisquidea, nola sartu zára emén bodetaco trésena gábe?* Ura gelditu zé ishil: ta errégec manatu zué botátzeco ándic ura oin escuetan lóturic, ilumbe batera."

* * *

Dakusagun orai esakera pollit batzu:

Zaude aiek lotsarriturik becála... *dicha andia den* becála *(becala = bezala, bejala* Donostian).

Goacen eracutsiz (por *eracustera).*

Darducat *comecatzeco disposicioaz* "Hablo de la disposición..."

Eta utzi baledi "Si fuera dejado".

Autsa ta errautsa "Polvo y ceniza".

Vizcorr bez nere sineste eria "Ayude a mi incredulidad".

Ni gloriara banindédi "Si yo fuera a la gloria".

Charrechi "gaitzetsi" [txarretsi].

Eta ni esquergaitz *gaishtoa* "Y yo malo, desagradecido".

Agitu izan daike "Puede acontecer".

Beneficioa ta agradecimentua elcarri darraizquio *ala nola azaroa eta eraicioa.*

Etzequio gelditu len cenaren larrangeric ta errestoric batere.

Nola gariburu aiec (galburu "espigas de trigo").

Lancen zue alorra, eraikitzen, igitatzen, ta iotzen zue garia, oratzen ta erretzen zue ogia (eraiki = erein).

Abeltzai batec "Un pastor".

Ellegatzeco izatera garia ogi, matsa ardo? Bata bear da igitatu, eulcitu, aiceratu, io, iralqui, oratu, erre: bercea ondu ayenean, ebaqui, bildu, isticatu ta purgatu (eulcitu "trillar"; *ayenean* "en la vid"; *isticatu* "pisotear".
Zaurien cúntzeac "Señales de heridas, cicatrices.
Paratua dut uztargia lañuetan "Arco iris en las nubes".
Paratua dut otsadarra lañuetan "Arco iris en las nubes".
Abasto culpac, abastoago gracia "Cuanto más culpas, más gracia".
In duenac, pága, erraten da "El que la hace la paga, se dice".
Bagatozque "Podemos venir".
Aloca naique Jaungoicoaren zerbitzuan "Alquilar".
Echidén bezáda "Espéreme".
Achunen, aicinecoen "De los abuelos, de los antepasados".
Christio mushisharcoac "Máscaras de cristianos".
Zartots "Ruido de bofetada".
Egonen núta "Estaría".
Curr adi lurreraño "Agáchate hasta el suelo".
Urapoec "Las ranas".
Ardantze "Viña".
Erdical dabilzanei ya Jaungoicoaren, ya deabruaren "A los que andan a medias, ya con Dios, ya con el diablo".
Ezi ya ematen nitza condenatutako "Pues ya me daba por condenado".
Contricioaren utsez "Por pura contrición".
Urrin sollarequi "Con sólo el olor".
Beira nindégo erorcen Satanas ausnarria becala (Ausnarria "chispa, centella". Traducción de Lucas 10, 18. *Videbam Satanam sicut fulgur de caelo cadentem).*
Aditzeas ura yago izerdi zeridala *ezi ez predicuaren neque pasátuas* "Manándome más sudor oyendo a aquel que no por los trabajos de sermón".
Beira castigoari, ezpada emendatzen "Cuidado con el castigo, si no se enmienda".
Ta ezkindeitzen lotsa "Y para que no nos asustásemos".
Goazen explicatus "Explicatzera".
Zoazte icusis (Ikusten "viendo").
Ortaco sollic dire prochál "Sólo para eso son provechosos".
Sucaiak "Combustibles".
Eta fú eman *ichequitzeco sua* "Y hacer fu para encender el fuego".
Badirau, badiraute "Ya dura, ya duran".
Beguiec ez icusi, gogoac ezin senti, da errefrana.
Bere dizipuluei Yesu Cristoc eran zitioten *itzac.*

Nola begien erchi-idiqui bat "Un abrir y cerrar de ojos".
Zerbaitto "Un poquito" .
Burua curturic "Cabeza inclinada".
Erran bézo arimac "Que el alma le diga.
Geldi beites "Que se queden".
Ongi dagoquida "Me cuadra".
Alque da ibiltzea ain churr neurtzen "Es vergonzoso andar midiendo tan mezquinamente".
Cer oñen apatzea "Qué besar de pies.
Esperen in gindezóke "De lo contrario le haríamos".
Emplea gindezáque "Emplearíamos".
Ta ez lequiguzque iduri luze "Y no se nos antojarían largos".
Zer invidia dioteten sánduei "Qué envidia les tengo...".
Norc lúquen orren fedea "Quién tuviera vuestra fe (de vos)".
Iduri cequiola eci dugúnas guéros "Pues se le antojaba que, teniendo nosotros...".
Icus balez "Si viese".
Errefrán antiguascoa da Evangelio labur bat becala: Guiçonquia da súa, / emastequia istupa, / eldú da deabrúa, / ta astén da fúca.
Jesus paratu zequioté *erdian discipuloei* "Jesús se les puso en medio a los discípulos".
Astasquizu ene llaga cuntzeak "Palpa mis cicatrices".
Ingur ingur erabilcea "Andar dando vueltas".
Goarda erorcetic berriro eztaquizun agui gaizquiago "...para que no te suceda peor".
Gaizquiaren gaitza "La maldad del mal".
Baliatzen baita beguiordes "Pues se vale de anteojos".
Ta doacela bildus ceruan "Que se van reuniendo en el cielo".
Nola azároa emen, eraicioa ario gortára an "Según la siembra aquí, la recolección a ese tenor, allá".
Genero bacochean idurical "En cada especie *según parece*".
Ar bez bere gurutzea ta segi benáza "Que tome su cruz y *me siga*".
Aisatzen da "Se hace más fácil".
Urte-cal "Por años, según los años".
Nola nindegóquen "Como estaría yo".
Deusec ecin valia "Nada poderle ayudar".
Erran bezágu "Díganos".
Loshenchu falsoak "Lisonjas".
Escáida "Ocasión, oportunidad".
Mari bistaco, ezta deustaco "Chica presumida, de nada vale".
Irria gora "Risa desenvuelta".
Aurcaséco paretean "En la pared de enfrente".

Betoz jaquintsuak, lei bezadáte "Que vengan los sabios, que me lean".
Berce bati eman bezquio bere presentac "Dé Vd. sus presentes a otro".
Cego icar icar "Estaba temblando".
Gelditu cequioten "Se les quedó (el chico a los padres)".
Escaida gonéqui "Con esta ocasión".
Goacen aipatus "Vamos a mencionar".
Egui cioneco diosálea "Para cuando le hizo el saludo".
An pasatu aurzútua "La infancia".
Gucia antuste ta arroitu zena "El que era todo fatuidad y barullo".
An isticatu zute zaldiec "Allí le patearon los caballos".
Sardea, aiceratzeco eulcia "El bieldo para aventar la parva".
Lecuquide "Coterráneo, paisano".
Eraiqui "Sembrar".
Ez in bai in "Haciendo como que se hace".
Eraicioa "La siembra".
Iguita dembora "Tiempo de la siega".
Dio iguitarleei, lotzeco pashuca "Dice a los segadores, que aten por haces".
Aguitu ze iltzea Lazaro "Sucedió que murió Lázaro".
Adi bezquite! "¡Que les oigan!"
Eztaguigun aguitu "Para que no nos suceda".
Erran zue oranzarena, zeiñek artzitzen, sasoitzen ta goratzen baitu órea gucia.
Mostaza da mincaitza ta shegaturik atra arasten tu negarrac "La mostaza es cáustica y, machacada, provoca lagrimeo".
Lishtucatu zute "Escupiéronle".
Aisanaiak "Comodones".
Mostazaren chse [= *xe*] *mincaitz ta érruan.*
Aice erru bat "Un viento fuerte".
Aldartes bai, aldartes ez "Por períodos sí...".
Asco lan ardantzean..., ya laia, ya otizéna, sarcea morrioac, machárde, ongarristatzea...
Leyatillatik "De la ventanilla".
Beti dago naiac "Siempre está deseoso".
Laquio-tic "Del lazo" (?).
Eta cein guti costarik "Y con qué poco gasto".
Egarriac nago "Tengo sed".
Aguitu balequio "Si le hubiera ocurrido".
Lotzaquia "Lotgarria".
Agotz edo ilauna, aiceac dabilana gora bera.

Otsoarraiak gasta bat (Otsoarrai "cuervo").
Antustea "La presunción".
Antustetus "Por envanecerse".
Alaber joanqueran ta jaintsitzean "Así mismo en el andar y vestir".
Bearrezten-queriaic gabe "Sin superfluidades".
Latzago iduri lequioque "Más duro le parecería".
Bataio necósoa "Bautismo trabajoso".
Jesu Cristoren alcindaria "Precursor".
Gozoaren utses "De puro gozo".
Iloztuak "Cadáveres".
Urte ta gendamende "Años y siglos (generaciones)".
Zuzis "Con antorchas".
Buruan frincaturic aranzesco ustai *bat* "Corona".
Alocatu zuté "Contrataron".
Itzuli zue ura ardotan "Convirtió el agua en vino".
Betearen utses "De puro llenas".
Ezi ya ez ondatu bai ondatu zebila oncia "Pues ya andaba la barca a punto de zozobrar".
Oyu egin zio beldurrac: Jauna, libra benáza "Le gritó temeroso: Señor, líbreme".
Asco errateco eman ziotena "Que les dió mucho que hablar".
O Jesus, urricari bedi nitaz "Sé misericordioso conmigo".
Ayec zeude barronde beira "Ellos estaban mirando al acecho".
Cego eri andi "Estaba grave".
Il etsiequi "Con los desahuciados".
Evangelari "Evangelista".
Ezi egun zure aldi naiz "Pues hoy estoy para ti, me toca contigo".
Arrucaldia "Pedrada".
Curtzen da "Se agacha".
Acusatzen zindutenac "Los que te acusaban".
Agotic agora errespondatu cio "Sin respingar, sin parar".
Il aintzu, ero aintzu "Como muerto, como loco".
Ojalá niorc ezpalez offendi "Ojalá nadie le ofendiese".
Jauna, beira béz! "¡Señor, mire!"
Imbezagu ongi "Hacednos (vos) bien".
Asegura bezágu bere gracia "Aseguradnos vuestra gracia".
Drazaguzu "Dezaguzu".
Niorc etzuke idiqui "Nadie pudo abrir".
Zer emain diogu ordáñez? "¿Qué le daremos en cambio?"
Ertean "Artean".
Azazcarra "Sarna".
Beccaitza "Envidia".

Shurreria "Avaricia".
Edernai, andinai "Vanidad".
Satarteran "En la ratonera".
Ario *gontara iduri zaida niri* "De esta guisa".
Conveni ote zaion maizago edo argalshago "Si le conviene más o menos a menudo".
Geroago churturik yago fervorea S. Fabian Aita Sanduac ordenatu zué ezi yagótan ezpazé benzait [=*beintzat*] *irur aldis úrtean comeca zeizela* "Menguando cada vez más el fervor, ordenó el Papa San Fabián...".
Icusi duzie nola joan den anditus becála *malicia.*
Nola dagoquioque? "¿Cómo le corresponderá?"
Gógoan para baléquio joatea archaico pobre baten echolara "Si se le ocurriese ir a la cabaña de un pobre pastorcillo".
Cerbaitetan iduri daquioquenic "Que se le pueda parecer en algo".
Ta onen echetto atoasco (?) *charr erdi urratuan.*
Barrendegui "Conciencia, interior".
Atsaña (=¿enfadados?) *egonen dire arren contra ceruetaco errége ta erreina.*
Ni confesatzen natzaio (Bonaparte anota de su letra: *natzaiote?)*
Eztioze gezur egin gizonei (Bonaparte anota de su letra: *eztiozete?)*
Jesus onac erran zue: Egarriac nago.

* * *

Lan labur au pitzgarri izan dadin beste norbaitendako, Lizarraga-ren izkiribuak ikertzeko eta jakingarri direnak illumbetatik ateratzeko.

A. Irigaray.

Etxaide jaunaren karta agurrezko bat irakutzen da. Arratsaldeko laurak arte uzten da.

Arratsaldean Juan San Martineri ematen zaio itza.

3192.-

EIBAR'EN TEKNIKA GAIETAN EGIN DAN EBOLUZIÑOARI BURUZ

Agur, jaun andre euskaltzaleok:

Beste euskaltzale bat besterik ez naiz. Euskaltzale miñak eraginda aztertu ditut emen adieraztera nijoan gai auek. Bañan, obeto ulertu dezazuten, aurretik, esan-bear batzuekin arkitzen naiz.

Berotasun gabe gauzak neurtzen aleginduko naiz, otzean obeto ikusten bai dira, naiz gogozkoak izan edo ez izan. Kanpotik begiratzera nijoa, diran bezelaxe nai nituzke adierazi.

Bildur naiz zenbait gauza atsegingarriak ez ote zaizkizuen izango. Oso erreza ezbada ere zintzoki egia esaten saiatuko naiz.

Emen bildu geranok euskaltzale idealista batzuek gera, bañan gure erria ez; guk, euskerari buruz geure iritziak ditugu, bañan erriak ez du ezertariko iritzirik, eta norbaitzuk badituzte ta idealistak ez badira, ainbat txarrago guretzat, gure iritzietara gutxi baño eztiralako biurtuko. Idealismurik ez dutenak, materialismura biurtzen dira, sentimentu sakonen batek eragitzen ezbadiote beintzat. Eta materialismuari bost ajola dio euskerarekikoak. Gañera, zerbait pentsatzen dutenen artean, zenbat buru ainbeste aburu; euskaltzaleen artean ere ori berori gertatzen baita. Orregaitik oso gaitza da erriaren maillatik ikustea, lenbizi zein maillatatik galdetu bearko genukealako.

Munduko erririk geienak ez dute beren izkuntza maite. Beren izkuntzan mintzatzen badira, jaiotzatik berena dalako da, geien domiñatzen dutena dalako, ta geien-geienetan besterik ez dakielako azkenengo onetan jarriko nituzke nik zenbait euskaldun, batez ere baserritarrak.

Eibar'en ere, mundu guziarengandik desberdiña ez izatearren, gauza bera gertatzen da: Erriak ez du maite bere izkuntza; eibartarrak ere euskaldun jaio ziralako euskeraz mintzatzen dira; bañan, oraingo gaztetxoak, eta batez ere aurrak, erderara jotzen dute; eskolak, radioak, erbestetik etorri diran erdaldunak, eta abar, aurreri erderazko inguru bat egin diotelako, erdera obeto domiñatzeko giro bat sortu zaie.

Gurasoak eztira alegindu euskerari eutsitzen eta orrek adierazten digu euskera ez dutela maite, euskaltzaleak ez dirala. Kulturarikezarena bada, ainbat txarrago; nik ez nuen ainbeste esaterik nai.

Eta, ni gaur emen aztertzera nijoan gaia, euskera maite eztutenen erri baten erabiltzen diran itz teknikoeri buruzkoa izango da.

Ez uste izan euskerarenganako maitetasunikeza eibartarren errua danik, Euskalerri guzian gertatzen dana da, eta len esan dedan bezela mundu guzikoa. Erri gutxi dira munduan beren izkuntza maite dutenak; eta maite dutenean, munduan asko zabalduta dagoan izkuntza dalako edo abertzaletasun zintzo ta sendo batek eragiña dalako. Gurean berriz, bi oiek palta dira; izkuntza txiki baten jabe gera, eta abertzaletasunean txikia baño askoz obea eztana, ez dala zintzo-zintzoa. Ortarako euskera bera dugu neurbiderik onena.

Beraz, euskerari lagundu bearrez, emen aztertzen ditudan gauza auek, ez dira erri batek naita egindakoak, uste gabe baizik. Bañan, Eibar'ek ezertan izan badu bere nortasun berezirik, izakerak Euskalerriko erririk nagusienetarikoen artean eusaldunenetarikoa izatea eman diola, eta batez ere, burdinlangintzako erririk euskaldunenetarikoa. Meritu ori ere, eibartarrak, berek oartu gabe dute. Orrela dira mundu ontako gauzak.

* * *

Nire oparia, euskera maite dedanez, zerbaiten berari laguntzea litzake. Ortarako, azterkizun auek egiteko, niri dagokidan mailla bat aukeratu dut.

Nire ustez, bakoitzak berari dagokion maillatik landu bear dugu euskera, bakoitzak bere espezialidadean, eta batez ere, bakoitzak bere erriko euskera estudiatuz. Euskerarik mordoilloena egiten dan tokian ere beti arkituko ditugu zenbait izen edo gauza jakingarri, euskera sakon ezagutzea bere onerako dala uste izanik.

Eta esan-bear oietan geiago luzatu gabe, banijoa Eibar'en teknika gaietan oartu dedan eboluziñoari buruzko arira. Bost sailletan zatituak eman ditut.

1.—Galdu ziran izen batzuek eta zerek galdu zituan.

Sarri, euskal tresnetan, berriak sortuala zarren izenak baztertu egin dira; naita auek, lenaren ordez, gauza berdiñerako asmatuak izan, lengo izena ain zuzen artu bearrean. Gaur,

orregaitik, aietariko lankai eta tresna askoren oroitzapenik ere ez dugu, eta beste askorena, eskerrak idazle zarreri utzi dizkigutelako. Adibidez, artuko bagenu oñarritzat Mogel'en "Peru Abarka" —eta Mogel aukeratzen dut, jaiotzez eibartarra izanik ta bere bizi guzia nola Eibar inguruan igaro zuen, berak erabiltzen zituan itzak, bere garaian Eibar'en erabilliko zirala usterik—, eta Mogel'en lanean, gaur erabiltzen eztiran izen pillo galanta arkituko dugu. Batzuek galdu ziralako, beste batzuek gauza etziralako, eta besteak erbestetik sartu ziran edo asmatu ziran obeegaitik baztertu zituztelako, izen zarrari jarraitu bearrean, izen arrotzegaitik aldatzera eldu ziran.

"Peru Abarka"ri begiratu bat ematen badiogu, laugarren alkarrizketako iztegia aztertuaz, zer ziran ere ezagutzen ez ditugun izenekin arkituko gera; adibidez: *bergamailluka, durmienda, epailia* (ebateko zerbait ote? Gaur Eibar'en *epaiki*, "sierra" bezela erabiltzen da), *kaiku (kaizu*, "calibre" edo "dimensión" ote da?), *maku, mazukari, nardaka, onda-aska, porroi* ("porra"tik ote?), *tobera, tximela, urkula*, ta abar. Galdutako izenak dira guziak.

Berriz, aztartzen baditugu izen ezagunak izanarren orain erabiltzen ez ditugunak, beste zerrenda mardul bat arkituko dugu. Ara emen batzuek; *arrago, arrago-etxe, burdinaga, burdingai* (onek adierazten digu orduan *burdin*, "hierro labrado" zala, ta *burdingai*, "material de hierro" edo obeto esanda "mineral de hierro". Orrela *mia*, "mineral" uts-utsik izango zan noski), *estolda, gabi, gabiguna, giltz, mia, orrika, puio-makurra, txirikiñ, ustei*, ta beste orrelako batzuek. Beren berri, aurtengo *Euzko-Gogoa*-ren lenengo zenbakiko 39/51'garreneko orri-aldeetan eman nuen.

Erbestetik artu izan diran lankai ta tresna berriak, beren arrotz izenak ekarri dituzte. Iñoiz, eraberrikoak izanik, nola ezan antzerakorik ere gure errian, oso-osorik, sartu ziran, naiz eta iñoiz beren izeneri euskal kutsua eman; bañan, urrengo, eta au da tamalgarriena, gauza berdiñerako tresnak sartu izan dira, lengoak baño obetxoagoak zirelako bakarrik, eta lenen izenakin jarraitu bearrean berrienak artu ta beste jatorrak baztertu ziran; ta, urrengo berriz, lan era berri bat azaldu danean, beste ainbeste egin izan da. Orregaitik, beren artean, iru tankeratako gertaera izan dalako, iru sail egingo nituzke, eta beren izen batzuek eman adibidez: Lenbiziko, erbestetik sartu ziran edo asmatu ziran lankai berrien izenak; bigarrenez, gauza berdiñerako azaldu ziran lankai ta tresnen aldakizunak; ta, irugarrenez, era berriko lanak ekarri dituzten aldakuntzak.

Lenengokoan ditugunak: *fresadore, limadore, mandrinadore, tornu* edo *dornu, txantxilloi, zepillu,* ta abar.

Bigarren maillan: *alper*'en ordez *taladru, burdinaga*'ren ordez *palanka, gabi*'ren ordez *matxino, orrika*'ren ordez *tenasak, txirikiñ*'eri *tenasa-aundi,* ta orrela.

Irugarrenean: *arrago*'ren ordez *krisola, landu*'ri *forjau, tresna*'ri *erremintxa,* eta beste zenbait orrelako.

Era berriko izen berri auek, lenagoko izen zar jatorrak baztertzen, teknikako liburuak ere asko lagundu dute, euskaldunak ere erderaz irakurri bearrean arkitu direlako. Gure izkuntzan ez baita teknikaz idatzi.

Badira beste zenbait tresna-lankai ta gaiñerako, beste balio batekin erabiltzen diranak. Beretariko batzuek ez dakigu zer esan nai zuten eta ez zertarako erabiltzen ziran ola-zarretan, gaur baditugu beren antzerako izenak dituztenak, eta bear bada, beren sustraiak aietan izango dituzte; oiek dira: *ardatz-nagusi, tornuak* daramatena da gaur, eta lenago bear bada *gabia*'ren ardatza edo izango zan (garai artan ez bai zan orrelako *tornurik); blandiua* ere ez dakigu zer izango zan aintzina artan, bañan gaur *blandiua,* "balanceo"ri deitzen diogu Eibar'en (batez ere txapa ta barilla luze txamarrak diranean, bizkarrean eramaterakoan izaten duen "balanceo" orri); lenagoko ola-zarretan ba-zan beste tresnaren bat ere *zepo-amia* deitzen zitzaiona, gaurko egunean *zepo* edo *zepu,* tornuan erabiltzen dan tresna bati deitzen zaio. Orrela beste izen batzuekin ere.

2.—Gaur erabiltzen diran izen zarrak.

Badu gure euskerak bere nortasunezko indar aundi bat. Bera izan da gure izkuntza oneri millaka urteetan iraun eragin dion mirari arrigarria; eta izen asko galdu baziran ere beste asko gorde ditu urteen buruan. Eta, gaur, oraindik, Eibar'en erabiltzen diran izen zarren artean, arri-aroan beren sustraiak dituztenak ere arkitzen dira; Euskalerri guzian ezagunak diran *aitzur, aizkora, artatzi,* ta abar.

Arpiko'k, *orratz*'ek eta *zulakaitz*'ek ere oien antza dute, "aitz" eta "arri"ren sustarrak agiri zaizkie.

Orrez gaiñera, guziok dakigu burdinlangintzak aintzina-aintzinatik Euskalerrian izan duen garrantzia. Eta, ola-zarretan erabiltzen ziran izen asko billatzen ditugu gaur Eibar'en.

Ola-zarrak aipatzeak Artiñano'ren "Introducción al estudio del trabajo del hierro en España" liburua dakarkida burura; ara zer dion berak Mogel'en lanaren gorazarrez: "Las costumbres y vida de una ferrería desde finales del siglo XVI hasta

muy entrado el XVIII, fueron descritas cuidadosamente por D. Juan Antonio Moguel en su curiosa obra "Peru Abarka" y hoy, gracias a ella, podemos reconstruir toda su complicada trama material y moral, curiosa y llena de misterioso encanto, y al mismo tiempo conservamos el más completo inventario de todo lo que se consideraba necesario a su trabajo y a su vida".

Mogel'ek aipatzen dituenetarikoetatik, oiek dira Eibar'en oraindik bizirik daudenak: *atxur, auspo, bandio, burdin, galbai, galda, ikatz, junguda, kañu, kate, maillu, sutegi, totxo, txatarra, zara* ta *ziri.*

Mogel'ek aipatu ezarren, itxuraz zarrak direnak, beste auek: *aixe-zulo, akatz, aleka, ardatz, azelin, barauts, epaiki, irutxur, laba, maratilla, ortz, ugal, ugar, urtze, zil, zulatu,* ta beste.

Oien artean, onomatopeikoak ere ezarri genitzake. Izen onomatopeikoak, geienetan zarrak izaten baidira, eta orretarikoak ditugu: *firi-fara, klak, klakada, trangader, txibiri, txirrinbola, txorroztada, ukat,* ta abar.

Denak ditugu noski baño noskiago burdinlangintzako izenik zarrenetarikoak.

3.—Zarregandik gazteetara agiri diran aldiak.

Zarrengandik gazteetara dauden aldiak eztira iztegikoak bakarrik, berboan, berbo-jokoetan eta joskeran ere arkitzen dira orretariko aldiak. Gazteak, zer esanik ere ez, erdal-itz geiago erabiltzen dituzte.

Nagusieri oraindik entzuten dizkiegu, adibidez: *zaldia, jetxi, bezero,* oskol eta orretarikoak; gazteak: *kabaillu, bajatu, parrokiano, kaskara,* eta orrela maiz erabiltzen dituztenak. Ez pentsa orregaitik Eibar'ko gazteak euskaldunak eztiranik. Eibartarra euskeraz mintzatzen danean estropezurik barik mintzatzen da. Ez dio itzeri garrantzirik ematen, mintzatzen dan gaiari baizik; beretzako euskera espreziñorako mintza-bide bat besterik ez da, eta zelan esaten duenari baño zer esaten duenari zentzun geiago jartzen dio.

Gaur, guziok gaude erderarekin zerbait nasturik, eta eibartarrak ere, bere buruan, orrelako inguru bat sortua dauka, eta nola mintzatzen dan itzetan konturatu gabe, geien entzuten dituanak eta errezen aukeratu litezkeanekin baliatzen da. Eibartar zarrak ere, zerbait garbiago eginarren, berdintsu jokatzen dute, eta, berek ere, beste orrenbeste egin zuten beste zenbait itzekin. Berek diñuenez, oroitzen omen dira zelan beren gurasoak *leixua, osaba* ta beste zenbait orrelako erabiltzen zituzten,

ta beren garaikoak izan omen ziran *bentania* ta *tio* deitzen asi ziranak. Eta Eibar'ko toponimiari begiratuko bagenio, saillean arkituko genituzke eibartar zarrak ere gogoratzen eztituzten izenak; beraz, iñork ezin uka noizbait Eibar'en erabilli ziranik.

Aditz-jokoetan berriz izugarrizko laburkizunak arkitzen dira zarrengandik gazteetara; adibidez: *gindoiazen, goiazen; nindoian, noian;* iñoiz *induadan* eta urrengo *induaten* erabiltzen diranak, gazteak, geienetan *auten*'ekin bakarrik egiten dute, uste berdin txamarrekoa dan *aut*'etik artua noski. Berriz, laburkizunetatik kanpora ere biurrikeri ugari billatu diteke, gazteak, *ikusi neban* esateko, *ikusi netzan* esango dute; eta, beste asko nere lan au aspergarri ez egiteko aipatuko ez ditudanak.

Joskera berriz zer esanik ere ez, gazteak maiz erabiltzen dute biurri. Erderaz bakarrik irakurtzeak, "Escuela de Mecánica y Armería" dalako ikastetxean erderaz ikaskizunak egiteak eta euskera arduratan ez artzeak, geroago ta geiago aultzera darama Eibar'ko euskera ta teknikako euskal-gaiak.

Gazteen iztegian berdintsu arkitzen ditugu izenekiko utsuneak. Teknikako iztegian mordozka bat dira zarrak bakarrik erabiltzen dituzten izenak; beretariko batzuek auek dira: *alper, altzagarri, arabakin, argi-mutil, arpiko, azelin, bandio, burpil, erreusa, galdatu, garausartze, kañeri, kaño, morrollo, urregin, zulakaitz.*

4.—Gazte jendeak lantegietara sartzen danean izaten duen aldakuntza; zarrekin artu-emanean jartzen diralako.

Eibar'ko teknikako aurrerapenen alde, influentziarik geien "Escuela de Mecánica y Armería"-k izan du. 1914'garrenean fundatua da, eta bere lenbiziko zuzendaria Julián Etxeberria Orbea eibartar ongillea izan zan. Zarrak diñuenez, lenengoz euskeraz izan omen ziran ikaskizunak; bañan, geroztik, poliki poliki, erdera geroago ta geiago sartzen asi ziran. Idatzi, beti erderaz egiten zalako, bertan erabiltzen diran teknikako liburu guziak erderazkoak izan diralako. Lenengokoetan ikasleak ere oso gutxi zekiten erderaz, gerorunzkoak erderaz obeto egiten zutelako edo, apurka apurka, euskera baztertzen zijoala agirian zegoan, ikaskizunetan beintzat, naiz eta ortik kanpora irakasle ta ikasleak euskera utsean mintzatu. Gero, 1940'garrenean, gerra negargarri aren ostean, berriz iriki zutenean, euskera debekatua izan zan eta arrezkero erdera utsean egin izan dira ikaskizun guziak. Gaiñera irakasle berrien artean euskerarik etzekienetarikoak ere sartu ziran.

Nola orain "Escuela de Mecánica y Armería" dalako ikastetxe ortan erdera utsean jardutzen diran, bertatik ateratzen diran gazteak teknikako euskal itzak ez dituzte ezagutzen; bañan, lantegietara sartzen diranean izaten dute lenbiziko zarrekin artu-emana eta orduan izaten dituzte aldakuntzak, ez bakarrik teknikako itzetan, baizik euskeraz geiago egitera biurtzen diranez bestelako berbo eta joskeretan ere, berez-berez zenbait zuzenketa izaten dituzte beren euskera nastu ortan.

Agiri agirian da euskerak iraungo badu, nai ta nai ez, era guzietako eskolak euskeraz izan bear luketela; batez ere aurren eskolak. Euskera, geroago ta laisterrago, maillaka maillaka ari da galtzen, ainbat eta gazteago, orduan eta gaizkiago mintzatzen dira. Ikusia dago euskeraren ondamendia, geien geien, aurren erdal-eskolak dakarrela.

Lenago ere nunbait esan nuen, bañan berriz ere esan bearrean arkitzen naiz: teknika gaietan idaztea oso erreza dala. Burdin-langintzako teknikari dagonionez, arlorik aundienak dibuju ta zenbakien bitartez erabagitzen dira, oiek mundu guzian berdin izanik, alde ortatik ez dugu zertan larritu. Teknikako alde au, ene ustez, berriz ere laister irabazi diteke euskerara. Orretarako erri-agintariak nai izatea besterik ez dago. Bañan, zorigaitzez, euskaltzaleok ez gera agintari.

Gazte jendeak lantegietan zarrekin artu-emanean ikasten dituzten euskal izenak ez dira naikoa, len adierazi dedanez, izen asko dira zarrak bakarrik erabiltzen dituztenak; eta or, ain zuzen ere, erderazko influentziaren ondorena nabaritzen dugu.

5.—Lantegietan zelan artzen diran teknikako izen berriak, eta zelan aukeratzen dituzten euskerara.

Eibartarrak, euskaldunik geienak bezela, ardura gabe jaso izan ditu erdal izenak, bere izkuntzan billatu ez dituanean beintzat, eta iñoiz, berean eukiarren ere bai.

Eskolak, egunkariak, zineak, radioak, guziak ditu euskerak bere aurka. Oso gutxi dira euskeraz zerbait irakurri duten euskaldunak eta irakurlerik ez dan errian oso gaitza da idazleak izatea. Irakurleak eta idazleak, bata besteari uztarturik joan bear dute. Gaitz guzien gaiñetik erri txiki bat besterik ez gera; eta orrez gaiñera, erri txiki bat izateakin bakarrik gaitz-erdi, arrain aundi artean dabillen arrain txiki bat baño ez gera, eta orrelako adiskideen artean arrain txikiari zer gertatzen zaion nik esan bearrik ez duzute.

Guzi auek, zuek dakizutenez, nai ta nai ez, gure izkuntza mordoillotzera bultzatzen dute. Eta erderazko itzak artzen bildurtzen diran uriak, edozer gaitan atzean gelditu dira, beren euskera baserritarrekin eta arrantzaleekin bakarrik mintzatzeko bezelakoa gelditzen zaie, eta orrela joka tuduten uriak euskera galdu dute.

Bein, nere adiskide bi, Kant'en teoriari buruz mintzatu ziran, gutxienez iru orduan bai, aien mingaiñak etzuen iñolazko eragozpenik izan dana euskeraz eramateko, ni agoa zabalik entzule nengoan eta bukatu zutenean esan nien: *Mutillak, zuek erabilli dozuen temia, seguru naok Eibar'tik kanpora, beste iñun, euskeraz erabiltzeko gauza eztirana.* Izan ere, zenbait euskaldunek idatzita erabiltzen ditu orrelako gaiak eta gaitzagoak ere, bañan idazterakoan obeto pentsatzeko eta zuzenketak egiteko aztia izaten dute, mintzatzen berriz izkuntza menderatu bear da, eta ori, beti mintzaira artan jardutzen diranak bakarrik egin dezakete. Gizon batek, asarretzen danean, bizkor ta sutsu itz egiten du, bañan geien menderatzen duen izkuntzan. Orduan azaltzen da nor dan bere bizitzan erabiltzen duen izkuntza: euskera ala erdera. Ze, asko ezagutu ditut euskaltzale sutsutzat agertzen diranak, bañan orrelako aserre-aldi batera eltzen diranean, berek igarri gabe erderara jotzen dutenak. Gañera, orrelakoak, geienetan euskera garbiaren zaleak izaten dira.

Eibar'ko lantegietan erabiltzen diran euskerazko itz teknikoak, eztira garbizalekeriz, ez eta ere euskaltzaletasunak eraginik dabiltzatenak, ez; berezko euskaldun izakeragaitik baño. Orregaitik iñork ez dio jarri mugarik erdal itzeri. Datorrena datorrela, diran moduan jasotzen dituzte, bañan beti belarriak edo agoak eskatzen dioten erara euskal kutsua emanaz, ta gaiñera bear dan tokian jarriaz.

Oien artekoak ditugu izen auek: *akabatzaille*, erderazko "acabar"tik datorkigu; *akabau (akabatu* nai du esan Eibar'ko euskeran); *arraspa*, "raspa"tik; *erremintxa*, "herramienta"tik; *kañu*, "caño"tik; *kulianda*, "culata"tik; *lima-auts*, "limadura"tik; *liz-papel* "papel de lija"tik; *matxino*, prantzeseko "machine"tik; *trepetxo*, "pertrecho"tik; *txantxilloi*, prantzeseko "échantillon"tik; eta orrela beste asko ere.

Zoritxarrez, bide ontatik, erderakadak ez dute laister euskeraren barrutian tokirik izango. Eibar'en ere aurrak erderaz mintzatzen dira eta "erderakaden" ordez "euskerakadak" entzuten dira beren izketan. Erderismoen ordez euskerismoak, eta ori da okerrena. Gaiñera aieri euskaltzalerik burrukatue-

nak ere ez diete ez barrerik eta ez burlarik egiten, beste eibartar euskalduneri egiten dieten bezela.

Orregaitik ez dugu euskaltzaleok etsipenik artu bear, bestela gureak egin du. Euskerarentzako garai obeak elduko diran itxaropenarekin lanean jarraitu bearko dugu, Azkue zanak Euskaltzaindiari jarri zion goiburua: "EKIN ETA YARRAI", oñarritzat artuta, eta Etxepare'k bezela deadar egiñaz: "Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya!".

EIBAR'KO ITZ TEKNIKO GEIAGO

Eibar'ko izen teknikoen eboluziñoari buruzko itzaldia gertatzerakoan, zenbait aztarketa egin bearrean arkitu nintzan eta, uste gabe, beste izen zerrenda bat lortu nuen ta aurretiko EUSKERA'n 141'tik 158'garrenerako orrialdeetan eman nuen bezela, aren eraskin au ematen dut.

Emen ere, itz bakoitzak ondorean oar batzuek eramango ditu, Eibar'en zelan erabiltzen dan obeto adierazteko.

AKAZTU, mellar.

Akabautako piezi-au, konturatu barik akaztu juat. Uesabak jakitzen dabenian betozko (1) makala ipiñiko ok.

ARABAKIN, remiendo, petacho.

Au tanbor-au be beiñora (bein-orain) ezkeriokan baztartu laikek, orma (2) zarren moduan arabakiñez beteta daok eta.

ARRIKATZ, carbón, carbón mineral.

Arrikatza ugaritzen ezpok larri biakojuau. Edurtzekin Asturias'tik trenak etorri ezinda ei dauaz ta itxasua barkuak ibiltzeko ez ei daok barriketazkua. Orreaitxik aspaldi dala eztok gramo bat arrikatz be sartu, da etxakixat zerekin ixotu biako-txuun (bearko ditugun) labok.

AUSPO, folle.

Arabakiñez betetaño auspuok baztartuta obe dok konpresor bat erostia. Da, konpresorari zeaitxik (zergaitik) etxetzau (ez diagu) auspua deitzen? Bestelan olaxen galtzen ditxuk euskerazko izen zarrak. Datozen gauza barrixeri baztartzera goiazenen izena ez emotiarren euskeria pobretzen joiak.

---

(1) **BETOZKO** (Kopet-illun), ceñudo.
(2) **ORMA**, pared.

ATAL, pedazo, trozo.

Atalka-atalka eitxen ditxuk gauza aundixak.
Uesaba zeken da zitxalak (ruin) beretik ataltxo bat be ez laeukek emongo.

BANDIO, balanceo, ladeo. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute.)

Txapak karriatzerakuan bandiuakin kontuz ibilli akitx, ostara (3) bakotxian bape (batere) konturatu barik baztar guztiak urratuaz ibiltzen aix da; peorako (4) orma guztiak pe urratu ditxuk.

EGUR-IKATZ, carbón vegetal.

Ai, ai, ai!, paguakin eindako egur-ikatzak juan zitxuan pikutara; oin, ezertarako balio eztaben egur-ikatzak dabixak, sua artu orduko —bape inddar barik— fixt (5) juaten dok berotasunik pe barik.

IKATZ, carbón.

Aurrera'ko fundiziñoko laba aundixak ikatza toneladaka bia-jok (bear dik).
An ikatz ugari ez-padaok, jai daok.

IRUTXUR, parte interna del triedro. (Itz au "diedro" bezela ere erabiltzen da. Ikusi EUSKERA (1958) 150'garren orri-aldea.)

Gure taillarreko irutxur zuluok beti txatarrez da zikiñez beterik dauaz.

KUNBO, embalse, pantano.

Orbea neko inddar-etxeko kunbua ez da kunbo aundixa baña amorrain asko eitxen da.

Elorria'ko kunboko albatak (compuertas) astero zabaltzen ditxue, kunbua ustu-ta garbitzeko.

Billareal'en da Ullibarri-Ganboa'an kunbo galantazkuak ein ditxue. Gu mutikuak giñanian Kunbo-estura juaten giñan igarixan ikastera, gero, bein ikasitxa gero, Kunbo-zabalian igari eitxeko.

---

(3) OSTERA, OSTARA (Joan-etorri), viaje de ida y vuelta. (**Ostéra**, «de nuevo» bezela erabiltzen dugu, eta **óstera** edo **ostára**, joan-etorri legez).

(4) PEORA, portal. (Beste toki batzuetan **atai** deitzen diote. Eibar'en, **atai, atai-aurreari** deitzen diogu.)

(5) FIXT (onomatopéyico), instantáneamente, huir en un instante.

MAILLATU, abollar.

Ori piezi-ori ikusi dotenian bildurtu nok, ze, maillaturen bat eukala begitxandu atak eta. Baña, nere begitxaziño (6) bat besterik eztok izan.

MAZPIL, estrujón, aplastamiento, magullamiento.

Ardatz-nausixari takatekorik emon barik, bestela arixori mazpilduko jakok.

An irutxurrian lekua eitxeko, bertan daren txatarrak mazpil-mazpil eixak, ze, arro-arro einda dauaz leku asko artzen dabiela.

MAZPILDU (7), estrujar, aprensar, magullar.

MOTZ, desafilado.

Onek materixal goorrok, laster mozten jitxuek erremintxak.

Moz-motz eindako barautsakin abil or zulatu naixan? Denporia galtzia nai ezpok (nai ez ba-dek) zorroztik barauts-ori.

MOZTU, desafilar.

Autzaz (tenlos) barauts geixago, ze, materixal goorretarikua dok zulatzen abillen ori ta moztu-ala barauts-etxetikan aldatzeko.

NEURKATX, inmedible.

Au piezi-au, bere forma raruegaitxik neurkatxa dok.

NEURI, medida.

Orri piezi-orri ondo artu etetzaz neurrixak? Ze, i tartakin (8) txamarra aix da ez nok fixatzen irekin.

NEURRIZ-GAIN, que sobrepasa en medida, excesivo.

Arasak, trokelez neurriz-gain bete jitxuek eta ukat ein juek.

Izan be, orrek ol kaxkarrok zelan aguantauko juen ba, ainbeste pixatzen daben trokelekin neurriz-gain bete ezkerok.

NEURTU, medir.

Zeatz neurtu eike ardatza arixak emonten asi baño len.

---

(6) BEGITXAZIÑU, BEGITXAZIÑO, imaginar, hacerse visiones. (BEGITXANDU, presentarse ante los ojos, aparentar a simple vista o en un mirar.)

(7) MAZPILDU, «atarazar» bezela oso gutxi erabiltzen da Eibar'en.
Onek piezok estanpadorian pixkat mazpildu biarra jaukagu.
Pieza delikau askori berunakin obatu biar izaten jakok mazpildu eztein.

(8) TARTAKIN, disloco (a), inestable, impaciente.

NEURTZAILLE, medidor.

I be, ofizinista peto-petua (9) izango aix, baña neurtzaille txarra.

Perdoi gutxiko gauzentzat, kalibria baño mikometrua (micrómetro) neurtzaille obia dok; neurrixa ziurrao artu leikialako.

PERDOI, tolerancia.

Orri trankil ja-ezkixo (jan eikio) beste pare bat milimetro geixao, ainbeste perdoi ba-jaukak eta.

TROZKO, TROXKO, lingote en bruto, trozo de material en bruto.

Asi ari (adi) burdiña trozko oni zepilluan lau-aldiak bardintzen.

Troxko onek ba-aukak (ba-jaukak) nun biarra ein.

TUTU, tubo. (Zarrak bakarrik erabiltzen dute.)

Txorrotik eztok taladrinarik jausten, tutua zikiñez beterik itxitxa edo euki bia-jok (bear dik).

TXATAL, pedazo muy pequeño, partícula.

Atzo eskuan sartu jatan burdiña txatala ezin izan neban atara, ta gaur inguru guztian aragixa ziero zolduta daukat.

Uleixak zelbian-zelbez (10) zer ein be eztaki, txataltxo bat pe eztetza (ez dio) iñori opa.

Bai, bere zelbekeriz zitxalduta dago.

ZARA (Otzara), cesto (a).

Zariak jaukak antza (11); orrek errekadistiorrek nun edo zerekin erabilli ete ok au zari-au olako antza eukitzeko.

Zara guztia beteta eruan ezinda ibilli barik, obe izango dok zara erdikin ostara bi eitxia.

ZORROTZ, afilado.

Barautsak bixkor zulatzeko ao zorrotza bia-jok. Beti zorrotz-zorrotz zainduko baeuke, biarra be askoz geixago eingo euke.

ZORROZTU, afilar.

Ori ortz-ori (cuchilla) motza darabik eta jan eziñik biar gutxiago eitxen diarduk; gaiñera, piezak pe latz-latz lagatzen jitxuk.

Juan San Martín.

---

(9) PETO-PETO, ejemplar, modelo. (Beste toki batzuetan EREDU erabiltzen dan bezela.) **Emen darabitxen euskera, Eibar'ko peto-petua da.**

(10) ZELBE,impertinente.

(11) ANTZ, mal olor, hedor. (Eibar'en, USAIN «perfume» edo «buen olor» bezela erabiltzen da.)

Juan San Martin-en itzaldia bukatuta berriketa bat dago Mitxelena, Altube ta bere artean, batez ere **matxino, txantxilloi, trepetxo** ta **perdoi** itzen gaiñean. Mitxelenak eztu uste **matxino** frantsesetik datorrenik, artara **tx** izan bearrean **x** izango bailuke.

Itzalditik itzaldira bost minutuko aldia uzten da eta Gabriel Aresti jaunari ematen zaio itza.

Pedro I. de Barrutia, Mondragoeko eskribauaren

GABONETAKO IKUSKIZUNA

J1194-

euskeraz eskribidutako lelengo teatruzku lana

Jaun-andrak:

Konferentzi oneik jakin eragiteko, ortik zabaldu eta partidu direan propagandazko papeletan, neureak titulu au eroian: "Barrutia eta bere sasoia". Izenburu au, niri preguntau barik ifiñi dabe, eta eztago gauza urriñagorik orain trataduko ditudazan gaietatik, titulo ori baño. Lelengo, Barrutia bizi zan denporea estudietako istoriografu bat izan bear dalako, eta nik istoria-gaietan eztot ezer entendietan, ez amazortzigarren eunurtetan ez beste bape denporatan, eta benetan esan bear deutsuet bost piper siku inporta deustazala istoriak, bape gustetan etxatalako. Bigarren, txarto dago ifiñita titulu ori, esan bear deutsuedalako Barrutiaren ganean ez nik ez beste iñok gaur egunean eztakigula ezer, Bakarrik bere sorterria, Mondragoe, antxiñako Arrasate, eta au ezta seguru; gero zein urtetan bizi zan gitxi gora bera, zergaitik-ze Don Resurrección Maria de Azkuek bere Morfolojian dirauskun, Don Juan Karlos de Guerrak diñoala "Los Antiguos Cantares del Euskera" bere liburuan, liburu au nik ikusi eztotena, eta pentsetan dotena inprentako tintarik ezautu eztauala, Barrutiak eskribania bat euki ebala Mondragoen, 1711-tik 52-ra; esan dot lelengo teatruzko lana dala, euskeraz eskribidutakoa; eztakigu nos eskribidu zan, baña Azkueren testigantzea ontzat artzean bardin badogu, konklusiñoe onetara allegau bear dogu, ondo dakigu-

lako nos emon zan inprentara orain arte lelengoa zala pentsau dana, Azkoitiko monja Sor Maria de la Miserikordiak eskribidutakoa, "Gabon-sariak", eta onek orain daukaz egiñegiñak berreun urteak, eta Azkuek dirausku komedia onetako bere ediziñoian, orain arte egin dan bakarrean, bere errebista "Euskaltzalen", 1898-an, orduan ia 200 urte eukazala, eta zelan berrogetamar urte pasau direan ordutik ona, bide erratuaren bildur barik esan geinke, orain ia berreun eta berrogetamar urte daukazala, eta Azkueren testimonio onek gure komediarik zarrena egiten dau Barrutiaren "Gabonetako Ikuskizuna".

Komedia au ostenduan gelditu da beti; badakizue Azkuek plubikadu egin ebala "Euskaltzale" errebistan, baña merezi eban arpegi ona eztau euki. Neuretzako komedia onek literaturazko balio andia dauko. Neuretzako ezta euskeraz eskribidu gauza baliosoagorik. Bere bertsoetako dotoretasuna, bere entramako edertasuna, bere *dramatis personae*, Gabonak ikusten direan maitegarritasuna, oneik gustiok emoten deutsez, nire iritzian, merezimentu andiak, esateko eztagoala euskeraz gauza fiñagorik eskribiduta.

Onegaitik da gauza arritzekoa, komedia oneri euskaltzaleak emon deutsen atentziñoe apurra. Len eneban entendietan, zergaitik jazo leitekean gure artean alango gauzarik. Baña onen errua eztauko Ikuskizunak, ezpada euskaldunak daukagun aurrera-irritzi batek, zeñen ganean Don Luis Mitxelena gure maisuak berba egiten deuskun Landuchioren berbategiari ifiñitako prologuan: "...El prejuicio que sin cuidarse de los hechos, sólo se preocupa del *qué dirán* de los extraños, prejuicio que ha llevado más de una vez a desconocer no sólo el valor científico de los textos vascos antiguos, sino incluso sus mismos valores literarios". Jaun orrek esan eustan Barrutiaren ganean preguntadu neutsanean, Ormaetxea jaunak euskal literaturearen ganean egin eban estudioan eztauala bein bere aitatuten, ez eta Don Julio de Urquijok bere euskerazko teatruaren asikerearen ganean egindako artikuluetan. Orixeri eta Urquijori ezin esan gineio estranjeruen iritziagaitik arduratuten zireala, baña nik ondo entendietan dot arein iñorantzia, zergaitik-ze ondo konturatu nasan autore ori eztauala iñok kontsideratu, Azkuek berak baño, eta danok dakigu gure presidentea zanak literatura-gaietan ezebala gauza andirik entendietan. Azkuek lan andia egin eban euskerearen ganean; bere berbategia, bere Morfolojia, bere kantategia, libru erraldoiak diraz, baña literatura-kontuetan eztau gaur egunean defentsorerik eukiko. Onegaitik, Don Juan Carlos de Guerrak bialdu eutsanean, Mon-

dragoetik, berak eskuz egindako kopia bat, orain Akademia onetako librutegian dagoana, ezeutsan meritu andirik topadu, eta ganera gauza zantarra iduridu jakon, erderazko gauza asko eukalako. Gerrak topadu eban, eztakigu non, Barrutiaren orijinala, eta ordutik ona orijinal orren beste barririk eztogu euki. Akaso oraingo galduta egongo da. Jangoikoak eztezala nai. Don Juan Karlosek ezeban kopia literal bat egin, ezpada modismu eta berba gustiak errespetadurik (alan dirudi), ortografia kanbiau eutsan, "Euskal Erria" Donostiñako errebistan orduan usuan egoana erabilliaz. Don Resurreccionek errezebidu ebanean, bere errebistan argitaratutea erabagi eban, eta alan egiteko, eskuz egindako kopiea inprentara bialdu eban, lapizeroz gauza batzuk geituaz, zelan dan euskeraz ipiñi eutsan izenburua "Gabonetako Ikuskizuna", esplikaduteko-edo Barrutiak erderaz jarri eutsana: "Acto para la Noche Buena". Lelengo orrialdean azpiko nota au inprimidu eragin eban, erakusten deuskuna zein izan zan errazoia zeñagatik argitaratu eban: "Mondragoi-ko gure adiskide batzuk lortu eta eskuratu dauskue irakurkizun au. Erderazko gauza asko eta erderaka geiago eukiarren, guztia agertu nai izango dogu, azaldariak (Mondragoiko bertako *eskribau* Pedro Ignacio Barrutia-tarrak) orain IA BERREUN URTE egin eban erara". Azkuek ezeban literaturazko meriturik ikusi, bakarrik gauza bat, erderatik artuta egoan gauzea, erderazko titulua, erderaz esaten direan gauzak, eta erdera euskera arteko mordolloa. Gauza zar bat zalako publikau eban, eta arkaismo asko daukalako, batez bere berboan, aditzean. Ordutik ona ezteutsa iñok kasurik egin. Ezta aitatuten, ezta errepresentaduten, ezta inprimietan, ezta leiduten, badirudi galerazota dagoala berenu bat balitz bezela, agaz kutsatuten direan eskuak pozoatuko leukezana. Orregaitik urtetan dogu aren defentsan, mundu gustiak autortu daian guk aren ganean pentsetan doguna, probadurik dagoalako, eztot gaur zelan esango, baña ezin ukatu leikian moduan, zelan printzipe a, bein kalera esklaboz jantzita urten ebana bere erregetasuna probetako, eta erriko plaza nausian jente gustiak ezautu eban, zerren anditasuna derrigorrean ikusi bear da, itsu ezpagara, eta alan pasadu da Barrutiagaz, egun baten baso erdiko bere gaztelu ostendua abandonau eban, eta disfraz bat artu eban, eta lagun artetik ibilli zan, eta begi batzuk ikusi eta ezautu egin eben, nireak eta nire adiskide batzurenak, eta esan geuntsan: "Barrutia, i andie as, disfraz ori artuok, baña alan be ezagun as, ezin ukatu leiteke i azala gure printzipea, gaztelu bedarrean ainbeste denporatan ezkutuen egon dana!"

Komedia au eskribidu zan teatruan emoteko, eta akaso emon egin zan, baña ez edonos emoteko, ezpada alango egunean eta alango tokitan, Mondragoen, emoteko, eta aktore jakin batzukaz, zeñen izenak badakiguzan, Barrutiak berak dirauskuzalako. Izan zirean, beste batzuren artean: bertsolari bat, Txarles izenez eta Tripazabal ezizenez, Bergarakoa bera, kazadorea; Tomas, Txato eta Lorentzo, zeñen barririk eztakigun; Beltran elexako esaminadorea; Aritxabal torerua edo Barrutiak diñoan legez zezen-toreadorea; Beistegiko Gabriel taberneru edo taberna baten kriadua; eta Peru kalbua, Oñatikoa eta sakristaua, Durangon errementari izandakoa. Azkenengo onek angeruaren papela egin eban, eta lelengoak barregarriarena, erderaz *gracioso* diño Barrutiak, eta besteak Belengo pastoreen papelak. Gero badagoz beste papel batzuk bere, nortzuk egin ebezan eztakigunak. Ama Birjiñea, San Josepe, Luzifer, Asmodeo, eta Bertzebu, iru deabruak, Zesarren ministroa, eta Mari Gabon, gizon erdaldun baten emazte euskalduna. Tomasek eta Txatok beste papel bana be egiten dabe, lelengoak Belengo ostatulariarena, Famelia Santuari ostatua ukatuten deutsana, eta bigarrenak aren kriaduarena. Txarlesek, Bergarako koplariak, barregarriarena (obeto esango neuke nik *euskaldun arlekiña)* egin da gero, beste bat egiten dau, pertsona bizi batena, denpora aretan Mondragoen edo aldamenean bizi zana, len esandako Mari Gabonen gizona. Lelengo, estudia daigun komediaren aria, eta gero bere karakterrak edo *dramatis personae.*

Emeretzi zatitan dago partidurik: lelengoa da Birjiñearen eta San Joseperen esposetea, agertuten diraz esposo biak, poztuten diraz eta eskerrak emoten deutsez Jangoikoari, eta ain dontsuak zergaitik direan preguntetan dabenean angeruak erantzuten deutse alan agindu dauala Goikoak. Bigarrena da anuntziaziñoia: angeruagi sarrerea emoteko bertso batzuk egiten dauz Ama Birjiñeak, Mesiaseri deituaz.

Irugarrena da San Joseperen turbaziñoia. Laugarrena Zesarren editoa: Zesarren ministroa eta barregarria agertuten diraz, eta Ministroaren aginduak neska zarreri burla egiteko okasiñoe emoten deutso barregarriari. Jantza bategaz amaituten da zati au (Barrutiak erderaz *un villano* diño). Boskarrena eta seigarrena Famelia Santuaren Belenera joerea, Zaspigarrena da ostatuaren ukaerea. Ostatulari bat eta bere morroia agertuten diraz, eta bien artean eztabaida polita dago. Zortzigarrena da Natibitatea edo Jesusen jaiotzea, gauza fiña, kantu bat dalako, ori bakarrik, amar puntukoa. Bederatziga-

rrena demoniñoiaren kexetea, Mesias prometidua jaio dalako. Amargarrenean Asmodeo eta Bertzebu datos Luziferreri laguntasuna emoten. Amaikagarrena eta amabigarrena zatirik ikusgarrienak diraz, zergaitik-ze gauza bakar bat direan mundu gustiko literaturan, euskaldun frantzesak "tobera-mustra" esaten daben orreitatik bat. Barregarriak beste papel bat artzean dau, Mondragoeko auzo bateri burla egiteko. Jaun orrek Matxi Frisa dauko izena edo Matxi Ardantza, eztakigu segurutik, egun gustietako mozkortia, bere andreak jo egiten dau bein ezinbestean, eta senarraren etsea itziten dau. Au gusti au erreztasun andiagaz daroia Barrutiak teatrura, modu onetan: agertuten da Barregaria (edo Machi) paseo bat emoten, sano afaldu daualako, pozik dator, ederra iduriduten jako bizia, eta gaubea alegerea. Jan ditu amar libra okela, bisigua saltsatan (intxusaltsea egiñaz iru motrallu apurtu zirean), eunda geiago kaztaña, sagarrak eta mesperu ustelak, amabi libra ogi eta zaspi otxaba txakolin, eta edertoen dagoanean iru deabru agertuten jakoz. Amenazuz joateko esaten deutse, baña deabruak emotekoak emoten deutsez ukabilka eta makillaka. Gero, besterik ezin dauanean, lurrean trinka barik atiñik, bere emazteari deiketan deutso, baña onek demoniñoiak osorik itzi eutsezan azur apurrak apurtu egiten deutsaz. Aurrerantzean aregaz zer-ikusirik euki gura eztauala diñotsa eta toberatu gaxoa lurrean geratutenda, kexaka eta aieneka, zergaitik-ze topadu zan Araisteko jenteagaz.

Amairugarrenean, pastoreak agertuten diraz, eta Txarlesegaz topo egin. Amalaugarren zatian angerua dator *Gloria in excelsis Deo* kantatuaz. Zati onek bere eztauko bere parerik iñongo litreaturan. Angeruak gloriea kantadu ezketiño, pastoreak turbadu egiten diraz, miraturik geratuta angeruaren eta aren kantuaren edertasunagaitik, eta pastoreak, Belengo pastoreak, barruan sortu jakezan kezkaz eta zirradak azaldu gura dabez. Batek diño: "Ene lagunak, zer ete dogu arako misterioa? Txoriak legez egoak dakarz, dultzea bere aoa". Beste batek: "Angerua dok, eztok gizona, aren abegi ederrak duda baga bentzitzen ditu kanpoetako eperrak". Olan alabetan dabe angeruaren goikotasuna, eta besteeri, damuak jorik, sentimentu mistiku bat sortuten jake. Ikusi daigun zer diñoan batek: "Berau ikusi neban ezkero da ene pentsamentua, zeruetako gloriagaiti irizteari mundua. Desiertura joango naiz ni egiten penitentzia, etc.". Baña euskaldun arlekiñak, Txarles barregarri koplariak, bere fameari amore emotearren, koplak eta bertsoak etaraten deutsez pastoreeri, baña ez Belengo pastoreeri, ezpada arein erropak jantzi dituezan euskaldun gizoneri;

Txarlesen ganean demoniñoiak zer esan eban akordetan garaz orain: "Mundu gustia koplatzeko etxako falta grazia". Bakotxari bere ziria sartzean deutso: Entzun deiogun: "Beltranikotxo... *no se hizo para los asnos* eztimakatz dultzea". Beste bateri: "Gure mutil au izango jaku santu gustiz aundia, alboan falta dakionean kuartilloko ontzia". Au Aritxabaleri toreruari esan eutsan. Taberneruari barriz: "Beistegiko Gabriel, kañaberan kaskabel, *lindo mozo* despatxatzeko *de vino blanco un pichel*". Baña ezta emen geratuten, aurrera doia, angeruagaz beragaz sartuten da, baña ez Zeruko angeruagaz, ezpada teatruan, amen beian lurrean, aren irudia artu dauan gizonagaz, aktoreagaz, Oñatiko kantore sakristaua, buruan ullerik eztaukana; barregarriarentzako, zati onetan, pastoreak eztiraz pastore, ezpada egun gustietako lagun Mondrautarrak, eta komedia bat egiten dabela ezta konturatuten, eta orregaitik, angerua agertuten danean, arriturik geratuten da, zergaitik-ze diñoen lagunak ori eztala gizon bat, ezpada Zeru altuko mandataria, eta euren errakuntzatik etara nai dituz, eta diño: "Sekula iñok eztau ikusi onereango konturik. Ezta posible eztaodela ene lagunak ordirik. Ezaldezu dijeridu arratsaldeko saltsea? Txakolin orrek turbadu deutsu begietako bistea? Sermonadore barri orri egon naitzaio begira. Ori da Peru..." Pentsau egizue zelango algarak eta barreak esirean onegaz entzun. Birjiñearen eta Gabonen ganean zerbait entzuten eta ikusten joan zan jentea ara, eta len esan dogun tobereagaz arkitu zan lelengo, eta orain parodia onegaz. Baña dana dala, konturatu egiten da Barrutia Gabonetako Ikuskizun bat egiten dauala eta berba oneik ipinten dituz Txarlesen aoan: "Gure burloi itxita, orain biur gaitezen atzera. Zertara jakin gura genduke zatozan gure artera". Orain Angeruari berba egiten deutso eta ezta koplari sonatua, ezpada Belengo pastore bat, eta angeruak zergaitik bajatu dan mundura diño, eta amaboskarren zatian espliketan dau bertso eder eder batzutan, gaur egunean be euskaldun baserritarrak oraindikarren kantetan dabezanak, asko kanbiadurik klaro, eta diraz gaur egunean Gernika inguruan kantetan direan Mari-jesiak. Orain parentesis bat egin gura dot berbaldi onetan, espliketako zergaitik dan ori nire iritzia. Egia da berbaz berba eztagoala bertso bapere igual danik, baña espiritua berbera da, Barrutiaren zati onetan datosan amabiak Mari-jesietan bere agertuten diraz. Esku artean euki dot egun oneitan, Mari-jesietako iyeki bat, Don Sebero de Altubek aspaldi onetan Akademiako librutegiari erregalau deutsana; onetan 75 bertso datos; argiro ikusten da zelan egin zan ediziño ori, bada danok dakigu zelango bertso zertzelada luzeak dakiezan buruz

gure baserritarrak, eta zelan bertso askogaz eztirean ondo akordetan, eta bertso orreitan utsune asko agertuten dira. Au pasetan da Mari-jesietako librutxu orregaz. Bapere dudarik eztago baserritar batek kantau ebazala, eta Gernikako inprimeruak peserritar batek kantau ebazlaa, eta Gernikako inprimeruak papelean arturik, inprentara emon ebazala gero. Atzen bertsoan argiro diñosku zein zan bertsoak egin ebazana: Pedro Garratza. Olango apellidurik eztot pentsetan Bizkaian dagoanik. Ezta ezizen bat izango, eta Pedro ori gure Pedro Ignacio de Barrutia? Gero beste gauza bat dago: Mari-jesietan eta Barrutiaren komedian gauza bat diño Birjiñeak, gaurko euskerearena eztana: "Esi negar ene laztana". Barrutiak j-gaz eta Mari-jesietan s-gaz. Onek gustiok emoten deust pentsetan, Barrutiaren beste obra bat dogula Mari-jesietan. Dana dala, zati au zelan dan jakiteko, akorda bitez gernikarrak, zer kantetan dan an Gabonetan.

Amaseigarren zatia da Jesusen adoraziñoia, Birjiñearena eta San Joseperena. Amazaspigarrerean, pastoreak adoratu egiten dabe Jesus. Barregarriak be damu dau bere bekatuakaitik. Jesuseri billantziko bat kantetan deutso, eta Jaunari, mundura etorri dalako eskerrak emoteko, akaberea dator, eta au da amazortzigarren zatia. Famelia Santuaren inguruan ariñ-ariñ bat jantzan egiten dabe pastoreak, barruan koruak kantetan dauan artean. Gero bertso bat dator, azkenengo zatia, Errege Magoak akordura ekarteko.

Estudia daiguzan orain *dramatis personae*. Personaje inportantenaren ganean naiko esan dogu. Bertsolari bat, grazia andikoa, tripa zabal andia, alan dauko birrizena, azkenean damu dau. Gogoratzen garaz James Joycen Ulisesegaz, zelan berba egiten dauan urkatu batek, sokeak bizia kenduten deutsan artean, eta berba batzuk diñoz bere amaren akorduan. Joycek berba orreik eskribidu ebazan, urkatuak esango ebazan moduan. Orreri gaur errealismua deituten jako. Gure Barrutia bere errealistea izan zan: Txarlesen agoan berba oneik paretan dituz, onek demoniñoiak ikusten dituanean: "Lotsanaño, Bildurragoñok, ikaratu naiok". Bildurrak Txarles gaxoari ezteutso berba egiten izten. Gerotxuago ain estualdi andia sartzean jako korputzean, eze bertsotan berba egiten bere aztu egiten jakon. Asmodeok itaunduten deutsanean zein dan bere izena, eta berak erantzuten dauan Jaun Machi Frisa dala, orrein mesediori serbitzeko...

Pastoreak badakigu zelan direan. Orain karakter santuak baño etxakuz geratuten Birjiñea, San Josepe, angerua eta deabruak. Barrutiak alan ikusten dituz: Demoniñoiak iru diraz:

Luzifer: "Izanik inpernuko printzipe andia, demonio guztien agintaria". Kexaka dabil Jesus jaio dalako: "Ni orain indar baga, ni orain loturik, sein bat baster baten jaioagaitik". Galduta ikusten da, argiro ikusten dau mundu ganean orain arte euki dauan poderea amaitu dala: "Luzifer altibo soberbioa, non da antxiñako ire brioa?" Asko sufrietan dau bere arrotasunean eta urgulluan: "Pena garratz, rabia, tromentu andiak, abrasatzen deust errai guztiak". Eztauko esperantzarik: "Idigi bidi lurra, iruntsi nagi, sekula ainbat pena eztot eugi". Esposo santu biak ikusten dituz eta Gaistoa bera bada bere txarto esaten ezta azartuten: "Señora virtuosa, ay ene tristea! Andra gustien artean kulpa bagea". Gauza oneik ikusteko kostunbrea eztauko, bere kontrarioak beti izan diraz gizon flakoak: "Dontzella dagoala semea egin dau: Nik ezin aditu dot misterio au". Eta: "Gizonak ene kontra ainbat podere, gizona izatea ezta posible". Baña demoniñoia ezta deabru gaxo bat, ez, bere suertea eztau ontzat artzean: "Orain portalean jaio dan orri, auzia emongo deutsat sekula beti". Eta ori egiteko infernuaren faborea eskatuten dau, esanik: "Nun aiz Asmodeo, nun aiz Bertzebu? Okasino onetan fabore indazu!" Bere monologua akabetako españolen gerra-dedarra erabilten dau, Santiago y cierra España, esanik: "Gerra, gerra, zierra, zierra". Luzifer andi eta balerosoaren fabore etorri diraz infernutik Asmodeo, eta Bertzebu; Baal, Belial, Lebiatan eta beste ganeko jentea atzean datos, gerra eskatuten dabe, profetak diraz, aurretik ikusten dabelako Golgota-mendiko Jesukristoren pasiñoia. Alangoak diraz deabruak.

San Josepe ezta kristiñau ajiografiazko karakterolojia gustian agertuten dan bigarren planoko personajea. Emen bere biziko indarra dauko, eta amataturik geratuten Birjiñea, Jesus jaio dan arte. Dontsua eta zorionekoa da: "Benturosoa milla bider ni, zerren juntadu naizazun zeuri". Bere esposea katigu dala konturatuten danean, barruko peneak jaten deutso biotza, baña alan bere umildu egiten da: "Eztot nik merezitzen zeugaz gelditzea". Belenera joan bear dabenean, bildur da ezteion bide luzeak Birjiñearen katigutasunari kalterik egin: "Emetik Belenera dago bide luzea. Zure trabajua da ene penea". *Pater familias* da, egiazko etseko jauna. Eta Jesus jaio daiten tellatupe bat arkituten eztauanean, au diño: "Belenen ostaturik geuretzat ezpada, arren erakuskuzu non igaro gaba". Jesus jaioten danean, Jangoikoa ikusten dau, baña Jangoiko txiki bat, ondikarren berba egiten eztakiana.

Eta Birjiñea, katigu egon baño len, erriko neskatxa bat da, galanta bai, baña ez adimentu andikoa. San Joseperen es-

pillu bat da. Gero bere barruan bizia sentitzen dauanean, mundu onetako enbra bat da, sufrietan eta gozetan dakiana, zentzunduna. Ak, emen diño euskeraz eskribidu dan bertsorik onena: "Kontenturik biotz au kabidu ezin jat. Nik sentitzen dot paradisu bat". Gero, ama egiten danean, gure altaretan ikusten dogun abokaziñoietako Birjiñea da, persona zerutar bat, eztauko umanidaderik, bakarrik da irudi bat, guk egun gustietan errosario bat errezetan deutsaguna. Barrutia, bere jenialidadean, bein bakarrik libretan da errespetu neurri-bako eta larregi onetatik, mundura ekarteko barriz Birjiñea, gure arteko emakume bat, gure sentimentuakaz, bere besartean daukanean jaio barriko bere erraietako zati maitatu a, eta kanta bat egiten deutso, kuma-kanta bat: "Adoratzen zaitut Jangoikoa legez, laztan egiten deutsut semeari legez".

Parentesis bat zabaltutearren, esan gura dot zelango edertasunagaz erabilten dituan Barrutiak erlijiñoezko terminu gustiak. San Josepe eta Birjiñea ezirean senar-emazteak, ezpada esposoak, ezirealako ezkondu egin, ezpada esposadu. Esposadu abade aurrean egiten da, eta ezkondu, abadearen bendiziñoia akabaduteagaz egiten da.

Beste personaje bat agertuten da, teatru ganean ikusten eztana. Au da kantore-taldea, korua. Barrutiaren eskuetan tresna abilla da, zatiak juntetan ditualako. Erderazko kanta batzuk kantetan dituz, bertsoak politak diraz, Esposo Santueri sarrerea emoteko, eta zati bi oso-osoak, komediaren arian inportantenetatikoak, Jesusen jaiotzea eta akaberea.

Akabetako, estiloaren ganean zerbait esatea geratuten jat bakarrik. Estilo au izan da komedia gordean euki dauana. Egilleak eskribidu egiten dau, eta ezta konturatuten zelango berbak erabilten dituan. Euskaldunak beti ibilli garaz erdal usañetik igeska, iduridu jaku itsusitu egiten dituala gure obrak, baña Barrutiagan aldrebes pasetan da, erderea eta erdal usañeko esakerak, eta baita euskera erdera arteko mordolloa bere, tresnak diraz Barrutiaren plumaren puntan, bere bertsoak edertuteko eta prestantzia emoteko, bertso oneik gaur egunean gure bertsolariak erabilten dabezanen parekoak diraz, Barrutiak laburtu edo luzetu egiten dituanak bere puntuetan, segun zer emon bear deutsen bertsoeri, indarra edo dotoretasuna, según zer eragin gura dauan, barre edo negar.

Badaukagu non ikasi, nondik jo, guretzat batez bere, poetentzat, badago eredu bat, nori segidu. Eta batez bere, niri asmo bat itzi deust pentsamentuan eta borondatean: eskatu gura dot euskal idazleentzako libertadea eta naturaltasuna, urrundu bitez bein eta betiko gure artetik aurrera-iritzi oneik

guztiok, katea batzuk legezkoak izan direanak gure euskerea eroateko berbakuntza batek lortu leikian mendi gallur gorenera, literaturazko edertasunera.

Seguru nago, jaunak, egunen baten, gure plumak lotu dabezan katea pisu orreik apurtuten direanean, izaten eztanean gure euskerea politikazko instrumentu bat, ezpada berbakuntza bizi bat, bere gexoakaz eta atxakiakaz, bere sendotasunagaz eta naturaltasunagaz, orduan, Mondragoeko plaza nagusian monumentu bat altzatuko dala Barrutiaren memorian. Baña beste monumentu bat altzau bear deutsagu Barrutiari aren ganean estudioak egiñagaz, bere obrak ezaututen eztoguzanak arkituaz, bere bizitzearen goraberak jakiñaz. Izan bedi, jaun-andrak, nire berbaldi trope au, monumentu orretako lelengo arria.

Eskerrik asko.

G. Aresti.

Mitxelena ta Altube-k itz egiten dute, batez ere berriketa modura, dakizkiten argibideak emanik liburu batez. Altube-k Garratza aipatuz.

Zugasti jaunak dio **ezkondu** esatean, kasu artan eztagoela biraorik.

Etxaide-k dio Gipuzkoako Goierrin **ezkondu** esaten dutela eta **esposatu** itza orain sartzen ari dala. Beterrin ez, bereizkuntza ori egiten dute. **Esposatu** eleiz-alkartzea eta **ezkondu** aragiz alkartzea.

Aresti-k dio berak esan duena erlijio kontuetan dala, eta oraingo literatura baiño len idatzi duten apaizak ola erabilli dutela itz ori. **Esposadu** da apaizaren aurrean eta esposatze orrek eztu balio, guziak dakitenez, akabatzen ezpaldin bada.

Altube: Nire ustez jaun onek esan nai izan du **ezkontzea** ta **esposatzea** gauza bi bezela erabiltzen zala len teologiako idearen bategatik edo ez. Baiña len beintzat Barrutia-k ori egiten zuela. Barrutiak bazekian ezkontza zer zan, eztago dudarik ere or. Baiña **esposatu** itzari eman zion beste sentidu bat. Ala egin bazuen aberastasun bat baiño elitzake izango.

Aresti: Eta ori, jauna, len eskribitu duten apaizak ere egin dute.

Altube: Orregatik, ori ontzat artuko da edo ezta, baiña aberastasun bide bat zan.

Aresti: Gure literatura klasikoan euskeraz eztu iñork esan Birjiña ta San Josepe senar-emazteak izan ziranik, beti izan ziran esposoak. Barrutia-k ere ala dio, eta gero matrimonio bat dakar eta auek eztira esposoak, senar emazteak baizik.

Etxaide-k diotsa nola berak errian zer ikusten duen ortaz aipatu duela, eta Aresti liburuak literatura zarrean diotenaz mintzaten dala. Orain sartzen ari dan itza omen da, eztala itz zarra errian.

Aresti: Errian ezta izango itz zarra, baiña nik eztet esan olakorik. Esan det erlijio kontuetan, lege koneutan ala dala. Danok dakigu, eta batez ere ezkonduak jakingo dute zer dan, eta pentsatzen det euskeran diferentziazio ori egiteko bide ona ematen digutela antziñako idazleak eta eztaukagu ori euskeratik zertan kendu bearrik.

Zugasti: Ezta gertatu ere, batez ere gaiñera, apaizak erdal-itza ez sartzeagatik, **esposatu** ez esategatik erabiltzen dutela? Baiña ni errikoa naiz et nik **ezkondu** esango det biraorikan gabe.

Mitxelena: Nolanai ere nik uste dut emen biraok eta eliz-gizonak bazterturik badagoela gauza bat **de facto** eta momentu ontan ezin dezake iñork egizta. Egia esan Errenterian, esate baterako, **esposatu** ta **ezkondu** berdin erabiltzen dira. Batzuetan **esposatu** ta beste batzuetan **ezkondu.** Ori da egia. **Ezkontza** esaten dute bakarrik. Baiña kontu au begiratu egin bear gendüke, naiz errikoa, naiz textuak. Lekukoak bear genituzke erabakitzeko bereizkuntza non egiten dan.

Norbaitek aipatzen du badagoela ori esateko **senar-garbi** itza.

Altube-k dio **ezkondu**-ren ordez **esposatu** esatea, bardin bardin, gauza berbera adierazi nai dutela, beretzat atzerapen aundi bat dala. Euskeraren kontrako gauza bat.

Oleaga: Esposoak dira «los prometidos de futuro matrimonio» ta ezkonduten direanean esposo izateari itxi egin deutsie. Ezkonduten dan egunean esposoa galdu da.

Norbaitek diño Maria ta San Josepe-n ezkontza benetako ezkontza izan zala.

Ebagi egiten da arazo au. Nola beste itzaldi bat dagoen erabakitzeko uzten da. Estudiatu bedi.

Eta Jose Luis Alvarez jaunari ematen zaio itza.

36090

BATASUNAREN BIDEA

ALDEZ AURREKO PUNTU

Batasunik ez daukagu euskaltzaleok: danak ikusten dute au. Iñork ez du ukatzen. Amaika talde dago gure artean, amaika istillu, amaika etsaigo. Agirian dago au, eta danok aitortzen.

Gure anarkia ori buka dedin nai dutenak, berriz, gutxiago dira. Itzai begiratu ezkero, besterik ematen du: esan egiten dugu danok-eta batasuna billatu bear dala, gure ontan deus onik egiterik ez daukagula, eta abar. Baña egin, ez dugu ezer sendorik egiten egiazko batasun orren alde. Orrela jokatuz, gezurtiak dirudigu, edo zozoak, gure esanak geronen egiñak ukatzen baitituzte. Ahatik: bateko, anarkia guzizkoan gaudela-ta, ao batez aitortzen; baña, besteko, baietz esan arren, guk ez dugu batasuna nai. Ikus egiñak: egin diran astakeriarik geienak barkaziorik ez dute iñolaz ere.

Eta are gutxiago azken bolada ontan, euskera ondo ikasteko bide geiago izanik. Alere, orain modan jarri bide da euskaltzaleen artean "pakezale" izatea: badakizute zertaz ari naizen. Alegia, "pakea" egin bear omen dugu gure artean, pakea bakarrik; baña, orrez gañera, nork bere bidetik segi dezala, besteai kasorik egin gabe; eta gure "misterioak" gero denborak garbi ditzala: ots, urteak pasa-ta ikusiko omen da zeñek zuen arrazoia. Berak esan beza; ez guk. Eta bitartean pakea egin, eta egon.

Nik ordea, pake ori ba litz lortu bear dugun pakea, gerra naiago nuke, eta erra, eta gorrotoa. Zeren auek diranean beintzat, zerbait gaizki dijoala ikus dezakegu, eta senda. Baña beste era ortara, "sasi-pakeak" irents, eta kitto: akabatzen gaituen minbiziaz ahazturik biziko giñake, eta azkenean, urteak igarota, euskera illa arkituko genuke, eta erdera gaillen. Eta, jakiña, au elitzake arritzekoa izango: sasi-pakearen bide ortatik abiatu ezkero, arrazoi guzia bailuteke gure etsaiak, ots, euskeraren eriotza nai dutenak... Pakezaleai segi ezkero, orixe izango litzake denboraren epaia.

Ez, jaunak. Anarkia sendatzeko erremediorik segurena denbora dala, nork esan du? Zalaparta gorri bat ikusita, eta ura

tajutu naiean, nork esango luke: "utz, utz: zeñek duen arrazoia geroak esanen"? Iñork ez. Gure artean, orden, askok.

"Utz ditzagun" —esaten dute— "gure arteko liferentziak, eta dezagun pakea egin". Eta gure setai ez uzteko aitzekia bat dalako, bereala onartzen dute askok zozokeria bat besterik ez dana. Ezen ori ez da batasunaren bidea, beste au baizik: "Ken ditzagun gure liferentziak; erauz ditzagun, gaitzaren errora gaitezen".

Onatx kakoa: ahaztu ez, erauzi baizik; nor bere setari jarraitu ez, baña danok, asko ikasi ondoren, bideari, euskeraren bideari. Bideari? Bai, jaunak. Bideari diot. Bide bat bakarra eta ezagugarria baitago: ez pentsa au izkutuko gauza danik. Arlo ontan kulturak agintzen du, eta zentzuak; ez misterioak. Orain arte etzirudien orrela; baña emendik aurrera burubidea egin bearko genuke errege, eta ez txorakeria; jakinduria, eta ez jakiñezaren ausarkeria. Bigarren onen ondorioak bistan ditugu; poroga ditzagun orain lehenengoarenak.

Eta ez esan gure arteko istillu auek baño gogorragorik ere badugula. Guziok dakigu gure etsaiak zein diran. Baña geure arteko batasuna lortzen ez ba dugu, etsairik izan edo ez izan, kalte besterik ez diogu geronek emango gure euskera aulduari, eta alperrik izango da gure etsaiak aipatzea. Esaera zaharrak ez digu esaten: "etsaiak erasotzen dituzten erreiñuak oro, desegiñak izango dira"; ondorengo au baizik: "beren buruaren aurka zatitutako erreiñuak oro, desegiñak izango dira". Eta auxe bai egia: gaixtoago da geronen anarkia, segurik, gure etsaiak baño. Euskaldunak galdu ba gera, geure anarkiarengatik galdu gera batipat, geure burua defenditzeko ere ezpaikera bat.

Beraz geure batasunetik asi bear. Eta batasun au gaurdanik inguratzen saiatu bear dugu, ahalik eta azkarren etor dedin.

Ontarako erauzi egin bear da gure anarkia. Eta erauzi ahal izateko itz legunak eta sasi-pakea ez dira aski: erroetaraño iritxi bear dugu, kosta ala kostarik, eta mingarri izanik ere; eta ara ezkero sustraitik atera gure minbizia.

Denborak ez. Geronek egin bear dugu dana.

Guk egin bear dugun lana denborari utz? Asmutsua da gero askoren alperkeria...

GURE ANARKIAREN SUSTRAIA

Auxe da nere usted: kanpoko gauzak eta egiak, eta geure burutazioak nahastea. Eskizofrenia-molde bat, agian. Mun-

duan gertatzen dana eta geronen barruan ikusten duguna ezin bereiztea. Eta frase politak egiteagatik ez dut esaten: orixe baita egia. Euskaltzaleok ez ditugu gure setak egietatik bereizten. Burutik egiñik bide gaude.

Ejenplo asko aipa litezke emen; eta danetan klasikoena gogoraziko dizuet bakarrik. "Euskera" da itza, ala "euzkera"?

Betidanik eta euskalki guzietan, euskera esan da, "s"-kin: "heuskara", "euskara", "euskera", "eskara", "eskuara", "uskara", "üxka"; sekulan ez, ordea, "euzkera". Eta, alere, "euzkera" izkribatu da azken urte auetan, eta euzkalerria, eta euzkaldun, eta abar. Zergatik? "Euzko" ori, "eguzki"tik datorrelakoan!!! Alere "euzko" oraindik izkribatzen dutenak edo defenditzen, batasunaren alde daudela esango digute! Baña tontoak bakarrik siñes dizaieteke... Gaur, "euzko" defenditzen dutenak ez dute batasuna nai: beren setak eta egiak nahastuz, setak naiago dituzte aurrera eraman, euskera bera baño.

Eta auetxek dira gure anarkian errudunenak. Beti "euskera" esan baldin ba da, arorkeria gogorra da orri kasorik egin ez eta "eguzki"-aren "teoria" (?) orri lotzea. Zer da jokabide ori? Seta bati inportantzia aundiagoa ematea, euskaldun eta euskalki guziai baño.

Eta au guzia batasuna lortzeko? Ez jaunak. Iñola ere ez.

Ejenplo ori jarri dizuet, eta au ez luzatzeko ez ditut geiago aipatuko. Baña, or joera bat ikusten da, eskizofreniak jota daudenak artzen duten joera ain zuzen: burutazioak eta egiak nahastea.

Berrizaleak alere, ots, "euzkera"-ren aldekoak, "teoria"tzat daukate beren seta; eta obea iruditzen zaie gañera "teoria" ori, "eusko" defenditzen duten "teoria" baño. Orra or beste gauza bat: bi "teoria" dirala... Eta biak "teoria" diran ezkero, itxogin egin bear dugu: denborak esanen zeñek zuen arrazoia...

Eta jaunak: zer da au guzia? Zer da au guzia txorakeria besterik? Nola nai dute batzuk zozokeriak irizpidetzat ar ditzagun?

Gure artean au gertatzen da: arriak erortzean, goruntz dijoazela esan dute batzuk, beste batzuk berriz ezkerretara egiten dutela, eta beste zenbaitek lurrera. Ots... iru "teoria" omen ditugu arrien erortzeari buruz... Arriak, ordea, lurrera erortzen dira beti eta betidanik, eta goitik behera. Au ez da "teoria" bat; begiak idekitzea besterik ez da.

Baña arriak goruntz erortzen dirala diotenak, eta ezkerretarakoak au erantzuten dute: "bada, arriak dira gaizki erortzen diranak"... Lehengo adibidera itzulita, "euskera" "s"kin

esaten ba da, "gaizki esaten da". Zergatik? Neri "eguzkiaren" seta ori buruan finkatu zaidalako... Oso ondo.

Bestalde, noski, lurrera erortzen diran "teoriaren" defendatzalleak oker omen daude, eta beren "teoria" orrek ez omen du deus balio.

Auxe da gure anarkiaren kakoa. Egiak "teoria"tzat euki, eta setak eta txorakeriak egiatzat. Ortik etorri zaizkigu gero "garakoak", "garbizaleak" "mordollozaleak", eta gañerako guziak, gure euskera zearo ondatuz. Izkuntzaren aldetik, jaunak, gure eskizofrenia orri eskerrak, kalte besterik ez dugu egin azken urte auetan. Danok izan ditugu gure eskizofrenia-aldiak; danok izan gera garbizale, noizpait bederen; danok aldrebestu dugu bein edo bein izkuntza. Beraz, danok kolpatu dugu, danok saiatu gera izkuntzaren ondamendian. Eta bistan dago fruitua: euskeraren aldetik, eta Euskalerri alde ontan, berrogei ta amar urte ontan izkribatu dan geien geiena, txarra da, oso txarra, euskerarentzako kaltegarria obe. Gure sasi-teoria oietan finkaturik, ondatu egin dugu alde ontako euskera; eta argitara diran liburu eta idazki geienak, munstrokeriak dira, eta (auxe bai farragarria!) erdera utsa. Erderaz esateko: "erdera de signo menos". Besterik ez.

IRIZPIDE BAKARRA

Arrien erortzea ez da teoria bat. Teoria bat egin diteke orri buruz, au bai; eta teoria ori, noski, arrien erortzearen legeakin bat ez ba dator, teoria txarra dateke, eta ez duke ezertarako ere balio. Arriak erortzen ikusi bear da, eta oni lotu.

Euskeran ere berdin. Izkuntza batean usadioa da azken erabakitzallea. Erabiltzen al da? Ez al da erabiltzen? Izkuntzetan lojika aundia dago; baña izkuntzak, alere, ez dira lojika utsa. Teoria bat, beraz, lojika utsa eta guzizkoa baldin ba da ere, usadioak epaitu bear du; eta ez teoriak usadioa.

Alere, erabiltzen dan guzia ez da jatorra. Donostia'n, esate baterako, sarri entzuten dira: "atzo ez nizun ezagutu", "bi dendan egon gera", "otz bat daukat", eta alakoak. Entzun egiten dira orrelakoak; eta esaten ba dira ere, orren aurka gaude. Zergatik? Esaera jatorrak ez diralako, erdera utsa diralako.

Erabilli egiten dira gaur alabaña. Nola jakin beraz, jatorrak ez dirala? Usadioaren irizpide ortan ere mallak diralako. Azter ditzagun.

Asi baño lehenago jorra dezagun pittin bat azterkizuna. Bazter askotan, geienetan gaur zoritxarrez, obeto dakite euskaldunak berak erderaz, euskeraz baño. Emen gauden guziok,

eskolatuak izanik, obeto mintzatzen gera erderaz, euskeraz baño; ez alere gu bakarrik: Durango aldean, gonbazio baterako, edo Eibar aldean, edo Tolosa'n, erderaz bizi dira euskaldunak berak: zenbat ofiziñatan egiten da gaur euskeraz erderaz aña? Zenbat fabrikatan gertatzen da ori? Bereizkuntza bat edo beste egiñik, iñun ere gertatzen ez dala nago. Gaur, milla bederatzireun eta berrogei ta emezortzian, orixe da legea erririk geienetan. Eta baserrietan beretan ere, guk uste baño sartuago dago erdera, eta erderaren kutsua.

Beraz, euskera bizi-bizia arkitzea ez da gaur oso normala. Eta ez dezagun esan au beti gertatu danik: orain dala eun urte, esate baterako, etzegoen ez industriarik, ez kanpotarrik, ez erdal ziñe, prentsa eta erradiorik, ez orrelako beste gauzarik asko ere; euskalduna zan Euskalerri geiena (kaletarrak berak alakoak izaki), eta Lizarra'tik eta Garetz'tik Mithikile eta Bilbo'raño euskeraz mintzatzen ziran geien geienak, eta erderaz oso gutxi zekitelarik.

Gaur alderantziz gertatzen da: alperrik da ukatzea.

Beraz eta onengatixek, entzuten dan guzia, edo erabiltzen, ez da argatik jatorra. Irizpide sendo eta zorrotz batez baliatu bear dugu, esaera bat, gaur erabiltzen dalarik ere, jator ote danentz jakiteko. Onetzatz, pentsa dezakezutenez, ez dut gaur iritxi berririk emango. Betikoan nago: euskera BIZIAN jeneralean erabiltzen dana, jatorra dala uste dut; eta alderantziz. Beraz gaur kaletarrak esaten dituzten joskera eta itz asko, itzez itz itzulitako erdera dira, eta ezin onar ditezke.

EUSKAL JENIOAZ

Izkuntza guzietan badago zerbait komunik, eta zerbait berezirik. Adibidez: "Orduan ispilluan ikusi zuen bere burua". Itzez itz itzuli ezkero, au entzungo genuke: "entonces vió su cabeza en el espejo". "Bere buru" ori, ezin itzul diteke beraz itzez itz, erderaz ideia ori bera adierazteko beste joskera bat dugulako. Gañerantzeko guzia bai. Ez guziz alere. "Pedro'ren etxe ura", ez da "Pedro-de casa-aquella". Etzaituztet puntu ontan nekatuko. Gauza bat esan nai dut: itzez itz itzultzen ba dira fraseak, zerbait okerrik gelditzen zaigula beti: itzen illara edo segida, esakunen bat, zerbait gaizki gelditzen da geienetan. Beraz, ezin itzul diteke itzez itz. Zergatik? Euskal jenioarengatik, ain zuzen.

Eta orixe da izkuntza baten jenioa: itzez itz ezin itzultze orixe, joskera berezi orixe. Berezitasun aundiago, sena eta jenio aundiago ere. Soñuakin ere berdin gertatzen da: gure

"z"ak edo "r"ak, ez dute erderarenen soñu eta balio berbera; eta "tse" soñuak ez du kiderik. Beste zerbait dago danetan; eta zerbait orretxek osatzen du euskal sena eta gogoa.

"Nere burua", "iru etxetan", "ikus zenezake", "gure" eta "geronen"en aldea, eta abar, eta abar, "zerbait" ori dute.

Ez oietan bakarrik; erderatik artutako itz askok ere ("okasio", "gatza", "sesio", "arrengura", eta beste asko) badute ere "zerbait" ori: okasio, ez da "ocasión"; eta sesio, "sesión"; ezta arrengura, "rencor" ere. ZERBAIT badute danak.

Beraz itzetan, joskeretan, soñuetan agertzen dan berezitasun ortantxe datza euskeraren sena. Eta, au, jakiña, nabarnen dago euskera bizian, eta itzaltzeko zorian auldutako eta eskastutako euskeran.

Bi esaeratan, beraz, jatorragoa da geienetan BEREZITASUN GEIEN duena: erderatik urrutien dagoena. Adibidez: "ikus dezagun" eta "ikusi dezagun". Zein da jatorrena? Geiago pentsatu gabe: erderatik geien urruntzen dana. Erderaz, "he visto", eta "puedo ver", edo "veamos", danak zaizkigu "ver". Euskeraz ez: jakiña da zertan dan liferentzia, eta ez diot ekingo. "Ikus dezagun", beraz, jatorragoa da "ikusi dezagun" baño. Erdaldunak "ikusi dezagun" esateko joera daramate barruan, erderaz pentsatzen dutelako. "Ikusi dezagun" urbillago dago erderatik "ikus dezagun" baño. Beraz jatorragoa da bigarrena.

Eta, ain zuzen ere, euskal literatura eta gaurko euskalkiak aztertu ta gero, euskera eskastu eta pobretu ala, "ikus" formatik "ikusi" ortara goazela arkitzen da. Azter beza euskal literatura, au ez dakienak, edo egungo aozko euskera, eta bereala arkituko du.

Euskera bizia galdu ala, beraz, esaera jatorrak ere galtzen dirala esan nai dut, eta aiekin batera berezitasun edo jenio ori. Eta bi eta iru esaeratatik jatorren zein dan jakiteko, au dala irizpide bat: bietatik edo iruetatik zeñek du itzul-ezin ditekean zerbait edo berezitasun ori nabarmenenik? Eta uraxe izaten da geienetan formarik jatorrena.

JATORTASUN ONI BURUZ ZENBAIT OAR

Atzera jo ezkero, agirian azaltzen da fenomenu bat: atzerago eta geiago nabaritzen dala berezitasun ori. Ots, euskera zaharra biziago zala gaurkoa baño.

Eta onetzaz, arren, beste "teoria" bat danik ez esan. Au ezin uka diteke-ta. Au esatea arriak erortzean goitik behera erortzen dirala esatea baita. Itzen egokitasuna, itzul ezin ditekean sena edo jenio ori, berboaren aberastasuna, dana, bi-

ziago dago zalantzarik gabe. Au ukatzea, euskerari buruz pikuan egotea da.

Denboran zear, beraz, jatorragoa da euskera zaharra gaurkoa baño. Eta mirestekoa eta arritzekoa ez da, lehen aipatu baititut, gaingiroki beintzat, euskeraren galeraren kariak.

Berebat ere, berezitasun eta sena ori gaurko euskera bizian billatzen asten baldin ba gera, ugariago eta biziago arkituko dugu ori Nafarroa'n Bizkaia'n baño eta Xuberoan Nafarroan baiño. Au ere, arren, ez da "teoria" bat. Euskal sena edo jenioa esandako berezitasun ortan baldin ba datza (eta au da izkuntzalarien iritzia), orduan biziago dago xuberoera bizkaiera baño (eta au topatzen dana besterik ez da).

Beraz, bi irizpide arkitu uste ditut nik, jeneralean beñipein, betetzen diranak:

1) jatorragoa da euskera ZAHARRA gaurkoa baño;

2) jatorragoa da Zubero'ko, eta EKALDEKO eskualdetako euskera, beste edozein euskalki baño.

Gero biurtuko naiz berriz puntu nagusi auetara. Beraz, jarrai nakion ariari.

JATORTASUNA ETA EUSKERAREN BATASUNA

Mallak ikusten dira, beraz, jatortasunean eta usadioan:

1) Esaera bat edo itz bat euskalki GUZIETAN esaten baldin ba da, eta betidanik gañera, esaera ortaz zalantzarik ezin diteke izan: esaera ori jatorra da. "Familia" itza, esate baterako, edo "ar tzak" forma (ez "artu zak), jatorrak dira.

2) Esaera bat edo itz bat gaurko euskaldi GEIENETAN erabiltzen baldin ba da ere, ontzat eman diteke: "etorri" itza adibidez. "Jin" itza, berriz, ez dago "etorri" bezin zabaldurik, eta jatorra ba da ere, obe dugu besteari eutsi, au bigarren plauean utziz.

3) Gaur toki gutxitan esaten dan zerbait, baña lehen zabalduago izan zana, obea da, nere ustez, beste esaera edo itz BERRI guziak baño. Naiago bear ditugu izan "kamiñu" edo "galtzara" itzak, "bitzabal" edo oiek guziak baño.

Beraz naiago bear dugu izan gaur denak erabiltzen dutena, berria baño; eta noizpait euskaldunak erabilli zutena, berria baño. Beraz au da nere illara:

1) Gaur erabiltzen dana; 2) atzo erabiltzen zana; 3) gaur toki batzutan oraindik erabiltzen dana, eta ezkenean; 4) sekulan erabilli ez dana. Beraz, oiturak agintzen.

Istillua, alaz ere, ez da onen bidez zearo garbitzen; eta geiago zehatuko dut beherago.

ARKAISMOAK

Ori esanda, batek baño geiagok pentsatuko du nunbait: "au arkaista duk". Eta, ez nuke nai beintzat.

Kaletarrak arkaikotzat dituzten esaera asko, bizirik daude oraindik baserrietan; eta Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n erabiltzen ez diran asko ere, tinko daude Frantzia'ko Euskalerria'n. "Ika" ko konjugazioa, gonbazio baterako, Bizkaia'n il da toki batzuetan baña ez da iñundik ere arkaismo bat. Batzuk esan zidaten neri "makilla" ere arkaismo dala, eta "makil" esaten dutela gaur danak. Eta ori kalean orrela ba da, ots, erdaldunen artean, baserrian ez da gertatzen. Neronek entzun ditut "presa, denbora, aitona, arbola, gauza, neskatxa"; eta beste olakorik asko ere, "a"-kin esanik; baita "makilla" ere, jakiña. (Zuek emen "makillea" noski, eta "makillaka", eta abar.)

Beraz, lot gakizkien baserritarrai, ez kaletarrai. Auekiko erdera euskeratua ez dan guzia, arkaismo bat da ta...

Eta arkaismo zer dan erabakitzean, gogora gaitezen beti Nafarroa'z, Lapurdi'z, Baxenabarre'z eta Zuberoa'z. Eta orrela guk uste baño askoz ere biziago arkituko ditugu euskeraren berezitasuna eta jenioa, ezen ez Gipuzkoa eta Bizkaia bakarrik aztertzen ba ditugu.

IDAZLEEN ASMAKETAK ETA EGIAZKO EBOLUZIOA

Eboluzioaren aitzekia ere, modan jarri da: billakatu egiten omen dira izkuntzak. Beraz ontzat eman omen ditezke aldrebestutze guziak.

Ez, alere. Izkuntza baten billakaera gauza bat da, eta gure setak beste bat. Batek idazten ba du "antola du", "antolatu du" bearrean, ori ez da euskeraren eboluzio bat. Zergatik? Nik "he comido" esan bearrean, "he comi" esaten ba dut ere, zer deritzazute aldaketa orri? Eboluzio dala? Ala nere kasketa ero bat? Zuei erantzuna.

Bada, siñistuta nago: gure arteko askok "he comi" esaten digute egunero; eta guretako batzuk aintzakotzat ematen beren xelebrekeria... Zergatik? Euskeraren "eboluzioa" dalakoan... Bapo!

IRAKASLEEN IKASBIDEAK

Zelebreak gertatzen dira emen ere. Euskaldun berrientzako errezena dana artzen da ontzat; eta, jakiña, jeometria errezago baita izkuntza bizia baño, jeometria irakasten da: kuadro, erregla eta abar. Eta auek ondo daude ASTEKO, baña ez bukatzeko. Lehenengo pausuak emateko ongi daude errazpideak. Ikasleari ondo datorkio erregulartasuna; eta lehenengo aprosimazio bezela kuadruak eta zerak txalogarriak dira. Baña euskera egiazkoa, EUSKERA beraz, ez da aixago irakaste arren kuadrutan eta eskematan sar ditekeana, ERABILTZEN dana baizik. "Yo teno, tú tenes, él tene" erregularrago da, "Yo tengo, tú tienes, él tiene" baño; auek ezin sar ditezke kuadro batean, eta aiek bai. Alere, iñork ez dizue erderaz idatziko: "Yo teno un lápiz". Gure artean, berriz, bai: erregulartasunaren seta sartu digute euskera irakasten dutenak, eta ontzat ematen asiak gera. "Yo tengo" gaizki esana dagoela, eta "Yo teno" esan bear dala diote batzuek. Betikoa: arriak gaizki erortzen dria.

GARBIZALEKERIA ETA MORDOLLOZALEKERIA

Maiz itzegin dut auetzaz. Beraz, enaiz luzatuko. Auek oiturari begiratu bearrean, beren setai begiratzen diete geienetan. "Familia" gaizki omen dago, erderaz ere familia dalako. Arri au gaizki erortzen da, nere auzokoaren arria bezela erortzen dalako... Arrazoi eskasa alafede.

Bide ortatik garbizaleak ekarri diguten kaltea, ezin neur diteke. Zeren bizi diran sorkari guziak jan egiten duten, eta izkuntzak ere berdin. Euskerari itz arrotzak artzen debekatzea, beraz, euskerari elikatzen debekatzea da; ots, goseak illeraztea. Alimaliak jatea normala duten bezelaxe, itz arrotzak euskeraratzea ere normala dugu: bizi diran izkuntza guziak egiten dute, eta euskerak ere orixe egin bear du, lasai, batere bildurrik eta lotsarik gabe; eta izkuntzaren sustraira begiratuz, eta ez azalari.

* * *

Puntu nagusi auek orrela finkaturik, pasa nadin orain bigarren partera; alegia, zein dateke gure bidea?

* * *

NERE PROPOSIZIOAK

Gorago esandako iritzietan finkaturik, usadioari lotuko natzaio ni; eta, bear ez danean, ezer berririk ez sortzea eskatuko. Gure anarkia bukatzeko ontatik asi bear dugula deritzat: bear ez danetan, ez asmatzea; bear danetan ere, ahalik eta gutxien asmatzea. Eta euskera IKASTEA. Orrela jokatuz anarkiaren iturria agortuko dugu, nere ustez, eta batasuna agertzen asiko da.

LITERATURAKO EUSKALKIA

Au da gure istillurik gaitzena. Onengatik bi oar egingo ditut:

a) Aita Villasante'kin guztiz bat natorrela, eta beronen itzak aipatuz, "bi gauza bear ditugu: 1) euskera biziari eutsi: ortarako erri-euskeratik urbil dabillen literatura sortu. Baña, artaz gañera, eta denpora berean, 2) euskaldun ikasientzat, euskeraz eta ikasien gisa idatzi: kultur-maillako idaztiak". Ortantxe nago ni ere. Beraz kultur-maillako izkuntzaz mintzatuko natzaizue aurrenik.

b) Literaturako euskalkia aukeratzean bi irizpide artu bear ditugu kontuan. Alde batetik euskalkirik jatorrenari begiratu bear diogula euskeraren sena salbatzeko. Baña ori ala izanik ere, gure egoerak jasan dezakeanari begiratuz. Xuberoera euskalkirik jatorrena da, dudarik gabe; baña literatura-izkeratzat xuberoera garbia eta utsa artzea elitzake pratikua izango, oso gutxik uler baitezateke gaur euskalki ori. Orrengatik OIARTZUN, SARA eta ELIZONDO'ko euskera artzen dut eredutzat.

Auei begiratuta saiatuko natzaizue ni, beraz, nere ontan. Ez da erraza guziz asmatzea; baña oñarrietan beintzat bide ona ikus ditekealakoan nago. Duvoisin'en eta Mendiburu'ren artean mugituko naiz, nik uste: Axular aukeratuko nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago iñundik ere. Baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere ordez, eta Mendiburu oiartzuarra.

Deklinazioaz

Alderdi ontan ez dago EZER asmatu bearrik: nik dakidala ideiak adierazteko, ez dago deklinazioa berritzeko bearrik batere. Oiturari lotu bear guziz EZER ere asmatu gabe.

Baña zein euskalkitako deklinazioa artuko? Ona emen koska.

Alde batetik lehen esan dudana, jatorrena artu bear; bestetik pratikuari begiratu bear ere.

Gramatika batzuk esaten dituzten txorakeriak arbuiatzetik asi bearrean gera. Zera da "iru mendin egon naiz?" Zer da "lurran dago"? Oiek ez dira "estar en cas", edo "voy a com" baño bidezkoagoak. Beraz, aldez aurretik kondenatu bear ditugu orrelako txatxukeriak, eta jarraitzen zaizkienai, euskeraren etsai deitu. Beren kuadroetan "mendin" eta "lurran" formak ateratzen ba dira, obe dute oiek kuadroak erre, eta euskeraren eginkizunari utzi. Orrelako zozokeriak ez ditugu bear.

Baña bada besterik. Nola idatzi bear da? "Euskaldunak joan dira", eta "euskaldunek jan dute" bereizten dute danak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak kenduta. Nere ustez guri nekeza egingo ba zaigu ere lapurteraren sufijoak ar ditezke arautzat "caso agente plural" ortan; eta ez gipuzkerarenak. Gorago aipatutako irizpideak ditut aurrean au pentsatzeko, eta ez dut geiago zehatuko. "Euskaldunek joan ditezke" eta olakoak esaten dituztenez, noski, ez dut ezer esango. Luma artu baño lehenago ikasi egin bearko luteke.

"Etxerat", ala "etxera"? Alde txiki bat dago auen artean, dakizuten bezela. Etxean gelditzeko baldin ba da, "etxerat" obeto omen dago "etxera" baño. Baña, nik dakidala, bereizkuntza ori lokalismo bat da gaur, eta Baxenabarren eta Xuberoan bakarrik gordetzen da. "Etxera", "etxetara", eta "etxeetara" artuko nituzke nik, beraz.

"Indefinido" edo "indeterminado" ortan, Duvoisin'en alde nago guziz. Orobat ere "a" organikari buruz. Ortaz eredu obea da Duvoisin Mendiburu baño. Azken urte auetan izugarrizko okerrak egin dira onetzaz. Orain dala oso gutxi argitaratutako liburu batean, esate baterako, irutatik bitan gutxienez erderatik gaizki itzulitako forma jartzen du egilleak euskeraren sena zearo ondatuz.

Eta "bat" danean, nola? "Indefinido" da berez: etxe batetan, erri batetara, eta abar. Ala esaten da oraindik Xuberoa'n, Lapurdi'n eta Baxenabarre'n gutxienez. Zer egingo? Nik "indefinidoa" artuko nuke jatorrago dalako, eta lehen zabalduago egon zalako. (Ikus Axular esate baterako.)

Beraz itz gutxitan esateko:

1) Mendiburu'ren deklinazioa artuko nuke oñarritzat.

2) Indeterminadoa guztiz artuko nuke, Duvoisin'enean, eta beste aldeko euskaldunen artean erabiltzen dan bezelaxe.

Mendiburuk ongi xamar darabil, eta emen ere obeto erabiltzen dute gaur baserritarrak, kaletarrak uste degun baño.

3) Pluralean "ak" eta "ek" artuko nituzke, Duvoisin'ek eta Auñamendiz arako euskaldunak erabiltzen dituzten bezela.

4) Gañerantzean Mendiburu'k darabillen dekliñazioa arautzat artzean, Gipuzkoa, Nafarroa eta Laburdi'n artean dagoen eskualdeko deklinazioa artu uste dut, ots, erdikoena eta jator xamarra.

Asmaketa eta berritze guziak, eta oker erabiltzeak oro noski, arbuiagarriak dira, eta kaltegarritzat dauzkat.

Berboaz

Alde ontan ere ez dago EZER asmatu bearrik. "Gakio" "Zesaion" "Zesaidakekan" "dasat", eta abar, ez dira ezer euskeraz. "Ika"ere gero eta okerrago idazten da. Oiturari lotu bear, ordea.

Beraz, lehen bezela, au dateke eztabaida bakarra: zein euskalkitako konjugazioa artuko?

Mendiburuk darabillen berboa aberats xamarra da, eta batez beste, oñarritzat bera artuko nuke.

"Indeterminazioari" buruz ongi xamar dago Mendiburu, baña estuago jokatu bearko genuke. Duvoisin, esate baterako, eredu obea izan diteke Mendiburu baiño, naiz eta onek askotan jator erabiltzen ba du indeterminazioa: geldi diteke, bataia dezaten, ar nazazu, eta abar.

Bere "dezu" alere, "duzu" ar diteke, Duvoisin'ek esaten duen bezela. Guztiz zehatzerik ez dago emen; baña mugak ortan egon ditezkeala uste dut.

"Duket" eta "dateke", eta abar (ots, futuro arkaikoarenak) bizirik daude Xuberoa'n; eta noizpait zabalduago izan ziran (Haraneder, Axular, Duvoisin bera, eta abar) eta beren alde nago ni.

"Ika"ko formak Oiartzun aldekoak artuko nituzke. Beti Mendiburu oñarritzat arturik, beraz, eta Duvoisin alde batera beñere utzi gabe.

Joskera

Emen ere ez dago EZER asmatu bearrik. Alere, ez bide da erraza jakiten euskeraren joskera jatorra zein dan.

Frase laburretan Altube'ren iritzia ontzat eman bide diteke. (Ikus "Erderismos" liburu famatua.)

Baña luzeetan eta joskera jeneralean, estuegi dalakoan nago. "Zeren" esate baterako literatura guztian zear arkitzen da: Mendiburu'k eta Duvoisin'ek (nik aztertutako gidariak) biak erruz erabiltzen dute. Berdin ere gaur arterañoko bertsolariak oro. Gaurko "ze", "zeren", "zeren-eta", "zein-da", eta abar, antziñako "zeren" orren aztarnak dira. Nafarroa'n, Lapurdi'n, Baxenabarre'n eta Xuberoa'n bizirik dugu itz ori. Beraz, ni "zeren"en alde nago guziz.

Berdin ere, "ezen", "bada" eta "baldin"en alde. Auek arbuiatzen ba dira, literatura guzia, eta euskalkirik bizienak batez ere (baxenabarrera eta xuberoera), alde batera utzi bearko genituzke. Eta au geiegi iruditzen zait.

"Zeña", "zeñetan", eta abar, ez dakit nik, egia esan, orren gaizki dauden. Lardizabal'ek, oker ez ba nago, olakoen doñuaz diardu; beraz, entzun egin zituen. Zuberoa'n bizirik daude oraindik era ortako erlatibuak, eta antziñako literaturan guztiz edatuak. Ez dakit nik zer esan oietzaz. Baña, kontra beintzat enauzute.

Beraz, ontzat daukat Altube'ren iritzia frase laburretarako; baña, gañerantzean, berriz ere, Mendiburu eta Duvoisin artuko nituzke eredutzat.

Sufijazioaz

Bi zatitan egingo dut azterketa:

a) Sufijo zaharrak. Emen ezin dagoke dudarik. Ez dago EZER asmatu bearrik; eta oituraren arauz egin bear dira itz berriak. Eta, alere, ahalik eta gutxienetan sortu bear dugu itz berririk. Ontarako, ikasi egin bear da aurrena sufijoak nola eta noiz erabilli diran orain arte, eta, bigarren, itz berria asmatzea bearrezkoa ote dan. Erderaz "comedor" atera dugu "comer" itzetik; ez, alere, "cenador" edo "desayunador". Asmatzea beti da arriskuko gauza, eta bear ez danean ez da egin bear. Gero ekingo diot oni sakonkiago.

b) Sufijo berriak. "Ismo" eta "ista", esate baterako, gure ondoko izkuntza guzietan erabiltzen dira, eta euskeran ere sartu bear diralakoan nago. Orrelako beste zenbait ere ar ditezke nere uste.

"Aldu" ("goraldu", "aintzaldu", eta abar) "no" ("Jainkono", "jainkosa" bearrean) eta tankera ortan sortu diran sufijo guziak, oñarririk batere ez dute, eta alde batera utzi bear dira.

Itz berri

Ona emen beste oiek baño gogorrago dan istillua. Orain arte auxe izan dut legetzat: usadioari eldu, eta deus ere asmatu ez. Eta aurrera.

Orain ez da ori aski. Ezen, itz berri bear dugu, anitz gañera. Euskera, bere ortan, ez da gai, ez da gauza, gaurko munduan barna mintzabide izateko. Gaitu egin bear da, osatu, apaindu, zorroztu. Au dato bat da. Nola, ordea? Ona emen koskarik aundiena. Deklinazioáz, konjugazioaz, eta sufijazioaz egin diran aldaketak, ez dute barkaziorik: txorakeria utsak izan dira. Itz berrien moldatze ontan, ordea, oker aundiak egin ba dira, izugarriak, eta geienak barkagarriak ez ba dira ere, xedea txalogarri izan da beti: euskera bere zarpailtasun ortatik ateratzekoa.

Orain arte aixa ikus zitekean bidea. Saia nadin aurreruntz ere bidea billatzen, orren erraza izango ez ba zait ere.

a) *Itz zaharrak.*

Ideia zaharrak, ots, euskaldunak mendeetan zear erabilli dituztenak, itz egokiak dituzte, eta emen ez dago EZER asmatu bearrik. Barkatu, "arima", "pekatu", eta olakoak, latiñetik datozela bide, euskeratik kendu nai izatea, zorakeria bat izan da. Euskerarik bizienean eta jatorrenean oietxek erabilli dituzte beti euskaldunak. Baserriko tresnak, abereak, landareak, arrantzaleen gauzak, erlijioaren gora beherak, burniari buruzko xehetasun asko, errotak, eta abar, itz egokiak dituzte aspaldi danik. Ale ontan beraz ez da EZER asmatu bearrik. Ikasi egin bear da bakarrik, beti ere ikasi.

b) *Ideia berriak.*

Euskerak noizpait guk opa diogun malla eta kategoria ingura ba leza, bide ontatik lor lezake: egokitasunean aurrera. Erderaz, "propiedad del lenguaje". Ideiak adierazteko tresna dira itzak. Beraz, zorrotzago jakin danok itzen adiera, baliosago ere izkuntza. Au ala da zalantzarik gabe.

Iru bide ditugu, nere ustez, ideia berriak azaltzeko.

1.—Antziñako itzak aztertu, eta adiera berri eman. *Ildo*, esate baterako ("surco" erderaz) "estilo" biurtu nai du Orixe'k. Batzutan, eta Orixe ontan oso trebea izan da, oso gutxi bortxatu gabe aberas diteke euskera. Baña au ezin diteke ar bide nagusitzat. *Ildo* "estilo" uler diteke agian; baña beste askotan

ez da ori gertatzen, eta egokitasuna gal diteke bereala bide labain eta sujetibo ortatik abiatu ezkero.

2.—Euskal itzez eta sufijoez baliaturik, itz barriak eratu, euskeraren sena aldrebestu gabe. Auxe izan da ere Orixe'ren beste bide bat, eta bestea baño segurago iruditzen zait, euskeratik beretik irten gabe, itz asko sor diteke. Baña sortutako itz oiek adiera edo sentidu berezirik ez ba dute, eta geienak onartuta, ez dugu ezer aurreratu. Ideiak zorrozki eta zeatz azaltzeko tresna ez ba dira itzak, ez dira deus. "Igarobide", gonbazio baterako, ez da, nerekiko, "método de paso" besterik. Ez da "pasaporte" bakarrik; berdin uler diteke, nik uste, "zubi", "zulo", edo beste zenbait gauza, toki batetik bestera pasatzeko bide bat ba dira.

Enago, bada, euskera beretik itz berriak sortzeko joeraren kontra. Alde nago. Baña auxe dakusat baldintzat: moldatutako itzak garbi, eta zalantzarik gabe, ideia zorrozki adierazten ez ba du, itz orrek ez duela nahasteko baño balio

3.—Erderatiko itzak. Ona beste bide bat; eta, egia esan, iruetan segurena. Zer ajola guri itz kultoen jatorria? Aita Villasante'ren itzak berriz aipatuz "bada gauza bat gure euskaltzaleak agi danez jakin nai ez dutena: izkuntza landu baten iztegian, gazteleran adibidez, badirela maillak, jeolojiak lurrean arkitzen dituen lur-mailla oien iduriko. Azpi-azpiko maillan dira gaztelera jatorraren itzak, Gaztelako erriarenak; baiña oien gaiñetik eldu dira gain-maillakoak, gizon eskolatuek kultur-bidez (por vía culta) sartu dituztenak, eta oiek maizenik griego eta latiñetik artuak izan dira". Zergatik ez euskeraren iztegian?

Ni, beintzat, onen alde nago zearo. Nere ustez, euskera utsez ideia bat zeatz adieraz ezin ditekeanean, erderara jo bear da batere bildurrik gabe. Nola ar itza ordea? Onatx nere iritzia.

ERDERATIKO ITZAK EUSKERA BIZIAN

Erderatik itzak artu bearrean gera, beraz. Ots, nolatan egingo erabaki bear dugu bakarrik. Eta oraindik beretik itz berri oiek bear ditugun ezkero dagozkien ideiak ezagutzen ditugulako ORAIN BEREON ere erabaki bearko genuke itz oiek nola erabil edo ekar.

Bi bide dira, nik uste: Leizarraga'k orain dala laureun urte irakatsi ziguna, eta Axular'ek artu zuena. Lehenengoak, zuek dakizuten bezela, kulturaren itzak aldatu gabe erabiltzen zituen euskeraz; bigarrenak berriz, askotan beintzat, euskera-

ren senaren arabera aldatuak. Bereala azalduko dizuet zergatik naiago dudan nik Axular'en bidea.

"Diputación, ilusión, sesión, ocasión, vacación", eta abar euskeratzen ditugunean, onela esaten ditugu gipuzkeraz: diputazio, ilusio, sesio, okasio, eta bakazio (edo barkazio: au etzaigu orain ajola). Bizkaitarrak berriz, diputaziño, sesiño, eta abar. Eta nafarrak, diputazione, sesione, eta abar. Beraz, oker ez ba nago beintzat, iñork ez du esaten: "diputaziona, sesiona", eta abar. Gauza bat erakusten digu onek: sufijo ontan, edo soñu ontan, bizirik dugula oraindik euskal fonetika, eta orrengatik, euskal jenioak ortan bizirik dirauelako, aldatu egiten ditugula orrelako itzak, euskeratzean.

Erderaz ere iñork ez du esan "meeting" edo "foot ball" inglesak bezala. Ez. Gaztelaren arabera aldatu da itza, eta beste bat eratu.

Orain dala gutxi beste izkuntza batean gertatutako ejenplo gogoangarri bat esaten zidan Mitxelena jaunak: "propaganda"itza, "ropakanta" biurtu omen da finlanderaz. Zergatik? Ango fonetikaern arabera aldatu dutelako.

Orixe da izkuntza bizien jokaera: bestetatik artu, bai, baña bere erara aldatuz.

Eta emen legeak dira; eta gure euskeran ez dira falta. Adibide batzuk aipatuko dizkitzuet.

ERDERAZ	EUSKERAZ
cáñamo	galamu, kalamua
canónigo	kalonje
anima	arima
animla	alimalia, aliamale
número	lumero
naranja	laranja
nombrar	lonbratu, izelonbre
Jerónimo	Jeolimo
ganancia	galanzia
fundamento	fuldamentu, pulamentu
cariñena	kariñela (ardo mota bat)

Or lege bat azaltzen da zalantzarik gabe; eta bizirik dagoen legea ain zuzen (ikus Xenpelar, Txirrita, eta bese bertsolari). Zergatik joan bear du literaturako euskerak fonetika jatorraren legeen kontra? Zeñek ez du entenditzen "galantziaren" esanaia?

Badakit batzuek neri ala erantzunik: Ori "arruntkeria" da. Ori ez da "kultoen" jokabidea...

Baña ni enator oiekin bat: zergatik dago ba gaizki? Baserritarrak kaletarrak baño obeto itz egiten dutelako? Euskalerriko nekazariak eta arrantzaleak euskeraren sena ori burgesak baño biziago gorde dutelako, gaizki egietn dutela esango al dugu? Baserritarrak "galantzia" esaten dutenean, euskeraren arabera esaten dute, aspaldiko legeak ondo betetzen dituztela. Guk, berriz, ganantzia esatean, erderaren fonetikaz esaten dugu, ez euskerarenaz. Beraz, jatorragotzat daukat "galantzia".

Zergatik ez artuko, beraz, "polentzia" (eta ez ponenzia), eta "aluntzio" (eta ez anuntzio)? Zergatik ez? Onela egiñaz lotuago gagozke euskal senari eta oiturari, bestela esanez baiño.

Beste adibide bat jarriko dizuet:

ERDERAZ	EUSKERAZ
castellum	gaztelu
corpus	gorputz
causa, cosa	gauza
casam	gatza
catum	katu, gathu(s)
cruz	gurutze
cadena	kate, gathea(s)
colada	gobara
codicia	gutizia
cambiar	ganbiatu
cautivo	gatibu
costo	gostu
carnada	garnata
calza	galtza
calzada	galtzara
corbata	gorbata
convite	gomita, gonbita

Beste amaika aipa diteke; bañan etzaituet nekatuko. Orra or beste lege bat. Lege au, noski, askoz ere obeto eta biziago betetzen da Zuberoa'n beste iñun baño, geienetan gertatzen dan bezela. Zergatik joan bear dugu orain, erderatik itz berriak artzean, lege onen kontra?

Beste bat oraindik. Azkena:

ERDERAZ	EUSKERAZ
sabanum	zamau
planum	lau
ánade	ahate, aate
cadena	gathea
ballena	balea, bale
corona	khoroa, koro
dinero	diharu, diru
moneda	mueta, mota
mina	mia
arena	area
lino	liho, lio
don	doe, doiak
honor	ohore
menacer (fr.)	mehatxatu

eta erderaz "on"-ez bukatzen diran guztiak:

razón	arrazone-arrazoe-arrazoi
ratón	arratone-arratoe-arratoi
ilusión	ilusione-ilusioe-ilusio.

Or ere, nola uka diteke nabarmen gelditzen dan legea? Eta, zergatik joango bere kontra?

Ez dezagun egin "ika" konjugazioaz bezala: Ika ori arrunta omen da, baldresa, eta abar. Dotoreago omen da zuka itzegitea. Nork ez du noiz edo bein orrelakorik entzun? Alere jatorrena uraxe da, ain zuzen; baña kaletarrak ika etzekitela-ta, txartzat artu zuten azkenean ika itzegitea.

Berdin jokatuko al dugu orain itz arrotzai buruz? Enuke nai beintzat. Erderatiko itzak artu bear ditugun ezkero, ar ditzagun euskaldun jatorrak bezela, ots, euskera bizian artu izan diran eran. Ontarako irizpide sendo bat bear dugu. Mitxelena jaunak zerbait egiña du onetzaz. Eta nik au eskatuko dut: Euskaltzaindiak ofizialki lan oiek osatuz, irizpide oso eta zentzuzko bat bereala argitara dezan. Ontaz ere, anarkia (edo aharkia) etzaigu komeni; eta artzeko bearra bistan baita, gaitezen bereala egiñetara.

ITZEN EGOKITASUNAZ

Iztegi bat bear dugu. Badakit ontaz Mitxelena jauna lanean ari dana; eta ahalik eta azkarren bukatzeko berari eskatzea alperrik litzake, asmo ortantxe dabil-eta. Baña bear izugarria dugu, Euskalerriko alde ontakook batipat. Aita Lhande'ren iztegia, eta Tournier-Lafitte'-renak ongi daude; baña guretzat ez dira oso egokiak, euskera-frantsez, eta frantsez-euskera baitira. Azkue'ren iztegia agiturik dago aspaldi ontan eta besteak (Aita Bera'renak batez ere) kalte aundia ekarri dute seta baten seme dira-ta.

Egokitasun alde ontan biziki lagun dezake iztegi on batek, ejenploak baldin ba dakarzki. Nik, beraz, au eskatuko nioke Mitxelena jaunari: adibideak erruz ipintzeko. Eta adieratzat Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoan geienetan duena artuko nuke.

LITERATURAKO EUSKERAREN ORTOGRAFIAZ

Ortografia bat ezta ona, nik uste, fonetikaren morroi ez ba dago. Beraz, beti bezela, bi oar:

1.—Euskal fonetikarik jatorrenaren arabera egin bearko genuke ortografia.

2.—Pratikuari begiratuta, ortografia zail bat eredutzat artzea ere elitzake komeni izango.

Goazen beraz, apurka.

Literaturako izkeran, nere ustez, idazkera BAT bear dugu. Zein? Fonetikarik jatorrena, beti bezela, ekaldean dugu; baña an gorde diran fonema batzuk galdurik daude gañerako Euskalerri guzian. Xubero'ko "ü", esate baterako. Beraz, zer egin?

Berriz ere Mendiburu eta Duvoisin datozkit burura, eta ni berriz ere bien erdian geldituko naiz.

a) "H"a, "h" bakarra (Hau, hotz, haran, sehi, ahizpa, t. a.), Euskalerri guzian erabilli zan antziñan; eta gaur bereon ere Xuberoa'n, Baxenabarre'n, Lapurdi'n, eta Nafarroa garaiean ere erabiltzen da. Beraz, "h"aren alde nago ni. Ontan, gipuzkera eta bizkaiera mintzairarik erderatuenak agertzen zaizkigu berriz, eta zin ar ditzakegu gidaritzat.

"H"ori zein itzetan ordea? "On" ala "hon"? ("hun" baita Xuberoa'n): gidaritzat Duvoisin artuko nuke, berriz, esate baterako, ots, Lapurtera modernoa.

b) "Consonantes aspiradas" dalakoetan (olha, alhaba, senhar, erhi, erho, bekhatu, khar, ethorri, othe, eta abar) li-

bre idaztea proposatuko nuke. Egia esan, "h"arekin batera dijoaz auek ere; baña emengo euskaltzaleai bidea erraztutzeko, jartzea ala ez jartzea LIBRE utziko nuke. Badakit au egiñaz erderaren fonetikari eta ortografiari bide irikitzen diedala, eta ez euskerarenai; euskerarena Xuberoa'n gorde baita ederkienik. Baña pratikari so nagoela proposatzen dut ori.

c) Onengatik "h"a Lapurdi'n Baxenabarre'n eta Xuberoa'n bizirik dagoelako) oso gaizki iruditzen zait angoak berak "etche" eta "goche" idaztea. Batasunaren kontra dijoa ori batetik; eta ango fonetikaren beraren kontra ere bai. "Gocho" berentzako "gokho" da-ta.

d) Beraz Aita Lhande'k bere iztegian darabillen ortografia ontzat ematen dut guziz, ots, Euskaltzaindiarena, eta orixe proposatzen: baña lapurterari atxikia, eta ez gipuzkerari.

e) Erronkari, Saraitzu, eta Xubero'ko nasalismoak, esate baterako, ortografia-molde ontan ez dirateke sartzen, eta euskal fonetika jatorra dira zalantzarik gabe. Baña, bide erraz bat bear dugu eta zoritxarrez gure euskalkirik jatorrenak ez dituzte gaurko euskaldun geienak ulertzen.

ERRI-EUSKALKIAI BURUZ

Ori guztia literaturako euskerari buruz esan dut, ots, liburuetan, prentsan, ziñean, eta abar, erabiltzeko dukegun izkeraz.

Mintza nadin orain besteez, ots, erri-maillan geldituko diran euskalkiez: bizkaieraz eta xuberoeraz batez ere.

Gaur gaurkoz tokiko euskalkiai laguntzea eta ats ematea komeni zaigu ere. Zertan?

Teatroan, katiximan, predikuetan, tokiko aldizkarietan, ots, bazter batean bakarrik edatuko diran guzietan, ango euskalkia artu bearko genuke izkeratzat.

Parrokitako orriak, esate baterako, edo geien bat euskaldun landugabeak irakurriko edo entzungo dituzten gauzetan, euskalki arruntari lotu bear diogu. Zabalkunde jenerala izango duten guzietan, berriz, literaturako mintzairari.

Beraz, Bizkaitik edo Xuberotik irtengo ez diranak, bizkaieraz eta xuberoeraz. Euskalerri guzira edatuko diranak euskera literarioaz. Orra or nere iritzia.

Beraz, ideiak piska bat finkatzeko, onela azalduko nituzke:

1.—Literaturako euskera: Axular'en BIDEA gidaritzat.

2.—Erri-euskera "Herria" astekariak artutakoa, baña ortografian besteari lotuago, eta elburutzat literaturako izkera ura aurrean GEIAGO ipiñiz.

EUSKALTZAINDIAREN BETEKIZUNA

Gogorrago jokatu bear du Euskaltzaindiak orain arte baño. "Jagon-sailla", edo "comisión tutelar" dalakoak bere gain artu bearko luke euskeraren batasunaren eginkizun au, eta bere alde indartsuago jokatu; idazleai ortografia ori erabil dezaten lagunduz, gaizki idatziak zuzenduz, eta euskera biziari geiago lagunduz.

Beraz, puntu auek bozkatzea eskatzen dut:

1.—Batzar ontan berean erabaki sendo batzuk artzea, eta "Jagon-saillak" bete araztea.

2.—"Euskera" aldizkarian ahalik eta azkarren maioriaz onartutako puntu oiek argitaratzea.

3.—Idazle famatuenai puntu oien kopia bidaltzea, bere ontzakoa emateko eskatuz.

4.—Puntu auen alde jokatzen ez duten guziai, boikota egin, eta beren joera txartzat artzen dala-ta esanez Euskaltzaindiaren izenean izkribatzea.

5.—"Egan" aldizkarian Euskaltzaindiak erabakitako joera oien arabera astea.

6.—Edatze txikia edo lokala duten errebistai ("Herria", "Gazte", "Karmel", eta abar) Euskaltzaindiaren ortografia erabiltzeko eskatu; baña beren edatze txiki ori ahaztu gabe, ots, tokiko beren euskera erabiltzea ontzat emanik.

7.—Bosgarren eta seigarren puntuetako erabakiak, urtebeteko edo bi urtetako epe batean betetzeko eska diteke, kolpez egiteagatik kaltegarri gerta ez ditezen.

Eta, besterik ez jaunak.

Donostia'n 1958 Abendua'ren 3'an

(Euskeraren eguna)

Txillardegi

Alvarez Emparanza-k bukatuta Mitxelenak artu du aldia.

Mitxelena: Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditekeanik. Batasun bidean jarri bai. Zuk esan duzun bezala gutxi gora bera iru euskalki gelditzen dira, Bizkaikoa eta Xuberoakoa kenduta, erdian. Lapurdi, Nafarroa ta Gipuzkoaren aldetik bakoitzak piska bat amor eman ezkero, eta batez ere gipuzkoarrak asita. Bada gipuzkoarrok orainarte guk batasuna beti izan dugu beste guztiak gurera erakarrita. Uste dut, ordea, elkar ongi entenditzeko moduan egin genezakeala. Zuk esan duzun bezala errirako diran gauzetan nai ta nai ez euskalki bakoitza erabili bear da. Batetik daukagu ortografi kontua. Nire ustez ortografiak bear du izan fonetika baiño geiago, orain fonologikua deitzen diotena. «Diferencia significativa». Zoritxarrez, izan da gauza baten baiño geiagotan, batasuna sortu bearrean, desberdintasuna sortu izatea. Esate baterako, gauzarik garbiena da **b** ta **p**-kin aurretik nasala dagoenean gertatzen dana. Orainarte euskaldun guztiak beti idatzi zuten **m** leku artan. Oraindik Bidasoaz arunzko guztiak ola idazten dute. Baiña guk artu gendun bide berria eta ortik sortu da angoak **kampo** eta emengoak **kanpo** idaztea, esan berdin esaten baldin bada ere. Esate baterako **h** kontuan **Herria**-koak berak franko alderdi ontara jotzen dute **t** ta **k** ondoren, Xuberotarrak ezpaldin badira, uste dut kendu egiten diotela. Niri guzira ondo iruditzen zait, baiña **Herria**-n gauza bat ikusten dut, alegia gure Krutwig-ek esango zukean bezala, populismo geiegi. Esan nai dut Lapurdiko euskera beti izan dala an nagusi literaturaren aldetik, eta beti idatzi dute —esan Jaungoikoak daki zer esango zuten— idatzi dute **naiz** ta olakoak, eta orain denak **niz**, eta **gazkio** baiña ez **gitzazkio**, errezago iruditzen zaielako. Beraz ortan erri-izkerari piska bat bear dan baiño geiago berrikeria ematen diotela **Herria**-n. Nik ala esango nuke.

Eta beste gauza bat azkeneko. Alegia zuk ikakoa esan duzuna. Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear dut: izugarrizko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrak azken bolada ontan ikako formakin. **Gatxabiltzek** eta orrelakoak Gipuzkoako txoko batean bakarrik erabiltzen dirala. Euskaldun guztiak **giabiltzak, gebiltzak** edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, **gatxabiltzek, natxetorrek** eta oiek lokalismo estu estuak dira Gipuzkoan. Eta nik eztut uste gipuzkoarrok, nik neronek ere eztitut erabiltzen eta gure inguruan eztira erabiltzen, eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiai zabaldu nai izateko. Nik eztut uste Bizkaian ere olakoak erabiltzen diranik. Eibar aldean, esate baterako, bestelakoak dira zearo. Ori da esan nai nuena.

Aita Agirretxe: Txillardegi jaunak esan dituan itzak garrantsi aundiko itzak izan dira, eta bear bada geldituko dira aidean. Nik ere gauza batzuk pentsatuta neuzkan gutxi gora bera. Eta errespeto aundiarekin, baiña Euskaltzaindiari gauzatxo batzuk esan nai dizkiot emen guzion izenean.

Lenengo oso ongi daudela bere lanak. Batez ere kulturazko lanak, epe luzekoak, egiten dituzuten lan aundi oiek. Eta noiz edo noiz oso txalogarriak izango ditugu eta ongarriak ere bai. Baiña beste lan batzuk zuen eskuetatik etorriko ote zaizkigun zai gaude eta Txillardegi jaunak ere ori nai duala adierazi du bere lanean. Ontarako, bada, euskera bizierazi, AZKAR. Ortarako Euskaltzaindiak neurri batzuk artu ta zabaldu ta beteerazi, Txillardegi jaunak esan duenez. Nik uste det oso bearrezkoa dala au eta geienak Euskaltzaindiari errespeto guztiarekin begiratzeko gogoz gaudela. Eta izan dezala itzal aundia, eta zenbat eta itzal aundiagoa izan Euskaltzaindiak gogo obeagoz eta biotz obeagoz artuko ditugu bere neurriak eta bere esanak. Baiña lenbailen boletin merke bat sarri sarritan aterako dana eta esku guzietara etorriko zaiguna izan dezagula eta boletin ortan neurri eta norma oiek ikusi ditzagula, eta baita ere al baldin badu Euskaltzaindiak sortu dezala propaganda. Ortarako slogan batzuk edo letrero batzuk nunai, al bada autobusetan, trenetan, kale bazterretan, eta besterik ezpada oraingo agintari jaunen itz batzuk jarri ditezke letrero oietan. Esate baterako Gipuzkoan izandako gobernadore jaunak esan dituzte alako batzuetan itz butzuk guk gogo onez artu eta beteerazi bear genituzkeanak. Lan oiek bear bada txikiak dira jaun aundi eta prestuak egiteko. Baiña Euskaltzaindiak kultura aundiko lanak egiteko dituan lagun oien ondoan izan ditzake langille batzuk lan txikiagoak egiteko ere, erreztasunak, laguntzak eta bideak zabalduta izango dituztenak. Eta berriz ere Txillardegi jaunak azkenaldean esan dituan itzak txalogarriak dirala. Izan ere Bilboko batzar ontan itz oiek gogoan artu besterik egingo ezpagenitu ere batzar onek frutu aundiak ekarriko lituzke. Eta bukatu det.

Itzaldi au bukatuta esaten da:

Besterik ezpaldin badago itz egiteko biarko utziko ditugu batzarrak. Biar goizeko amar ta erdietan asiko da.

Urrego goizean Irigoyen-ek du lendabiziko itzaldia:

BERBAK ETA IZKUNTZA

EUSKEREAREN BATASUN BEREZKOA

Jaun andrak:

Danok dakizue Euskalerriko azkenengo denporetan asko berba egin dala euskerearen batasunaren gaiñean. Ta alan da guztiz be emen nozue ni Bizkaiko euskera onetan zuori berba egiten, eta ez uste izan eztituela bere arrazoiak nire jokabide onek. Ni be batasun zalea naz aal dogun neurrian, baiña beste alderdi batetik begiratu ezkero eztago dudarik bapere euskerearen sustrai asko toki guztietan edo geienetan bat izanagaitik badagozala batetik bestera aldakuntza aspaldikoak be, literaturazko euskalki klasikoak argi ta garbi erakusten deuskuezanak. Egia da munduko gaur eguneko bizimoduak batasun bidera eragiten dauela berez eta guk be bearrezkoa dogula geroago eta geiago batasuna, iraun gura badogu. Baiña diñodan legez bizimodua da zuzendu bear doguna berez egin daiten batasuna eta ez bizimodua gogoan eztaukagula legeak emon batasuna egingo danaren ustean. Euskera, eta ezta ezein izkuntza be, ezta gure buruan gure kontura ametsez egiñeko gauza bat, euskerea bizia da, urteak eta urteak Euskalerrian bizi izan dana euskaldunen bearrizanetara moldatuz, euskaldunak beragaz negar eta amets egin dabena, beragaz poztu direana, biotzaren barru barruan eroan dabena. Eta ezagutu gura badogu eztaukagu beste erremediorik bere izana dan legez estudiau baiño, bai bizi dan eremu zabalean eta bai denporan. Jakiña, gugandik ur dagoen denporan. Eta bere izana, gizon bat estudiauko geunkean gisa berberean, itxi dituen arrasto guztietan estudiau geinke, liburuetan eta gaurko izkuntzak bere momorian gorde dituen arrasto bizietan. Eta izkuntzearen batasuna lortu gura dogula diñogunean, aal dala denporan bere lortu bear dogu, ez eremua gogoan dogula bakarrik. Eztago esan bearrik, gaiñera, batasuna bardintasun lotu eta estatiko bat eztanik.

Batasunari begira imini gura badoguz gure begiak lenengo lenengo egin bear doguna, ezelango duda barik, Euskalerri osoan edo geienean bat direan sustraiak zeintzuk direan jakitea da, nondik datozan eta zelango kutsua daukien begiratu barik. Bide orretatik joten badogu batasun-zimentarri sakon eta zabal bat jarriko dogu, barruko muiñetako batasun bat, aldakuntza azalekoak jarraituagaitik oraingoz, euskalkien al-

dakuntzak bizirik jarraituagaitik oraingoz. Baiña, esan dodan legez, nondik datozan eta zelango kutsua daukien sustrai komun orreik begiratu barik. Izan be, izkuntzearen bizia gura badogu, ezin asi geintekez kutsu au edo bestea daukielako euskal-arbolako sustrairik sendoenak moztuten, arbola osoaren arrisku barik, zerren alboan beste arbola askotaz bere sendoago batzuen sustraiak dituen. Gaiñera alboko arbola sendoak eurak bere eztabe egiten olangorik, eta alan ta guztiz be, eztau iñok dudan iminten sendoak eztireanik munduan.

LITERATURA, MODUEN GORDETZAILLE ETA BATASUNAREN ERAGILLE

Argi dago literaturea beti aozko izkerearen ostekoa izan dala, eta idazten dana aldatu barik bein eta barriro irakurri leitekean ezkero, bere joera eta eginbear berezkoa berbak eta moduak gordetan daukala. Jakiña, bein, aldi batean izkuntzan bizi zirean erara, aldatu barik. Eta orretara, literaturea berezkuntza barriak sortu eztaitezan indar egiten egoten da, eta arretaz zaindu eta jagon bear dogu bere eginbear nagusi ori, bear dan legez eta probetxurik andienagaz bete daien gura badogu.

Gogoan artu bear dogu, beraz, orainarteko literatura osoa, texto zaarrenetatik asita.

IZKUNTZETAN BERBA GUZTIAK EZTAUKIE BIZIBIDE ETA JATORRI BARDIÑA

Badirudi batasunaren arlo onetan berbak leku guren bat artuten dabela ugaritasunari begiratuten badeutsagu. Eta zerbait esan gura neunke euren gaiñean.

Berba batotxak mundu berezi bat dauko, historia berezi bat. Ain ezagunak doguzan Bilboko autobus bete batera igoten dogunean gure etxera edo narabait joateko, danok dakizue zelango estualdiak artu bear direan kobratzailleari pagau eta leku eroso bat artzeko zutunik baiño ezpada be. Eta danok dakizue lenengo igon dauenak autobusera oso errez artzen dauela ezarlekua eta norbait ausartuten bada berari lekua kentzeko azerikeriaren bat egiten bereala sortuko da burrukea eta seguru egon gaiñerako guztiak ezarrita egoanari emongo deutsiela arrazoia, baldin errukia eragiten dauen ezer ezpadago. Itzak bere nozbait igon dabe izkuntzako autobusera munduan zear, bere inguruko gertaera eta historiaren ikusle eta parte artzaille dan izkuntzako autobusera. Eta ez bakarrik igon, bertan bizi izanik seme alabak bere bertan sortzen dituez,

bertan egiten dabe bizia eta bertan ilten dira nonbait gexotu eta ilteko arrazoien bat sortuten bajake. Eta alperrik saiatuko gara nortasun andia artu eta sendo bizi dan berba bateri lekua kendu gura badeutsagu eta bere orde sasiko bat imini gura badogu jauntxokeriak eragiñeko amodio personala arrazoi bakarra izanik. Gure burua jauntxo egiñagaitik ez uste izan daukagula berba zaar indartsuari kontra egiteko aiña aaltasun. Eta bagendu be zetako sortu bereizten gaituen burruka alperra? Zetako indarrak galdu garaille atera arte? Zetako imini arriskuan autobusa, gidaria bera be burrukearen berotasunean sartu leitekealarik eta autobus osoak bideko arbola baten kontra jo, musturrak ausirik eta egoera negargarri batean gelditurik? Zerren burruka guztiak badakigu zelan asten direan, baiña sekula be ez zelan amaituko askotan. Dudarik eztagoena iñoz mesederik eztabela ekarten, eskarmentua izan ezik. Saiatu gaitezan gure autobusean bakea iminten eta berba bakotxari bear dauen justizia egiten. Aintzat artu daigun autobusean bizi dan berba jente guztia, entzun daiguzan bakotxak emoten dituen arrazoiak eta jauntxo izan bearrean izan gaitezan bear dan moduko guraso, Elexa Ama Santea dan gisan. Bakea iminten badogu, aintzat artu guztien arrazoiak eta bakotxa juztizia onean jagokon tokian iminten badogu biotz onez ikusiko gaitue eta ao batez autobus osoak izuok zarie gure gidariak! esango deuskue, izuok zarie gure filologoak eta izkuntzalariak! eta autobusak be bidean jarraituko dau betiko.

Esan dogu berba guztiak autobusean eztaukiela jatorri bardiña, ezta ezarleku bardiña be. Batzuk beste batzuk baiño lodiagoak dira, ezarleku zabalagoa daukie, eta ain tokitan igon dabe eda beste toki aretan, elexea izan da zabaldu eta indartu dituena edo merkatariak edo eremu bakotxeko bizimoduak lagundu deutsie, edo askotaz bere leenagotik bizi dira orduko bizimoduaren erakusle eta jarraitzaille. Eta badagoz beste batzuk beste autobus zuzenbide bardiñeko batzuetan nebarrebak eta senideak daukiezanak, eta jakiña, gaur egunean, autobusetan, gura bada erradioak be imini leitekez batetik bestera berba egiteko.

Begirada bat emon deiegun elexearen bidez indarra daukien berba batzuri, adibidetzat iminten doguzanak: pekatu, apostolu, meza, grazia, sakramentu, paradisu kurutze, erlejiño, fede, dotrina, ezkondu, Espiritu Santu, altara, alguztidun, Birjiña, arima eta anima, doe eta doai, santu eta saindu, parkatu eta barkatu, frutu eta fruitu, bedeinkatu eta benedikatu, elexa, eleiza eta eliza, eta beste asko eta asko. Elexeak Euskalerri osoan artu zituen sustraiak eta orregaitik elexako berbarik

geienak bat dira Euskalerri osoan fonetikazko aldakuntza txiki batzuk gora beera. Or dozue, bada, batasun-indar andia dauen komunidade bat, gaur egunean be sendo bizi dana eta bizi-ko dana.

Or dozuez errege, erreiñu eta erresuma, soldadu, gerra eta gerla, gudu, familia, soldata, pixu, eskribau, estrata, galtzara, denpora, katigu, mueta eta mota, arrazoi eta arrazoin, esate baterako, beste mueta bateko artu-emonetatik sustraia artu dabenak eta gure burua eta izakerea moldatu dabenak, aurreko pentsetako molde asko apurka apurka baztertuerazo arte bizi-moduaren aldakuntzeagaz batera. Eta au, momentu guztietan Europako gora beeretan parte artu dogun seiñale argia da. Eta berba oneik be, asko eta asko bat dira Euskalerri osoan.

Or dozuez ekarri, ikusi, esan eta erran, emon eta eman, mendi, bide, erri, itxaso, egun, argi, eta millaka geiago. Argi gitxi daukagu jakiteko zelan eta noz artu daben sustraia gure izkuntzan, baiña bat dira Euskalerri osoan.

Badoguz beste berba batzuk toki edo komunidade txiki bateko oitura eta bizimoduaren adierazle direanak, eta bizi-modu mueta orrek Euskalerri osoan zabaldu eta indartzeko bidea baleuko berbak be modu berean zabaldu eta indartuko litzakez.

Or dozuez proba, pelota-joko, postura, eta euskal-jokoetan erabilten direanak eta mundu berezia daukienak.

Badagoz beste batzuk Euskalerri osoan sustraia daukon idea bat adierazten dabenak, baiña eremu batean berba bate-gaz eta beste eremu batean beste bategaz. Ez dudarik izan iñoz indar batasun-eragille sendo bat sortuten bada euskaldunen bizimoduan euren arteko burrukak izango dabezala berbok bakotxak bere kolore berezia eta ezarleku berezia artu arte, edo bata edo bestea, egoera txarragoan dagoena burrukan, erdi illik edo zelanbait baztertua gelditu arte.

Berba batean esan daigun, izkuntzan bizia daukien berba guztiak gizon arteko artu-emon, izakera, oitura eta aztura mue-ta bat edo bategaitik daukie. Bestela eleukie izkuntzan bizi-tzarik izango. Bakartadean dagoen persona bateri bein burura irudimen utsez etorritako amets bat izango litzake. Eta zelango eremua eta zabalerea daukien eta euki daben artu-emonok, izakerok, oiturok eta azturok, alango sustraia daukie berbak izkuntzan.

Eta jakiña, Europako kultureari be euskereari begiratuten deutsagun modu berean zuzenduten badeutsaguz begiak an be argi ikusiko dogu badagozala artu-emon, izakera, oitura eta

aztura bertako izkuntza-taldeen gaiñetik dagozanak, eta guk bere areikaz parte artzen dogu. Parte artze ori, gaiñera, gure borondatetik kanpo dago, berezko talde guztien izakera, oitura eta aztura aurrekoengandik artuak dagozan modu berberean.

Gaiñera, gaur egunean Europa bere lokarriak geroago eta geiago sendotu bearrean aurkituten da, gaurko gizona geroago eta gitxiago bizi leitekealako norbere mundu estuan, eta or dogu, esate baterako, aurrera pausu seguruagaz doan merkatu komuna, ondo dakizuen legez.

OITURA TXAR BAT

Gaur eguneko literaturan, eta baita zaarrean batzuetan, sarri ikusten dogu "edo" bat bere esangura jatorrizkoa galduerazorik erabilten dana. Sarri ikusiko dozue idazle batzuen lumatik edo sermolari bat baiño geiagoren aotik urteneko "edo" ori onetara: *oben edo pekatua, gaiztokia edo inpernua, autortzea edo konfesiñoa,* eta asko geiago. Jatorriz daukon zentzuna argi dago zein dan. Eztau esan gura berba bat edo bestea aukeratu geinkeala gauza bera esateko, ezpada berba baten esangurea edo bestearena izan leitekeala diñoguna. Adibidez: "Donostiara joateko, trena artu zeinke, edo bestela, ondo ezpajatortzu taxi bat". "Trenean edo taxian, gura dozun tramankuluan joan zeintekez". Baiña argi dago trena eta taxia eztireala bardiñak, biak dira txirrinkadunak, badaukie zelanbait alkarren antza, baiña eztira bardiñak. Ezta bardin jazoten beste "edo" orregaz. Esaten badogu: "gaiztokia edo inpernua zer da?", eztogu esan gura gaiztokia eta inpernua gauza diferenteak direanik, ezpada gauza bera esan gura dabela eta *gaiztoki* berbea ikasten dogunean *inpernu* berbea zetan erabili eztaukagula. Guztiok dakizue oitura orren jatorria orretan dagoela, ez bestetan. Ori berba biak burrukan imintea da bat galdu daiten asmoagaz, eta izan be sustrai sakonekoa. Eta jakiña, ori ezta batasunera jotea, zerren euskaldun guztiak ori egiten eztaben eta indarrik bere eztaukagun guztiak ori egin daien, eta bageunko be, zegaitik alperrik galdu gure indarrak eta adoreak olango uskeria batean? Lapurdi aldekoak, nafarrak eta beste alderdi batzuetako euskaldunak jaramonik egingo ete deuskue? Ez ete dira areik bere euskaldunak? Eta Bizkaian bertan bere ain errez galduko ete ditu sustraiak forma zaarrak. Bizkaian diñot, denpora asko eztala liburu argitaratu barri batean ikusi dodalako "edo" ori naikoa aldiz, eta ori dala-ta gogoan daukadalako.

Eta nik eztiñot inpernua gaiztokia eztanik, eztago dudarik inpernuan gatx asko dagoela Elexa Ama Santeak diñoanez, baiña gaiztokia eztago inpernuan bakarrik, mundu onetan be asko dagoz, eta bestela itandu edozeiñeri, batez be hospitaletan gexoak zainduten ibilten direan mojeri. Berba batean, inpernua gaiztokia da, baiña gaiztoki guztiak eztira inpernuak, inpernukoa gaiztoki nagusia bada be.

AZKENEKO ITZAK

Eta aipatu dan oiñarria dala-ta nik be esan gura dot nire eretxia. Gero emen Altube jauna ta Euskaltzaindiko jaun guztiak bildurik erabagiko dabe.

Euskal berba eta eratzat artu geinkezanak dira: Usarioa, sustraia eta zabalereagaitik izkuntzan bizia daukienak, datozan tokitik datozala, eta ainbat erabilgarriago dira literaturan, zeinbat eta andiagoa dan euren sustraia eta zabalerea denporan eta eremuan, beti gogoan izanik berbea zuzenduten deutsagun irakurle edo entzulea.

Alan da ba, Bizkaiko jenteari zuzenduten bagatxakoz ezteutsagu Xuberoako itz ezezagunakaz berba egingo. Gogoan izan bear dogu gaur Bizkaian euskera kontuan jentea eztala ikasia. Bere kulturea beste bide batetik jatorko eta guk berba egin bear deutsagu, oraingoz, Bizkaiko euskeran sustraia daukien berbakaz eta ezagututen direanakaz.

Europako kulturan bertako izkuntzen gaiñetik bizia daukien kultura ta zivilizaziñozko berbak euskeran onartuak izan leitekez baldin egoera onean badagoz gureganatuak izateko.

Artuten badogu berba bat gure bategaz burrukan dagoena, eztago arrazoirik artzeko. Bear danean bakarrik artu bear dogu.

Au diñot izkuntza arrunterako. Teknika gaietan —euskeraz idatzi be ezta egiten, baiña nozbait idatziko balitz— itz nazio-artekoak erabiliko litzakez. Ori izkuntza guztietan gertetan da. Izan be teknika gaietan espezialistetatik kanpo jente arruntak eztaukaz zetan jakin bear itzak, oso ezagunak eta zabalduak ezpaldin badira arrazoien bategaitik.

Orain esan gura dot zegaitik idatzi dodan Bizkaiko euskeraz nire itzaldi au. Olan idatzita nik badakit bizkaitar batek baiño geiagok, euskera kontuan ezikasia danak, baiña ikasia zelanbait kultura gaietan, euskalduna bada ulertuko deustala. Alan da guztiz be nik beste modu baten egin neikean. Baiña beste alderdi batetik begiratu ezkero, batasunari bape kalterik ezteutso egiten, gipuzkoar, lapurtar eta beste alderdietako jente ikasiak entzun edo irakurriagaitik, zerren-eta Bizkaiko

euskerea entzunik euskerearen beste mueta bat ezagutuko daben eta euskerearen espiritu osoa bereganatuko daben obeto, eta orrek ezteutso kalterik bape egingo batasunari, ez iñori. Batasunak, gaiñera, euskal-biziaren indarretik etorri bear dau eta ez aurretik esanik euskalki au edo bestea onartu bear dogula. Euskalki bat besteak baiño geiago finkatuten bada izan daitela berez, indar egiazkoaren bidez aurrera urten dauelako. Orainarte, oso aspalditik izan dira euskalki literarioak Euskalerrian, bat baiño geiago izan be. Eta gitxi gora bera batasun bidean ebiltzan forma bardiñak gauza guztietan ez izanagaitik, zerren-eta alkarren barri baekien. Nik esango neunke gaiñera, gaur baiño geiago ekiela alkarren barri.

Etorriko balitz iñoz euskalkiak nastuteko berezko indar eragille andi bat orduan sortuko litzakez problemak eta erabagiko, askotan berez. Indar ori orainarte zelanbait egon da neurri txikian. Esate baterako, beti izan dau indar geiago Gipuzkoako literaturak, eta Lapurdikoak geiago oraindiño. Eta len be Gipuzkoako eta Lapurdiko autoreen artean artu emon estuak egozan eta gauza batzuetan geroago ta batuago egozan. Eta ain zuzen be Duvoisin-ek verboan *dio* ta olango formak erabilten ditu, Gipuzkoako erara. Beraz, alegiñak egin bear doguz espirituko batasun sendo eta sakon bat billatuten, zeaztasun eta diferentzia berezkoeri kasu geiegi egin barik oraingoz eta berak eragingo ditu apurka apurka gaiñerako guztiak igarri barik.

A. Irigoyen.

Erquiaga-k itz egiten du eta dio euskal idazleak euskera ondo ikasi bear dutela, artez zeatz eta sakon. Beste izkuntzetan orrela gertatzen da. Itz jatorrak diranean eta batez ere bizi bizirik daudenean oriek erabili bear dira. Beraz Domingo Agirre era bateko euskal idazlea eta euskalduna naiago bear genduke izan Barrutia-rena baiño, atzo ikusi zan bezela. Dio, gaiñera, oraingo idazleak egokiago idazten dutela. Domingo Agirre-k euskeraz ederki zekiala erakutsi zigun. Barrutia-k erdera ere bazekiala. Eguzkitza ere aipatzen du. Dio nola Azkue-rekin ere aztuak bizi geran. Egin zitzaion gorazarrea eta orain urte bi esan zan nola Diputazioari eskatu bear zitzaion katedra bat jarri zezan. Dio eztakiala eskatu dan, baiña bein ondo entzuten ezpaldin bada berriz ots egin bear dala.

Maritxu Barriola-k diotsa Irigoyen-i autobusak izaten dituztela plaza mugatuak, eta ark erantzuten dio Bilbokoetan ezetz,

beti puntatik puntara beterik joaten dirala eta lendabizikoak artzen dutela ezarlekua eta besteak ez, zutik joan bear dutela.

Batzuk itz egiten dute erdi batera.

Irigoyen-ek aipatzen du ere Altube-k dion partizio semantikoa itzetan, bakoitzak bere tokia izan bear duela eta alkarrekin burrukan eztitugula jarri bear al baldin bada.

San Martin-ek dio nola Irigoyen-ek aipatu dituen problema orietan muga bat jartzen duen neurriak artuaz garbikeriarik egon eztedin. Eta mordollo tankera orri ere bere neurriak jarri bearrean gaudela. Badira itz jatorrak euskal errietan daudenak eta sarri aien orde erderatik sartu ditugun berriak erabiltzen ditugu. Esate baterako **kaballo** itza. Ta orain mutikoak Eibarren eztute euskerarik kalean egiten. Aiek egiten duten euskerak zenbait itzetan bide ontatik jotzen du, eta muga bat jarriko ezpagendu elduko gera aiek egiten duten erdera-euskerara. Orregatik malla bat derrigor jarri bear degu. Batez ere indarra emanik itz jatorrenai, ikusi gabe nondik datozten, non duten jatorria. Beste izkuntzak ere eztute begiratzen itzak nondik datozten. Izan ere izkuntza alkarrekin ulertzeko mintzabide bat besterik eztala gogoan izan bear degu.

Jose Luis Alvarez: San Martiñek dionarekin konforme nago. Nik uste det gauzak arrotu egiten ditugula beste aldetik artuko diralakoan. Esaterako Aita Zugasti-k uste du Irigoyen mordollozaleen alde dagoela eta nik eztet uste. Ala ere nik uste det mugak jarri bear zaizkiela danai. **Kaballo** itza esate baterako lokalismo bat da eta lokalismo berria.

Irigoyen: Bizkaiko autore zarrak **zaldi** idatzi dute eta badirudi or literaturak eutsi egin bear diola al badu. Baiña zabalduko balitz indartsu Euskalerri osoan **kaballo** itza, merkatuan arraza mota batek duen famagatik edo beste modu batez, titulu aundia artuko luke bere alde, geiago oraindik beste itzarekin partizio semantikoa egingo balu. Baiña ori benetako indar sozialaren bidez eta gure borondatetik kanpo gertatu oi da, bear izanak eraginda.

Mitxelena: Emen aztuta daukagu Euskalerri guztian eztala **zaldi** esaten. Euskaldun erdiak ia **zamari** deitzen diote orri. Ori ere aztuta daukagu.

Norbaitek: **Zaldi** ta **zamari**, biak.

Mitxelena: **Zaldi** ta **zamari** biak ez. Leku askotan **zamari** bakarrik. **Zaldi** eztute esaten. Beraz eztezagun uste izan euskaldun guztiak **zaldi** deitzen diotela.

Irigoyen: Nik, Bizkaiko euskeraz idazten dedanean ere **zaldi** idazten det. Gaiñera emen Bizkaian **kaballo** eguneroko izketan esaten dutenak **zaldi** itza ere ezagutzen dute.

Beraz, Bizkaian beintzat, nik eztakit beste toki batzuetan nola dagoen, bertakoak esango digute, Bizkaian beintzat burrukan daude itzok. Eta burruka erabaki badezakegu zarraren alde **zaldi** aterako da aurrera.

Oleaga: Bizkaian oitura andia da baso-zaldiari **zaldia esatea.** Baiña kalekoari, burdietan-eta dabizenari, orreiri **kaballoa** esaten deutsie.

Altube: Atzo esan gendun bezela emen ezin genitzake jarri oiñarriak baizik, eta oiñarrietatik kanpora gabiltza beti. Oiek danok eztira oiñarriak. Itz bat onela esaten dala?, bestela?

Itz jatorrak, zar zarrak, gurasoetatik ditugunak, berez orrexegatik bakarrik ditu bere tituluak. Titulua du zarra dalako, antziñakoa dalako, bere pixua du eta kontuan euki bear da. Erderatikoa izan eta erri guztiak darabillen itza baldin bada, sinpatia gutxi izango diogu, baiña ark ere bere pixua du. Orain jatortasunari eta zabalkunde oneri nolako neurritan begiratu bear zaion, ori gauza gaitza da eta ezin genezake batzar baten erabaki. Oiek Euskaltzaindiak eta gramatikalariak, ortan bakarrik ari diranak, zerbait esan dezakete eta geroko utzi. Orregatik diot Euskaltzaindiak eman dezaiola itz zarrai bere pixua, baiña zabalkundeari ere begiratu dezaiola, erderatikoa baldin bada ere. Askotan itz bik gauza berbera esan nai dute, baiña geienetan itz zarrak gauza bat esan nai du eta besteak badu aldakuntza zerbait. Ori ere estudiatu bearra da, partizio semantikoa. Oiek danok teknika gauzak dira eta ortan sartu bear dutenak asko ikasi bear dute, izkuntzetan zer egin dan, zer egin dan eta oker atera zaien, balio izan duen, gauza guzti oiek teknikuen gauzak dira. Eta nik uste det teknika Euskaltzaindiari utzi bear zaiola. Amabi lagunen artean-edo egin litezke teknikaz gauzak, baiña lagun askoren artean ezin liteke. Beraz, itz zarrai, zarrak diralako ta jatorrak diralako bere pixua eman beti. Asko zabalduta dauden gauzai ere Euskaltzaindiak eman dezaiola bere pixua. Oiñarri biok nik uste det danak ontzat emango dituzutela ¿ezta ala? ¿Danok eztituzute ontzat ematen?

—Bai jauna, bai.

Altube: Bada orduan bukatu dezagun.

M. Mugica-k dio gure erriak badakiala itz berriak asmatzen, eztala lelua, gaia ematen baldin bazaio ortarako. Arrobi ederrak daude gure euskeran. Baiña atera egin bear dira arriak ortik eta andik eta erriaren eskuetan ipiñi. Sarritan ikusi omen da material txarrakin ere itz ederrak atera dituala. Batzuetan parregarriak. Nork eztu ezagutzen **dominstiku** eta **auskalo** ere. Baiña orain duen material txarrakin euskera bere eskuetan lagatzea eztu uste egoki izango litzakeanik. Errezillen esaten dan esakera eder

bat esaten du, ala ere, material txarrakin egiña: **andari-fandango ibili.** Eztu uste itz ori galduko danik. Beraz bear da erriaren eskuetan gaia jarri eta izkuntza ederra egingo du.

Mitxelena: Nik gauza bat esan nai nuke. Alegia emen nik askotan ikusten dut erraioakin borrokan ari gerala. Esate baterako len jaun batek esan du, oso ongi esan ere, idazleak eztiotela gauza askotan erriari segitu bear, baizik bestera. Uste dut ortan asko ta asko konforme gaudela. Eta beste gauza askotan ere bai. Esate baterako, ni ez nijoa Domingo Agirre-ren kontra, eztakit besterik joango den, baiña ni ez nijoa. Baiña Domingo Agirre-ren kontra ez joateak eztu esan nai Barrutia-ren kontra joan bear dudanik. Nik uste dut Barrutiarena irakurri duena, eta nik nire kaltean irakurri bear izan nuen, nai ta ez aitortu bear duela oso ondo egiña dagoela eta euskal-teatroan oso gauza gutxi ditugula aren antzekoak.

Erquiaga: Asmoz bai.

Mitxelena: Asmoz eta egitez. Eztago ikusi besterik. Jakiña, or ezin diteke ezer egiztatu, or erakutsi besterik ezin diteke egin. Baiña nik esaten diot edertasuna ikusteko begiak dituenari irakur dezala berriz ere. Eta bi edo iru erderakada dituelako eztedilla geiegi aserra. Nik ori esango nioke edozeiñi. Orain beste kontua: emen gauza oso erreza omen da zein dan garbia eta zein eztan jakitea. Atso entzun nion San Martiñi ta oso ondo esana gaiñera. Askok garbia deitzen dutena zikiña deitu bear litzakeala eta bestera. Esate baterako, nik Zugasti jaunari galdera bat egin nai nioke. Orain dala gutxi agertu dan liburu batean, Santuen bizitzak, onelaxe agertzen da: **Martin donea, Paulo donea.** Ori jatorra al da, garbia al da?

Zugasti: **Donea** euskal-itza al da?

Mitxelena: Ori galdetzen dut nik. Zer derizkiozu?

Zugasti: Latiñetik datorrela, ezta?

Mitxelena: Nik eztut esaten nondik datorren. Ortarako Corominas-i edo beste bati galdetuko nioke. Nik euskaldun bati galdetzen diot euskal-itza den, eta ez nondik datorren.

Zugasti: Euskal-itza ez da baiña nik pozik ikusten det.

Mitxelena: Bada ori da euskaldun guztiak izan duten usarioaren kontra joatea, eta orain, gaur oraindik, euskaldun askok duten oituraren kontra joatea. Ori beti esan da **Jaun done Martin** eta oraindik euskaldun askok orrela esaten dute. Zergatik guk berritu bear dugu lengo oituraren kontra joanez? Garbia al da ori? Oraindik lapurtarrak **Jon done Martin** esango dizute eta Xuberotarrak ere bai, eta zergatik eztugu guk beste orrenbeste egiten eta zergatik jarri bear dugu berrikeri bat or?

Zugasti: Nik egiten det batzuetan **santu** erabilli era besteetan **done.**

Mitxelena: **Done** titulu bezala diojanean, erderazko «San Pablo» edo «San Martin» ori euskaldunak —Gipuzkoan bertan ere bai, Isasti-k bai baitakarzki— esaten zuten **Jaun done orrelako.** Ta oitura ori segi genezake nire ustez. Orixe-k orrela erabiltzen du askotan beintzat, besteetan **doatsua** jartzen du. Ori nola beste gauza den edozein modutara jarri diteke. Baiña **done** era orretara ezta beiñere euskeraz erabili azken urte auek arte. **Doatsu** bai. Orixe oitura orren aldekoa izan da beti, baiña jente askok eztio Orixe-ri ortan batere kasurik egiten. Nik uste det ortan eta gaiñerakoetan kasu egiten diogula bati edo besteari komeni zaigunean eta gaiñerakoetan ez.

Norbaitek: **Done** itzak esan nai du...

Mitxelena: **Done** itzak eztu ezer esan nai ezpaita euskeraz sekula **done** itzik izan azkenean norbaitek asmatu zuen arte.

Norbaitek: **Donibane.**

Mitxelena: Baiña izenetan.

Erquiaga: **donga** bizi bizi dago.

Mitxelena: Bai, gaiztoa. **Donga** eta **dontsua** aspaldidanik ikusia dagoen bezela **doe-gabea** eta **doe-tsua** esan nai du «sin don» «con don».

Aita Antonio Zabalari ematen zaio itza:

BERTSOLARIAK ETA EUROPAKO LENENGO GERRATEA (1914)

J1196-

(Gure erriaren literaturaren erakusbide)

Europak amaika bider erakutsi du sutan azkar asten dan sasia dala. Milla bederatzireun ta amalaugarrenean sutan asi zanean, bertsolariak etzuten gerrate ura bertsotarako gai txarra izan. Ez ditut, noski, jasoak izango orduko gai ontako bertso guztiak, bañan jaso ditugunak ere emango digute gaurko itzaldirako naiko izbide.

Etxea sutan duanaren biotzean badakigu zer izaten dan: naigabe garratza. Obeto erakusten du nork bere biotza auzoko etxea sutan ari danean. Gañera, egia esan, alde artako bertsorikan ez det oraindik nai añean bildu. Orregatik ez det Bidasoaz aruntz aldeko bertsorik aitatuko. Alde ontako bertsoekin izango degu naiko gai.

Idazle ta olerkariak omen dira nork bere erriaren biotza ondoen azaltzen dutenak. Ori egia bada, are egiago izango da bertsolariak dirala gure erriaren biotzaren ispillu. Orregatik ez det nere kolkotik itz askorik egingo. Zerok entzungo dezute bertsolariak diotena.

TXIRRITA TA I. R. T.

Beren buruak Frantzi edo Alemaniaren alde sartzen duten bertsolariak gutxiago dira iñoren alde sartzen ez dutenak baño. Bat edo bestearen aldekoak aitatuko ditugu lendabizi. Ta danen aurren Txirrita.

Getarian artu nuan lenengo aldiz Txirritak gerrari ipiñitako bertsoen berri. Baserriko etxekoandre batek bi bertso t'erdi kantatu zizkidan. Urrena, berriz, Igeldon, Don Fabian Loidi apaizak beste bi bertso kantatu. Orion bere gaztetan ikasi omen zitun, bañan bi besterik ezin gogoratu. Igazko udaran Errenterian eskuratu nuan papera bera, bañan paperak puska bat falta. Osorik arkitu nuan Naparroako Urdazubin arkitutako eskuz idazki batean. Aurtengo udaran berriz Berriatuan papera ostera ere azaldu, ta au osorik. Errenteriko papera Pasayan argitaratua dago, Berriatuko berriz Eibarren.

Berrogei urte igaro ta gero bertso oyen aztarnak ainbeste tokietara zabalduak arkitzen baditugu, pentsa bearko degu ortik nolako bolara izango zuten garai artan euskaldunen tartean.

Bertsoak gerratea bukatzerakoan jarrita daude. Guztiz Frantzi aldekoa azaltzen zaigu Txirrita. Berak ere frantzesa balitz bezela itz egiten digu. Eten gabe gu ta gu ari zaigu bertso guzietan.

Orra lenengo ta zortzigarrengo bertsoa (1):

Zori gaiztoan fundatutako
Alemaniyako gerra,
aixa nai zuten eskuperatu

(1) Emen aitatuta bertso batzuek magnetofonoz kantatu egin ziran. Ortarako bear zan lana Jesusen Lagundiko Inazio Larrañaga ta Vicente Zavala'k egin zuten. Milla esker.

gure erreino ederra,
oraindik ere bada Frantziyan
dirua eta indarra,
len zan bezela ipiñitzeko
izango degu biarra.

Aleman batek neri esana,
biyok geudela kafian:
Kaiser agintzen ikusiko da
laister Parisko kortian;
zepelinakin aidetik eta
submarinuak urpian,
disgusto asko eman digute
jun daneko lau urtian.

Orren Frantzi zale purrukatua Txirrita izatea nundik izan ditekean, ezin, oraingoz beintzat, antzeman. Badakigu Frantzian izandu zana, ez ordea zenbat denboraz, ez eta nolako bizimoduaz. Gero onuntzean bota oriekin etorri omen zan "Rotxildarrekin esposatzeko markesa" berak bertso batean dion bezela. Dana dala, Txirritaren bertsoen liburua ateratzen degunerako, sayatuko gera zeatz ontan ere argi egitera.

Bañan Txirritaren kontra azaldu zan aleman zale bat. Paperak onela dio: BERTSO BERRIYAK I. R. T'EK JARRIYAK. Ezin degu sumatu nor izan ditekean egillea.

Lendabiziko bertsotik aditzera ematen du Txirritaren kontra datorrena:

Bertso berriyen errespuestak
bertatik nai ditut kanta,
jendia ondo entera dedin
egiyak garbi esanta...

Bata bestearen parean jarriko ditugu ayen zenbait bertso, alkarren eztabida obeto ageri dedin:

Txirritaren bigarrena:

Beljikatikan galdetu zuten
lendabiziko pasua,
jakiñik nola zegon Parisa
andik bide erosua,
aitatik ere artuak dira
uste etzan erasua,
porrokatu ta puskatu zuten
naziyo txiki gaxua.

I. R. T.'ren bigarrena:

Diyozutenez Beljika ori
izanik orren txikiya,
aundiyaguari onez onian
zertan ez utzi tokiya?
gañera berak tiroka ekin,
erantzuera propiya.
istoriyetan azalduko da
galtza oyen aroakiya.

Txirritaren irugarrena:

Ogei ta amar milla milloiko
asi zitzaigun eskaka,
otso gaizto bat zirudiyela
artaldiari oskaka,
General Foch'ek bialdua da
Holanda aldera eskapa,
orain lau urte ainbat erronka
garai onetan ez dauka.

I. R. T.'ren irugarrena:

Ogei ta amar milla milloiko
omen zituzten eskatu,
frantzesak esan omen ziyoten
etzutela nai prestatu,
General Foch'ek ezpatarekin
Kaiser omen du sustatu,
jartzen dituzten gezurrarekin
batek biar du naskatu.

Txirritaren bostkarrena:

Beren joera Paris aldera
egin ziguten aurrena,
ango esiyak artu zituzten
Berdun'a berriz urrena,
sei illabete sutan pasa ta
etziran sartu barrena,
ez da andikan gustora juana
Kaiser'en seme zarrena.

I. R. T.'ren bederatzigarrena:

Frantzes oriek pentsatu zuten
Berlin'eraño joatia,
Alemaniko fronteran laster

jarri ziyoten topia,
neri gizon batek esan didanez
larri ibilliyak tia,
Burdeos'era Paris'tik azkar
eraman zuten kortia.

General Foch da Txirritak geiena goratzen duan gizona. Orra bere laugarrengo bertsoa:

Amorratuak ziruditela
etorri ziran Frantziã,
orain esaten errezago da
orduko gure trantzia,
General Foch'ek eman diyote
uste etzuten partxia,
mereziko du diamantezko
estatua bat jartzia.

Txirritaren erronkak beratzeko bi arrazoibide sumatzen ditu I. R. T.'ek. Bata, ez dutela Alemania galdu etsayen armak, baizik barrengo naspillak. Bestea, frantzesak eta bere lagun danak pikutara bialduak izango zirala Amerikatik laguntza etorri ezean, ta orregatik ez dutela zergatik burua arrotu.

Rompe cabezas jarko dizutet
nai dezutenak pentsatu:
zeñek soñua jo duen eta
zein nola diran dantzatu;
Prusianuan ejerzitua
ez dute arman bentzutu,
Alemaniko sozialistak
diruz dituzte gaintzutu.

Balientien itxura egiten
orain zertako dabiltza?
ez al dakite noiz artu zuten
lendabiziko paliza?
ruso, belga ta franko inglesak
baizik izan ez balitza,
oyengatikan bi urte ontan
sartuak ziran Parisa.

Txirritak goratzen ditu amerikanoak ere. Orra nola dion bederatzigarren bertsoan:

Zepelin zarrak bonbaz betiak
goiko oroyan tartian,
millaka minak itxasoan da

submarinoak urpian,
oyek sumatzen ibilli dira
berrogei ta lau urtian,
Kaiser Paris'en ez da sartuko
Wilson bizi dan artian.

I. R. T., berriz, ez da amerikanuekin geyegi fiatzen. Orra nola dion amargarrenean:

Imposible da, frantzesa ez da
burutik oso sanua,
yankia bere alde artua
etorko zayo damua,
legorrian da itxasuetan
botia dauka amua,
Burdeos'tikan Hendaya'ra arte
laister amerikanua.

JOSE GARMENDIA

Jose Garmendiak jarritakoak Altzan arkitu nituan. Paperak ez dakar iñoren izenik, bañan Txirritaren illobenean eman zidaten egillearen izenik: Jose Garmendia, Arrues baserrian jayoa.

Gerra zale guzien kontra dira lendabiziko bertsoak. Gero ere aitatuko ditugu bertso auek ta obeko degu gañontzirako bertsoaz mintzatzea.

Zazpigarrenetik amabigarrenerañо Beljikaz itz egiten du. Ez du ontzat artzen Alemaniak Beljikakin egindako lana. Orra amargarrenak nola dion:

Lieja ta Amberes,
Brabante ta Namur,
oyek jo zuten lur,
lengo oñian jartzen
ez da oso samur;
emen egiten zayo
gaiztuari agur,
ona kastigatzeko
iñor ez da beldur,
askoren Jaungoikoa
alemana da gaur.

Urrengo bertsoetan Frantzi ta Alemaniaren arteko burrukak aitatzen ditu. Emen ere ez Alemaniaren alde. Orra amabostgarrena:

Adelantu oyekin
orrenbeste lagun,
esaten zan ordun,
ura detenitzeko
horajia nork dun?
jendia berriketan
etzan gutxi jardun,
Martxuaren seirako
kendu bayetz Berdun,
oraindik ez da sartu
ez dakigu zer dun.

Urrena berriz Inglaterraren txanda. Gogor xamar erasotzen die inglesengatik gaizki esaka ari ziranai. Orra emeretzigarrena:

Neronek aditu det
gizon askokgandik:
ingelesak lan dik,
mokadurik onena
alemanak jan dik;
milla metro batzuek
gora juan andik,
Londres'en bota arren
bomba zepelindik,
ez dute irabazi
gerr'ori oraindik.

Urrengo bertsoetan —ogei ta bi dira guzira— naspil artan sartu ziran gañerako nazioak aitatzen ditu, ta azkenengoetan ainbeste gizon iltzeaz artzen duan miña azaltzen du.

Bertso auek jarri zituanean, Jose Garmendia onek etzuan asko pentsatuko bera ere soldado gaixo aien gisa il bear zuanik. Donostira etortzen omen zan lanera, ta republikako istillu aietako baten langille ezkertar batek aiztoa sartu omen zion bizkarretik. Kolpe artatik il omen zan.

ENBEITA

Enbeitak ere badu bertso sail bat Beljikaren alde. Or nunbait aldizkari batean argitaratua egongo da. Nik ezagutzen det Soraluzen eskuz idazki batean arkitu nuan modura. Bertso guztiak ote dauden edo ez, ta itz aldaketarik izan duten, orra nik ez dakidan gauza. Alare ez det utziko bertsoren bat aitatu gabe. Orra bigarrena:

Ai ene, ai, Beljika, Beljika,
otsuak dautsu aginka
zeure zeuria zan artaldeko
ardi ederrak aneika
ondatu dautsuz, txabola aurreko
esi guziyak autsita.

ODOL IXURTZEAZ NAIGABEA

Ontaz aurrera aitatuko ditugun bertsolariak ez dute beren burua iñoren alde sartzen, len esan degun bezela. Auzi ortan nastu gabe, gerra onek eman zien naiko izbide.

Gizonak pillaka iltzeaz artzen duten naigabea da geiena darabilkitena. Esate baterako, sentimentu ori zugaitzaren enborra da, ta gañerako sentimentu danak adar ontatik erne diran adar, txorten ta ostroak.

Banaka aitatuko ditut bertsolari danak, naigabe ori nola agertzen duten aditzera emanaz. Gañontzirako asmoai onen ondoren elduko zaie beren txanda.

JUAN JOSE SARASOLA, «LEXO»

Bera da gerra oni bertsorik geiena atera ziona. Bi alditan atera zion: Bata naspilla asi ta denbora asko gabe; bestearen urtea berak esaten digu lenengo bertsoan:

Iya emeretzireun
da amasei urte
ez dira aparte...

Juan Jose Sarasola au Donostiko Antiguako kalegarbitzallea izandu zan. Ez-izenez "Lexo" esaten zioten Lezoko baserri batean jayoa zalako.

Lendabizi atera zuan paperak ogei ta bi bertso ditu. Oyetatik lenengoa oso ederra da. Orra nola dion:

Emeretzireun urte pasa ta
gañera amalaubian,
turmoi nastua formatu da ta
izarrak triste gaubian,
egunez goibel kolore txarra
eguzkiyaren parian,
malkua eta odol putzua
nork daki zenbat bidian,
kanpuan dagon naigabe ori
kutsatuko da gurian.

Ontan ere ezagun du "odol putzuaz" sentitzen duan samiña. Bañan ikusi dezagun samintasun ori bere gañerako bertsoetan. Orra bigarrenean zer dion:

...orain ainbeste odol ixurtzen
bada denbora luzian,
anima salbo jarriko gera
pizti gaixtuen klasian.

Bostgarrenean:

...baporiakin urperatua
zenbat ingles ta aleman,
difuntu oyen garbitasuna
guk ez dakigu nola eman.

Amaikagarrena:

Batallarako balientiak
nai lituzteke aukeran,
eritzen diran gizarajuak
urrikaltzeko tankeran,
trena betia daramazkite
bakoitza beren pronteran,
Jainkuak daki bidian illa
zenbat izango ote dan,
zeñek berenaz pentsa dezagun
mesede edo kalte dan.

Ederra azken bertsoa. Lenengo bertsoaren tankeran egiña dago.

Turmoi nastuko denboralia,
jarririk ipar goxua,
izar ederrak tris tris egiñez
egon liteke jasua;
Bati berenik bear diyogu
satisfaziyo osua,
pake santuan jarri gaitzazu
Aita amoriyosua,
legor gañian ez genduke nai
odolezko itxasua.

Nere iritzian munduko edozein antologian agertzeko modukoa da bertso onen bukaera:

...legor gañian ez genduke nai
odolezko itxasua.

Bigarren aldiz jarri zituan bertsoetan ere badago gizon illagatik samintasun pranko. Orra seigarren ta amargarrenaren bukaera:

...kulpa gabe askori
kentzeko biziya
enredatu dalako
Europa guziya.

...errespeto obera
nai genduke iza,
matantzan ari gabe
salbajien gisa.

Amazazpigarrena nere iritzian onena:

Aurrak ogi eskian
amaika zokotan
negarrezko kantan,
bere aitonaren da
amonaren kontran,
ama semerik gabe
orrelako plantan,
emazte triste asko
senarraren faltan,
enbaliyua franko
bizi diranetan.

Len esan deguna, Juan Jose Sarasola au izango da gerrari bertsorik geiena atera ziona. Bañan ez det uste bestela ere izango danik Lexo onek ainbat bertso jarri zuan bertsolaririk. Naiko lan beintzat. Gero ta lodiago jartzen ari zaigu bere bertso paper pilla. Oraindaño berenak bildu ditugunak ez dute millakoa osatzeko asko falta.

Ez da urte asko il zana. Bere alabak esan zidanez etzeukan idazteko bate erreztasunik, ta bere bi alabaz baliatzen omen zan lan orretarako. Ta orduan beraiek idatzi ta moldiztegira eraman gabeko paper batzuk eskuratu zizkidan. Bede aitaren bizitzaren berri asko eman zidan. Lexo onen liburua antolatzen degunerako utzi egin bearko ditugu.

Bañan bere euskeraren aldeko lanaz ikasbide ona eman zigun kale garbitzalle onek. Bere bertso liburua ateratzean, bera izango da, nik dakidanez beintzat, mundu guziko kale garbitzallietan liburu egille bakarra.

A. JARRIYAK

"Bertso Berriyak A. Jarriyak", onelaxe dio igazko udaran Errenterian arkitu nuan gai ontako bertso paper batek. Ez dakigu egillearen beste berririk. Onek ere ixuritako odolak ematen dion miña du sentimenturik ageriena.

Orra nola dion bosgarrenean:

...gizon illak daudela
bidiak betian,
gure anayak dira
erruki gaitian.

Bosgarrenean:

Mediko batengandik
ala det aditu,
odolezko errekak
dutela korritu...

Seigarrena osorik:

Zenbait amaren seme
utzi du biziya,
famili askorentzat
au da desgraziya,
erregutu dezagun
al degun guziya,
Jaunak aplaka beza
bere justiziya.

Zazpigarrenak Ama Birjiñarentzako erregu batekin bukatzen du:

Aurtxuko inozentiak
gurasorik gabe,
miseri askorekin
gelditu dirade,
biyotza partitzen da
oroitzian ere,
Birjiña Lurdeskua
egin zaitez jabe.

Oso asmo ederra du zortzigarrenak:

Gure Jesukristoren
odolak kostiak
nola aleman eta

orobat bestiak,
pena ematen digu
orla ikustiak,
gauza onik ez dakar
munduko nastiak.

Amaikagarren bertsoan Guadalupeko Amari erregutzen dio ta Jaizkibel-peko erriren bateko izango da, dudarik gabe, egillea.

PEDRO TOLOSA

Aurtengo udaran Aita Riezuk eskuratu zidan Aita Donosti zanak bilduta zeukan bertso paper sorta bat. Ayetatik paper bat gerrate onen gañean, ta aren egillea orduraño ez ezaguna zitzaidan bat: Pedro Tolosa.

Bertsolari onek ez du ildako gizonengatik naigabeaz beste sentimenturik adierazten.

Orra lenengoaren ta bigarrengoaren bukaera:

...beste bi urtez segitzen badu
gerra txar onek aurrera,
arren balentzat ainbeste gizon
mundu onetan ote da?

...berak ez dute bentaja aundirik
auzokuarentzat kalte,
gelditu asmorik apenas dute
azken gizona il arte.

Laugarrena:

Martiriyoa guretzat dator
egunetik egunera,
allegatutzen utzi nai ezik
Jesukristoren legera,
gizonak sano etxetik artu,
balakin il da lurpera,
asko kosteak bagiñan ere
franko merkatzen ai gera.

Nik beintzat ez dakit iñork adierazi izan dunik gerraren mamia bertso onek baño itz gutxiagoetan ta zorrotzagoetan:

...gizonak sano etxetik artu,
balakin il da lurpera.

Seigarrenean diona:

...mundu onetan egin azi du
gizon bakantza ederra,
zenbait famili ondatu duen
au zori gaiztoko gerra.

Garratza da zazpigarrenaren bukaera:

...modu onetan biziya uztekoz
jayo ez bagiñan obe.

Bederatzigarrena osorik emango degu:

Orra lau urte gerran irago
eta bosgarrena aurki,
bitarte ontan zeinbat diraden
illak Jaungoikuak daki,
projimoaren odolik oyek
apenas dute erruki,
jendia asko bazegon ere
bakandu dute ederki.

Amabigarrenaren bukaerak antza piska bat badu Jesukristok fede gabekoengatik esan zuanarekin:

...ardi bakarrai nola otsua,
gallendua da etsaya,
artalde dana ondatu gabe
zuzen gaitzazu, Artzaya.

JUAN ETA PELLO ZABALETA

Errenteriko bi anaiak ziran. Bizi da oraindik Pello. Bein baño geiagotan jardun izan naiz berriketan Pellorekin eta ez nere kaltean. Oraindik ez dio bertsotarako griñari utzi. Joan daneko illean bertan bialdu zidan bertso sail bat berak atera berria. Izenburua dute "Bizi modu garratza", ta gaurko munduaren tankeraz egi eder pranko esaten dio entzun nai duanari.

Juan, bere anaia, il zan. Orra zer esan zidan bere alargunak itz egitera joan nintzaionean eta nere asmoa adierazi nionean: "Jesus! Amaika aldiz esaten zun gure gizonak: Ez diezute orain bertsoai kaso aundirik egiten, bañan egunen baten ibilliko zerate bertsoen atzetik. Ez gaitu orain ikusten".

Bi anaien bertsoekin liburu bat osatuko degulakoan nago. Ikusi dezagun orain odol ixuriaren samiña nola adierazten duten. Orra irugarren bertsoan:

Etsai gaiztuak parte artuta
dabiltzalako mediyo,
Europa triste ontan ixurtzen
da zenbat odol irriyo...

Zortzigarrena:

Mundu guziya arriturikan
dago begira jarriya,
ikusirikan odol ixurtze
aundi ta negargarriya,
zenbat guraso triste ta semek
utzi du bere biziya,
pozgarriya etzan izango ayen
azken orduko antziya,
gerra gauz onik ez dakarrela
artu dezagun etsiya.

Bederatzigarrena:

Iru urte ta lau illabete
pasiak gerr'ori asirik,
makiñatxo bat il da, gaur egon
biar zutenak bizirik,
santa sekulan ez da izandu
onlako odol ixurtzerik,
penaren penan indarrarekin
biyotza erdibiturik,
pakian billa guazen guztiyak
gerra alde bat utzirik.

Azken bertsoa ere ezin ekarri gabe utzi:

Egunen batez Josafat'eko
zelayan Juez justuak
onak beretzat artuko ditu
Luziferrentzat gaiztuak,
erruki zaizkit gerra ortan kulpa
gabe iltzen diran gaxuak,
ortaz erregu arren Jesusi
zabaldurikan besuak,
oroipengarri para dituzte
Juan eta Pellok bertsuak.

FERMIN IMAZ

Fermin Imaz lagun aundia izandu zan Txirritarekin bolara batean. Alkarrekin para zuten "Kantabriako itxas gizonai oroipen bat" deritzaion bertso papera, milla bederatzireun eta amabigarren urtean itxasoan gertatu zan naigabe negargarriaren gañean. Errenterian beintzat bertsolari biak aritu omen ziran bertso oiek kantatzen ta saltzen.

Bañan beren adiskidetasuna etzan betikoa izan. Asarretu ziran alkarrekin ta alkarri jarri zioten bertso gogor zital pranko.

Fermin Imaz'ek Europako gerrari atera zizkion bertsoak iru argitaratze izan dituzte, nik jaso dedanez beintzat. Lau urtean iru aldiz ateratzea marka polita dala derizkiot. Ixuritako odolak ematen dio oni ere naiko min. Orra lenengo bertsoaren azkena:

...mundu guziyan gerra kontua
besterik ez da aditzen,
zenbat aur gaixo aitarik gabe
ote dirade gelditzen.

Bigarrena:

Aur koitaduak ez bakarrikan
gañera ainbeste ama,
pauso bakoitzan gogoratuaz
beren senarrarengana,
laguntza nai ta laguntzarik ez
gaxuak daukaten lana,
sinistatzen det gauz ori oso
tristia izango dana,
oitzaz erruki liteke bate
sentimenturik duana.

Irugarrena:

Negarrez eta desditxan dabil
Europako partia,
ondo goguan izango dana
ori asi zan urtia,
ondarra baño ugariyago
bada jendia botia,
berak zanpantzen duten lurra're
illez odolez betia,
jakin nai nuke nola izan dan
askoren erematia.

Seigarrenaren puska bat:

...orain artian bezela aurrera
biar badute segitu,
naziyo oyeri gertako zaye
jenderik gabe gelditu...

JOSE GARMENDIA

Komeni zaigu Jose Garmendia gizarajoa atzera ere aitatzea. Onek ere poliki erakusten du darabilkigun naigabe au. Orra bere laugarren bertsoa:

Gerra komeni bazan
orra etorri da,
gogor ari dira,
jendia bakandutzen
lautatikan bira,
zer dan ez dakitela
dadukaten ira,
ainbeste milloi gizon
alkarri begira,
beste lanikan gabe
kargatu ta tira.

Bertso ontan ere ez dago gaizki adierazia gerraren mamia:

...ainbeste milloi gizon
alkarri begira,
beste lanikan gabe
kargatu ta tira.

Ta orrelako lana len esan duan beste arrazoirik gabe:

...zer dan ez dakitela
dadukaten ira...

Ikusten dezutenez, emen aitatu ditugun bertsolariak Jose Garmendia au ez beste danak bate zalekeririk ez dute. Danak esan dezakete beren buruagatik Xenpelarrek ziona:

Ez naiz ni gerraren zale,
baizik pakearen alde...

Gerrak ez die odola ta eriotza besterik ekartzen burura artaz oroitzean.

Nik gogoan dedanez beintzat, etzan alakorik gertatzen gure inguruan azken Europako gerrate denboran. Gurean gerrik sortu ez bazan ere, bazan itzetan naiko gerra gure bazterretan. Nork bere gogokoak irabaztean poza, ta galtzean miña. Ta galtze ta irabazte oiek ixurtzen zuten odolari ez genion ajola aundirik ematen. Urri ziran, odol ori beste edozer bañon aurretik jartzen zutenak.

Gure erriak, lengo gerratean beintzat, txik bestelako biotza erakutsi zuan, ikusi degunez. Biotz ona ez ezik, biotz zuzena ere bai, pasioz ta zalekeriz okertu gabeko biotz zuzena. Ta etziran motzak bere buruak asmatu zitun arrazoibideak.

Are ederragoa da bertsolariak ematen diguten ikasbidea, konturatzen bagera Alemaniaren edo Frantziaren edo besteren izenik ez dutela doi doi baizik aitatzen. Pedro Tolosa, Fermin Imaz ta Zabaleta bi anaiak ez dute bein bakarrik ere iñoren izenik aitatzen. Ez dute ikusten ixuritako odolaren gorria besterik.

Esan bezela, Zabaleta anaiak ez dute nazioren izenik sartzen, bai ordea Europarena naiko aldiz, baita ere onen egoera negargarriaz itz tristerik egin. Arritzekoa da, bañan badirudi oraingo zale oitako bat ari zaigula izketan.

GERRATEAN SARTZEKO BILDURRA

Bertsolari geienak bildurrak daude Españira era zabalduko ote dan Europako naspilla. Geiegi ari naiz luzatzen, bañan laburrean bada ere ez det bildur ori azaldu gabe utzi nai.

Orra A. Jarriyak deitzen diranetan bederatzigarrenean:

...gerra izugarriya
bukatzen ez bada
denboraz guregana
dator gauza bera.

Fermin Imazen laugarrenean:

...al balitz libre nai genduke guk
orlako negar tartetik,
Jaun Zerukua, lagun zaiguzu
zuriak geran partetik.

Amargarrenean:

...bildurrak nago Ezpañiya're
sartuko ote dan soziyo,
ez kortian dauden gizon batzuiri
laguntzen baldin bazayo.

Amalaugarrenean:

...naigabe ori ez dediyela
al bada sartu gurian,
Jaun Zerukuak jarri gaitzala
pake santuko birian.

Len aitatutako Lexoren bertso baten azkena:

...kanpuan dagon naigabe ori
kutsatuko da gurian.

Zabaleta anaien irugarrenean:

...salsan sartzia obe degula
askori aditzen zayo,
len sobra gerra daukagu bertan
or sartu gabe zoziyo.

BIZIMODU LATZA GERRAREN ONDORENA

Bertsolari asko kezkaz daude bazterretan miseri gorria zabaltzen ari dalako, gerrate ori dala ta. Ez da arritzekoa. Bertsolariak ez dira aberatsen tartean sortzen da...

Orra A. Jarriyak deitzen diranen amargarrenean:

Gure Ama maitia,
erruki zaitia,
ekusi ez dezagun
emen gosetia...

Amaikagarrena:

Pobre jende guztia
dago penatua,
nola baserri eta
ala kalekua,
lanik ezin billatu
falta jatekua,
lagun zaiguzu, Ama
Guadalupekua.

Amabigarrenean:

...pobriarentzat lana
sortu dedin emen,
ala gerta dedilla
Jesusekin amen.

Fermin Imazen amairugarrena:

Lanetik biar duan guziyak
iñun ez dagola diyo,
ta jateko gauzak preziyuetan
egin zaizkigu gora iyo,
pobre gaxuak sufritzen gaude
gerra ori dala mediyo,
orrengatikan ezin duenai
beti negarra dariyo,
gure munduko bizimoduak
ez du askorik baliyo.

Sarasolak lenengoz jarritako irugarrena:

Españiyako partiduari
kontu zayogun lenbizi,
tallerrak eta komerziyuak
begira geratu asi,
fabriketan ta leku askotan
kanpotarra da nagusi,
bertan diranak lanikan gabe
miseriyaren igesi,
gure erreiñuak ortarañoko
burlarik ez du merezi.

Zabaleta anaien laugarren bertsoa:

Gerr'ori dala mediyo dago
gauza guziya garezti,
len erdi ipurdi bizi giñanak
gaur nola zenbat famili!
aur txiki asko balin baditu
ayek mantendu ta jantzi,
nola egin ezin pentsaturikan
jarriya gau ta egun beti,
pobre gaxuak azkenerako
kobratutzen du ederki.

Bosgarrenean:

...lenago amar baliyo zuen
gauza, orain ogei kendu,
tamaña orretan gu bezelako
pobria nola mantendu?
alare ontan geradenian
egon gindezke kontentu.

GERRAREN KULPA DUTENAK

Bertsolariak gogor mintzatzen dira gerra piztu dutenen kontra, ta penaz aitatzen bate kulparik gabe gerra ortan iltzen diranak. Nunbait ez da azken gerratean lenengoz asmatua "criminales de guerra" deritzaion auzia.

Orra Sarasolaren zortzigarrena:

Pikaro batek nai duben arte
beste askoren biziya,
gauzak itxura duben bezela
ez da gezurra guziya,
asesinuen deskalabrua
orrek eragin aziya,
ondorenguak galtzen dabillen
milla diabruaz josiya,
zori gaiztuan gastatuko du
len gaizki irabaziya.

Orra Sarasolak berak zer dion amabigarrenean:

...oraingo ori diferente da
lengo gerrate zarretik,
kulpa gabeko makiña batek
pagatuko du larrutik.

Orain Zabaleta anaien zazpigarrena:

Zori gaiztoko gerra europe au
lenbizi piztu zuana,
onezkergero damutu zayo
etzuala egin gauz ona,
amaren seme ederrik bada
kulparik gabe il dana,
oyen animaz erregutuaz
guazen Zeruko Aitana,
eskatutzera arren jartzeko
pakian Europa dana.

Fermin Imazen bosgarrena:

Europako gerra gaiztua
sortua zori gaitzian,
akabatuko dala uste det
gizon geyenak aitzian,
biyotz guziya erdibitzen zait

ori pentsatzen jartzian,
inozentiak aurrera bota
kulpa dutenak atzian,
goiko Juezak aztinduko'itu
bere eskutik artzian.

Zorrotza da oraingo aurrerapenai zazpigarrenean sartzen dien ziria:

Nola itxasoko ta legorreko
aideko elementuak,
ojala danak berriz ostera
baldin baleude kenduak,
mundu guziya ikaratzen du
gaur dagon armamentuak,
a or zertaño ekarri gaitun
gizonaren talentuak,
kulpik gabiak iltzeko dira
oraingo adelantuak.

Amalaugarrenaren asiera:

Parte gaiztuak dabilz itxasoz,
legorrez eta aidian,
oyengatikan auskalo zenbat
inozentiak il dian...

GERRAREN JATORRIA

Gorrotoaren jatorritik omen dator gerra. Ala diote bertsolari danak edo geienak. Erakusbide batzuk beintzat jarri bearko ditut:

Zabaleta anaien lenengoan:

...ikusten danez alkarrengana
gaude gorroto biziyan...

Bigarrenean:

...gauz onik ez datorkigula
egon gindezke etsita,
bata bestiai barka zayogun
gorroto danak utzita.

Amabigarrenean:

...gerra edo guda dakar mundura
elkar ezin ikusiyak...

Bañan auetan gogoangarriena da Sarasolak diona:

...ez ondorenguantzat
gorrotorik utzi.

Itz auekin bukatzen ditu bigarren aldian jarri zituan bertsoak. Etorkizunaren berri bazuala dirudi.

AITA SANTUA

Erromako Aita Santua ere izendatzen dute. Artaz esaten dute oraindik ere il berria degun Aita Santuaz esan ditekeana: etzala alake istillu gorririk sortu izango, aren esanetara geren burua zintzo jarri izan bagendu.

Orra Sarasolaren ogeigarrena:

Amabosgarren Benediktoren
ordenamentu berriyak,
konbeniyua nai lukiala
ondo gaude igarriyak,
errege danak esku emanaz
probintzi eta erriyak,
lenago baña lege obiak
izan ditezen jarriyak,
au egin arte luzatuko du
naigabe izugarriyak.

Fermin Imazen amaikagarrena:

Jaungoikuaren ondorengua
Aita Santua izanik,
errege oyek ez dute egin nai
batere bere esanik,
zein da ori ainbat pakia egiten
sayatutzen dan gizonik?
nik ez det uste arrazoi ortan
deskuidatutzen naizenik,
baldin gauz ori logratze'ez bada
ez datorkigu gauz onik.

Oraindik ere badituzte bertsolariak beste asmo gogoangarri batzuek, bañan utzi bearko ditugu.

AZKEN ITZAK

Gure gaurko saioa bertso berrien zentzua erakusteko lain izan dala derizkiot. Gazta nolakoa dan jakiteko aski bai da

aren puskatxo bat jatea. Orregatik eman diot nere itzaldiari entzun dezuten bigarren izena: "Gure erriaren literaturaren erakusbide". Izan ere, ematen digu zer ikasirik.

Lendabizi, bertso berrien literaturaren zabaltasuna. Ez degu gaur bertsoen baratzaren baztertxo bat baizik artu. Bañan besterik gabe ere pentsa genezake baratz ontan aukera ona dagoala, aztertu degun baztertxoa ain ugaria izanik.

Urrena begiratu bear diogu literatura onen balioari. Aitatutako bertsoetan azaldu diran asmo, bururazio ta sentimentuak ez dute iñoren aurren agertzeko lotsik, ez diote ere iñungo gerra artako idatzi geienai inbiriarik edo zorrik.

Bertso auek erderara itzuli ta edonungo izkeran azalduko balira, etziran iñolaz izango gure izenik lotsatzeko, goratzeko baizik.

Gerok ere bertso zalegoak izango giñake, guk nai bezelako euskeran baleude. Bañan gauz onek baditeke iztegiari zeozer kentzea, bañan asmoen ta sentimentuen balioari ez dio ezer ere kentzen. Orregatik, ortan oztopo egin gabe, danok sartu bear genduke baratz ontan. Etzaigu sartua damutuko.

Bañan ikusi dezagun zer eman zuten bertsolariak azken Europako gerratean. Ezer gutxi atera zuten. Egia esan, azken gerrate denboran etzegoan bertsotarako lenengoan bezelako girorik. Bañan, dana dala, bertso gabezi ori ikusita, ez du iñork esango indar berritzen ari zaigula bertsolaritza.

Bañan bertsolaritzari indarrak urritzen ari zaizkiola ikusteko badago beste ezaugarri bat. Arritzekoa da nolako gai biziak artzen zituzten bertsolariak garai batean. Gai biziak artu ta bizi arabilli. Orain ikusi egin degu erakusbide polita. Orain berriz gutxitan bertsorik jarri, ta jartzen diranean ere gai motelak artu.

Ori gertatzen da, nere ustean, euskerak gero ta indar urriagoa duala lanik egiteko. Esateak ere ez du poz aundirik ematen, bañan nork esan gezurra danik?

Emen aitatu ditugun bertsolariak beren buruaren indarraz asmatutako irizbide sakon bat erakutsi dute. Nunbait lepoaren gañetik bururik badute, ta txapela eramateko ez ezik pentsatzeko ere balio du buru orrek. Gutxi ajola dio ez beti irizbide batera elduak izatea. Nere ustean obe ortan ageri bai da nork bere bidetik egiten duala pauso buru lanetan. Naiago nuke gu danok ere geren euskal saioetan orrenbesteraño iritxiko bagiña.

Bañan bukatzera noa. Euskerari eutsi nai badiogu, bide berririk ebaki ez ezik, bear bearrezko degu lengo bide zarrak

len bezin garbi gordetzea. Ta bide zar guztien tartean bertsoak euskal biderik zabalena. Zoritxarrez naiko sasiz ta belar gaiztoz bete zaigu geren zabarkeriz.

Bilbao ontan asiak dira bide ori garbitzeko lanean. Lan ederra artu dute, alajaña, beren kontura, bañan etzaie artua damutuko. Lengo bertso zarrak artu ditzatela oraingo bertso berrien ikasbidetzat. Bertsoetan ezer gutxi dago berritu bearrik, asko ordea indartu bearrik. Jaungoikoari nai dakiola Bilbao ontan bezela Euskalerri guzian saiatzea.

Nere aldetik aleginduko naiz bazter zokoetan dauden bertso ondasunak jasotzera. Berriz ere eskerrik asko lan ontan laguntzen didaten guziai. Orain arte bezelako borondate ona izan dezatela aurrera ere.

Orrela, danon artean indar berrituko degu bertsolaritza, ta ez degu esan bearrik izango arek bere onenak eman zituala.

Besterik ez.

1958'ngo Abenduaren 11'an

Antonio Zabala, S. J.

Aita Zabala-k bukatuta Mitxelena jaunari ematen zaio itza. Leendabizi adierazten du Arrue jaunaren partez ezin etorri izan dala Madrilera joan bearra zeukalako eta dio ere Irigaray jaunak esan zuela, etorriko zala aal baldin bazuen, baiña eztala agertu. Ala ere lana bialdua dauka. Itzaldia asten du.

51209

EUSKAL-ITZAK ZEIN DIREN

Bere itzaldian leendabizi dio zerk bultzatu duen autatu duen gaia autatzera. Alegia, euskal-itzak zein diren. Eta gero Larramendi aipatzen du, bere nortasuna, eta euskalari eta euskal-izkribitzaille zan aldetik zeuzkan usteak eta aien arrazoiak. Dio euskal itzetan zeuzkan teoria asko ezirela euskaldunentzat egiñak, kanpokoentzat baizik. Berak aieri erakutsi nai zien euskera gai zala edozer gauza esateko. Eta gai zala edozer gauza esateko erderatik artuak etziren itzekin. Botikario askok egiten duten bezela Larramendi-k etzuen berak saltzen zuen botikarik artzen eta berak euskeraz idatzita utzi dizkigun gauzetan garbi eta jator mintzatzen da. Gaiñera ber-berak dio sartuta dauden itzak, naiz-eta erderatik sartuak izan erabili bear dirala. Ori itzez itz berak dio. Esan bear da ere Larramendi-ren garbitasuna etzala, ezta gutxia-

gorik ere, beste geroagoko batzuen maillara eldu. Esate baterako Larramendi-ren iztegian datoz, ez bakarrik **eliza, kristaua, apaiza** ta gaiñerakoak, baita ere **alabanza, esperanza, fedea, karidadea, kolorea** beste euskal-itzik gabe. Oriek bakarrik. Jakiña, Larramendi-k ori erraz konpontzen zuen. Dakigun bezela berak dio: «ALA BANZA, es voz bascongada: sin añadir ni quitar letra significa semejanza de hija: y como es natural hablar con cariño y estimación de una hija, así a las expresiones de aprecio y estimación en favor de alguno se dió el nombre de **alabanza**» «Diccionario Trilingüe, San Sebastián, 1853). Eta orretxekin konpontzen zituen gauzak eta elitzake ori ere bide txarra guretzat. Bear bada beste etimologia asko baiño probetxukoago izango lirake onelakoak guretzat ere.

Gero esaten du nola mende onen asieran eten egin zan tradizioa literaturan alde onetan. Orduan euskeraz erabiltzen ziran itzak, ez gauza ta gogoeta berriak izendatzekoak bakarrik, **telefonoa** edo beste orrelako zerbait esatekoak, baita betidanik Euskalerri guztian mundu guztiak erabiltzen zituen itzak ere, guztiok dakigunez, baztertu egin nai izan ziran, eta orien ordez beste garbi batzuek erabili. Orduko irizpidea euskal-itzak eta erdal-itzak bereizteko garbitasuna izan zan, diogun bezela. Itzaren jatorriari eta iturburuari begiratu bear zaiola. Nondik dator itz au? latiñetik, edo gaztelaniatik, edo frantsesetik, edo nik dakit nondik! Bada ezta euskal-itza. Beraz euskal-itza da bakarrik —berak beste era batera esango zutekean— ez latinetik, ez gaztelaniatik, ez guk ezagutzen dugun beste izkuntzatik eztatorrena.

Jakiña, oriek baiño leenago ere euskaldunak izan baigenituen artu-emanak beste izkuntzekin, orain ezagutzen eztitugunekin, orietan eztakigu zein sartu genituen eta zein ez. Beraz or ezjakiña dugu alde.

Denak dakigun bezela Azkue iritzi orren etsaia izan zan edo etsai bezela agertu zan, baiña ikusiko dugunez ongi begiratu ezkero etzan zearo etsaia. Bere iztegiaren itzaurrean dakarzkien irizpideak irakurriko ditut. Lendabizi, berak uste du itz bat edo adiera bat euskerazkoa dala probatzeko lekukoak bear dituela. Ortara, bai liburuetatik eta bai berak belarriz entzundakoak artzen ditu. Auxe dio: «...me propuse anotar no sólo la obra en que leía las palabras y modismos que iba atesorando, sino hasta la página y línea en que se encontraban; además del dialecto a que pertenecía, lo que cogía al vuelo, también la localidad en que tal se decía; prefiriendo esta última autoridad, verdadera soberanía en nuestro caso, a la primera». Beraz, erria ta idazleen arteko auzia erriaren alde epaitzen zuen. Gero au dio: «En cuanto a las voces exóticas, he incluído aquellas que no tienen equivalente castizo y han tomado

carta de naturaleza en el idioma; como ELIZA «iglesia»; LEGE «ley»...». Beraz Azkue-rentzat lendabiziko kontua zan beste modu garbiago batean ezin esan al izatea. Ortaz gaiñera itza sartua eta betidanikoa baldin bazan ere berdin zitzaion, teorian beintzat. Itz berriak, guztiok dakigun bezela, etzituen iztegian sartu. Berak zion egunen batean Euskaltzaindiak erabaki bearko zuela zein itz ziran artzekoak eta zein ez. Gure artean mende onen asiera inguruko joera berri auek gauza bat egin zuten, euskal literaturaren tradizioa zearo eten, Bidasoaz beste aldera gertatu eztana. Ala ere emen gutxi batzuek, nolabait ere, eutsi diote tradizio orri. Gaurko idazle askorentzat bide bat bakarra dago zerbait jakiteko lenagokoa zer zan. Ori da ORIXE. Orixe-k gaurko askok uste duten baiño itz, esaera eta joskera askozaz geiago baititu antziñako liburuetatik artuak. Baiña Orixe bakar samar ibilia izan da luzaroan bide ortatik. Tradizioa nola emen eten dan eta beste aldean ez ikusteko gauza bat begira diteke. Badakizute nola Azkue-ren iztegiaren ondoren beste iztegi bat egin zala, beste euskal-iztegi bat, beste aldeko euskalkiak bakarrik artzen dituena, eta ori da Lhande-rena. Eztuzue ikusi besterik zenbat millaka itz agertzen diran Lhande-ren iztegian euskal-itz bezela Azkue-ren iztegian agertzen eztiranak.

Gero, ezagun danez, batez ere gerraren ondoren sekulako zalantzak sortu izan dira mende onen asiera inguruan izan genduen revoluzio ori zuzena ote zan eta geroztik egin ziran guztiak bide zuzenetik ote zijoazten ala ez. Egia esan, bai Altube jaunak, eta bai Mocoroa jaunak, beste batzuen artean olako zalantzak eta kezkak leenago ere adierazi zituzten.

Beraz sarrera moduko au eginda gatozen berriz arira. Galdera bat egingo dut. ¿Zerk egiten du euskal-itza?

Jo dezagun erdaldun batekin ari gerala izketan eta galdetzen diogula:

—¿Son palabras castellanas **jamón, jardín, escopeta, fachada, parapeto, metafísica?**

Erantzungo digu:

—Sí, evidentemente.

Guk orduan:

—De ningún modo. En el caso de **jardín** y de **jamón,** su inicial, la **j,** muestra de una manera evidente que son palabras francesas. Es un hecho histórico fácil de demostrar que **parapeto, fachada, escopeta,** entraron del italiano en el siglo XVI y que **metafísica** está a la vista que es una palabra griega.

Eta zer erantzungo liguke berak? Au:

—**Jardín** y **jamón** no son francesas, porque cuando yo hablo en castellano puedo decir: «Aquí hay un hermoso jardín» y «Me

voy a comer un trozo de jamón». Pero cuando hablo en francés tendré que decir **jardin (xardén)** y **jambon (xanbón)** y no puedo decir **jardín** y **jamón.**

Beraz, **errege** euskal-itza al da? Eztut gauza bat besterik esango. Garbisu-k aspaldi idatzi zuena: **Errege** euskal-itza ezpaldin **bada rey** izango dek orduan. **Errege** euskal-itza da erderaz ezin esan dezakedalako: **Hoy es el día de los tres erregues magos.** Ori ezin esan dezaket erderaz, beraz ezta erdal itza. Eta euskeraz ezin esan dezaket: **Gaur iru rey magoen eguna da.** Beraz **rey** ezta euskal-itza. Orretara **errege** eta **rey** zearo bi itz dira, bata gaztelaniazkoa eta bestea euskerazkoa. Eta ori da aurren aurreneko irizpidea.

Begira zazue, beste alde batetik, nolako ondorenak dituen lenago aipatu dugun irizpideak. Azkue-k **bertsolari** itzean auxe dio: «Ez voz extraña...» Erderaz ezin esan ditekean gauza bat, erderaz adierazi bear dutenean euskal-itz batekin adierazi bear dutena beste modurik eztaukatelako, ori al da erdal-itza?

Etimologiak gure artean askotan izurriak baiño kalte geiago egiten baditu ere, aurrera ibiliko gara. Ni enaiz orain etimologia kontuan sartuko eta eztut esango ondo dauden ala ez. Baiña, esate baterako, askok uste dute, **aizkora, aitzur** ta olakoak **aitz**-etik datozela. Baiña, duela gutxi Gorostiaga-k esan ta argitaratu du lantxo bat adieraziaz **aizkora** latiñetik datorrela. Neri etzait iruditzen batere zentzugabekeria. Batere. Beraz, eman dezagun orain arrazoi duela Gorostiaga jaunak eta **aizkora** latiñetik datorrela. Eta or daukagu atzo arte euskal-itz garbia zana atzotik gurrera erdal-itz biurtuta.

Azkue-k berak dio neologismo kontuan, eta jakiña, ni orretan Azkue-ren kontra nagoelako, esan bear dut itz kontuetan ezer egin bageneza batzuek eta besteak, Azkue-ri eskerrak egin dugula. Lhande-k berak eta Lhande-ren laguntzailleak egin zuten iztegia egin baldin zuten erdia baiño geiago Azkue-gandik artua. Ona zer dion itz berriai buruz: «Luego, por más que rehuyo por sistema la tarea, obligado por la necesidad, creé una larga serie de palabras, prefiriendo en igualdad de circunstancias las voces cortas a las largas, y aquellas cuya raíz es común a las que tienen su raíz en un dialecto; las suaves y agradables a las ásperas, a no tratarse de voces onomatopéyicas; ateniéndome, en lo que tiene de compaginable con el carácter de nuestra lengua, al procedimiento de que se ha valido el alemán para crear sus palabras nuevas. Sirvan de ejemplo las siguientes palabras: OZKORO «firmamento, bóveda del cielo», de OZ «cielo» y KORO «bóveda», palabras ambas que aún existen en la lengua; ELATZ «impresión, trabajo de imprenta», de ELE «palabra» y ATZ rastro»...»

Olako itzak **bakaldun** eta **gentza** eta orrelako asko bezelakoak dira. Euskaldunak bein-ere erabili iztituztenak.

Eta, jakiña, oiñarri au artu bear dugu nai ta naiez: Euskal-itzak eztitu biurtzen bere jatorriak eta iturburuak, euskaldunak erabiltzeak baizik. Eta, batez ere, euskal-literaturaz ari naiz eta ez erri-izkeraz, baiña nolanai ere obe genduke, eta alegiñak egin bear ditugu orretarako, literatur-izkera ori eztedilla geiegi aldendu erri izkeratik. Baiña erria ta autoreak artu bear baldin baditugu lekuko, izan dezagun gogoan autoreak badutela zenbait abantail, Axularrek zion bezela. Batetik literatur-izkera izaten da izkera arauduna eta normalizatua, eta ori idazleak berak ala egin dute. Erri-izkera, berriz, askotaz ere askatuagoa izaten da. Bestetik askotaz ere errazago izaten da jakitea zer dioten idazleak erriak zer dion baiño.

Eztiot aipatuko dudan gai ontan diktadurarik bear dugunik, baiña aristokrazia ere bada. Aitoren semeak, edo zaldunak, edo orrelakoak badira. Eta eztiot au iñor mintzeagatik, ezta gutxiago ere. Duela gutxi billera bat izan zan oso asmo onarekin eta gai egoki bat erabakitzeko. Erabaki bearra auxe zan: euskeraz **bai** edo **bait** idatzi bear dan. Alegia **baida** edo **baita, baidu** edo **baitu, baizuen** edo **baitzuen.** Ni oker ezpaldin banago, eta oker baldin banago parkatu, **bai**-ren aldekoak eraman zuten. Alegia, bototara joan ziran eta **bai**-ren aldekoak eraman zuten. Onetara, pixua daukagu, eta alde batean **bait**-en aldeko botoak eta bestean **bai**-renak. Eta dirudienez **bai**-ren aldera makurtzen zan pixua. Gogoratuko zerate zuek orain ,Erroman bein urliak, oker ezpaldin banago ola egin zuena. Pixua ongi zegoala edo gaizki zegoala eztabaidan asi ziranean arek egin zuen au: ezpata artu zuen eta jarri alde batera. Bada nik alde batean, **bait**-en aldean, Axular jarriko nuke. Eta bildur naiz, naiz-eta zereko botazioa **bai**-ren aldekoak eraman, ori ez ote dan bera joango. Eta umetatik **bait** esaten dugunok, —Gipuzkoako Goierri aldean ezta olakorik erabiltzen, bai, ordea, Nafarroan eta Lapurdi aldean— Gipuzkoako Beterre aldeko erabiltzen dugunok ontan nagusi gera, beste guztietan ezpagera ere. Au ejenplutzat aitatzen dut.

Laburpen bezela esango dut euskal-itzak eta erdal-itzak eztituela iturburuak eta jatorriak alkarrengandik bereizten. Euskaldunak non eta noiznai darabilten itza euskal-itz jatorra da orrenbestez. Ona zenbait neretzat euskal-itz diranak. Onek eztu esan nai nai ta nai ez Euskaltzaindiarentzat onak izango diranik. Besteak beste iritziak izango dituzte eta geroak erabakiko. Adibide batzuek jarriko ditut ezkaitezan **in abstracto** beti ari, zenbait itz garbi niretzat: **Arima, arku, arropa, arraza, arrazoi, baliatu, barkatu, birjiña, birtute, bista, burla, dorre, ezkutari, ezkilla, gober-**

natu, gidari, ispillu, izpiritu, kaliza, kandela, kargu, konpondu, kontu, laudorio, luma, maniatu, merezi, merkatari, meztitu, miratu, molde, mutu, jake, obeditu, pena, premia, kobrantza, salbatu, segurantza, seiñale, soka, finkatu, tratu, triste, txantxa, umil, zaku, zapatari, sigilu, zimendu, sopa... Onek, neretzat, besteak beste iritziak izango dituzte noski, euskal-itz garbiak dira eta euskal-itz garbitzat aitortu bearrezkoak. Eta orien ordez sortu izan diran itz «garbiak» (garbiak komilla tartean esaten dut) eztira euskal-itzak. Len aipatu ditut **bakaldun** eta **gentza.** Beste bat aitatuko dut orain: **mintzul** itza. Ori sortu da euskaldun guztiok betidanik **mutu** deitzen dioguna esateko.

Bada aipatu ditudan itzak eztira baztertzekoak, naiz-eta erderatikoak izan. Eta erderatikoak diot eta ez erderazkoak.

Azken urteotan zerbait sarrera izan dutelako, paperean beintzat, eztira baztertzekoak gutxi batzuek. Esate baterako **idatzi.**

Esate baterako **inguru** itzaren ordez, latiñetik baitator, **barano** erabiltzen dutenak badira. Azkue-k berak dio iztegian: **Barano** (S, arc.). Ala ta guzi ere aldamenean dagoen izkuntza batetik artua da. Mundu guztiak dakienez **inguru,** edo **inguru** antzeko gauzak esaten dira Euskalerri guztian, baita Zuberoan ere. Baiña utzi dezagun ori alde batera. Naiz-eta euskal-jatorri garbienekoa izan **barano, inguru** euskal-itza da.

Inguru da euskaldun guztiok darabilgun itza, baita Xuberotarrak ere. Ori da, bada, euskal-itza.

Onelako gauzetan, gaiñerakoetan bezela, gogoan eduki bear ditugu beti Bidasoaz arunzko euskaldunak. Eztugu batasunik egingo bear bada. Baiña, gutxienez ere, ezditzagun desberdintasunak geitu. Alegia, itz berriak sortzerakoan, edo modu berrietan asterakoan, begira dezagun aiek nola ari diran. Bear bada, esango didazute, aiek guri eztigute kasu geiegirik egiten. Ala izango da, baiña ezta zearo egia. Baiña zer? Guk aiei kasu egiten baldin badiegu alkarrekin ibiliko gera edo ezkera beintzat alkarrengandik geiegi aldenduko.

Ez naiz onera etorri iñori erakustera euskera maitatzen. Gai orretan, noski, edozein euskaltzale da ni baiño geiago. Nekerik gabe aitortzen dut ori. Ala ta guzi ere sarri askotan alako kezka bat izaten dut gogoan. Ageri agerian dagoen maitasuna ikusten baitut, ez ordea maitasun orren zerenganakoa. Bai baitirudi bein baño geiagotan euskeraren ordez eta euskeraren lekuan beste zerbait dugula maite, euskeraren izenez estali ditugun geren burutikako asmakizunak. Ezkera iñor euskeraren jabe. Ondasun orren gozamena eman ziguten aurrekoek, ez jabetza. Eta galerarik gabe ematera beartuak gaude gure ondorengoai. Eztugu, beraz, obe bearrez bada ere, itxura gaiztotzeko eskubiderik. Eztezagun gaiñera

ametsik egin. Itz eta gogoeten arteko lokarria, esaten duten bezela, egiunezkoa da, ez gauzen izaeran finkatua. Eta orrexegatik beragatik da ain etenkaitza eta aldakaitza. Esan nai dut: **Zaldi** itzarekin izendatzen dugun gauza eta **zaldi** itzak eztute elkarren artean izaerazko lokarririk. **Zaldi** deitzen diogu gure aurrekoek ere **zaldi** deitzen ziotelako eta **zaldi** esaten erakutsi digutelako. Beraz berdin litzake **zaldi** esan bearrean **asto** esango bagendu. Baiña nola eztugun alkar artuko **asto** esaten, ezin genezake nai dugun bezela izkera alda. Orrexegatik beragatik, egiazko eta ziñezko eta izaerazko lokarririk eztagoelako itz eta gogoeten artean, ezin genezake gure gogara izkuntza alda. Ez gaitezen beintzat gure indarretan fida. Deus gutxi aldatuko dugu izkuntza eder bidean idazle izena badugu ere. Ondatu bai, onda dezakegu bear baiño geiago. Orretarako badugu eskua. Nik naiko nuke euskeraz dozena bat milloi lagun bederen mintzatzea. Nai nuke dagoen baiño askotaz ere zabalduagoa egotea. Literatura aberats baten jabe izatea obe genduke. Enaiz gure izkuntzan erdal kutsurik ikusi nai ezluketenetakoa, basajendea besterik ez gerala izan adieraziko bailuke garbitasun orrek. Naiago nuke orregatik besteekiko ar-emanetan artzaille baiño emaille geiago agertu izan bagiña. Ori guztia nai dut eta zer? Daukadana daukat eskuan. Gure euskera zarra, den bezelakoa, zenbait aldetatik ugari, zenbait aldetatik eskas eta urri. Batzuetan dotore, eta besteetan arlote. Ori da, bada, den ori, den bezelaxe eta ez nai gendukean legez, maitatu bear duguna, bizkortuko badugu eta indartuko. Eztugu gure erriaren izkuntza orren izenean besterik, geronen ametsik eta usterik, maitatzea zillegi. Maitasuna ez ezik, eta maitasuna baiño lenago besterik eskatzen digu gaur nere ustez euskerak euskaldunoi, begiramen eta errespeto piska bat, baiña ziñetako eta benetako begiramena.

Bukatu duenean Alvarez jaunak artzen du itza: Ala ere nik uste det batzarre ontan asko itz egin dala garbizale eta berrizaleen kontra. Zergatik? Usadioaren kontra dijoalako. Ni ontan nago eta uste det usadioak izan bear duela jabe eta irizpide bakarra. Eta len aipatu da Barrutia oso ontzat bezela. Eta ni jakiña, konforme nago alde batetik, esate baterako verboan eta alako gauzetan dudarik gabe Barrutia askozaz ere jatorragoa da gaurko asko baiño. Baiña ala ere uste det **brioso, perezoso** edo deabru eztakit zer, itz oiek berriak bezin berriak dirala. Eta eztute batere usadiorik euskera berean. Orregatik, garbizaleak ondatu baditugu asmatzaille oiek ere kondenatu egin bear ditugu garbi. Ori alde batetik, eta bestetik lokalismo bat ere ez ditekeala ontzat eman. Uste det ori aitortzea komeni dala.

Mitxelena: Barrutia-ren kontua. Ori argi ta garbi erabaki diteke. Begira, emen bi gauza daude. Obeto esateko, bi eredu-klase.

Bat izkuntza-eredua eta bestea arte-eredua. Eta zure iritzia galdetuko dizut. Zuk or dauzkazu bi autore: Lizardi eta Agirre Asteasukoa. Zein daukazu obetzat?

Alvarez: Mamiz dudarik gabe Lizardi da.

Mitxelena: Ori da. Arte aldetik eztute iñondik alderik ere. Bada nik izkuntza aldetik jatorrago derizkiot Agirre Asteasukoari. Eta nire ustez Barrutia ere eredu da arte aldetik izkuntza aldetik baiño geiago. Beraz, eztut esan nai Barrutia-ren izkera artu bear gendukeanik eredutzat eta zearo bat gatoz kontu ontan.

Alvarez: Ez, nik uste det batek edo bestek ori pentsa dezakeala.

Mitxelena: Bai jauna. Beste gauza bat. Esate baterako, nola esaten da erderazko **presentar** euskeraz. Nik uste dut gaur galdetuko bagendu Euskalerri guztian barrena, alde ontan **presentatu, presentau** edo orrelako gauzak entzungo genituzkeala. Eztakit beste aldean zer esango liguketean. Baiña, esate baterako, Lardizabal-ek beti beti eta beti **aurkeztu** esango du. Beraz, or **aurkeztu**-ren alde nago. Eta ni **galdetu** eta **itaundu**-ren alde nago. Alegia, Bizkaiko autore zarretan ezpaita bein ere **preguntadu**-rik, edo gutxitan beintzat, agertzen. Eta orregatik euskal-liburuak alde askotatik eredu obeak ditugu itz kontuan ere, gaurko izkera baiño.

Xuberoako Madeleine Yaureguiberry andreari ematen zaio itza eman nai dituen zenbait berri eman ditzan. Xuberoako izkera gozoan mintzatzen da eta entzule guziak adi daude itzik galdu gabe ulertzeko asmotan. Leendabizi Xuberotarren agurra ematen du eta gero ango eskolez mintzatzen da. Dio Xuberoan asi direla urrats baten, leen-urrats baten emaiten. Gobernamentuko eskoletan sartzen omen dira, Pabeko inspektoreen baimenarekin. Zenbait gauza jakingarri aipatzen ditu ala-nola inspektoreak aperzibitu direla euskalduna ezela frantsesaren etsaia uste zuten bezala. Aurrek eztute ikasten eskolan irakasten den frantsesa baizik. Eta bere denboran ikasten dute beren etxetan izkuntza ederra eta aberatsa eta aperzibitu ziren euskara zekiten aurrak, zekitela, frantses lan ederrenak egiten, eta Pabeko inspektore geienak erran dute azkenik Xuberotar aurrek egin dezaketela erri tipietako eskoletan, eskola aundietan latin eta greko izkuntzakin egiten dituzten izpirituko exerzizio sabantak. Lafont profesorea, zenbaitek ezagutzen dutena, aipatzen du. Eta nola leen eskola aundietan eta batxileratoan egin zitekeana, eskola tipietan ere asi diren egiten, ortarako kanta eta metodo simple batzuez baliaturik .Eta Pabeko inspektoreek konprenitzen dutela zerbait euskera begiratzeko, ez bakarrik mintzairez, baiña jakitatez. Zeren-eta euskera izkuntza aberats bat

baita, aberatsenetarik. Baiña euskaldunek deus estudiatzen, begiratzen eta izkribatzen eztutena. Dio Xuberoan asi direla. Txalo beroak eman zaizka biotz biotzetikan.

Eta itzaldiak bukatuta Bibliotekako beste saloi batera joanik Bizkaiko Diputaziñoak ardo eta janari zenbait eskeiñi zien batzarkideai bazkal-aurrean. Hilario Bilbao jaunak Diputaziñoaren izenean itz sutsu eta eder batzuek esan zituen. Zion nola Diputaziñoak Euskaltzaindiari giltzak eman ziozkan etxean bezala egon zedin eta eztela Euskaltzaindia Diputaziñoari eskerrak eman bear diozkana, ezpada Diputaziñoa dela benetako eskerrak Euskaltzaindiari eman bearrean dagonea egiten ari den lan indarrez beteagatik. Esan zuen nola lan aundia dagoen egiteko euskal gauzetan eta baita dokumentu zaar, euskal kanta eta beste gauza asko bildu ta estudiatzen. Lau Diputaziñoak elkarren leian ekin bear luketela adierazi zuen, nobleziaz beterikako nor-geiagoka batean, indarra emateko arazo guzti aueri eta bear bezala gure ondorengoak jaso dezaten osorik, obeturik eta indarturik gure aurrekoengandik artu genduan ondasun osoa.

Zenbait denpora geroago, 1959 aprillaren 2-an Euskaltzaindiak erabaki au artu zuen:

Jel. 11701

Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz

Euskaltzaindiak, idazlari ta izlariei zuzenbide batzuek eskeiñi naiez, eta asko zuzenbide oien zain-antzean daudela jakiñik, onako agiri au azaltzen du:

OINARRI-LEGEA

Iztegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere itzen erabidean izkuntzaren joerak gordeaz. Ori iztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ezta sekula zillegi asmatzen ibiltzea edo izkuntza aldatu nai izatea.

EUSKAL-ITZAK ZEIN DIRAN JAKITEKO BIDEA

Eta iztegiaren auzi au xehetasun geiagorekin garbitu naiez, euskal-itzak zein diran, au da, auskal-literaturan erabiltzeko itz jatorrak eta bidezkoak zein diran jakiteko, bidea

eta neurria finkatu nai du aurrenik Euskaltzaindiak. *Euskal-itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak.* Sustrai ori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide geiago du itz batek erabillia izateko. Itz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle zaarrak itz ori erabilli ote duten jakiteak, asko esan nai du itzaren sustraia zenbateraiñokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada, auskal-itzak dira, naiz eta erderatik etorri. Bada gure iztegian olako itzen pilloa: jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak daudenak, alegia. Beraz, etxeko biurtuak dauzkagu, gure gureak dira itz oiek. Euskal-itzak dira bada, erderatikakoak izanarren. Itz oiek eskubide osoz erabilli ditezke, eta oien lekuan erabiltzeko asmatu diran itz berriak eztira geienetan euskal-itzak eta eztute aiek ainbat eskubide erabilliak izateko.

Ona emen olako auskal-itz jatorren zerrenda bat. Erderatikakoak izanarren, etxeko biurtuak dauzkagu eta emandako neurriaren araura, euskal-itz jatorrak dira:

Abendu, aingeru, alkate, amodio, arima-anima, abade-apaiz-apez, apostolu, arraza, arrazoi-arrazoin, bake-pake, balio, bekatu-pekatu, berba, bertso, bedeinkatu-benedikatu, birjiña, birtute, borondate, doe-doai, damu, deabru, denbora-denpora, dantza-jantza, diru, desegin, errege, erregiña, erlijio-erlegiño, eliza-jantza, diru, desegin, errege, erregiña, erlijio-erlegiño, eliza-eleiza, elexa, eskola, espiritu-izpiritu, familia-pamili, fede ,frutu-fruitu, finkatu, gorputz, gramatika, gloria-loria, grazia-garazia, imajiña, inpernu-infernu, imitazio-imitaziño-imitazione, jende-jente, joku, kantatu, kolore, kafe, karidade, komunio-komuniño-komunione, kanpo, kontra, kanta, liburu, lore-lora, lege, mundu, meza, modu, molde, moldatu, obeditu, olgeta, partitu, paradisu-parabisu, barkatu-parkatu, bekatu-pekatu, pentsatu, pentsamentu-pentsamendu, sakramendu-sakramentu, santu-saindu, seiñale, testamentu, umil, zapata, zentzu-zentzun, zeru...

Euskaltzaindiak, bada, itz auek eta antzekoak diran beste asko eskubide osoz erabilli ditezkeala erabagitzen du, euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlariei erabilli ditzatela eskatzen die, itz asmatuetara jo gabe.

Berebat, izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez; politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar.

1959 aprillaren 2-an.

Declaración de la Academia de la Lengua Vasca acerca del vocabulario del euskera

La Academia de la Lengua Vasca, consciente de su deber de dar normas orientadoras, y respondiendo al deseo de muchos que piden y esperan dichas normas y directrices, hace la siguiente declaración:

PRINCIPIO FUNDAMENTAL

En el terreno del léxico o vocabulario no se debe recurrir a términos inventados o de forja más que cuando no haya otro remedio, y aun entonces cuidando que la formación se ajuste a la índole y exigencias de la lengua. Esto en cuanto al léxico; porque, si se trata de la gramática, es claro que en este terreno, jamás se debe tolerar la invención o alteración de la lengua.

CRITERIO PARA DISCERNIR QUE PALABRAS SON VASCAS

Y pasando a determinar más concretamente el punto del vocabulario a emplear, la Academia recuerda que el único criterio válido para determinar qué palabra es vasca, y por tanto, legítima y castiza para los usos literarios, es el arraigo que la tal palabra tiene en la vida de la lengua, arraigo que se evidencia por la extensión y antigüedad de su empleo, por el uso que de ella han hecho los autores clásicos, etc. Jamás debe tomarse el criterio etimológico como medida para discriminar qué palabras son vascas. Según esto, es evidente que hay en el léxico vasco un gran número de palabras que, aunque procedan de otras lenguas, se hallan perfectamente asimiladas y que tienen carta de naturaleza en la lengua. Por tanto, deben ser consideradas con todo derecho como palabras vascas, mientras que las otras que se han creado para suplantar a éstas, no son por lo general palabras vascas ni reúnen los títulos que aquéllas para su empleo corriente.

Damos a continuación un cierto número de palabras que, aunque procedentes de otras lenguas, son indudablemente vascas, según la precedente norma apuntada:

Abendu, aingeru, alkate, amodio, arima-anima, abade-apaiz-apez, apostolu, arraza, arrazoi-arrazoin, bake-pake, balio, bekatu-pekatu, berba, bertso, bedeinkatu-benedikatu, birjiña, birtute, borondate, doe-doai, damu, deabru, denbora-denpora, dantza-jantza, diru, desegin, errege, erregiña, erlijio-erlegiño, eliza-eleiza, elexa, eskola, espiritu-izpiritu, familia-pamili, fede ,frutu-fruitu, finkatu, gorputz, gramatika, gloria-loria, grazia-garazia, imajiña, inpernu-infernu, imitazio-imitaziño-imitazione, jende-jente, joku, kantatu, kolore, kafe, karidade, komunio-komuniño-komunione, kanpo, kontra, kanta, liburu, lore-lora, lege, mundu, meza, modu, molde, moldatu, obeditu, olgeta, partitu, paradisu-parabisu, barkatu-parkatu, bekatu-pekatu, pentsatu, pentsamentu-pentsamendu, sakramendu-sakramentu, santu-saindu, seiñale, testamentu, umil, zapata, zentzu-zentzun, zeru...

La Academia recomienda a los escritores, predicadores, hablistas, etc., el uso de semejantes voces y de otras similares, por ser perfectamente castizas y vascas, con preferencia a los términos neológicos que se han propuesto para suplantar a dichas voces.

Igualmente, ciertos términos culturales y de civilización que son de uso general, la Academia estima que pueden usarse sin reparo. Por ejemplo: politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro, etc.

2 de abril de 1950.

EUSKAL - BIBLIOGRAFIA

Kontatu gabe eman ditugu larogei ta emeretzi euskal liburu, liburuxka eta aldizkarien berri Bibliografi ontan. Orainarte emandakoak berriz aipatzen ditugu emen, laburki Bakoitzari bere numeroa emanez. Orrela, Bibliografi au aipatze-orduan, danak izango dute bakoitzak bere numeroa, ala komeni da-ta:

1956'GN. URTEAN, 305-316'GN. ORRIALDETAN:

1. A. Eujenio Agirretxe: *Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Bederatziurrena.*
2. Juan Baxurko: *Iñazio Deuna.*
3. Etxaide'tar Yon: *Joanak-Joan.*
4. Juan Garmendia: *Euskeraren iraupena.*
5. J. A. Loidi: *Amabost egun Urgain'en.*
6. *Salle'ko Joan Bautista Deunaren bizitz-laburra.*
7. P. Arradoy: *Kattalinen gogoetak.*

OARRAK

1.º Esker onez artuko nituzke lan ontan agertu diran edo agertu ditezkean oker eta utsen zuzenketak. Orainarte auexekin konturatu naiz:

1956'gko. urtean, 312 orr.-ezkerraldian, 40'gn. lerroan [21'gn. Z.ª]: ***aitegi** jartzen du; **Zaitegi** jarri bear du.

1956'gko. urtean, 313'gn. orr.-eskubialdian, 8'gn. lerroan [22'gn. Z.ª] **B[iurrun]** jartzen du; B[ERROZPE] jarri bear du.

1957'gko. urtean, 401'gn. orr.-eskubialdian, 48'gn. lerroan [71'gn. Z.ª]: **Karmen** jartzen du; **Karmel** jarri bear du.

1958'gko. Urtean, 164'gn. orr.-eskubialdian [97'gn. Z.ª]: **fakmizila** jartzen du; [**phakzimilla**] jarri bear du.

2.º Bibliografi ontan euskeraz argitaratzen diran lan guziak aipatzeko asmoa artu dugu (1955'gko. urtetik asi ta aurreranzkoak), baiña borondaterik onenarekin aleginduarren ere, danen berri jakitea gauza zailla da. Orregatik, pozik eta esker onez artuko ditugu emen aipatzen ez diran euskal-lan guziak, edo lan oien berriak.

8. Dom Belegarralde: *Ez... odoleraino!*
9. A. Antonio Sorarrain: *Lili Txuria Odoletan.*
10. Zaitegi'tar Joaquin: *Bidalien Egiñak.*
11. A. Villasante: *Goi-Argi.*
12. I. Berriatua: *Lagunarteko Mezea.*
13. Bitaño: *XVI-garren Gizaldian argitaratu ziran liburu batzuen barriak.*
14. A. Sorarrain, J. Galarraga, J. M. Garayalde: *Elezarrak.*
15. *Cánticos Sagrados.*
16. *Ikasgaiak.*
17. L. Villasante: *Paradigmas de la conjugación vasca.*
18. A. Legarda: *Abestu dezaiogun Jaungoikoari.*
19. Umandi: *Gramática Vasca.*
20. Umandi: *Formas verbales vizcaínas.*
21. *Euzko Gogoa. VI'gn. Urtea.* 1955.
22. *Egan.* 1955.
23. *Anaitasuna (Gipuzkeraz. Bizkaieraz).*
24. *Zeruko Argia.*
25. *Euskaltzaleak.*
26. *Nora?*
27. *Herria.*
28. *Artzai-Deia.*
29. *Sor Lekua.*
30. *Aránzazu.*
31. *El Bidasoa.*
32. *Estudiante Sacramentino.*
33. *Redención.*
34. *Eibar.*
35. *Izaskun.*
36. *Vida Vasca.*
37. *Destellos Lasalianos.*
38. *Erri Abesti Xorta.*

1957'GN. URTEAN, 395-406'GN. ORRIALDETAN:

39. Juan Gorostiaga: *Antología de Poesía Popular Vasca.*
40. *Homenaje a D. Joaquín Mendizábal Gortázar.*
41. Iratzeder: *Harrapallu.*
42. *San Frantses Dardan.*
43. *Jondoni Bichincho.*
44. *Gvre Herria.* 1955.
45. *Luberri.*
46. *Euzko Deya. (Paris'ekoa. Arjentina'koa).*

47. *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.*
48. *Guipúzkoa Misionera.*
49. *Txistulari.*
50. *Irun da Ondarribiko Kaputxinoen Irugarren Ordenako Orria.*
51. *Realidad.*
52. *Ciaboga.*
53. *Euzko-Folklore.*
54. *Pyrenaica.*
55. *Acta Salmanticensia.*
56. *Eskval Herria.*
57. *Elkartasuna.*
58. *La Voz de la Madre.*
59. *Agur.*
60. *Elgar.*
61. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo".* 1955.
62. Domingo Aguirre: *Garoa.*
63. Barandiaran'dar Salbador: *Iliasena.*
64. E. Bustinza: *Abarrak.*
65. Hugo Wast-Itunbe: *Bide Izkutua.*
66. Juan Antonio Mogel: *Peru Abarca.*
67. Bondalaitz-Etxaniz: *Itun Zarreko Kondaira.*
68. A. Etxarri Aranaz: *Migel Goiangeruari Bedratzi-Urrena.*
69. *Karmen'go Ama'ren Egutegia.* 1955.
70. *Karmen'go Ama'ren Egutegia.* 1956.
71. *Arantzazuko Amaren Egutegia.*
72. *Yakin.* 1956.
73. *Egan.* 1956.
74. *Euskera.* 1956.

1958'GN. URTEAN, 159-165'GN. ORRI ALDETAN:

75. *Euzko-Gogoa.* 1956.
76. *Goi-Zale.*
77. F. Sales-F. Iraeta: *Jaungoiko-zale izateko Bidea. (I laurdena).*
78. *El País Vasco.*
79. *Luzaide.*
80. *Gazte.*
81. *Alderdi.*
82. *Tierra Vasca.*
83. *Anaitasuna (Arratira'ko).*

84. *Zeutzat.*
85. Orixe: *Igandetako Besperak.*
86. *Bertso zarrak eta berriak.*
87. Juan Basurko: *Bertso Berriak.*
88. *Selección de Cánticos Religiosos y Oraciones.*
89. Etxaide'tar Yon: *Pernando Plaentxiatarra.*
90. Felipe Arrese ta Beitia: *Olerkiak.*
91. F. I. de Lardizabal: *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia.*
92. J. L. Alvarez Enparantza: *Leturia'ren Egunkari Ezkutua.*
93. N. A. G.: *Bonaparte'ren Eun-Urte-Muga dala-ta.*
94. N. Alzola: *Amazazpigarren Gizaldian Izurtzako Etxaburutar bat Frantziskotar.*
95. N. Alzola: *1955'Garren Urtean euskeraz argitaratu diran liburu ta aldizkari batzuen berri.*
96. P. Zamarripa: *Vocabulario Vasco-Castellano y Castellano-Vasco.*
97. X. Lizardi: *Biotz-Begietan.*
98. A. Irigaray: *Euskalerriko Ipuiñak.*
99. P. P. C.: *Irea al dek diru ori?*

* * *

100

GVRE HERRIA. 1956. "Hogoi-ta zortzigarren urthea".

AZKAINDARRA: **Azkaine: Laminak. Sorginak. Miriku eta sasi-miriku.** — BARANDIARAN-GO JOXEMIEL: **Axular chaharraz kondaira pollit zonbait.**—BEGILUZ: **Izurako Biltzarra.** — BERRIZARTE: **Alegia deus ez!** (Olerkiak). — E. BIDEGAIN: **Elizako mintzaldia** [Izurako Biltzarrean].—J. CAMINO: **Eskualzaleen Biltzarra eta eskual lana** [Izurako Biltzarrean eman izan diran sariak edo primak].—M. CHILIBOLOST: **Izura edo Ostabat.** L[OUIS]. DASSANCE: **Eskualzaleen Biltzarra-ren Agurra. — Aurthengo Izurako Bilkuran Eskualzaleen Buruzagiaren mintzaldia.—Eskual-Herriaren Agurra.** — ESKUALDUN SOLDADO GAZTE BAT, ALGERIAN BAKE-HARRIAREN ZANTZALLE: **Eskual hil-harriak hiltzen ari othe dira?**—J. ETCHEVERRY: **Pako eta Pello.**—EUSEBIO ERKIAGA: **Axular handiari, ohore!** (Olerkia).—F. A. E. E.: **Fraide gaztearen deia. Etchondoaren inguruan.**—G. H.: **Axular-en Orhoitmena (1955-1956).** — HERRIA: **Axular-en ohoretan. Sariketak.** HERRITARRA: **Axular-en eguna Saran.**— IRATZEDER: **Zeru-Menditik** (Olerkiak: 1941-1946).—INTXARPE: **Axular'en omenez** (Bertsotan). — M. ITCAINA: **Frantses eta Iñigo-ren lehen gerthaldia Parisen. Hamaseigarren mendeko ebiakoitz ilhun-nabar natez.**—A[NTONIO]. M[ARIA]. LABAYEN: **Axular-en Bizitzea eta oroitzapena.**—PIERRE LAFITTE: **Axular'en liburuaz.** — E. LARTIGUE: **Atchik eskuara.** — P.

NARBAITZ: **Elizako predikua** [Sara'n].—A. OSPITAL: **Eskualtzaleen Biltzarra eta denen laguntzak.**—PIKORT: **Agur, Axular** (Olerkia).—ETIENNE SALABERRY: **Harrika** (Olerkia).—**Ignaki Sainduaren urthe mugakari. Loiolako Nagusia.**—JEAN-PIERRE SOUDRE: **Axular** (Bertsotan).—ZERBITZARI: **Bizi eskuara.**—[...] **Arantzazuko Amaren omenez Euskal-Sariketa.**

101

ERRAONDO-ko AZKEN/DANBOLINTEROA // Arturo Campion-en ipuia /—/ A[ITA]. JUSTO MARI MOKOROA-K/ irugarren aldiz/bere gisa euskeraz antolatua / 1958 [GRAFICAS ELLACURIA: BUENOS AIRES, 13. TELEFONO NUM. 36021. BILBAO] [EDICIONES DE LA ACADEMIA VASCA] [Dibujos de Angel Bello].

22 orrialde.—0'240 x 0'157.
Euskeraz eta gaztelaneraz.
Baimenak: **Luis Arzuaga, Sch. P., Censor Ordinis; Félix Leorza, Praep. Prov.; Gregorius Maidagan, Censor Dioec., Leon M.ª Martínez, Vic. Gralis.**
[2]-3'gn. orrtn.: Campion'ek Aita Mokoroa'ri eskutitza, fotografiz ematen da (28-Sept. 1925).

102

ONDARRIBI'KO IZPARRAK. Ondarribi'ko Parrokia'ko orria. Mimeografoz ematen da. Erderaz eta euskeraz. Nik ikusi detan zenbakia: 1958'gn. urteko Orrille'koa.

103

LAGUNARTEKO MEZA//I[gnacio]. Omaetxebarria / Aita Prantziskotarrak eratua /—/ Irugarren ateraldia /—/ EDITORIAL FRANCISCANA ARANZAZU / Apartado 1.° OÑATE (Guipúzcoa) 1956.

31 orrialde.—0'155 x 0'105.
Baimenak: 1952'gn. urtean emanak dira (Fr. Demetrio Garmendia / Fr. Pablo Lete. / Lic. Romanus Laspiur / Dr. Josephus Sudupe). «Sal-neurria: 3 pta.».

104

LURDEKO AMA BIRJINA.—Ez dut ikusi liburu au. Baiona'n argitaratzen den "Herria" euskal astekarian irakurri ditut zonbeit berri (Ikusi 418'gn. Zenbakia: 1958-Agorrilla'ren 7'garrenekoa): "*Lurdeko ichtorioak agertu beharrak dira liburu berri batean: "Lurdeko Ama Birjina". Liburu orren egilea: Soulebet jaun kalonjea. Oraiko ustez agertu da buruilean liburua. Familia eskualdunek ontsa eginen dute liburuaren biltzea. Eskuaraz egina da eta denek konprenitzeko errecha*".

105

IZASKUN'GO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIURRENA. Ez det ikusi liburuxka au. "Aránzazu" Irarkolan egiña. Egillea: Joakin Dorronsoro Apaiza.

106

LARRAITZ'KO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIURRENA Ez det ikusi liburuxka au. "Aránzazu" Irarkola'n. Joakin Dorronsoro Apaiza egille.

107

KITZKITZA'KO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIURRENA Ez det ikusi liburuxka au. Joakin Dorronsoro Apaiza egille. "Aránzazu" Irarkola'n.

108

LIERNI'KO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIURRENA. Ez det ikusi liburuxka au. "Aránzazu" Irarkola'n. Joakin Dorronsoro Apaiza egille.

109

ARRATE'KO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIURRENA. Ez det ikusi liburuxka au. Joakin Dorronsoro Apaiza egille. "Aránzazu" Irarkola'n argitaratu.

110

GURE PATROI AUNDIA // AITA SAN IÑAZIO'REN BIZITZA // I[ÑAZIO]. M[ARIA]. MANZISIDOR / JESUS' EN LAGUNDIKOAK / IDATZIA/[APAINGARRIAK: AYALDE' RENAK//HECHOS Y DICHOS / P. J. SOLER, 15. APARTADO 243 / ZARAGOZA / 1956.

237 orrialde + Bibliographia [1] + Arkibidea [1].—0'18 x 0'125.
[4]'gn. orrn.: NIHIL OBSTAT: / **Candidus Gordoa,** S. I. / **Cens. Ord.** // IMPRIMI POTEST: / **Franciscus Ibiricu,** S. I. / Proep. Prov. Cast. Orient. // NIHIL OBSTAT: / **J. Urrutia** / Cens. Eccles. // IMPRIMATUR: / **Sancti Sebastiani,** 9-IX-1955 / **Dr. Josephus Sudupe** / Vicar. Gener. Dioec. S. Sebastiani //—/INDUSTRIA GRAFICA VALVERDE, S. A.—SAN SEBASTIAN 1956.
[5]'gn. orrn.: **Nere aita maite / Jose Manzisidor Larrañaga Jaunari / ta / Nere ama maite / Josepa Segurola Garagarza Andreari / biotzez, oroitzan.**
7-8'gn. orritn.: Itz-aurrea. [Egilleak]: «Caracas'tik, 1955'garreneko VII'en 31'an.»
9-237'gn. orrtn.: San Iñazio'ren Bizitza, zenbatu g a b e d a u d e n XXXVIII atalburutan.
Sal-neurria: «25 Ptas.»

111

LARRAUN ETA BERE EUSKALKIA / INTZA'R DAMASO, O. F. C. /—/ SEPARATA DE EUSKERA / BILBAO 1957.

112

CARTAS DE MARIANO MENDIGACHA A / D. RESURRECCION MARIA DE AZKUE / ESCRITAS EN VASCUENCE RONCALES Y EN CASTELLANO /—/ CARTAS DE INCHAUSPE AL PRINCIPE / LUIS LUCIANO BONAPARTE /—/ DEL EPISTOLARIO DE AZKUE // ALFONSO IRIGOYEN // SEPARATA DE EUSKERA / BILBAO 1957.

Euskeraz eta erderaz. Ikusi «Euskera» 1957.

113

BODAS DE DIAMANTE DE LA CONGREGACION DE LAS HIJAS DE MARIA DE FUENTERRABIA 1881-1956. Impr. Errazquin, Irún. 44 orrialde. Erderaz eta euskeraz.

114

OYARZUN. — *Xanistibanenes 1956*. Oyartzun'go errijaietako aldizkaria. Euskeraz eta erderaz. Apaingarriz edertua. Lenengo Zenbakia. Urtian bein agertzen da.

115

OYARZUN. "Xanistebanes". Errijaietako aldizkari edergagarriduna. "Agosto de 1957". Euskeraz eta gaztelaneraz:

Euskeraz: IRIGOYEN'DAR ROMAN: **Juan Maritxo'n lanak.**—MARTIARENA: **Ikustaldi bat.—Eruak bat...**—BENANZIO REKALDE: **Zestua'ko Errotatxo'ko beiaren ixtoria.** — MITXELENA'TAR JOXE JOAKIN: **San Esteban'en bizitza.**—ETXAIDE'TAR YON: **Venanzio Rekalde eta Olaziregi Jauna.**—BERGARETXE'TAR JULIAN: **Illargia erori da.**—AYALDE: **Arditurri-Meatzetan.** — EIZMENDI'TAR IÑAKI, «BASARRI»: **Oiartzun zarrari kantuz.**

116

OYARZUN. "Xanistebanes". "Agosto de 1958". "Impreso en Gráficas Segundo, Rentería". Azala: "Valverde, S. A. San Sebastián". Euskeraz eta gaztelaneraz.

Euskeraz: JUAN MARI LEKUONA: **Goiz-Argi** (Olerkia).—IRIGOYEN'DAR ROMAN: **Aurtxoaren irri zuria** (Olerkia).—MARTIARENA: **¡Eiztari bapoa!** (Olerkia).—JOXE ANTONIO: **Ergelkeri berriyak, Joxe Antoniok jarriyak.**—MARTIARENA: **Erbiduna** (Olerkia).—AYALDE: **San Juan bespera.**

117

P. ARRADOY//KATALIÑEN/GOGOETAK//AITA LUIS VILLASANTE / FRANTZISKOTARRAK / Gipuzkoako euskeraz jarriak // ARANTZAZU IRAKORLAN EGIÑA / 1958.

110 orrialde.—0'19 x 0'11.
3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira: 1. Kristañau dotriñea. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratuko dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. Gura daben ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. Orretarako, «Abarrak», Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustinza-rena, iminten da eredutzat, eta ango ipuin bat edo beste edozein tokitan ikasirikako bat aukeratu lei. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaiñean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira, libertade osoagaz erabili aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, ta guztiak edo batzuk bakarrik: a) Elexea, b) Erria, d) Baserriak, e) Fabrikak, f) Dendak eta merkataritzea, g) Arrantzua, h) Labrantzea, i) Gentea eta oiturak, j) Bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre-ren «Kresala» novelea iminten da liburu irakurgarria legez, batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gaiñean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5. Izenak 1960-gko. aprillaren 15-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

Argitaratuta dago **Euskal kantak** izenagaz bertso sortea.

«LORAMENDI» FR. JOAKIN BEDOÑA-KOAREN GORAZARREZ EUSKALTZAINDIAK ANTOLATZEN DUEN LITERATURA-SARIKETA

1. Sariak, urrengo aipatuko diran gaiez egiñikako lanentzat izango dira:

I. Bertsotan. Nai dan bezalako luzeera eta gaia duen poesiarentzat. Leenbiziko saria, bi milla peseta; bigarrena, milla.

II. Itz lauz. Bere denboran ikusiaz eta iritziak emanaz «Loramendi»-ren poesiaz egiñikako lanarentzat. Lanaren luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa izango da. Sariak, leenbizikoa milla pesetakoa, eta bigarrena, bosteunekoa.

III. Itz lauz. Milla pesetako sari bat ipintzen da Leniz aranaz egiñikako lanik onenarentzat: bere historia, biografia, ikuspegiak, eta abar. Luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa.

IV. Teatroa. Sari bi ipintzen dira, bi milla ta bosteun eta milla ta bosteun pesetakoak, bi teatro-lan onenentzat, ekitaldi batean edo geiagotan idatziak. Obeto ikusia izango da sariketarako, nolabait Leniz ananari dagokon lana (bertan gertatzen dalako edo bertako ipuiñetan edo historian erroa duelako).

V. Poesia-esana. Sari bi daude, bosteun eta berreun da berrogetaamar pesetakoak «Loramendi»-ren poesiaren bat ondoen esaten duten aurrentzat, bai neskatilla ta bai mutikoentzat.

2. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira, Gipuzkoako Diputaziora, 1959 agustuaren 20-an baiño leen, makiñaz idatzirik eta lerro-une bat utzirik. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.
3. Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

«LORAMENDI» Fr. JOAQUIN BEDOÑA-KOAREN GORAZARREZ EUSKALTZAINDIAK ANTOLATUTAKO LITERATURA-SARIKETAREN ERABAKIA

«Donostian bildurik Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia.—Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, «Maldan behera» poemari ematea. Egillea Gabriel Aresti (Bilbo); bigarrena, milla pesetakoa, «Lelo xamurrak» Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auek bialdu dituzten poesiai: Fernando Artola «Bordari» (Ondarrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Erroma).

Itz lauz.—Lendabiziko saria, milla pesetakoa, «Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz» egindako lanari. Egillea Luis Jauregui jauna (Zarautz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Iyorre-koak gai bera duela bialdutako lanari.

Teatroa.—Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, «Kanpaien atsekabez» tituludun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbo) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa, «Leniz'ko alaba» Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarru) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaiñera uste du aipamen berezi bat merezi dutela urrengo poesia auek: «Izar eta odei» Antonio Bilbao (Morga), «Sei olerki» Jaime Querexeta (Elorrio), «Lizardi-renean» J. Ignacio Goicoechea (Tolosa), «Egun txintatik arratserafio» A. Eusebio Igarza, O. S. B. (Lazkao), «Bedoña'rako osto bikoitza» Eusebio Erquiaga (Bilbo), eta baita teatro lan bi auek; «Bertsolari sariketa» eta «Berpizkunde goizean», biak Manuel Zirasolo-renak (Bilbo).

Donostian, 1959 iraillaren 13-an. Firmatzailleak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Michelena.»

EUSKALTZAINDIAK URTERO EGIN OI DUEN JAIALDIA

Ilbeltzeko 4-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan urtero bezela jaialdi bat egin du, sarrera bakar bat ere gelditu etzelarik salgai eta gaiñera jente asko ta asko ikusi gabe. Oraingoan euskaldun guztien begien bistan jarri nai izan du bertsolariak, euskal-teatroa eta euskal-kantak izkuntza indartzeko eta sendotzeko bide oso onak dirala. Eta badirudi asko aurreratu dala. Ain zu-

zen ere, aurrera dijoaz erri askotan uste eta asmook, eta ori da bear dana gure nortasuna geroago ta aundiagoa izan dedin.

Bertsolariak izan ziran bertso bana kantatuz jaia idigi zutenak. Dotore zeuden Euskaltzaindiaren ezkutuaren azpian joan dan mendeko erropakin jantzita, kapela ta guzti. Guztiz iru izan ziran, igaz agustuan Bizkaiko txapeldun gelditu ziran irurak. Gero Ondarrutarrak «Seaska inguruan» eman zuten, gabon kutsuko obra eder eta nagusi bat. Ia eun ondarrutarrek parte artu zuten eta ikusle-entzuleak arrituta gelditu ziran aien biotz fiña ta dotorea eta aien batasuna ikustean. Txinpartako eta Dindirrikoen artean Zuberoako dantzak aurkeztu zituzten. Mungiakoak «Eguen zuri» obra labur bat, baiña nola aurrak ere parte artzen duten eta gaiñera eskola bat ere agertu, euskeraz itz egiten dutelarik aurrak, oso pozik eta gustura ikusi zan. Eta egin ere oso ongi eta naikoa barre eragiñik egin zuten. Eta azkenez Iruñeko Koral Kamarakoak amar kanta Euskalerriko eskeiñi zituzten. Munduan zear fama aundikoa degu koral eder au eta Bilbon ere arrakasta aundia izan du eta jaialdi osoari giro dotore eta aristokraziazko bat kutsatu zion.

Uste degu geroago ta geiago jarraituko dala beste erri batzuetan ere Ondarruko eta Mungiakoak eta baita besteak erakutsi diguten bide ederra. Baldin orrela bada ez izan dudarik batere gure nortasuna benetan sendotuko dala.

EUSKAL-KONZERTU NAGUSI BAT BILBON

Arriaga Teatroan otsaillaren 22-an euskal-konzertu nagusi bat eman zan. Aita Madina oñatiarraren obrak jarri ziran J. Maria Gonzalez Bastida jaunak zuzendurik. I. Orreaga. II. Aita gurea. III. Illeta. Eta bigarren partean: Arantzazu. Parte artu zuten: Bilboko Orkestak, Oñatiko Schola Cantorum Santa Cecilia-k eta Donostiako Stella Maris-ek, guztiz eun eta berrogetaamar boz inguru. Teatroa oso beterik zegoan eta txalo ugari entzun zuten jotzaille ta kantariak, eta batez ere Aita Madina autoreak. Bilboko alkate Zuazagoitia jauna ere entzule egon zan eta autoreari bere aldamenera dei egin zion. Bukaeran jentea txaloka asi zitzaion autoreari, eta «Aita Gurea» berriz jotzeko eskatu zan ixiltasun aundi baten erdian bigarren aldiz entzunik.

BERMEOKO JAIA

Otsaillaren 10-ean Bermeoko Ercilla Saloian euskal egun bat egin zan, jaialdi bikoa, bata arratsaldean eta bestea gabean. Leendabizi itz batzuek esan zituen Irigoyen jaunak, eta urrengo Ormaeche eta Pujana bertsolariak ekin zioten. Gero Robles Aranguiz anaiak, Mungiako teatrulariak, eta Basurtuko kaputxinoetako taldeak. Auek dantza ederrak eskeiñi zituzten irudi txukun batzuetan, ipuin eta oitura zaarrez ongi kutsatuak. Ona emen Irigoyen-en itzaldia:

«Arratsaldeon Bermeoko jaun eta andrak:

Berba bi euskeraz esateko eskatu deustie, eta oso pozik betetan dot bete be arazo au zuon aurrean. Bermeo erri euskaldunera etorri gara Bilbo eta Mungia aldetik, euskerearen egun eder eta zoragarri bat gertetako asmoagaz eta gure izkuntza zaarraren bidez poza ta atsegiña sentidu eta sentiduerazo gurarik. Ori da gure asmoa beintzat. Gizona beti zorionaren atzean ibilten da iñoz asetuten ezpada be. Gure lege nagusia da ori: zelan zoriontsu izan, eta gaur be orretarako bildu gara emen guztiok, ia zorionaren jaube egiten garean, gaur beintzat. Baiña gaur zorion ori gure guraso zaarren eta gure gurea dan euskera maitagarriaren bidez izango dogu, ainbeste ta ainbeste gomuta gozo eta pozgarri biotzetara ekarten deuskun gure izkuntza sendoaren bidez. Ondo dakigu danok euskeraz egin izan dogula guk barre eta negar, euskeraz izan doguzala pozaldirik andienak, euskeraz errezau izan dogula larrialdietan eta bear izan dogun ordu guztietan, euskeraz egin izan dogula amets, euskeraz kantau izan dogula, euskerea dala barruko muiñetaraiño sartuta daukaguna. Eta egia esan, gaur gure etxean legez egongo gara emen, familia andi bat bagiña legez, alkarren arteko errespeto andiagaz barruko poz andi bat sentiduko dogulako guztiok. Eta gaurko egunak iges egiten dauenean, eta gure zeregiñetara eta bearretara goazala, akordau gaitezan sarri gaurko anaitasun onegaz, gaurko egun euskaldun onegaz.

Ezta denpora asko Euskaltzaindiak Bilbon jaialdi andi bat egin ebala errietatik zear bertsolariak, euskal teatroa eta euskal kantak geroago ta geiago zabaldu eitezan eskaturik. Eta gaur Euskaltzaindiaren izenean ori esan barik eneunke itxi gura. Badakit Bermeo erri andia dala kantuan, beste erri asko eztan aiñakoa. Badakit Bermeok biotz oso fiñ bat dauela. Badakit txistulariak be bertan dozuezala onenak. Badakit guzti ori, baiña alan da guztiz be geroago ta sendoago ekiteko diñotsuet, daukazuen doe ori galdu eztakizuen eta zuon ondorengoeri obetuta eta sendotuta itxi deiezuen.

Baiña beste erri batzuetan egiten dana jakiteak kalterik bape egiten ezteuskun ezkero, eta mesedea bai galanta, besteak baiño obeak izanagaitik be gauza askotan, Ondarrun egin dabena imiriko deutsuet begien bistan. An, batu egin dira erriko guztiak, kantari, musikalari, bertsolari, teatrugille eta guztiak, eta danen artean euskaldun talde indartsu eta on bat egin dabe, begiratu barik nortzuk direan zuriak eta nortzuk baltzak, nortzuk berdeak eta nortzuk urdiñak, danak batu dira, erri osoa. Emen dozuez Mungiakoak be eta an be olango zerbait egin dabe eta erriaren izena geroago eta gorago iminten ari dira. Onegaz, batasunak dauen indarra erakutsi gura deutsuet, eta Bermeok be beste ainbeste egin bear leuke, danon artean erriaren izena urrezko liburu batean eskribidua izan daiten.

Batu guztiak, itxas-gizon eta lurtarrak, aberatsak eta pobreak, jakitunak eta gitxiago dakienak, eta bakotzak bere neurrian laguntasuna emon gure erriko jakituria eta bizimodua indartuteko, gure bertsoak bizirik iraun daien,

gure teatroa iñongoa baiño obea izan daiten, gure euskal-kantak poza ekarri deiguen biotzetara. Eta seguru egon gure nortasunean geroago ta sendoagoak izango gareala. Olan izan daitela opa deutsuet.»

MISIOAK EUSKERAZ BILBON

Aurtengo misioak Aita Aguirreche eta Aita Anasagasti frantziskotarrak predikatu dituzte San Juanetako eleizan, martiko 2-an asi eta 8-rarte. Jesusen Biotz Sakratuaren eleizan Aita Iñazio Goicoechea jesuitak egin zituen neskameenak aste berean. Jente asko batu zan.

Indautxuko jesuiten eleizen leendabiziko ostiraletako komunioa egiten jarraitzen da illero, meza bitartean euskerazko sermoi ta guzti.

AITA OLABIDE ZANAREN GORAZARREA GAZTEIZEN

Martiko amabostean Euskaltzaindiak Gazteizeko Ayuntamentuaren eta Arabako Diputazio Foralaren laguntasuna izanik Aita Raimundo Olabide zanari gorazarre aundi bat egin dio Arabako erri nagusian. Olabide Gazteizen jaio zan gorazarrea egin zitzaion egun berean, eta nola San Pedro Elizan bataiatua izan zan, meza nagusi bat egin zan bertan bere izenean. Gazteizeko koru batek parte artu zuen. Gero, amaika ta erdietan Teatro Printzipalean izango zan bere gorazarre-jaia. Teatro inguruan dotoretasunezko kutsu bat nabaritzen zan eta Euskalerriko toki guztietatik joandako jentea ikusten zan. Toki nabarmenean jarri ziran Euskaltzaindiko buruzagia, euskaltzain batzuek, Vera Fajardo jauna Ayuntamentuaren izenean, Jose Maria Urquijo jauna Diputazioarenean, eta Ormazabal jauna Apezpikuarenean.

Teloia zabaldu zanean Aita Aingeru Goenaga eta Vera Fajardo jauna agertu ziran. Beren atzean Euskaltzaindiaren ezkutua zegoan eta aren aldamenetan Gazteizekoa eta Arabakoa, mazeru bi agertzen ziralarik inguruetan zaintzen bezala. Vera Fajardo jaunak esan zituen leendabiziko itzak Gazteiz erriaren izenean. Esan zuen nola Gazteizek ohore aundia artzen duen Aita Olabide bezalako seme bat izanik, eta nola aren nortasun nagusia Kristoren dotriña euskeraz zabaltzen agertu zan. Urrengo Aita Goenaga mintzatu zan, bere makalaldiagatik Aita Manzisidor-en utsunea betetzen zuela. Jesusen Konpañiaren izenean itz egin zuen eta bere itzaldia argitaratua izan da amabi orrialdeko liburutxo batean. Eta itzaldien ostean jaialdia asi zan. Leendabizi Txirinbil Gazteizeko Ayuntamentuko taldekoak dantzan ekin zuten. Gero Ondarrutarrak «Jaunaren bidetan», amar ataleko agerkizuna: I. Erramu artean. II. Jerusalem. III. Azken afaria. IV. Getsemani. V. Judas. VI. Pilatosen etxean. VII. Jerusalemgo alabak. VIII. Kurutzean. IX. Bakartadean. X. Aleluia. Ia eun ondarrutarrek parte artzen dute Agustin Zubicaray-ren obra eder onetan, eta an zeudenak arrituta gelditu ziran, ikusirik nola zentzun eta sentimentu osoa jartzen duten pasioko obra erdiragarrian. Bai korua, bai personajeak eta

bai mimika kontua, dana oso ongi lotua eta kateatua dago gai nagusira, eta Ondarruko izkera-azentuak gozatasun aundia ematen dio. Bildur gabe esan diteke Bilbon ilbeltzeko 4-an egin zutena atzean gelditu dala eta pausu seguruz eta abiadura aundiz aurrera dijoaztela. An zeuden ikusleak kanpora ateratzean aoan laudorioa eta goresmena besterik etzuten, eta uste dugu, aste guren guztietan Ondarrun obra au jartzeko asmotan diran ezkero, zeaztasun geiagori jaramon egingo diotela oraindik denboraren barrena, eta gauza ezin obe batera iritxiko dirala, ondarrutarren izena geroago eta gorago ipiñirik, orain oso goian ipiñi badute ere.

Eredu ederra, Ondarruko erriak beste erri euskaldun askori ematen diena. Alde batera utzirik koloreak, guztiak batu dira euskeraren inguruan, euskerazko teatroan, eta esan dute: gauza guztien gaiñetik danok gara euskaldunak.

Gazteizeko gorazarrearen ostean, martiko emeretzian, Bilbon izan dira Gazteizeko programa bera ekarririk. Arrakasta aundia izan zuen Bilbon ere, eta entzun zuen euskaldun askok, bere aoz esan zituen Gazteizekoaz aldez aurretik entzundako laudorioak.

ASTRABUDUAKO KURUTZE-BIDEA

Aurten ere, igaz bezala, ostiral santuz kurutze-bide bizia egingo zala jakiñerazi zan, illunpetan zuziekin argi agiñik, Astrabuduako bideetatik zear tontortxo bateraiño. Astrabudua Bilboko eremu barruan dago. Baiña nola eguraldi oso txarra zegoan etzan egin eta urrengo egunean egin bear izan zan. Egonaldiak, kantak, sermoiak, eta gaiñerako guztia euskeraz eta erderaz, bietara, egin ziran.

Bilboko frantzizkotarrak ere ostiral santuz, Astrabuduakoa bukatutakoan, beste ainbeste egin nai izan zuten ango antzera eta gisara, euskearz eta erderaz auek ere, baiña eguraldi txarra.

XABIER PEÑA EUSKERA IRAKASLEARI GORAZARREA

Bilbon, aprillaren 29-an, ikasleak gorazarre bat egin diote Euskaltzaindiaren etxean Xabier Peña jaunari larru-paper dotore eta ongi apaindu batean guztien firmak eskeiñirik bere urte egunaren bezperan.

Gorazarre onen arrazoia izan da amar urte bete dituala euskera irakasten zintzo eta biotz osoz. Peña jaunak itz batzuek esan zituen eskerrak emanik, eta aurrerantzean ere, Jaungoikoak nai badu, bere burua oso osoan orainarte bezala, irakas-lanetara beartzen duela adierazi zuen.

«WESTERN BASQUE FESTIVAL».—RENO, 1959-VI-6, 7.

Bilbon 1959-V-27.—Castor Uriarte jauna.—BILBAO.

Nire jaun agurgarri ori:

Itz auen bidez, eta Euskaltzaindiko buruzagi bezala, nire ordezkaritza ematen dizut aurten egingo dan «Western Basque Festival» —erako.

Nai genduke, nire izenean eta Euskaltzaindi osoaren izenean, an bizi diran euskalduneri agur bero bat eraman dezaiezun. Gure elburua euskera indartzea eta sendotzea da, bai Euskalerrian eta bai kanpoan bizi diran euskaldunen artean. Eta guztion laguntasunarekin lanean ekingo diogu aal degun neurrian geroago ta gorago jazotzen gure izkuntza eder eta bikaiña, eta aintzat artua izan dedin gauzarik baliotsuena bezala euskaldun guztien artean. Eta orretarako euskaldun guztien laguntasuna bear degu, laguntasun orren truke gure frutua eskeintzeko.

Euskaltzaindiak poz aundia artzen du ikusirik Nevada-n ain jai aundia egiten dala Ipar-Ameriketako euskaldunen artean, eta ezin utzi dezake bere esker ona eta biotz osoa eskeiñi gabe.

Nire jaun agurgarri orrek, bada, eraman ezaiezu ango gure anaieri Euskaltzaindiaren eta Euskalerri osoaren borondate bizi au.

Biotzez,

EUSKALTZAINBURUA: **Ignacio Maria Echaide.**

Castor Uriarte jaunaren itzaldia Reno-n

Euskaldunak, Agur:

Erdaldun idazlari andi batek esan eban Bizkai'ko semiak, eta ni bizkaitarra naz, berbeta laburrak eta egintza luziak daukiezala; orregaitik, idazlari ori ez guzurtetako, nire itzaldia laburra izango da.

Euskaltzaindiko lendakariak bere ordez ona etorteko izentau ninduanian, jai eder au ikusteko, guztiz ikaratu nintzan. ¿Nor zara zu, Ispazterreko Uriarte baserri txikiko asabakandik urtena, pixu ain aundia zeure sorbaldan eruateko? Baña Begoña'ko Ama ikusten juan nintzan, bertan konfesau, gure Jauna artu, eta gero Gernika'ko Arbola Santuaren aurrian, negar tantak urtenik neure begietatik, eta biotza dardaraz, Iparragirrek esan eban lez neuk be esan neban: Banua Ameriketara, an anai asko dagoz eta neure anaitasuna agertzen; eta orregaitik emen, poz-pozik nago zeuen artian, Euskaltzaindiaren izenean.

¡Zer ikusi dabe gaur neure begiak emen! Meza santua, zeuen siñismena erakusten, gero kantuak, dantzariak, aizkolariak eta abar, eta guztien ganetik zuen espanetan geure euskera zar, eder eta maitia, ez bakarrik Euskalerrian jayotakuak, baita zuen seme-alaba Amerika'n mundura etorri diranak. ¡Ze gauza ederra ta zoragarria!

Orain amabi Universidadetan Europa zarrian, gixon jakitunak lanian diardue geure euskeria nundik datorren jakin guraz, eta bere sustrayak aztertu guraz, eta ezin asmau; eta diñoe gure izkuntzia isla bat dala, «isolated language». Oraindiño ez dira amabost egun Barandiaran abade guztiz jakitunak, Foru'ko koban lanian eguala, Gernika'tik urrian, esan eustala: euskaldunak sei edo zazpi milla urte, gitxienez, Euskalerrian bizi dirala, eta baita geure euskeria be. Markiña'ko baserritarrak, euren pelotariakaitik esaten dabe; ¿Munduan, eguzkipean, obarik badago? Eta nik gaur emen, arrokeri barik, baña bildur barik diñot: ¿Munduan, eguzkipean, geure Euskalerria eta geure euskera maitia baño oberik badago?

Jarraitu ba euskeraz eta erakutsi zeuen seme-alabari. «Euskalduna»-k euskera dabena esan nai dau, eta «Euskalerria», euskera egiten dauan erria. Orregaitik, zuek emen euskera egiten badozue, Euskalerrian zagozie.

Gure Euskalerria guztiz txikiña da; ogei milla kilometro bakarrik daukoz, eta Naparruak bakarrik Euskalerri guztiaren erdia baño geyago. Ta ¿zer da ori Nevada, Idaho eta beste Estadu Amerikakuak ikusita? Baña erri aundi au orain berreun urte askatusuna lortuta «Federal Democratic Republic» izenaz eratu zan. Guk barriz milla bider lenago euki gendun geure askatasun ederra, menpeko barik, besteen jabetasunak gordeten ziran, geure auzoko erriak zapaldu barik, ta gañera geure siñismen eta oitura ederrak; eta emoniko berbia, idatzi ezarren, iñok ezeban ukatuten. Orregaitik zuek emengo lege ederrak, zigur nago, iñok baño obeto gordetan dozuezala; agaitik bildur barik esan leie emen dagozan Amerikako Agintariei: ¡Jaunak, ez dozue topauko zuen errian Euskaldunak baño gizon on eta erritar obarik, zuen legien antzekoak eurak bere euren sorterrian euki dabezalako! Amerikako Agintariak, ¿munduan, eguzkipean, badago euskaldun artzañak lakorik?

Eta orain zeozertxu geure etxeko-andrari, geure neskatilla lirain eta garbieri. Zeuen biotz eta oitura ederrak, eta zeuen aita eta amak erakutsitako siñismenak gorde; beti zeuen lanak asi-aurretik «Gurutze Santua» egin eta zuen gixon eta semiei irakatsi Jaungoikuaren lege barruan biziten.

Baña amaitu biar dot, ez orraitiño Euskaltzaindiaren eta ango anayen eta neure izenian, guztioi agur eta besarkada sutsu bat emon barik. Eta Enbeita bertsolariaren antzera diñotsuet:

Anayak gariala Lapurdi, Benaparroa ta Zuberotarrak, Anayak gara baita be Bizkai, Gipuzkoa ta Arabarrak. Anayak dira Naparrak, naiz Europa edo Amerikakuak. Danok «Zazpiak bat» -en semiak. Goratu daigun geure euskeria eta geure Euskalerria.

Agur.

BILBAO, 27-7-59.—Sr. D. Ignacio M.ª de Echaide.—Presidente de la Academia de la Lengua Vasca.—Ribera, 6.—BILBAO.

Muy distinguido Sr.:

Llevando la tan honrosa representación que me otorgó en carta fechada el 1.º de junio último, acudí al «Western Basque Festival», que tuvo lugar en Reno (Nevada), los días 6 y 7 del citado mes, acompañado de mi hija María Izíar, que habla el inglés, idioma que yo desconozco.

Al atardecer del día 5, nos personamos en Reno, acompañados del P. José Peña (S. J.), eibarrés, que reside en San José (California) y con quien nos une una vieja amistad; era el encargado de predicar el día 7 en la Catedral de Santo Tomás de Aquino, en la Misa que se celebró en sufragio del alma del Senador Mr. Pat Mc Carran y a continuación rezar un responso ante su tumba.

Nos presentamos en «Cardinal Way, 650» (Tfno. F. A. 3-5426), que resultó ser el domicilio del Secretario Mr. Robert Laxalt, a donde acudió a nuestra llamada Mr. Peter Echeverría, Presidente.

Mr. Echeverría, Abogado y Senador por el Estado de Nevada, nació en U. S. A., pero es de padres vizcaínos y habla correctamente el euskera; es persona de gran prestigio, de gran simpatía y vitalidad.

Mr. Laxalt, nació también en U. S. A., pero es de padres vasco-franceses y entiende pero no habla el euskera; se formó en la Universidad de Santa Clara de Carson (Nevada) y es director y redactor del periódico de la Universidad y redactor del «Wal Street Journal». Es autor del libro titulado «Sweet promised Land», cuyo preámbulo dice así: «Urrun bizi naiz, bainan bihotzez zuekin»; en él describe la vida de su padre Dominique, pastor de ovejas, y las reacciones que sufrió en su visita, de vuelta, a su patria natal.

Ambos viven en Reno: Mr. Laxalt en las señas antes apuntadas y Mr. Echeverría en: Residence 1855.—Sierra Lage Ln.—Reno (Nevada).—Tfno. F. A. 2-7919.

Fuimos instalados en el «Nevada's Mapes Hotel» cuyo Gerente, nos dijo al saludarnos, que se honraba con que fuéramos sus huéspedes y que quedábamos invitados por el Hotel los días que íbamos a residir en Reno.

El día 6 fuimos invitados a almorzar a la casa de Mr. Echeverría, con un gran número de familiares suyos, todos vascos y que hablaban el euskera y después acudimos al Campo de Aviación, a recibir a los Embajadores de España y Francia, con txistu y tamboril, tocando el «Agur Jaunak» y en su honor los danzaris del Boise, ejecutaron varios bailes vascos.

La cena oficial tuvo lugar en un salón del Casino de Mr. Dick Graves Nugget en «Sparks», cerca de Reno; este señor, que es americano, está casado con una lequeitiana y por ello se encargó de organizar por su cuenta, el banquete del día 6 y el festival del día siguiente, por lo cual se vieron algunos detalles que nada tienen que ver en un festival vasco, como la actuación, du-

rante la cena, del grupo «Los Churumbeles» (que actuaban en el Casino aquellos días), con canciones y bailes flamencos y una jota aragonesa que tuvo gran éxito, por su parecido, sin duda, con el fandango; y la gran cantidad de carteles murales de las corridas de toros de Sevilla, Linares, etc., que adornaban las paredes de cierre del terreno en que tuvo lugar el festival del día siguiente.

Durante la cena, a la que acudimos algo más de 300 personas de ambos sexos, entre ellas Autoridades del Estado de Nevada, se puso la cinta magnetofónica que llevé de Bilbao, con música y cantos vascos, pero con el bullicio del banquete no se les prestó la atención debida, si bien, al final, el himno «Gernikako Arbola» fué escuchado por todos de pie, en gran silencio y muy ovacionado al final.

Después del banquete, hablaron en inglés el Gobernador del Estado de Nevada y los Embajadores de España y de Francia y Mr. Echeverría en inglés y en euskera; finalmente, tuve el honor de hablar yo ostentando su representación, en euskera. La nota de lo que dije la tiene el Sr. Irigoyen. Después actuó el grupo danzari de Boise y dos danzaris de New York, alternando con «Los Churumbeles» y se siguió bailando en un gran entoldado vecino.

Al día siguiente tuvo lugar la Misa, que estuvo concurridísima, y la visita al Cementerio, a que antes he hecho referencia y luego el banquete popular en un terreno inmediato al Casino de Mr. Graves. Me informaron que se despacharon 5.000 comidas.

En un tablado, con micrófono, volvimos a hablar Mr. Echeverría (casi todo el tiempo en euskera) y los dos Embajadores en inglés y yo en euskera; después hubo concurso de aizkolaris, levantadores de piedra, etc., y a continuación nueva actuación de los danzaris de Boise y New York y de «Los Churumbeles». Se volvió a poner la cinta magnetofónica y de nuevo se escuchó el «Gernikako Arbola» por todos los asistentes, de pie y haciendo coro. Después hubo baile hasta medianoche, alternando el txistu y tamboril con un grupo de acordeonistas de Boise.

La labor de Mr. Echeverría, desde el micrófono, fué constante y llegó agotado al final.

Al día siguiente, salimos para Boise, en el autobús en que iban los danzaris, que no pararon de cantar en todo el camino y de bailar en los pueblos que atravesábamos; al anochecer llegamos a Boise y nos hospedamos en casa de un muchacho bilbaíno, pero de padre guerniqués, a quien yo conocía desde niño.

En Boise fuimos saludados por gran número de vascos, casi todos vizcaínos (en Reno hay más navarros y vascofranceses), y visité el «Basque Center», edificio de nueva planta para tal fin, que es un centro de reunión y de recreo. Me reuní con su Junta Directiva y mostraron grandes deseos de recibir una cinta en la que se proyectaran bailes vascos típicos y sencillos, pues tienen gran interés en mejorar su grupo de danzaris. También mostraron grandes deseos de que volviera por allí el Sacerdote don Francisco Aldasoro, de Se-

gura, que ha hecho, según ellos, gran labor en los años que ha estado en Boise. Yo creo también que ese Sacerdote, u otro de igual formación, sería de gran interés en aquella ciudad y este deseo lo deben de conocer nuestros Obispos.

Mr. Echeverría se quedó con la cinta magnetofónica que llevé de Bilbao y una colección de discos de música y cantos vascos que yo llevé también; otra colección quedó en el «Basque Center» de Boise.

Mis impresiones del viaje pueden resumirse en pocas líneas.

La emigración vasca a los Estados de California, Nevada, Idaho, etc., es la menos preparada intelectualmente de las que yo conozco, pero es admirable que hayan conservado el euskera (casi la totalidad no habla más que el euskera y el inglés) y que lo hayan enseñado a sus hijos, todos los cuales lo hablan perfecta y constantemente, conociéndose por su modalidad, el pueblo en que en nuestro País nacieron sus padres. En la siguiente generación si la madre es vasca, los nuevos hijos hablan también el euskera, pero si es irlandesa, noruega, etc. (tienen gran cuidado en elegir mujeres católicas, por miedo a las consecuencias del divorcio), aunque el padre hable el euskera, como éste está menos tiempo en casa con los niños, éstos ya no lo hablan.

Los hijos de los pastores vascos son ya de clase muy distinta: ejercen diversas profesiones y son muy considerados en América. Todos ellos tienen grandes deseos de conocer la tierra en que nacieron sus padres, aunque se consideran muy americanos; tienen a gala el hablar el euskera y con ellos tuve conversaciones muy interesantes, sobre la labor de la Academia de la Lengua Vasca, sus publicaciones en euskera, etc. y creo interesante establecer contacto con estos jóvenes, con los cuales se puede hacer gran labor por el euskera y la cultura euskérica.

Viven en Reno los señores Echeverría y Laxalt; en Boise, por ejemplo, hay dos elementos muy buenos: José María Sangróniz Eguíluz, técnico electricista (3717, Hawthorne, Boise-Idaho) y Arbert Azurmendi, técnico de Arquitectura (1220 Idaho St.), que trabajan en la Idaho Power Co., empresa eléctrica muy importante. Todos estos elementos, con otros de igual formación intelectual, trabajarían encantados en favor del euskera, enviándonos desde allí las informaciones que se les pidiera y recibirían notas euskéricas para las emisiones de TV., periódicos, etc. y toda clase de publicaciones.

Finalmente Sr. Presidente, me atrevo a formularle una sugerencia: que nombren Vds. Académico correspondiente a Mr. Peter Echeverría, que habla bien el euskera y es una personalidad de relieve. Espera venir por aquí en junio próximo, en unión de Mr. Laxalt y sus familiares. Yo creo que le haría una gran ilusión y sería para Vds. un elemento eficiente.

Esto es todo. Perdone mi tardanza, pero soy hombre que tengo gran labor en mi estudio de Arquitecto, y los quince días de viaje por América he tenido que recuperarlos ahora trabajando intensamente.

Eskerrik asko, Lendakari jauna, izentau egin nozulako zeure ordez Amerikara juateko: alegiñak egin dodaz neure lana ondo betetako eta orain eta beti emen nago Euskaltzaindia eta geure euskerearen alde ekiteko. Biotzez besarkada sutsu bat.

C. de Uriarte.

BAYONAKO BATZARREAK

Bayona-ko Musée Basque-n batzarre batzuek izan dira eskoletako irakasbideez iru egunetan. Ain zuzen ere, aurrerapide aundiak egin dituzte, euskera eskoletan sartzeko legearen bidez, Bidasoaz gorako euskaldunak. Azkenengo egunean, arratsaldez, Eppherre jaunaren Euskaltzaindian sartzea egin zan Euskaltzaindiak batzarre egiriko bat egiñik. Ona emen Euskaltzaindiaren agiria:

«Baionan, Musée Basque-n, 1959-VIII-29.

Eppherre jaunaren sarrera itzaldia.

Maipuruan egozan: buruzagiaren orde Dassance jauna, eta Oleaga, Gorostiaga, Lojendio, Lecuona, Villasante, Elissalde, Arrue, Irigaray, Michelena ta Lafitte jaunak.

Ainbat urgazle egozan entzuleen artean.

Oleaga jaunak emoten ditu arautegiaren zeaztasunak eta diño zelan bi euskaltzaiñek ekarri bear daben euskaltzain barria. Irigaray ta Arrue joan dira dei egiten eta guztion aurrera dakarre. Dassance jaunak berba batzuk esan eta Eppherre jaunak egin dau itzaldia. Elissalde jaunak erantzun deutso. Arrue jaunak esan ditu azkeneko berba bizi batzuk. Eskua emon jako euskaltzain barriari eta makilla bat eskeiñi.

An gengozan euskaltzain ta entzule guztiak ago batez «Gernikako Arbola» kantau dogu.»

BIZKAIKO BERTSOLARIEN BIGARREN SARIKETEA

Uda osoan ekin da Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketa egiten. Aurten Bizkaia bost zatitan partitu da eta toki bakoitzetik txapeldun bat atera da Bilboko azken txapelketa nagusirako. Valentin Enbeita igazko txapelduna, libre gelditzen zan Bilborako. Txapelketak egin diran erriak auek dira. Urkiolan, San Antonietan, bagillaren 13-an. Bost bertsolarik parte artu zuten eta Jose Alberdi Mañarian bizi danak irabazi zuen. Mungian. San Pedro bezperan, bagillaren 28-an. Zazpi bertsolarik parte artu eta Juan Ormaeche Larrauri-koa txapeldun. Bermeon, San Pedroetan, bagillaren 29-an. Bost bertsolarik parte artu eta Deunoro Sarduy Muxikakoa txapeldun. Markiñan, Karmenetan, garagarrillaren 18-an. Zortzi bertsolarik parte artu eta Juan Azpillaga Ondarrun bizi dana txapeldun. Zeanurin, Andra Marietan, agustuaren 15-ean. Iruk parte

artu eta Basilio Pujana bertako semea, txapeldun. Errietako sariak auek ziran: Lendabizikoa milla pesetakoa eta Ayuntamentuaren kopa alkatearen estutik artua. Gaiñerako guztiak bosteun peseta bakoitzak. Zeanurin bertako familia batek emanikako kopa bat ere izan zan puntua ondoen bukatzen zuen bertsolariarentzat eta Jose Maria Arteche-k irabazi zuen.

Txapelketa auen inguruan, egin dira beste toki batzuetan ere, sariketatik kanpo. Ondarrun Agustuaren 16-an bertako Ayuntamentuak jarri zuen sariketa bat joan nai zuten bizkaitar guztientzat eta Juan Mugartegui-k irabazi zuen Azpillaga-ren aurretik gelditurik. Urrengo egunean Bilborako aukeratuta zeuden bertsolariak ekitaldi eder bat egin zuten Gernikan alkar probatu eta gertatzen ziran bitartean. Eta azkenez allegatu zan Bilbokoa, Agustauren ogetaamarrerako izendatua zegoan Ayuntamentuak prestatzen dituen Bilboko jaien barruan, baiña altabozakin estroposo bat izanik aste bete atzeratu bear izan zan. Bilboko Arenalean amar milla personatik gora zeuden Bizkaiko erri askotatik etorriak adi adi entzuteko bertsolarien ateraldiak eta zuurtasunak. Valentin Enbeita-k irabazi zuen txapela. Artaz gaiñera Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia, eta Bizkaiko Ahorro Kaxa-ren iru milla peseta. Bigarrena Azpillaga-k, Bilbaiko Ahorro Kaxa-ren kopa ederra eta milla peseta. Gaiñerako guziak, berriz, milla peseta bakoitzak.

Bizkaiko Ahorro kaxa-k Bilboko sariaz gaiñera amar milla peseta eman zituen errietako sarietarako.

Bilbon azken txapelketa nagusia egin zan egun berean, goizean, Lekeition izan ziran seirak. Eta azkenez urrillaren 11-an Durangoko frontoian, eta egun artan txapelketetan parte artu zuten bertsolari guziak, juradukoekin batera, bazkari bat izan zuten Hotel Alzaa-n, batzarre polit bat gertaturik.

Bilboko azken txapelketa nagusian Euskaltzaindiak euskeraz ta erderaz orri bat zabaldu zuen. Ona emen ziona, euskeraz:

«Euskaltzaindiak Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketearen amaieran esker beroak emoten deutsiez Bizkaiko Diputaziño, Bilboko Ayuntamentu, Bizkaiko Ahorro-kaxa, txapelketak egin direan errietako alkate jaun, eta baita euren ekintzeagaz gure izkuntzearen edertasun oneri bizia emoten alegindu direaneri.

Gure erriaren aberastasun au gordetan alegiñak egin doguz orainarte, eta komeni danean be bardin ekingo deutsagu, izkuntzea zainduteko, gordetako eta aberastuteko benetako gogoa iminirik. Gura geunke gure ekintza onek euskaldun guztiak batuteko balio daien, edozein dala bere pentsetako modua eta bizimodua, guztiona dalako gure aurretikoengandik artu dogun aberastasun parebagea.

Guztieri dei egiten deutsagu eta baita euskaldun eztireaneri be, gugaz bizi izanik eurenak legez artzen dituezalako gure gauzak.

Gure gurasoen izkuntzea gordetako lan egitea eskubideagaitik lan egitea da, eta baita berezko gauza bategaitik be.»

LORAMENDI-REN GORAZARREA BEDOÑA-N

Iraillaren 20-an gorazarre aundi bat egin zitzaion Bedoña-ko bere jaiotetxean «Loramendi» euskal poetari. Jente asko ta asko bildu zan baserriaren aurreko landa luzean, milla batzuek. Leendabizi meza bat esan zan.

Bukatuta Loramendi zanaren amak estalita zegoan oroitarria agerian jarri zuen, eta bedeinkatu egin zan. Eta ostean jaialdia asi zan. Dantzariak leendabizi, Gero zenbait aurrek Lormendi-ren poesiak esan zituzten sariketan aldez aurretik finkatu zan bezala. Arrue jaun euskaltzaiñak itz eder eta mamitsu batzuek esan zituen. Txistulariak. Basarri ta Lizaso bertsolariak. Eta azkeneko, sariak eman ziran, neskatilla ta mutikoenak, eta bai gaiñerako literatura-sariak, **Gernikako Arbola** danak batera, an zeuden guztiak, ao batez kantaturik.

Eskerrak eman bear zaizkie sarietarako dirua eman zuten euskalzale ta entidadeai. Eta zertan esanik ere ez prestaerak egiten aritu ziranai, batez ere Bernabe Berecibar jaunari.

Gero bazkari bat izan zan. Eta bertan parte artu zuten: euskalzale, euskaltzain eta Arechavaleta ta Mondragoeko autoridade egintza guztien buruko egin zutenak. Euskeraren alde gogoa biztutzen ari dala dirudi.

EIBARKO EUSKALZALEEN BILTZARRA ETA GIPUZKOAKO BERTSOLARIEN AZKEN TXAPELKETA NAGUSIA

Azaroaren 6, 7 eta 8-an Eibarrek euskalzaletasunezko egun ederrak bizi izan ditu. Euskaltzaindiak Irugarren Euskalzaleen Biltzarra egin du Ayuntamentuko gela dotore batean. Goizean goiz, ara eldutakoan, alkate jaunak agurrezko itz eder batzuek esan zituen eta asi ziran itzaldiak. Gai gorena Mogel eta literaturaren problema nagusiak zan. Itzaldi ederrak egin ziran eta nola urrengo **Euskera**-n argitaratuko diran eztegu ezer esango aietaz. Lendabiziko egunean, eguerdian, Garavilla-ren pintura erakusketa bat zabaldu zan Ayuntamentuko gela batean. Arratsaldean eta gabean Amaya teatroan euskal teatroa egin zan. Elgoibar-ko teatrugilleak ondo agertu zuten personajeen izate-moduai indarra ematen oso trebeak dirala. «Aitona ta Billoba» Garitaonandia-ren obra izan zan eman zutena. Artaz gaiñera Eibar-ko koralak euskal kanta batzuek eman zituen, oso ondo. Izan zan bakarrizketa bat ere. Urrengo goizean bukatu zan Euskalzaleen Biltzarra, eta ordu batetan Club Deportivo-an arretratu-erakusketa bat zabaldu zan eta janari ta ardoa eskeiñi zien biltzarrera joanekoai bertakoak. Arratsaldean aurren esamiñak egin ziran Ayuntamentu aurrean. Egun artan, alkatearen eskabidez, eskola ta kolejioetan jai izan zuten aurrak, esamiñetara joan aal izan zitezen, eta plaza osoa aurrez beterik zegoan. Errezago egiteko mikrofonoaren aurretik pasatu ziran bana banaka parte artu nai zuten aur guziak eta kanta eta ipuin gozoak esan zituzten. Arratsalde ta gabean Amaya teatroan jaia egon zan. Bilbotik joandako Gaztedi-ko dantzariak. Robles Aran-

guiz neba arrebak. Paulino Larrañaga eibartarrak bakarrizketa barregarri bat egin zuen Eibarko euskera jator batean, eta jentea atsegiñez baterik egon zan. Urrengo goizean Eibarko dantzari batzuek, Gaztedi-koak eta zenbait tokitako aurreskulariak parte artu zuten, eta aurrai sariak eman zitzaizkien, eta txistulariak konzertua eman zuten. Arratsaldean egin zan Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusia. Zazpi bertsolarik parte artu zuten. Uztapide, Lizaso, Michelena, Lasarte, Zepai, Aguirre (Aguinaga-n txapeldun gelditutakoa) eta Garmendia (Villafranca de Oria-n txapeldun gelditutakoa). Uztapide-k irabazi zuen. Gipuzkoako Diputazioaren makilla eta iru milla peseta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa-k emanak. Bigarren saria Michelena-k, Gipuzkako Ahorro Kaxa-k emandako kopa ederra eta bi milla peseta Eibarko Ayuntamentuarenak. Gaiñerako guziak seireun peseta bakoitzak Club Deportivoa-k emanak.

Amar millatik gora izan ziran entzuleak, eta, izan ere, adi adi egon ziran guziak denbora osoan eta iñork ezuen alde egin zutik egonagatik.

Eibarko Ayuntamentuak erriko kale bati Mogel-en izena ematea erabaki zuen.

Norbert Tauer jaunak Praga-tik Euskalzaleen Biltzarrari agur laztan bat bialdu zion, baiña berandu eldu zan. Itzez itz jarriko dugu emen:

«EIBAR'ko URI-Batzar agurgarriaren ardurapean EUSKALTZAINDIAK antolatutako EUSKALTZALEEN BILTZARRARI nere itzal aundiko diosala sutsua ta agurrik beroenak bialtzen dizkiot.

Garrantzi aundiko BILTZAR onek euskal-idazle ta jakintsu ospetsu MOGEL' en lan merezigarria euskaldunen begien aurrean ipiñi, ta, euskaltzale aundi orren ereduz, euskaldun zintzo guzien artean euskerarenganako maitasuna bizkortu nai du. Ez da naikoa aren oroimena gogoan gordetzea, baiñan bear-bearrezkoa da berak erakutsitako bidean, euskeraren onerako, etengabe jarraitzea. MOGEL bezelako gizonak bear ditu EUSKALERRIAK oraingo egunetan ere.

Oraingo BILTZARRAK beste xede garrantzitsu bat lortu nai du: aurren artean euskerarenganako garra piztutzea. Orregatik euskeraz obeto itzegiten eta idazten dakiten umeentzako sariketa bat eratzen du. Gazterian datza euskeraren geroa: euskera salbatu nai ba-degu, ezinbestekoa da aurrei euskera irakastea.

Gipuzkoa'ko bertsolarien txapelketa nagusiak ederki osatzen du Biltzarraren programa. Ez da ukatzekoa, bertsolariak euskerazko bertsoen bidez onen-onenean agertzen dutela euskaltzaletasuna, eta ontan dago bertsolarien norgeiagoketen garrantzia.

Atzerrietan bizi geran euskaltzaleok estimu aundian daukagu Euskaltzaindiaren lan merezigarria eta euskeraren aldeko lan ontan ondorerik onenak opa dizkiogu.

GORA EUSKALERRIA, GORA EUSKERA».

EUSKALTZAINDIKO URGAZLE BERRIAK

Peter Echeverria, Reno-n bizi dana. Agustin Anabitarte, Donostian bizi dana. Eta Jean Narbaits, Beguios-en bizi dana.

«DOMINGO AGIRRE» NOVELA-SARIA 1960

Bizkaiko Ahorro Kaxa-k zortzi milla peseta finkatu ditu Euskaltzaindiak urte birik bein ipintzen duen «Domingo Agirre» novela-sarirako. Lanak bialtzeko epea 1960 agustuaren leendabiziko eguna izango da, eta oiñarriak 1958 urtekoak bezalakoak.

AURKIBIDEA 1959

Luis Michelena.—*Sobre -a en nombres vascos de persona.* 5

Fr. Luis Villasante, O. F. M.—*Despojo sistemático de la lengua de Axular (III.—Capítulo I)* 11

S. Altube.—*Euskaltzaindiari* 43

N. Alzola.—*XIX'garren gizaldiko euskal izkribuak* 57

B. Fagoaga.—*Azkueren iztegi berritu eta osoturako* 63

Juan San Martín.—*Algunas consideraciones sobre el prefijo la en los topónimos* 79

Juan Gorostiaga.—*Los nombres vascos de los días de la semana* 87

Euskalzaleen Biltzarra 93

A. Irigoyen.—Agurra 95

Juan Gorostiaga.—Euskera bat edo unificación del euskera 96

Fr. Luis Villasante, O. F. M.—Bizitzatik urbil 101

A. Irigaray.—Lizarraga Elkano'koa 119

Juan San Martín.—Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz 127

G. Aresti.—Pedro I. de Barrutia, Mondragoeko eskribauaren GABONETAKO IKUSKIZUNA euskeraz eskribidutako lelengo teatruzko lana 139

Txillardegi.—Batasunaren bidea 150

A. Irigoyen.—Berbak eta izkuntza 173

Antonio Zabala, S. J.—Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914) (Gure erriaren literaturaren erakusbide) 183

Luis Michelena.—Euskal-itzak zein diren 206

Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz 214

Declaración de la Academia de la Lengua Vasca acerca del vocabulario del euskera 216

N. Alzola.—*Euskal-bibliografia* 219

Berriak eta gai laburrak 239

Gure illak 239

Lagun-izenak: GABON ETA SANTURUN 240

Toponimia de Ezcaray 241

Eusebio Erquiaga-k irabazi du 1958'garren urteko «Domingo Agirre» novela-saria 242

Euskal sariketea amar urtetik amairu urterako neska-mutil bizkaitarrentzat 243

«Loramendi» Fr. Joakin Bedoña-koaren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatu duen literatura-sariketa 244

«Loramendi» Fr. Joakin Bedoña-koaren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatutako literatura-sariketaren erabakia ... 245

Euskaltzaindiak urtero egin oi duen jaialdia 245

Euskal-konzertu nagusi bat Bilbon 246

Bermeoko jaia 246

Misioak euskeraz Bilbon 248

Aita Olabide zanaren gorazarrea Gazteizen 248

Astrabuduako kurutze-bidea 249

Xabier Peña euskera irakasleari gorazarrea 249

«Western Basque Festival».—Reno, 1959-VI-6, 7 250

Bayonako batzarreak 255

Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea 255

Loramendi-ren gorazarrea Bedoña-n 257

Eibarko Euskalzaleen Biltzarra eta Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusia 257

Euskaltzaindiko urgazle berriak 259

«Domingo Agirre» novela-saria 1960 259

Depósito Legal: BI - 1244-Año 1958